

MIKEL ARGINARENA

# Neronek bizi izandakoa



Utriusque Vasconiae

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du*

© Mikel Arginarena Otamendi  
© Utriusque Vasconiae  
Lehen argitaraldia: Donostia, 2014ko martxoan  
ISBN: 978-84-941044-6-6  
Lege-gordailua: SS 426/2014  
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.  
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailak:  
BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).  
Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)  
Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreproduktzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

# Aurkibidea

HITZAURREA .....	5
ERRAZKINEN DITUT ERROAK .....	9
Herri giroa .....	9
Eratzun salataria .....	24
Jolasak .....	33
Meza-laguntzailea .....	36
KABITIK IHES EGITEKO PREST .....	45
Tolosako sakramentinoetan .....	45
Arratiako Areatzan .....	58
Erroman .....	61
IKASTOLAN IRAKASLE .....	73
La Sallen lehenago .....	73
Ikastolen ordua .....	77
Basaurin Arizko ikastolan .....	86
Arizko Ikastolaren hedapena La Baskonia eraikinean .....	99
EIKE eta EEPA .....	122
Ikastola Pozokoetxera .....	129
Erljioaren arazoa berriro .....	134
Politikaren eragina ikastolan .....	140
DIKTADURA ETA GERO DEMOKRAZIA? .....	149
Euskara .....	157
Ordena Publikoa .....	161
Ekonomiaren kudeaketa .....	164

ETA ELIZA? .....	177
ETA INTELEKTUALAK? .....	197
PENTSIODUNEN AJEAK .....	203
Gure aurrekoen erretiroa .....	203
Gure pentsio sistema .....	205
Beren burua zaintzeko gauza ez .....	220
Kubatik itzulua .....	224
Antolatu beharra dago .....	227
BUKAERA BEZALA .....	231

# Hitzaurrea

Munduaren eta gizakiaren historia interpretatzeko mende- baldeko kulturari bi joera daudela esango nuke, eta kontraj- rriak gainera. Bata estatikoa eta dinamikoa bestea. Lehena izan da mendeetan zehar hobetsia: egile baten eskuetatik gure Lurra amaituta ateratzen eta zirkulu batean birakatu dabilen errealitate itxia da, denborak erantsi dizkion koska batzuk salbu. Natura bera litzateke horren frogar, bere “eterno retorno”an kateatuta, urtarok elkarri segika; lurra landu, erein eta uzta bildu, bere garaian gauza bera errepikatu eta errepikatu... Gizakia ere hor daukagu: zenbat aldatu gara ba axaleko nabardura batzuk salbu? Metafora bezala hor daukagu Adan eta Eba. Haiengandik gator denok eta haien itxura berekoak gara. Eraikin ideologiko horren oinarrian Jainkoa edo God, edo Dieu edo... jarri dugu. Berak egindakoak gara eta haragi bizian idatzi zizkigun hamar mandamenduak. Gaur arau etikoak deituko genituzke.

Gure garai hauetan, ordea, badirudi joera dinamikakoa inposatzen ari dela. Azkeneko bi mendeotan australopitekoko, neanderthal, cro-magnon eta gizakiaren bilakaera luzearen lekuko lireratekeen katebegi ugari ateratzen dituzte horretan ari diren adituek. Darwinek ustekabean atzemandako fenomeno batzuei esker, bide berrietan abiatu da gizakia bere iragana hobetu ezagutzen duen heinean.

Eta guzti horren ondotik gizakia beste era batera ulertzen hasi dira asko. Gizakia hominizazio prozesu bat dela uste dute

askok, amaren sabelean dagoen umekia ez dela, hain zuzen, gizon edo emakume txiki bat, fenomeno biologiko hutsa baizik. Horregatik ez gara harrituko gure garaiotan zenbait punturen inguruan sortu den iskanbila ikusita; sexualitatea, homosexualitatea, abortua... dira eztabaidarako aukera gehien ematen dutenak, baina ez dira bakarrak.

Esan gabe doa, txikitatik bizi izan dugun mundu ikuskera estatikoa zela; are gehiago, “sinismen” bihurtuta jaso genuela. Baina gizakia “bera eta bere zirkunstantziak” bada, gure bizitzako zertzeladetan aldaketa nabariak jasango zituela espero izatekoa da. Eta une honetan erosoago sentitzen naiz “mundu ikuskera dinamikoan”. Agian ez naiz egile batek “egindako” gizaki hutsa. Agian ni ere neure buruaren egile naiz.

Bizitza osoko ibilbidea begien aurrean, hausnarketarako eta interpretaziorako denbora, gogoia eta aukera falta ez zaizkidanez, ur hauetan murgiltzea erabaki dut. Esan bezala, gizakia ez da jaiotzen, bilakatu egiten gara, eta ez urteak igaro hutsaren fruitu bezala, prozesu konplexu batean gizarte eta inguru osoago eta zuzenago bat egiteko ahaleginean konprometituta baizik. Duda-mudan batzuetan, ziurrago bestetzuetan, ematen ditugun urratsak nora garamatzaten beti ongi jakin gabe, eta helmuga gardentasunik gabe ikusten dugula. Badakit batzuek prozesu hori konfiantza handiz egiten dutela, edozein kasutan sare salbatzaile baten gisan, “Norbaitek” salbatuko gaituela pentsatuz. Batzuetan ez zait erraza suertatzen horrela pentsatzea, baina galdera bezala ez dit kalterik egiten. Aitzitik, sarritan pentsatzen dut gaurko gizakiari galderak egitea ahaztu egin zaiola eta horrek ez diola laguntzen bere hominizazio prozesuan. Erantzunik ez badaukazu ere, jarrai galderak egiten, urratsak ematen, geratzen zaigun bide bakarra hori da-eta.

Testuinguru honetan kokatzen dut hurrengo orrietan idatzi dudana, milaka giza belaunaldiren hasiera ilun eta amaiera lauso bat lotzen dituen bidearen puntu bat sentitzen naiz.

Horregatik azpimarratu ditut nire inguruko natura, jendea, lekuak... haiekin daukadan sinbiosia sakona iruditzen zaidalako.

Jendea esan dut. Ikuspuntu batetik begiratuta, txikitatik gaur arte izan dudan ingurune soziala ez da paradisu bat izan. Mundu guztiak aipatu du hemengo bortizkeria, hemengo hau, hemengo bestea... Ez dirudi lekurik aproposena duintasunez bizitzeko: arrotz gure etxean, funtsezko eskubideak ukatuta, sistema ekonomiko odol-zurruptatzailea, aberastasunez inguratutako pobreak... Baina bada beste errealitate bat uka ezina: ingurune ezkor hori gainditu aldera, herri honetan sortu den auzolana. Horren lekuko izateko zortea izan dut. Leku gutxitan bezala, herritarrak antolatu eta borroka egin dute, ordu asko sartu dira hemen etorkizungintzan, giza kalitate handiko jendea ezagutu dut. ETBn, Lehendakariari koroa eginez, hemengo aberastasun sortzaile bezala gizartearen txaloa jasotzera oholtzara igotzen diren enpresa gizonak baino askoz ere eraginkorrago izan da isil-isilik –eta sarritan baztertuta– milaka anonimok egindako lana. Eta gizakiak bere duintasuna sendotzeko eta gizabidean urratsak emateko Euskal Herria, gaurko Euskal Herria, oso toki aproposa dela iruditzen zait. Ze hautu egiten dugun da kontua.

Horren aldean, Mendebaldeko lurraldeetan hedatu den kontsumo kultural errazagoa al da gizaki duina sortzea? Ez ote da esklabotasunerako baratzerik aproposena? Begietatik sartzten diguten mundua mamitsua baino gehiago distira faltsuko bitxi bat dela esan liteke, Espainiako konkistatzaile haiek urrearen truke indioei ematen zizkietenak bezalakoa.

Egoera horri erantzun egokia ematen saiatzean datza gizaki duinak izatea edo ez izatea. Baldintza ezkorrak gainditzen egiten den saiakerak bultzatzen gaitu aurrera gizaki bilakatze prozesuan. Kontsumismoan murgildutako jendearen metafora egokia lirateke patean egiteko inbutua ahoan sartu eta gizentzen diren antzarak.





# Errazkinen ditut erroak

## Herri giroa

Txikitatik nire inguruko naturak bereziki erakarri izan nau, ez oso ederra delako bakarrik, betidanik hausnarketa interesgarriak eragin dizkidalako baizik Eta geroago, jainkoak mundua sei egunetan egindako lana ez baino, natura beraren haurdunaldi luze bezain aberatsa dela ohartu naizenean, are eta solasaldi beteagoak izan ditut harekin. Atsegin dut Aralar-ko gailurretakoren batera igo eta beheran ageri den guztian nire begiak pausatzea: lurraren tolesturak, han eta hemen sortu diren zelai eta sakanak, mailuetako malda ikusgarriak, arboladi eta belardiak...

Magiazko ukitu batekin bat-batean agertu den miraria baino maiteago dut urteen poderioz, astiro-astiro, itsas uretatik, lurraren barruko eragin bortitzen poderioz, bere burua ateratzen ari den mendi lerroa irudikatzea.

Gaur ezagutzen ditugun Malloen hasiera 2. Haroan kokatu beharko genuke, geologo adituen iritzian. Jurasiko garaian, duela 200 eta 150 milioi urteko tartean, Euskal Herria deitzen dugun lurra itsaso zabala zen eta han azpian, itsasoetan oraintxe bertan gertatzen den bezala, geruzak formatzen ari ziren, osagarri nagusi karea zutela.

Gero Kretaziko garaian, hau da, orain 150 milioi urte hasi eta 60 milioi urtera arte, poliki- poliki itsaso hori sakonera

galtzen joan zen Afrikako plaka tektonikoek hegotik eta Europakoek iparretik elkarrengana hurbiltzean egiten zuten bul-tzadaren eraginez.

Itsasoko uretan formatzen joan zen geruzan koralak ugari ziren eta euren maskorrei eskerrak arrezifeak sortu ziren. Arrezife horien gainean joan zen itxura hartzen gero gure lurra izango zena.

Duela 65 milioi urte inguru lehen aipatu ditugun bi plaka tektonikoek mugimendu indartsua eragiten zuten: tolestura alpearra deitutakoa. Ondorioz eta milioika urtetan zehar, mendikate handiak sortu ziren: Alpeak European, Atlas mendiak Afrika iparrean, Himalaia bera, eta tartean Pirinioak eta euskal mendiak.

Zaila egiten da gure buruan sartzea gaur gozatzen ditugun Mallo horiek, aspaldi batean, itsas azpian zeuden kare geruzak izatea. Horrelakoetan gure irudimena asaldatu eta kontrola ezina bihurtzen da. Ez ote gara ausarta xamarrek historia honetan jainkoa sartzeko eta hartaz dena bagenek bezala mintzatzeko? Nolakoa den, non bizi den, zer egin duen, zer esan duen...

Baina bestetik ezin uka gizaki xume honek amets egiteko eskubidea ere baduela; zergatik ez zituen, bere galderek eraginda, ipuin politak asmatuko eta hartzuloetako sutondoan haur txikiei kontatuko? Baina beti ere, ardoa bezala, bere neurrian. Ez dezala ipuin horietan kateatuta errealitatea bistatik gal.

Agian oraindik ez da amaitu erabat eragin hori eta hemen nago ni Mentoizko gainean nire herriari, Errazkini, Araizko bailarari eta Larraungoari begira, ezkerretara Gipuzkoako mendixkak ikusten ditudala eta eskuinetara Pirinio erraldoiak, udazkena izan arren, gainak dagoeneko elurrak txurituta.

Bai, atsegin dut ikustea mendi lerro horrek altxatzen joan den heinean, nola behera jalkitzen utzi duen harkaitza, harria, hondarra eta era guztietako hondakina. Eta horren gainean euriak eta haizeak eta hotzak eta beroak lan horri jarraipena

eman, eta azkenerako, hor hartuko du bere itxura guk eza-  
gutzen dugun inguruneak: lur ugarizko geruza, haren gainean  
ernatu den landaredia, goitik behera etorriko diren ur bideak,  
lurraren barnetik egindako ibilaldiaren ondoren iturrian ate-  
rako diren urak, halako errespetua ematen diguten hartzu-  
loak...

Gaurko gizakiak hausnarketarako astirik eta egokierarik  
ez duela aurkitzen esan ohi da sarri. Ez nuke gezurra denik  
esango, baina nik gaur ere inon aurkitzekotan, hortxe aurki-  
tzen dut nire buruaz zer pentsatzen dudan aritzeko abagunerik  
aproposena. Gaur, jada nire bizitzan aurrera egin eta azken  
txanpa hurbilago ikusten hasi naizenean, nabaritzen dut natu-  
raren erdian, mendiaren gainean eta erreka kantarien bazte-  
rrean bereziki, bakean sentitzen naizela, hizketan baino na-  
hiago dudala han begira egon. Eta ez Aralar delako; Gorbeian,  
Urbiongo gainean... berdin suertatu izan zait beti.

Nire etxeko ataritik han ageri dira aurrez aurre mendi  
lerroaren gailurrak: Beluta, Mentoitz, Tututurre, Hirimuga-  
rieta, Balerdi... Mila eta mila hirurehun metro arteko zilar  
koloreko harkaitz distiratsuak. Ehunka urte askotan, agian  
milaka, mendi hori beren izaeraren osagarri ikusi dute hemen  
bizi izan diren belaunaldiek, eta azken bi mendeetan Argen-  
tinako Panpara, Uruguaiako lurretara edo Ameriketako edozein  
bazterretara bizi beharrak bultzatuta joandako errazkindarrak  
—eta asko izan dira— mendi gailur horren irudiak burutik ezin  
kenduz bizi izan dira zeuden lekuan.

Malloak, hasieran esan bezala, Aralar mendi kateak behe-  
tik gora egiten zuen heinean gailurretik behera askatutako ha-  
rri eta gainerakoek sortutako maldak dira. Ez dakit izena non-  
dik datorren, baina Huescan ere badira, nahiz eta beste itxura  
batekoak, Riglosko Malloak deitutako parajeak. Haien izena  
latinezko “maleus” hitzetik omen dator. Gure Malloak, ordea,  
itxuraz erabat, bestelakoak dira. Gaur egun malda horiek lu-

rrez estalita eta belardi bilakatuta ageri dira eta duela 120 urte inguru baserritarren artean banatu ziren eta baserri bakoitzak hango belarra ebaki eta negurako gordetzen zuen. Izan ere, garai haietan herrian jende gehiago bizi zen eta solo eta belardiak nondik edo handik sortu beharra izan zuten. Belardi sail bakoitza “zotza” deitzen zen; ez dakit nik zozketarekin zer ikusirik baduen, agian zozketa bidez egin zen banaketa.

Herria eta Malloen artean esan liteke 300-400 metro-tako “falla” bat izan dela eta gune horri Mallopea deitzen diogu: garadi, baso, eta larrez osatuta dago eta lurra, Malloetakoa ez bezala oso ezegonkorra da lur azpiko ur filtrazio handien ondorioz. Errazkin bezala Intzako herria ere Malloen magalean dago eta han egiztatuta dago azken 200-300 urtetan lurrak beherantz tiratzen duela eta bertako eliza bera hainbat metro desplazatu izan dela garai horretan.

Herritik 40 minutu inguruko bidea dago Malloetara, alda-pan gora ia dena, eta gure txikitan, abuztuan jende ugari ibiltzen zen han belarra ebaki, ihartu eta etxera ekartzen. Mailuak aldapatsuak dira eta belarra garraiatzeko ezin zen idi edo gurdi edo zaldirik erabili; kable sistema bat zegoen Mailuetatik herriraino belar iharra zakutan edo ehunetan bilduta edo lokar-riroz lotuta garraiatzeko; “beteak” esaten zitzaien.

Gu, hamar-hamaika urteko mutil koskorrak, inolako arazorik gabe joaten ginen eguerdi aldera ari ziren familiakoei bazkaria eramatera. Adin horretako gaztetxoek lana bezala josten zen hura. Gehienetan koadrilan egiten genuen bidea, hitz jario ederrean. Bidean bazen iturri bat Oitako iturria, eta hura izaten zen atsedena hartzeko topalekua.

Udan bazterrak usainez betetzen ziren, atseginak denak ere: sagarrak, gerizak, segaz ebakitzen zen belarrak, belar ihar-rrak botatzen zuena... Basoan landaredia indar handia hartzen zuen eta bizitasunez lehertu beharrean sentitzen genuen. Orduan zen herriaren inguruan, koroa balitz bezala, zeuden zelai eta basoetara gehien joaten ginen urte sasoiak.

Usaina da segur aski gure memorian barrurago sartzen den zentzumena. Txikitako usain batzuek bizitza guztian irauten dute gainera. Batez ere neguan, eguraldiak kanpoan ibiltzeko laguntzen ez zuen egunetan, lagunuen baten etxera joateko ohitura genuen: batean gurera, bestean beste batenera, hurrengoan... Etxe gehienetatik pasatzen ginen. Ba harrigarria zen etxe bakoitzak zuen usaina nola zen ezberdina. Garia, artoa, belar ezberdinak, ukuiluak, ganbarak...

Gaurko jendearen bizitza erlojuak antolatzen du: umeak ikastolara, gurasoak lanera... Goizetik gaueraino alde banatara. Guk zutik ibiltzen ikasten genuen unetik, beti etxekoen presentzia hurbil geneukan. Aita edo ama baratzerara, belarretara, ganadutara joaten ikusten bagenuen, berehala bilduko ginen hara. Haiek egiten zuten lana zehaztasunik txikienetan ikusten genuen oinez hasi orduko. Guk eskolan ez genuen asko ikasiko baina handik kanpora zeinen aberatsa zen esperientzia.

Gaur alderantziz da: hartzen dugun janariak ze proteina, kaloriak... gauza pila bat ikasten da ikastolan, baina esnea edaten dugunean, ez dugu jakiten nondik datorren.

Malloen magalean dago Errazkingo herria, gure haurtzaroragan ezagutu dugun mundu bakarra. Herria 35 baserri osatzen dute eta edonork esan lezake plano bati jarraiki eginda dagoela: azkeneko ia 100 urtetan herria urbanizatuta dago: kale nagusi batek zeharkatzen du erdiz erdi goitik behera eta albora geratzen diren etxeetara ere zementuzko kalea helitzen da eraztuna osatuz. Nik ez dut antzeko antolamendurik beste inongo herrixkatan ikusi. Horrek behar du esplikazio bat: Ameriketara bizi beharrez joandako horien artean, bakar batzuk aberats bihurtu ziren eta herri-minak bultzatuta edo auskalo zerk, herrian gauza handiak egin zituzten: oraintxe esan bezala, asfaltatutako kaleak, pilotalekua, plaza berria, estoldak. Sutea itzaltzeko han egoten ziren eliza-kanpandorreko eskaileren ondoan, goitik beheraino zintzilika, mangarak. Ura

hartzeko kaleetan zehar hainbat ur-aho zeuden. Tarteka egiten ziren probak ere, gaur “simulakroak” deitutako horiek.

1956. urtean, amerikano horietako batek “sua pizten den baserri bakoitzari” 20.000 pezeta eman zizkion, eta haren parrante zirenei, aldiz, 39.000. Kopuru oso handia garai haietarako. Eliza, nik gogoan ez badut ere, goitik behera berritua, baserri guztietara ur hornidura, etxe bakoitzean argi indarra... Hau guztia ez herri askotan gertatu zen bezala joan den mendearen erdi aldera, mende hasieran baizik. Gure herrian beti ezagutu dugu nire adinekoek ura eta argi-indarra etxe guztietan. Garai hartan hori ahalbidetzeko, herriko mugan argi-indarra sortzeko zentral bat zegoen, eta gu txundituta gertatzen ginen zentral hartan ikusten zen instalakuntzarekin eta zaratarekin. Ikara sakratu batekin ere bai, agian, argi-indarra arriskutsua zela esaten bai ziguten eten gabe, ez hurbiltzeko.

Errazkinek, inguruko herriek bezala, nahiko ordenamendu argia zeukan bertan sortzen ziren premiei erantzun egokia emateko. Herri bakoitzak bazituen herri-lurrak esaten zirenak eta baita ere zerbitzu publikoak: ur-hornidurak, iturriak, bideak, zubiak, hesiak, estoldak, ur zikinen depositua... Baserrietan lan gutxiago zegoen garaiak aprotxatzen ziren horiek guztiak behar bezala mantentzeko. Ustekabean sortutako premiak ere sarri izaten ziren: zubia erori zela, ur-ihesi bat zegoela, luiziak bidea itxi zuela... Auzolana deitzen zitzaion. Alkatea eta erregidorea urtero aldatzen ziren. Ez dakit ohitura hori nondik zetorren. Aukeratu baino gehiago kargua nori zegokion erabakitzen zen. Izan ere, etxez etxe ordena batean pasatzen zen ardura.

Esandako premia horiek sortzen zirenean, alkateak auzolanera deitzen zuen jendea. Bakoitzak bazekien nora, ze ordutan eta ze tresna eraman behar zuen. Hamaika aldiz, eskola ordua amaitu eta etxez etxe joan izan ginen auzolanerako deia pasatzera. Eta arazoa konpondu arte han arituko ziren denak. Gehienetan bazkal aurretik lana bukatuta egoten zen; baina

hala ez bazen, arratsaldean ere joan beharra izaten zuten. Han ez zegoen guk gerora ezagutu dugun udal langilerik. Auzolanera arrazoi on bat izan gabe joaten ez zenak, han edaten zen ardoa ordaindu behar izaten zuen isun gisa. Ogitartekoa bakoitzak eramaten zuen, baina ardoa herriaren kontura izaten zen.

Alkatea errespetuz tratatzen zuen jendeak; ez zen onartzen portaera desegokirik harekiko. Sarritan egiten ziren batzarreak eta haiek ere alkateak deitzen zituen eta gai-ordena haren eskuetan egoten zen. Erabakiak, ordea, batzarkideek hartzen zituzten. Elizan alkateak eta erregidoreak lehen aulkia hartzen zuten eta amaieran irteteko orduan, haiek ziren lehenak.

Norbaitek pentsa lezake “ze gauzak!”; baina garai bateko herri txikietan bizitza osoa unitate bat bezala ikusten zen: erlijioa, lana, giza harremanak... Gerora beste gizarte mota bat sortu da eta horren barruan pentsaera, sineskera, izaera anitzak hedatu dira. Eta komeni da bakoitzak bere esparrua izatea, baina ez dut uste zuzen ariko ginatkeenik lehengo kontuak gaurko metroarekin neurtuko bagenu.

Gauza bitxia da, eta hori askoz geroago ikasi dut, liburuetan irakurrita, ez etxean entzunda, Gipuzkoan baserriak askoz ere sakabanatuagoak direla: hemen bat, han bi, urrutia-go bost-sei...

Nafarroan, aldiz, batez ere Gipuzkoako mugan, herriak bilduta daude, ia denak multzo batean. Halaxe dira Araiz, Larraun, Sakanan ezagutzen ditugun nekazal herriak... Dirudieenez, eremu horietan ez zegoen segurtasun handirik duela 4-5 mende; sarri sartzen ziren Gipuzkoa aldetik gaizkileak abereak lapurtzera, bordak erretzera eta aurre egiten zuenari labana sartzeko kezka handirik gabe gainera.

Gauza hauek liburuetan irakur daitezke gaur egun. Izan ere, gaurko baserriak baino lehen nekazariak, maizterrak gehienetan, borda deitzen dugun etxe xumeago batzuetan bizi ziren eta hauek denak batera bilduta ez baino, zeharo sakaba-

natuta zeuden, bakoitzak bere lurra inguruan zituela. Gaur oraindik baserri bakoitzak badu bere borda, herritik kilometro batera edo, baina euren artean zeharo sakabanatuak; hasierako haien bilakaera bat segur aski. Borda horiek ganadua eta belar iharra gordetzeko dira egun. Han ez dago jendea bizitzeko azpiegiturearik. Baina, pentsatzen dut duela 400-500 urte Errazkingo nekazariak ez zutela guk ezagutu dugun bezala antolatutako etxebizitzarik.

Hau historialari askok ikertutako gauza da: Nafarroa eta Gipuzkoako muga horretan gaizkile asko mugitzen zen lapurreta eta txikizio handiak eginez, eta babesa emango zuen azpiegiturearik ez zen ezagutzen. Txikizio hauen atzean sarritan egon zitezkeen arazo politikoak: banderizoen borrorak bereziki, oinaztarrak, ganboatarrak...

Penagarria da gaurko euskal hezkuntzaren Curriculumean iragan hori ez agertzea. Duero edo Tajo ibaiek zenbat kilometro luzera edo ze lekutatik pasatzen diren edo non itsasortzen diren buruz ez jakitea arlotekeria zen, baina hobe izango zatekeen herri txikietako joan etorria ze baldintzatan egiten zen ezagutzea. Ez ginatkeen horrenbeste aspertuko eskola orduetan.

Beraz, nola edo hala irakurleak antzeman dezake nire haurtzaroko geografia; herri koskor bat nahiko apaina, eta kilometro baten inguruan solo eta belardiak han eta hemen borda isolatuek herriaren koroa osatuz. Denok dugu gure herriaren edertasunaz mintzatzerakoan apur bat partzialak izateko joera; baina handik jende asko ibiltzen da naturak erakarrita, eta Malloak argazki askotan ageri dira, beste herrietako mendizaleek ere atsegin dituzte, eta nire irudimenaz haratago, paisaia ederra dela esango nuke.





*Bengoetxea, nire jaiotetxea. Orain ere gure familia han bizi da*

Gu gerra ondoko umeak ginen, ni jaio baino lau urte lehenago amaitu zen Francoren Gurutzada. Errazkinen, Nafarroa osoan gertatu zen bezala, ez zen enfrentamendu armaturik egon. Altxamendukoak garaiz hasi ziren lanak egiten eta ordua iritsi zenean, dena kontrolpean zeukaten.

Horrek ez du esan nahi astakeria handiak egin ez zirenik. Dagoeneko jakin nahi duen guztiak daki ze eskarmentu eman zuten erreketek eta falangekoek Nafarroako herrietan. Beraz, ez dugu ezer gehiago esango.

Gure herrian nolana ere dela ere –eta gerora harrigarria iruditu zait beti–, oso gutxitan egiten zen gerra amaitu berriaren aipamena. Nire amandreak, hori bai, egunero afal aurretik errezatzen zen arrosarioaren amaieran, honen eta haren alde “aitagure” zerrenda bat beti izaten zuen eta sekulan ahaztuko ez

zuen bat “soldaduen suerte onerako” izaten zen. Nik soldadutzara joaten ziren gazteen alde izaten zela uste nuen, baina gerra garaian hasitako ohitura zen eta bizi zen bitartean gorde zuen. Nola nahi dela ere, gogoratzen dut hiru edo lau urte nituenean behin nola galdetu nion:

— Amandrea, nolakoa da gerra?

— Oso gauza itsusia –erantzun zidan–; etortzen dira armatutako gizonak, hartzen dituzte eurak nahi dituztenak eta horma baten kontra jarri ondoren, tiroz hiltzen dituzte.

Egunetan kolpatuta ibili nintzen. Ez nintzen gauza noski gerra aurretik gertatzen zena ulertzeko eta nire buruan geratu zen gauza bakarra zera izan zen:

— Eta gerrako gizon horiek etorri eta aita hormara eramaten badute?– Ez zitzaidan pentsamendu hori egunetan eta egunetan burutik joan. Oso posiblea iruditzen zitzaidan, zozketa makur bat izango balitz bezala.

Urte horietan “errazionamendua” deitzen zitzaion hura zegoen. Nik ez nuen gerrarekin lotzen; esan dudan bezala, oso txikia nintzen eta gauza normal bat bezala ikusten nuen. Baina edozer gauza erostera herriko denda bakarrera joaten ginenean, kartilatxo bat eramaten genuen. Oraindik zerbait gogoratzen dut nolakoa zen, baina tira, oso laster desagertu zen eta geroago ohartu izan naiz haren esan nahiaz.

Attuna isilagoa zen baina amandrearekin kontu luzeak izaten nituela gogoan dut. Gaztetan arropa garbitzera errekarra nola joaten ziren, etxean behar zen ura buru gainean “perrada” izeneko ontzi batzuetan ekartzea zeinen neketsua zen, kapusaia izeneko jantzi bat zela jantzi arrunta...

Halere gehien txunditzen ninduen zera zen: zeinen prezio ezberdinak ordaintzen ziren gure txikitan eta harenean. Ogia etxean egiten zen gauza zen, baina poliki-poliki okindegiko ogia ere ohizkoa bilakatzen hasia zegoen. Guk pezeta pare bat ordaintzen genuen ogia, haiek “zortziko” batean erosten omen zuten. Hori sinistu ezina iruditzen zitzaidan. Zortziko pezeta

baten zortzirena zen. Laukoa ere ezagutu genuen. Nolanahi ere, hau ez da ume baten harridurarako gaia. Gaur egun euro baten inguruan ordaintzen dugu ogia, hau da, 166 pezeta. Dirua asmakizun handitzat jotzen da eta hala iruditzen zait. Baina ze arma arriskutsua bilaka daitekeen! Krisia deitzen diogun fenomeno hau da fruiturik arruntena. Ez al gara ohartu oraindik zenbat krisi jasan ditugun bizi garen denboran? Noren mesedetan “sortzen” dira fenomeno horiek? Izan ere, ez datoz ekaitza bezala zerutik, interes handien eraginez baizik.

Gaur bertan Errazkinen abeltzainek jasaten duten egoera lekuko. Haiek ekoizten dutena: arkumeak, txahal, txerrikume... duela 20 urteko preziotan saltzen ari dira; bien bitartean, ardientzat erosi behar duten pentsua neurri gabe garestitzen doa. Merkatuak omen dira. Non bizi ote dira merkatuak?

Herriko ekonomia nolanahi ere, subsistentziakoa zen, baserri bakoitzak ozta-ozta lortzen zuen familiak bizitzeko behar zuena. Gurean 4-5 behi genituen, eta haiek ematen ziguten behar genuen esnea eta haiekin moldatzen ginen soroetako lur-lanak eta zama garraioak egiteko. Txahalen bat jaiotzen bazen, hura hazi eta ateratzen zen diru apurrarekin oinetako, edo jertse edo jantzeko zerbait erosiko zuen aitak Tolosako dendaren batean.

Ardiak ere baserri askotan ziren; gurean 80-90 izango ziren. Bordan zuten aterpea eta inguruko belardietan zaintzen genituen udazken eta neguan. Udaberriarekin batera Aralar mendira eramaten zituzten: hango belardiak goxoak eta egoikiak ziren ardientzat. Egunero joaten zen etxeko norbait arratsalde erdian mendira ardiak nondik nora zebiltzan ikusi, jetzi eta agian gazta egin eta bertan lo egin ondoren, berriro ardiak gainbegiratu eta herrira jaitsi eguneroko lanari ekiteko.

Txikiak ginela, aita joaten zen eta gero 15-16 urte egitera heltzen zirenean, anaiaren bat.

Artzainak gaua mendian pasatzen zuela esan dugu. Horretarako artzain bakoitzak txabolatxo bat izan ohi zuen, hama-

bosten bat metro karratukoa, harrizko hormak eta teilatua egurrezkoa. Euritik babesteko belar zotalak jartzen zituzten teilen ordez, eta barruan su egiteko bazter bat, baina tximinia-rik gabe; horregatik, kea sortzen zenean, kanpora joan zedin atea zabaldu behar izaten zuten.

Ardien esneaz gazta apur bat egiten zen; artilea ere estimatua zen garai haietan. Parte bat etxean bertan aprobeztatzen zen, ongi garbitu, orraztu eta irun ondoren, galtzerdiak edo jertseak egiteko: artilezko luxua.

Axuria izaten zen saltzeko ardiak ematen zuen gauzarik garrantzitsuena: Tolosako feriara eraman eta lortzen zen dirua beste gauza premiazkoak erosten gastatu eta etxera.

Ardiak irailaren azkeneko egunetan jaisten zituzten herrira. Guk belardiak bagenituen; baina zenbait artzainek artaldeak Gipuzkoako lurretara eraman behar izaten zuen negua pasatzera: Aiete, Arroa, Igeldo... Berrogei kilometro inguru, normalean gauetz, Betelutik Donostiara doan errepide zaharrean oinez, artzain bat aurrean bere txakurrarekin, eta morroia atzean farolarekin... Eskerrak gaur adina kamioi eta auto ez zela izaten, baina orduan ere ez zen izango paseo atsegina.

Behin baino gehiagotan 15-16 urteko gaztetxoak han joaten ziren beren jornala edo irabazi aldera artzain haien morroi eta orain 70 urte badituzte ere, bizipen haiek gordingordin diraute beren barnean: etxetik kanpo, hotza zein euria izan, ardiak zaintzen egun osoan, eta otorduetan exigentzia gutxi. Nik gauza horiek hurbiletik ikasi ditut, pasadizo horiek bizi izandakoei entzunda.

Lurrak ematen zuena ongi kostata izaten zen gehienetan. Gure lehen haurtzaroan oraindik garia egiten zen gero ogia etxeko labean egiteko. Artoa ere estimatua zen, eta gero abereen pentsu bilakatu bada ere, lehenagoko premia zen gizakien janari izatea: gure gosaria 7- 8 urtekoak ginela taloa izaten zen, eta ikasketak zirela eta kalekumeekin nahasi ginenean, barre egiten ziguten: “zuk nahikoa talo jango zenuen baserrian, ez?”

–esanaz. Gerora pentsatu izan dut kalekume haietan hamaika izango zirela taloa gustura jango zuketena. Bizitza holaxe da.

Zenbat lotsa pasa izan dugun baserriko euskaldunek inolako motiborik gabe! Eta ez hori bakarrik. Gaur egungo haurrek –eta helduek– zer ez dute eskuratzen edozein unetan ahora eramateko! Guk ez genuen hori ezagutu. Eta pentsatzen jarrita, arazo bat gutxiago. Gure etxean –eta herrian– ez zen horrenbeste aukera izaten, baina ez genuen goserik pasatzen, eguneko lau otorduetan kalitateko gauza jaten genuen, eta dendetako erakusleihoetan gerozko haurrek ikusten dutena bazenik ere ez genekienez, ez genuen bekaturako joerarik. Ez dut nostalgiaren ajean erori nahi, baina gaurko umeek –alde honetatik– pena handiagoa ematen didate.

Nik ez dakit zehazki artoa eta gariarekin nolabaiteko kontrol fiskalik bazegoen ala ez; baina gai nintzen ordurako jendeak gauza haiek gordeta bezala izaten zituela ohartzeko, kanpotik kontrol bat jarrita izango balute bezala. Behin aitak bordako belardian ari ginela –sei bat urte izango nituen– gogoratzen dut nola bidali ninduen etxera amari esatera “kixkallikoak” zetozela eta amak halako joan-etorri azkar batzuk egin zituen gora eta behera. Jakina, “kixkallikoak” deitzen genituenak gero ikasi dut “fiskaliakoak” izango zirela.

Horretatik aparte, baserri guztietan izan ohi ziren hiru edo lau txerri, txerrikumeak saltzeko, etxean hiltzeko, oiloak... Gizarte mota hartan bazen tratantea deitzen genion pertsonaia. Baserriz baserri han joaten zen salgai zegoen txahal, zekor, txerrikume bila. Etxeko nagusiarekin tratu luzean ikusten genuen eta ados jarritz gero, han aterako zuen txamarraren barruko poltsatik billetez betetako kartera. Txekeak geroko gauza dira eta agian ez hura bezain seguruak.

Txerria baserri guztietan hiltzen zen orduan eta funtsezko elikadura suertatzen zen gure herrietan. Umeontzat egun polita zen hura: goizean argitu baino lehen ohartzten ginen auzoko hiru edo lau gizon etxera etorri zirela eta Zelestino,

txerri-hiltzailea, ere bai bere kako, laban eta beste tresnak hartuta liturgia haren apaiz izateko prest. Txerri-hiltzeko egunean ohiturazkoa zen beti anis kopatxo bat. Oraindik memorian gordeta daukat etxean kopatxo hark sortzen zuen usain berezia, sarkorra.

Ez zitzaigun ondoan egoten uzten, baina txerriaren kurrika zorrotza entzun bezain laster, bagenekien Zelestinok kakoa zintzurretik sartu ziola eta beste gizonek txerriari heldu eta mahai gainean eutsita zeukatela. Ordurako han zegoen “barrinua” hartuta ama, txerriaren odola han bildu eta gero odolki eta txistor egiteko balioko zuen likido preziatuari esku-besoez eragiten.

Egun berezia izaten zen hura baserrian. Umeontzat ere bai, esan bezala. Gure egitekoa izango zen arratsaldean, amak presatuko zituen fardeltxoak esandako etxera eramatea. Oraindik hozkailurik ez zen garai hartan; horrela lortzen zuten, elkarren artean banatuz, txerrikoa negu guztian mahai gainean jarri ahal izatea.

Apaizari eta maisuari ere eramaten zitzaien zati bat, berriek ordainetan ezer bialduko ez bazuten ere; jendeak bazekien jatekoaren parte bat eman behar zitzaie. Garai hartako haien soldata ez zen oparoa izango eta etxe baserrian sortzen zen janarietatik zerbait ematen zitzaien: gaztainak, artoa, txerrikoa... Elizari garai batean ordaindu behar izaten zitzaizkion hamarrenen azken aztarnak, dudarik gabe.

Puntu honetan ezin dut ahaztu haurrok lehen urteetatik hasita zeinen hurbiletik jarraitzen genuen egunero elikadurarako edo janzteko behar genuen guztiaren prozesua. Han geunden behiak jecten zirenean, han arkumeak jaiotzen zirenean, han txerria hiltzen zenean. Gure begiekin ikusten genuen ardi-ile-mozketa, gari-jotzea eta ogia egiteko prozesu osoa: ore-mahaian irina, ura, gatza jarri eta ore egin. Han utzi denbora batez legamiak bere lana egin zezan. Gero ogi forma eman zati bakoitzari eta pala kirten luzedun batez labe gorian sartzen.

Bagenekien oiloak ze kukurruku berezia egiten zuen arrautza jarritakoan. Mahai gainean jartzen zen ia guztiaren prozesua ezagutzen genuen, eta janzten genituen artilezko jertse edo galtzerdiena ere bai. Gaur hori galdu egin da, eta galdu diot aberastasun bat galdu dugula uste dudalako. Gaurko haurrek, ez dute “ikusten ezer”, bakarrik saltokietan salgai dagoen produktu manipulatua. Gero kostata adierazi behar izaten zaie gauza bakoitza nola egin den eta gainera liburuko ikasketa bat da, gero ebaluapenatarako ikasi beharrekoa eta, jakina, ez da berdin. Gizakia asko urrundu da naturatik; ez dut ukatuko askoz gehiago ekoizten dena. Guk sagarra ez genuen urte osoan izaten, gabonak arteko fruitua zen, baina gaur jaten duguna beste produktu bat da, beste izen batekin ezagutu beharko litzatekeena. Ez nago kontra, gauza asko dugu gaur beharrezko dena, baina neurri gabeko kontsumo batek gauzak gehiegi desitxuratu dituela esango nuke, eta berriro diot, iragana beti ez dela polita izan ahaztu gabe.

Ura eta argia ordaintzen genituela gogoratzen dut, baina ez dakit beste ze zerga egon zitekeen. Herriko gastu handiagoei aurre egiteko, herri ondasunak saldu beharra izaten zen. Donostia Iruñearekin lotzen duen errepidetik herriraino dagoen “kamioa” herriarena zen. Haren mantentze lanak herriak egin behar zituen. Oso txikia nintzen, 5-6 urtekoa, eta errepide horrek berritzea eskatzen zuen. Gogoan dut nola aritu ziren han lanean, enpresaren bateko langileak: zoruan harri geruza bat jarri, hura kirten luzeko mailu batzuekin txikitzen joan, gero “zilindroa” deitzen zen makina handi batek dena zapaldu eta azkenean breazko –“piketa” esaten genion– azken geruza. Lan hartan aritu zen herriko hainbat jende ere, gure aita tartean. Horretarako behar zen dirua lortzeko herriak pagadi handiak saldu zizkion Azkona deitzen zen egur enpresari bati.

Urtetan aritu zen enpresa han basoa ateratzeko lanetan. Jakin nahiko nuke horrelako kudeaketak egitea egokitzen zenean, jendeak ze prestakuntza zeukan horren kontratu erral-

doiak egiteko orduan. Suposatzen dut Azkonak bere teknikoak izango zituela, bere abogaduak ere bai; eta Errazkingo nekazariek?

Entzun izan dut errepedeko lanak ordainduta, diru partidan bat geratu zela. Nola egiten zuten banketxeko kudeaketa? Duela urte batzuk anaia zaharrenari galdetu nion diru hartaz, ea non zegoen. Eta entzutea zuenez, bankuan ez omen zen jada dirurik geratzen eta inork nola ez zekiela desagertu zen.

## Eraztun salataria

Maisua aipatu dugu, txerri-hiltzen zenean hari ere bere parte banatzen zitzaiola esateko. Eskola maisuak pertsonaia bereziak ziren. Erdara bazter guztietara eramateko zeregin hartan beharrezkoak ere bai.. Oso gauza ezaguna da eraztunarena. Baina horretatik haratago, ez da berdin barruan sentitzen genuen gauza hura.

Arreba zaharrenak oraindik oso gogoan du egun batean eskolan euskaraz hitz egin eta maisuak muturrekoa eman eta sudurretik odola zeriola etxean presentatu zenekoa. Gure aitona hura ikusi zuenean, haserre bizian makila eskuan hartu eta eskolara abiatu omen zen maisuaren bila. Eskerrak bidean auzoko batzuk eutsi zioten...

Maisua "alikalantinoa" zen nonbait. Bi metro garai eta txapela txiki-txiki bat jantzita buruan.

D. Vicente deitzen zen eta herriko ostatuan zegoen apopilo. Baina, jendea ere han biltzen zen astia zuenean eta asteburuetan ere bai txikitoren bat hartzera, musean jokatzerara, kontu kontari egotera... Eta maisua sarritan haserre haien iskanbilek bakerik ematen ez zutelako. Dirudieneguz egoerak okerrera egin zuen eta mundu guztiarekin haserre azkenerako, handik joan baino gehiago ihes egin behar izan zuen.



Haren ondoren beste bat etorri zen, D. Miguel Fuentes, Iruñealdekoa hau. Honek, berriz, instrukzioa erakusten zien mutikoei: “formen filas”, “rompan filas”, “giren a la derecha”... Ezkerretara egitea segur aski debekatuta egongo zen. Arrazoa horretarako: “Dentro de pocos años, tendréis que saber hacerlo”.

Nire lehengusu batzuk Iruñean bizi ziren: ama nire jaiotetxekoa eta aita Zeraingo gipuzkoarra. Gerra ondoko Iruñean ez zuten euskara ikasi, eta udan, euskara ikasi asmoz, Errazkina etortzen ziren. Haiek guretzat beti erdaldunak izan ziren. Iruñeko lehengusu erdaldunak. Gerora, ordea, Euskal Herrian nahasmen desegokia sortu da horretatik. Euskaldunak euskaraz dakigunak gara. Baina erdaraz ari garenean, euskaraz jakin edo ez jakin, denok gara “vascos”. Hor nahasmendua sortu da eta ez onerako. Gaur jende asko ezagutzen dut “yo soy vasco” esan, baina euskara ikasteko inolako premiarik sentitzen ez duena. Horren lekuan euren abizenak jartzen dituzte aurrean: Gabikagojeaskoetxebarria, Zengotitabengoa...

Honen harira, 12-13 urterekin pasatakoa datorkit burura. Nik banekien euskalduna nintzela, baina oraindik ez nekien ongi “vasco” nintzen ala ez. Egun batean erdarazko hiztegia hartu nuen eta begira hasi nintzen. “Vasco”: “Se dice de los habitantes de las provincias Vascongadas”

Begiratu nuen “Vascongadas”: “Región compuesta por las provincias de Guipúzcoa, Alava y Vizcaya”. Ez nintzen argitasun gehiago inori eskatzeko gauza izan.

Gure garaian maisua bertako semea zen. Herriak batzarraren hautatzen zuen lan hori egingo zuena. Ez dakit ze meritu jarriko zituen mahai gainean, baina ez zen behintzat euskaraz ez zekien gizona. Maisuentzat herriak jarrita zeukan etxean bizi zen familiarekin: emaztea eta bost seme-alaba. Herrian zeharo integratuta zeuden, harritzekoa ez den bezala.

Halere, ez zuen aplikatu gabe uzten goitik zetorren agindua: ume hauek erdaraz hitz egin behar dute, bada ordua

euskarazko jerga hori erreka zulora botatzeko. Euskara ezin genuen erabili eskola orduetan baina ezta ere eguneko beste orduetan. Eskola orduak bukatu ondoren pilotalekura edo beste jolasen batera joanda ere, han zegoen agindua. Udan bakarrik hartzen zuen jai “eraztun” salatariak. Eguneko 24 orduetan han zegoen norbaiten poltsikoan gordeta, euskarazko hitzen bat entzun orduko bat-batean handik atera eta zure eskuetara jauzi egiteko.

Eskola garaian “eraztunak” markatzen zituen gure eguneroko joan etorriak. Arratsaldeko eskolako azken 10 minutuetan ez zen txindikorik ere entzungo gure eskola hartan.

—¿Quién tiene el anillo? —galdetuko zuen maisuak halako batean.

—Yo —erantzungo zuen apal-apal norbaitek, mutikoren bat gehienetan.

—¿Quién te ha dado a tí? —jakin nahiko zuen Kanuto jaunak.

Hala hasten zen kondenatuen soka luzea. Ez zen trantze ona izaten. Batean ez bazen bestean, gehienok pasatu behar izaten genuen asteen behin baino gehiagotan lerro hartatik. Suerte txarrekoak ere izaten ziren, egunero pasatzen zirenak, alegia. Lerroan jartzen gintuen maisuak eta “Pon la mano” esanez, metro erdi inguruko makila hartu eta han jartzen zen bakoitzaren aurrean.

Eta guk hatz guztiak bildu eta han jarriko genuen gure eskutxoak, ez behin baino gehiagotan azken unean erretiratu gabe. Esan beharra dago beti ez zela berdina izaten maisuaren zigorra betetzeko arreta. Nolako eguna zuen eskuek ere nabaritzen zuten: batzuetan min gutxiago eta besteetan zast! gupidarik gabe. Maisuaren tenplea, bakoitza nolakoa zen... zigorrean ere nabaritutako zela iruditzen zait. Bizitza horrela da.

Baina esan bezala, pilotalekuan eta jolasean nabaritzen genuen bereziki euskaraz ezin hitz egina eta “eraztuna” ere

horrelakoetan mugitzen zen batez ere poltsiko batetik bestera. Ezin baikenuen normal jolastu eta erdaraz hitz egin.

Egun batean, han ari ginen pilotan arratsaldeko eskola saiora sartu aurretik, “txokotara”. Tantoa galtzen zuena jolasetik at geratzen zen hurrengo txanda arte. Nire anaia zeukan eraztuna, sarri gertatzen zitzaion bezala, eta haserrealdi batean hala esan zigun denoi: “nahi duzuen egin, euskaraz hitz egin da ere, nik ez zioat eraztuna inori emango”.

Hura izan zen han sortu zen hitz egin beharra, denak batera, jai izango balitz bezala.

Laster entzun genuen eskolara sartzeko deia. Eta maisuak ordurako bazuen pilotalekuan gertatutakoaren berri.

—¿Quién tiene el anillo?—, maisuaren orroa sartu orduko.

Han atera zen bekataria. Ume guztion aurrean izugarritzko baliza eman zion anaiari, lurrean erori eta oraindik ostikoka jarraitu zuen Kanuto jaunak. Nire eskola urte guztietatik gorde dudak oroitzapenik markatuena izan zen egun hartakoa.

Elizan bakarrik geunden euskaraz hitz egiteko libre. Han, ordea, isilik egon beharra izaten zen. Baina etekina ateratzen genion, halere: zerbait erdaraz adierazteko arazoa-edo genuenean —sarritan bestalde— elizara inguratu, atea zabaldu eta hanka bat han sartuz euskaraz hitz egiten genuen.

Eta bien bitartean, zer egiten zuten herriak, gurasoek...?

Jendeak sinistuta zeukan euskaldunak erdara ikasi beharra zeukala mundura joan nahi bazuen eta zigor horiek neurri pedagogiko bezala onartzen zituen. Garai hartan hango jendeak euskara besterik ez zekien, beren herria Euskal Herria zen, eta Espainia entzuten zutenean guk orain Europa bezalatsu ulertzen ote zuten nago: han nonbait den zerbait.

Sasoi hartan Gipuzkoan eta Bizkaian bereziki euskarak eraso latza jasaten zuen. Ez zen bakarrik eskolako umeei erdaraz hitz egin arazten zitzaizela, gizon eta emakume eginei, aiton-amonei euskara besterik ez zekien jendeari isuna jartzen zitzaion ka-

lean euskaraz ari zela ikusiz gero. Horren milaka lekuko daude oraindik eta txosten askotan jaso dira horren testigantzak.

Erreketeeek eta falangekoek errepide bazter guztiak hildakoz bete bazituzten ere, Nafarroan gerrak gerra bezala ez zuen indar handirik izan. Eta nirea bezalako herri txikietan base-ritarren bizimodua gutxi aldatu zuen, “errazionamendua” eta beste eskasiak aparte.

Esan dut gure eskolan ez zela gero ezagutu dugun moduko ideologizaziorik landu, baina horrek ez du esan nahi giro arrotz bat hedatzen hasi ez zenik. Errazkinen ez zen España hitza erabiltzen, Euskal Herria zen gure esparru naturala adierazteko kontzeptua. España hitza erdararekin sartu zitzaigun eta lehen Euskal Herria esaten genuen lekuan, orain España esaten ikasi genuen.

Geroko urteetan ohartu ziren umeei erdara irakastea baino asmo maltzurragoak zeudela guzti horren atzetik eta joan den mendearen azkeneko laurdenean Nafarroako mendialdean kontzientzia berri batek egin zuen eztanda: euskara da gure hizkuntza eta euskara nahi dugu gure seme-alabentzat. Euskara erdi galduta zegoen unean berpizten hasi zen. Baina une berean bertako euskaldun batzuk antieuskaldun porrokatu bilakatu ziren. Eta isiltasun maltzurrean zeuden nafar kazikeak berriro ekin zioten euskararen aurkako kanpainari. Hala darraite oraindik.

Euskara dela eta umeei ematen zitzaien tratua aparte utzita, eskola solairu bakarreko eraikina zen, txukuna eta herriaren erdian kokatua. Txikitan handiak iruditzen zitzaizkigun eremuak gero ikusita oso txikiak izan daitezkeela ahaztu gabe, nire irudipena da eskolak leihoak asko eta zabalak zituela, handik inguruko basoa hurbil-hurbil geneukala eta eroso sentitzen ginela han ikasleak. Ez zen gaur ezagutzen den eskola klasea, gelatan banatua, unitarioa deituko genukeena baizik: lau urtekoak eta hamalau urtekoak areto berean geunden; irakasle bakarra zen guztiontzat eta neska eta mutilak elka-

rrekin ibiltzen ginen. Izan ere, hezkidetza han naturala zen, neska eta mutilak jolas asko elkarrekin egiten genituen eta gizartea matxista izango zen agian, baina gu ez ginen ohartzen eskola urte haietan neska eta mutilak bi talde antagonikoak ginenik. Komunak, hori bai, bananduta zeuden: eskolan sartu eta eskuinetara mutilenak eta ezkerretara neskenak. Ez dakit, baina suposatzen dut neskenak txukunago egongo zirela.

Kanutok, itxura guztien arabera, ez zuen denborarik galtzen klaseak prestatzen. Eskolan sartu bezala, bakoitzak poltsatik irakur liburua ateratzen genuen, eta handiek eta txikiek, ordu-erdi bat edo ozenki irakurtzen ematen genuen. Denok batera eta bakoitzak bere liburua eta orria. Gaur pentsatuta, oso bitxia iruditzen zait argazkia. Noizbait 5 minutu beranduago edo heltzea tokatuz gero, berrehun metro lehenago entzuten zenuen musika nahasi hura. Erlauntzaren inguruan erleek, denek batera, egiten duten soinuaren antzekoa segur aski.

Beroketa ariketa hori egin ondoren, talde bakoitza, hor bazegoen homogeneitate bat, maisuaren mahaiaren inguruan jartzen zen eta haren esanera bakoitzak zati bat irakurtzen zuen. Suposatzen dut horren arabera jakingo zuela Kanutok gure irakur trebetasunaren maila. Ez dut gogoan irakurtzen ikasteko teknika pertsonalizatua edo ezer berezirik erabiltzen zuenik; liburuak aurrean jarri eta bakoitza hor konpon zedila lanak egiteko. Batzuk zortzi-hamar urte egin eta gero ere, tre-bezia handirik ez zuten erakusten. Nik ez dut uste irakurtzen ikasteko ahalegin handia egin behar izan nuenik. Arazo batean kateatuta ibili nintzela, ordea, gogoan dut. Hasita nengoen idatzita ikusten nuen edozer irakurtzen, zela egunkarian, zela “El pan de los pobres” aldizkaria edo elizan hilean behin banatzen zuten “La verdad” parroki orria. Baina herriko lehenengo etxearen horman zegoen letrero hark burukomin handiak eman zizkidan: ERRAZQUIN jartzen zuen, baina niretzat ERRAZOUIN zen. Egunak eta asteak iraun zuen nahasmen hark eta azkenean suposatzen dut samaritano on batek esango

zidala O ez baina Q zela eta horrek dena aldatzen zuela. Esan nahi dut gure eskolan autodidaktak izatea ezin bestekoa zela.

Nola nahi dela ere, egiari zor, izugarri gustatzen zitzaizkidan eskuetan jartzen zizkiguten liburuak. Denak ipuin gisako liburuak ziren eta maisuak liburu berria ematen zigunean –urtean bi aldiz– ilusio handiz jasotzen genuen. Oraindik gogoratzen dut haien usaina, paperaren ukitua, irudiak...

Jolastordua arte geratzen zen denbora buruketak egiten ematen genuen, niri asko atsegin zitzaidan ariketa. Denontzat ez zela ariketa bera izango pentsatzen dut. Batzuk batuketak, besteak biderketak, gero zatiketak eta baita ere buruketak. Hauek niri asko atsegin zitzaizkidan. Gutxi edo asko, hone-latsu izaten zen:

“Si tu madre te da 10 pesetas y en la tienda gastas dos pesetas en pan, tres pesetas en vino y cuatro pesetas en aceite, ¿cuánto le delvolverás a tu madre?”

Félix izeneko laguna han ikusi nuen, nora begira antzematen ez zitzaiola. Halako batean, jaiki eta hala esan zion maisuari: “Yo no sé hacer este problema. A mí no me sobra nunca”.

Buruketa guztiak tipologia horretakoak izan ohi ziren, musika beraren aldagarriak bezala.

Baina nolako atsegina maisuari eraman eta ondo zegoela ikusita, B handi bat idazten zizunean. Nolanahi ere, ez dut ahaztuko erraz pasadizo hura: egun batean eraman nion buruketa, ustez ongi burututa; maisuak begiratu, eta hala esan zidan: “No está bien la solución” Eta beste esplikaziorik gabe, bi belarrietatik hartu, eta erraz altxatu ninduen bere buruaren pareraino, ez nituen 20 kilo ere izango orduan-eta. Geroxeago, ordea, ez dakit zergatik, begiratu zuen berriro nire lana, eta buruketa ongi zegoela ohartu zen. Hala esan zidan: “No, no, está bien resuelto el problema”.

Baina ordurako ni ordaina jasota nengoen. Han ez zegoen kexa aurkezteko “Bezeroaren libururik”.

Lapitza izaten zen gure koadernoetan idazteko erabiltzen genuena. Oraindik buruan daukat usain atsegin hura. Eta borragoma sarri –sarriegi– egiten genituen hutsak zuzentzeko. Ez zen batere arraroa izaten borragomarik ez eta hatza mingainean busti eta borragoma bezala erabiltzea ere. Batzuetan, ordea, erremedioa okerragoa zen, gauzak gaizki neurtu eta orrian orban handi bat edo zuloa ere egiten genuen-eta. Gu izan ginen lehenengoak Errazkingo eskolan pizarrarik gabe hasi ginenak. Aurrekoek hantxe eramaten zuten, besapean hartuta, horren ezaguna egin zen tresna.

Gu lapitza eta koadernoarekin hasi ginen. Lapitza erdibana ematen ziguten. Ekonomiagatik izango zen, baina arkatzari punta ateratzeko trebezia faltagatik eta erdia laster laurdena baino gutxiago izaten zelako edo, ia beti lapitza faltan geratzen ginen.

Kaligrafia egunero egiten genuen eta hartarako luma bat erabiltzen genuen; ez gerora ezagutu ditugun estilografikoak, tinteroan bustita idazten zutenak baizik. Gure eskuetan nabari izaten zen kaligrafian aritu izana, gutxitan egoten ziren atzazal inguruak tintarik gabe-eta. Koadernotxo batzuk ziren eta han oilo baten irudia gogoratzen dut, eta ondoan irudi bera, baina lerro jarraituaren orde, puntutxo osatua. Gure lana puntutxo haiek lotzea izaten zen eta azpian: “la gallina” marra jarraituz lehenbizi eta puntutxo bestea, guk haiek jarraituz hitza idazteko.

Nik ez dut gogoan idazten ikasteko beste metodorik erabili genuenik.

Arratsaldea askoz ere lasaiagoa izan ohi zen. Bakoitzak bere kabuz egiteko zer edo zer izaten genuen: entziklopedia bat irakurri eta irudiak ikusi, mapak kalkatu... Bien bitartean maisuak egunkaria irakurtzen pasatzen zuen denbora. Berak ez zuen erosten, eta herriko dendara joaten ginen:

—Vete a Azpikoetxea y trae el periódico –esaten zion ikasleren bati.

Eguna amaitzeko: “Por Dios, por la Patria y el Rey”, karlisten himnoa abesten genuen zutik jarrita. Dios ulertzen genuen, baina Patria eta Rey ez zigun inork sekula zer ziren argitu. Rey eta printzeak eta horrelako gauzak ipuinetakoak baino ez genituen ezagutzen.

Nik uste dut garai hartako herritar gehienak ez zirela ezer: ez karlista, ez nazionalista... handik ez zen gerrarik pasa eta ez ziren gatazka horretan aurkitu. Garai hartan gure etxean, entzun dudanez, aitaren anaia bat zegoen, 26 urtekoa. Eta egun batean herriko apaiza etorri zen; hura bai karlista. Eta osaba horri esan zion edozein egunetan deituko zutela soldadutzara joateko eta ez ote zen hobe berak boluntario aurkeztea bere burua; horrela Iruñean edo inguruan gelditzeko aukera izango zuen. Bestela auskalo nora bidaliko zuten. Eta haren erantzuna: –Eta non apuntatu behar dut, falangistekin, erreketekin... edo zeinekin?

Apaizak, jakina, erreketetan apuntatzeko esan zion. Eta halaxe izan zen. Amaren aldeko familian nazionalistekin letratutakoak izan behar zuten, baina ez batzuek eta ez besteek ez zuten arazo egiten.

Eskolan, beraz, gu ez ginen ezertaz jabetu 5-6 urte lehenago egondako zafarrantxoaz.

Anekdota batek agerian uzten du: sasoi hartan herriak berak hautatzen zuen bai maisua edo maistra, bai medikua... Eta gerra ondoan medikuaren postua hutsik zegoen: batzarrean gaia agertu zen eta Gizpukoako mediku batek aurkeztu zuen bere burua. Galderak, argitasunak, arazoak:

—Familiaz gorria omen da –batek bazterretik.

—Gorria edo zuria, guk medikua behar dugu –nire aitorenaren erantzuna.

Eta halaxe izan zen.

Urte askotan izan zen bertako medikua eta gure etxera sarri etortzen zen. Izan ere, izeba elbarri bat genuen etxean, oso gazterik eskaileratan erorita. Eta hari herrira etortzen zen



bakoitzean egiten zion bisita eta kontu kontari sarritan egoten ziren. Hari esan omen zion behin don Blas medikuak:

—Gorriak ginela? Gorriak eta beltzak pasatu bai, pasatu genituen.

Eskola lanean 4-5 urtetik hasi eta 13-14ra arte ateratzen genuen guztia matematikako lau oinarrizko eragiketak, irakurketa baldar bat eta idazketa baldarragoa: hori izaten zen batez beste hango fruitua.

Umeok baserriko lanetan zer egin handiagorik ez geneukanean, etxetik bilatzeko aitzaki bat izaten zen eskola. Izaten ziren, udaberrian lurra lantzeko behien aurrean ibili beharrak edo beste lan txiki batzuk: inolako arazorik ez zen egoten eskola utzi eta 8-10 egun berriro itzuli gabe pasatzeko.

Izan ere, baserrian gehienetan izaten zen umeek ere egin genezakeen zerbait: behia ferratzera eraman behar bazen, ume baten laguntza ondo zetorren; ganadua basotik etxeratu behar bazen, berdin, astorekin garia errotara eraman behar bazen... Han baziren eskolara oso gutxitan joaten zirenak eta asko ikasi gabe geratu zirenak.

## Jolasak

Gure sozializazioan aparteko eragina lagunarteak izan zuen. Denbora asko izaten genuen guretzat, 11-12 urtera arte behintzat, egin behar ziren lagundu beharrek ez ziguten denbora luzea eramaten eta eskolatik ez genuen sekula etxerako lanik izaten. Ordu asko ematen genuen jolasean. Ez zen telebistarik, irratiak hamar izango ziren herrian, eta gainera erdaraz. Baina gaur ez bezalako kreatibitateko jolasak geneuzkan eguna pasatzeko. Nekez aspertzen ginen eta beti bazen denbora zertan pasa.

Gaur egun kaletar eginda, gure etxebizitzak 80 metro karatukoak dira eta gune itxi eta hermetikoak, etxekoentzat ba-

karrik gordetzen ditugunak. Baina Errazkinen etxeetako atea egun osoan zabalik egoten ziren, batez ere umeak koadrilan sartzen eta irteten ginen eta han jolasean ibiltzeko lekurik ez zen faltatzen. Alde horretatik gaurko umeek ez dute ezer irabazi. Kaiolan bizi direla iruditzen zait.

Pilota zen denbora pasa ohizkoena. 35-40 haur izango ginen garai hartan eskolara joateko sasoian geundenak eta pilotalekua herriaren erdi-erdian kokatuta, hari lotuta bizi ginen.

Umeak ez du jardun berean denbora luzea ematen, eta beste jolas kuttuna “laparriketan” zen. Jolaskideen kopurua arabera, bat edo bi edo hiru gelditzen ziren besteak harrapatzeko. Bat harrapatu –aski zen eskuaz ukitzea– eta txoko batean atxilotuta geratzen zen. Harrapatutakoak zaintzen bat geratzen zen bitartean, besteak jende gehiago harrapatzera joaten ziren. Eta horrela denak atxilotu arte.

Korrika apustuak ere maiz egiten ziren. Eta mila jolas gehiago.

Esan behar du horrelako jolas askotan neskak eta mutilak integratuta ibiltzen ginela. Atsegin genuen sagarrak edo mada-riak harrapatzera joatea. Etxean izango zen sagarra, baina harrapatutako frutak bazuen balio erantsia bat. Errekara karramarro bila, karakol bila sasi bazterretara, txori habiak aurkitzera...

Joan etorri horiek, jakina, herriaren inguruan dauden zelai eta basoetan izaten ziren, etxetik kilometro edo kilometro t´erdira zeuden lekuak eta han ez ginen geldi egoten: zuhaitzetara igo, harkaitz zuloetan sartu, solte zeuden abereak izutu... Gogoan dut behin lokatzez betetako iturri ondo batean dozenerdi bat txerri ikusi genituela; txerriak, izan ere, freskatzeko maite du lokatz gunea. Baina guk gaiztakeria besterik ez genuen pentsatzen –hori esaten ziguten etxean zerbait oker egiten genuenean– eta han geunden 6-8 mutiko koskorrok makilak hartu eta zirikatzen hasi gintzaizkien. Zirikatu alde batetik baina bestetik ihes egiten utzi ez, irteera itxiz. Noizbait azkenean alde egiten zuten. Gerora askotan pentsatu izan dut

nolako arriskutan sartzen ginen oharkabea. Izan ere, erasotua sentitzen denean, txerria oso arriskutsua da. Oso jenio txarra du eta etor daiteke zure kontra eta bere hagin zorrotzekin txikizio bat egin. Baina, sekula ez zen horrelakorik gertatu, guk sarri motiboak eman arren. Badirudi animaliek umeen kontra ez dutela beren sena gaiztoa ateratzen.

Kontu hauetan ari garela, behin bakarrik dut gogoan ezbehar nahiko larria gertatu izana. Erreka bati itzala eginez fruta arbola baten gainean genbiltzala, zuhaitz adarra hautsi eta laguna han erori zen harkaitz baten gainera. Handik aurrera herren gelditu zen.

Elurra zen beste ikuskizun paregabea. Ama gu baino lehentxeago altxatzen zen eta elurra zen egunean, logelara etorri eta hala esaten zigun:

—Elurra dago atariraino.

Beste gauzarik ez genuen behar geunden bezala jaiki eta korrikan atarira joateko. Garai haietan elurte handiagoak izaten ziren gure inguruan eta sarriago ere bai. Metro erdiko elur geruzak. Gogoan dut behin, oso txikia izango nintzen, etxeko norbaitek eskolara bizkarrean hartuta eraman ninduela.

Egun horietan herria oso mugatuta geratzen zen: erre-pidea itxita, kaleak baldintza kaxkarretan... Beste lanak utzi eta bideak zabaltzea izaten zen aurreneko lana. Ez zegoen gaur eguneko azpiegiturarik egoera hori konpontzeko: pala eta pala eta ordutako lana.

Umeari asko atsegin zaio elurra, segur aski elurra delako baino gehiago nobedadea delako. Izan ere, gure jolas bakarra halakoetan elurretan ibiltzea zen: elur metak egin, elkarri elur pilotak bota... Baina eskuak berehala izoztuta geratzen ginen eta oinak bustita; etxera joanda sarritan sutondoan beste batzuk egoten ziren. Izan ere, gure etxera auzoko asko biltzen zen neguan kontu-kontari egotera. Jantziak ere, batez ere es-talkiak eta oinetakoak, ez ziren gaurkoak bezain egokiak.

Esan nahi dut askatasun handia izaten genuela hara eta hona ibiltzeko. Gaur egun adin horretako umeak gehiago babesten dira. Ikastolara joateko ere, 400 metro mundu bat da bakarrik uzteko: bidean egon daitezkeen arriskuak, kaleak alde batetik bestera igaro beharra, autoak batera eta bestera, jende ez ezaguna... Arriskuaren kontzientzia askoz ere handiagoa da. Nik ez dut gogoratzen beldurrik bagenuenik herrian eta inguruetan ibiltzeko, naturak dirudienez asfaltoak baino babes kuttunagoa ematen zigun.

## Meza-laguntzailea

7-8 urte nituela, apaizak hiru lagun hautatu gintuen meza-laguntzaile izateko. Oso gogoan dut nire ahalegina latinezko errezo haiek ikasteko. Haiek izan ziren nire lehengo oposaketak lanpostu bat lortu aldera: “Ad Deum qui laetificat iuventutem meam”.

Lagunen aurrean meza-laguntzailea izateak halako izen bat ematen zuen. Portaera hobexeagoa eskatzen zitzaion hartan aritzen zenari. Elizan berriz, autoritate batez jantzita geunden: sotanatxo gorria, alkandora bezalako txuria eta txukun orraztuta. Mezako unetan zehatz batzuetan txilina jo eta jendea belauniko jartzen zen. Zure laguntzarik gabe, apaiza ez zen ezer... Auto-estima indartzeko ez genuen psikologorik behar. Ordainetan, lagunak lo lasai geratzen ziren bitartean, nik meza laguntzera joan behar izaten nuen. Berdin zion euria edo hotza izan, astegunetan meza oso goiz izaten zen eta han joaten nintzen hutsik egin gabe laguntzera.

Han edozein jai elizatik hasten zen. Jaiaren maila elizan ematen zitzaion garrantziaren neurrikoa izan ohi zen, eta meza-laguntzaileek hurbil-hurbiletik ikusten genuen hori. Jaia oso handia bazen, abestiak, apaizaren mezako jantziak... ez ziren ohizkoak izango. Txikitan nobedadea bereziki maite izan

ohi da eta tarteka-marteka ilusio bereziz itxaroten genituen egunak izaten ziren.

Adibidez, Pazkoa biharamuna egun handia izaten zen, agian umeontzat egunik handiena: Aralarko san Migel aingeruaren irudia iristen zen herrira. Horretarako baso bideak erabiltzen ziren eta udaberri hasieran ia beti lokatzez gainezka. Abisuko herritarrak lagunduta han etortzen zen apaiza mando handi baten gainean Errazkingo mugaraino. Han Errazkingo jendea bai egon ohi zen eta apaiza zalditik jaitsi eta lehen zereemonien ondoren herriko seme batek eramaten zuen san Migelen irudi ospetsua elizaraino; kilometro eta erdi inguru kantatuz joaten zen herriko jendea: “Mikel, Mikel, Mikel gurea, / zaindu, zaindu Euskal Herria”. Goiz osoa joaten zen han sortzen zen jai giro berezi hartan.

Ohore handia zen San Migelen irudia eramatea. Elizan meza nagusia jai handietako erara ematen zen bitartean, San Migelen irudiaren kargu egiten zen apaizari hamaiketako ematen zioten San Migeleko kofradiako presidentearen etxean. Seguru nago ez zela txarra izango: baserriko arrautza freskoak eta urdaiazpiko paregabea. Meza nagusiaren amaieran herritar guztiak pasatzen ziren San Migelen irudiari muin ematera.

San Migelen ohitura honek bazuen bere alde komertziala ere: etxe guztietatik pasatzen ziren aurreko joan etorri horren ondoren meza sariak enkargatzera: apaizak han idazten zuen bakoitzak zenbat meza enkargatzen zituen eta zenbat diru uzten zuen. Jendea eskuzabal ibiltzen zen egun horretan San Migeli zitzaion debozioagatik eta haren babesa ere estimatua zelako.

Entzunda daukat gerra aurretik Gipuzkoako herri batzuetara ere joaten zela san Migelen irudia, baina gero, gorriekin joan zirelako edo, kendu egin zitzairen aukera hura. Nolanahi dela ere, Aralarren erdia bederen Gipuzkoako lurra da eta hango jendearentzat San Migel inguruak oso kuttunak dira, asko eta asko joaten dira asteburuetan. Hortik aparte, abuztu-

ko igande batez, Aralarko artzain nafarrek San Migelen irudia Gipuzkoako Igaratzara eramaten dute eta lagunarte handiko eguna izaten da nafar eta gipuzkoarren artean.

Aste santuko ohiturak ere oso erakargarriak ziren guretzat. Hasteko, garizuman elizako aldare guztiak eta santuen irudiak zapi beltz erraldoiz estaltzen ziren goitik behera. Gero aste santuko ostegun, ostiral eta larunbata bereziak ziren: elizako ezkilak mutu geratzen ziren eta haien egitekoa guk betetzen genuen herria karraka hotsez gora eta behera zeharkatuz. Une bereziren batean elizaren barruan ere jotzen genuen karraka. Zer gehiago behar genuen guk!

Gabonen inguruan ere bazen umeok jai giroan jartzen gintuen zenbait gauza. Bazetozela nabaritzeko elizan Jaiotza ipintzen zen. Herri guztietan izan ohi da esku trebeak dituen norbait eta egiari zor, oso erakargarria zen guretzat han jartzen zena: goroldioa sobera, errekatxoak ere bai, izarra eta ardiak ezin falta Errazkinen. Gainera Erregeak ez ziren beti leku berean egoten, haien eguna hurbiltzen joan heinean, Belengo aterpetik gertuago egoten ziren. Ez dakit nork aurreratzen zituen, baina sekula ez genuen ikusi une hori, frankotan zeletan egon baginen ere.

Olentzero geroagoko kontua izan zen Errazkinen, baina Gauerdiko meza ere normaltasunetik ateratzen zenez, une paregabea bilakatzen zen. Eta biharamunean “allandoak” esaten genion hura zegoen: etxez etxe joaten ginen 12-13 urtez azpiko herriko haur guztiak, eta kanta labur baten ostean, oihu batekin amaitzen genuen: “eguberri intxaurra”. Jendea begira eta gu harro. Une hartan agertzen zen etxeckoandrea eta zerman ehunezko poltsan intxaurrak, laranjak, mandarinak, pikkuak... edo holako zerbait uzten zion ume bakoitzari. Dirurik ez.

Gabonaldiari amaiera Errege egunak ematen zion. Bezperan ohitura zahar bat berritzen genuen: alkatearen etxera joaten ginen gauak bi edo hiru ordu eginak zituenean. Han kanta

sorta polita abestu ondoren denok barrura sartzen ginen eta gaztaina erreak jaten pasako genuen ordubete inguru. Gero gauza bera errepikatzen genuen alkate ordearen etxean.

Haur bat jaiotzen zenean, eta orduan guztiak baserrian bertan jaiotzen ziren, bataio eguna ere abagune egokia izaten zen neska-mutikoak biltzeko; elizatarian zain egoten ginen barruko egitekoa noiz amaituko. Bagenekien une hartan aitabitxiak, eskua poltsan sartu eta, gozokiak izango balira bezala, txanponak hara eta hona botako zituela eta gu haien bila denok aztoratuta. Guk bataioa horri esaten genion, une zehatz horri. Gero bakoitzak sekreturik gabe esango zien lagunei zenbat diru bildu zuen.

Lehen jaunartzea zen beste egun berezi bat. Ez geunden ohituta jantzi dotoreegiak eramaten baina egun horretan jauna hartu behar zuten mutikoak marinelez eta neskak txuri, denak txarolezko zapatetan sartuta eta marfil itxurako liburu bat eskuetan, urduri ezin egonez. Jakina, mezakoa izaten zen apainena, eta gero bazkaria etxean. Orduan oraindik ez zen posible gerora modan jarri den luxua: jatetxe entzutetsuetan ehundik gora gonbidaturekin eta bodaren pareko eguna bailitzan.

Ezkontzak ere ospatzen ziren, baina umeontzat han ez zegoen lekurik, guretzat ez ziren batere garrantzitsuak. Gogoratzten dut behin eztei horietako bat zela-eta, zurru-murru handia izan zela jende helduaren artean. Ez ginen gehiegi enteratu zertaz ari ziren, ez baitzen umeen aurrean hitz egiten, baino gerora jakin genuen bekatua nolakoa izan zen: gonbidatuek bazkalondoan izaten zuten dantza saioan, arau guztiak apurtuz, “valsean” egin zuten, hau da, “al agarrao”... Auskalo zenbat iraun zuen apaizaren haserreak!

Eta herrian giro berezia jartzen zuten gaiari amaiera emateko, ezin ahaztu urtean zehar lau aldiz edo izaten ziren prozesioak. Zela amabirjina, zela Jesusen Bihotza, zela... egun jakinetan herriko kaleetan zehar prozesio distiratsuak egiten ziren.

Aurretik errepidean, etxe bakoitzak tokatzen zitzaion kale zatia txukun utzi eta gero, belarrez eta landare ezberdinez apaintzen zituen eta han edo hemen arku dotoreak jarri ere bai. Zeharraldia kantuz betetzen zen, eta tarteka suzirik eztanda egiten zuten. Umeontzat zer izan zitekeen gauza atseginagoa!

Igandea, jakina, egun bereziki atsegina zen umeontzat. Hasiera nolabait ere, larunbat arratsaldeko ezkila musikarekin ematen zitzaion. Musika diot ze doinu benetan kantaria zelako, jaia iragartzeko ezin aproposagoa. Eliz ezkilak funtzio oso garrantzitsua betetzen zuen Errazkinen, beste herrietan gertatzen zen bezala. Norbait hiltzen zenean, doinu tristea; mundu guztiak ulertzen zuen mezua. Mezara deitzeko ere berezia zen; sutereren batek kaltea zekarrenean jendeari presa sartzen zion doinua antzematen zen...

Larunbat arratsaldeko ezkila hotsak astearen bukaera esan nahi zuen guretzat: jotzaileak erritmo hori sartzen zion eta jai handi baten bezpera bazen, luzeagoa zen ezkila saioa. Horrelakoetan sarri konfesatzera joatea tokatzen zitzaigun: 8-11 urteko neska-mutikook batera bildu eta apaiza konfesonarioan sartzen zen eta gure arazorik larriena aitortzeko moduko bekatoren bat aurkitzea izaten zen. Guk eguneroko joan etorrietan ez genuen bekatuak egiten; gaiztakeria asko baina bekatuak... sarritan pentsatu dut zertara zetorren ohitura hura. Baina horrela ziren gauzak.

Igandetan mezatara joateko apain jartzen gintuzten: txukun orraztuta, galtzerdi bereziak, oinetako lustratuak eta jantzia ere ez ohizkoa. Nola nahi ere, gogoan dut ez ginela eroso sentitzen hala. Izan ere, nahi duena egiteko modua duenean sentitzen da eroso umea, eta guk hala jantzita baldintzatua ikusten genuen gure burua, ez pilotan aritzeko, ez zilipurdika ibiltzeko... Baina hala ere maite genuen tarteka jaietako jantzian sartuta egotea.

Mezatako lanak egin ondoren arropaz aldatu eta egunero-ko jantzia jarriko ez bagenuen ere, askatasun pixka bat eman-



go ziguna izaten zen. Nik uste etxean horregatik baino gehiago beste arropa hondatuko genuen beldur zirelako egingo zutela.

Arratsaldean bezperen ondoren protagonismoa heldua goek hartzen zuten. Ulertzekoa den bezala, aste osoan lanean aritu eta gero, haiek ere pilotan jokatu nahi izaten zuten. Las-ter antolatuko zuten onentsuenen artean partidaren bat jendearentzat ikuskizun gisa. Egia esan, garai hartan telebistarik ez zegoen eta guk profesionalen partidarik ez genuen ikusten baina Errazkinen oso maila oneko pilotariak beti izan dira. Ez da kasualitatea hurrengo urteetan herri hartatik horrenbeste profesional atera izana, punta-puntakoak batzuk: Oreja bi anaiak eta Martinikorena, adibidez. Joan den mendeko 70. hamarkadako une batean zazpi pilotari profesional izatera heldu zen Errazkin. Ez dut uste erraz hausteko marka denik.

Pilota partida amaituta, oraindik ordu pare bat edo hiru geratzen ziren jai egiteko eta sarritan dantza saioak antolatzen ziren. Herrian bazen Joakin Karratxo deitzen zitzaion gizona, soinujolea afizioz. Gogoan dut gazteak hari eske, soinua ekarri eta jo zezala. Eta sarritan halaxe amaitzen zen jai eguna.

Aurreko lerroetan agerian geratu da herriko jai giroa beti erlijio ospakizunen eskutik etortzen zela. Bata ezin zen ulertu bestea gabe. Horrela ulertuz gero “euskaldun fededun” hura, ez da oker historikoa. Gero,ordea, zenbait jendek, eta alderdi-  
ren batek ere bai, beste dimentsio bat eman diote, agian fun-  
damentalismoaren mugakoa. Egia esan elizara joaten ez zenik  
ez zen herrian; ezinduei eta gaixoei ere apaizak han eramango  
ziren jauna: niri meza-laguntzaile gisa sarri egokitu zitzaidan  
apaizari halako edo bestelako etxera lagundu behar izatea  
“jauna eramatera”; poz handia sentitzen genuen: apaiza han  
joaten zen elizako jantzia eta ostia sakratua kutxatxo berezi  
batean zeramala eta meza-laguntzailea aurretik txilina joz; hu-  
ra entzutean inguruan aurkitzen zen oro belauniko jartzen zen  
jauna pasa arte.

“Euskaldun fededun” pentsaera horrek arrastoak utzi ditu gure herrietan eta literatura zaharrean –apaizen literatura funtsean– eta joan den mendean sortutako lehen alderdi tradizional eta nazionalistetan ere funtsezko aldarrikapena zen. Gure garai hauetatik atzera begiratuta, ez dut uste kalitate handiko erlijio zenik, baina errespetu guztiz hartu beharrekoa dela ukatu gabe. Gizakiak garai bakoitzean, orain filosofoiak azpimarratzen duen bezala, bere mundu ikuskera izan ohi du: hartzuloetan bizi zenekoa, erromatarren garaikoa, erdi arokoa, gaurkoa... Gure lurretan errotu den katolikoen erlijioa sobera dogmatikoa suertatu da... Funtsezko aitormena izan dute jainkoak haiei egia osoa errebelatu ziela eta bilaketa lanari ekin ordez, fedea gorde eta aldaketarik gabe mantentzen saiatu dira.

Azkenean, bada, erlijioa euskaldunen artean dogma edo egia batzuk onartzea izan da funtsean eta ez garai bakoitzaren eraginpean mundu ikuskera egokiago baten sortzaile. Erlijioaren oinarrian ezinbestekoa izan beharko luke lan horrek hala munduaren proiektua osotzen joateko eta hartarako behar den energiaren iturri izateko.

Horren ordez sistemaren barruan funtzio bat bete du erlijioak, haren zerbitzura errito batzuk asmatuz. Gure herri txikiak ezagutzeko aukera izan duenak arazorik ez du izango ohartzeko duela urte gutxi arte nekazal eta artzain kulturaren horixe zuela eginkizun garrantzitsuena: bizitzako une funtsezkoak –jaiotza, ezkontza, heriotza– ospatu eta biltzeko ziren egunetan –igande, santu zaindari, jaiak– giro berezia sortu meza nagusi, bezpera, prozesio eta abar-.

Baina nekazal giro hori atzean geratu da, hiritar bilakatu gara eta sinbologia zaharra zentzugabe geratu da. Oraindik nire herrian batzuk gogoratzen dute belar zelaietan edo so-roetan lanean edo frontoian jolasean ari ziren unean elizako ezkilak danbadak joz gero, dena utzi eta angelus erreztatzea ezinbestekoa zela.

Are gehiago, oraindik ez dira urte asko eskuz eskuko finaleko pilota partida eguerdian jokatzeko zenean, hamabiak zirenean, apaiza frontoiaren erdira atera eta pilotariak eta epaileak alde banatan jarri, harmailetako ikusleak txapela kenduta zutik, nola errezatzen zen angelusa. Gogoan dut, orduan gaztea nintzen, 25 urte inguru, garaiko egunkari batera artikulutxo bat bidali nuela ohitura hori lekuz kanpo zegoela adieraziz, eta ez zutean argitaratu nahi izan. Zergatiaz galdetu ondoren, eskutitz oso laburrean hala erantzun zidaten: “Euskaldun batek jakin beharko luke horren arrazoa”.

Erlijioa, fedea, kultura, sentimenduak, tradizioa, sineskeria, etika... errealitate konplexu baten osagarriak dira eta errealitate horrek, gizakiaren parte diren heinean errespetuz hurbiltzea merezi badu ere, ez du esan nahi norberaren eta besteen jarrera kritikoa sistematikoki gaitzetsi behar denik, eta are gutxiago jazarpen bat bezala hartu. Bestela erlijioa heldutasun eskasekoa izango da, sendotzen ez den landarea, fruitu ematera nekez helduko dena.

Nolanahi ere, “euskaldun fededun” horren antza handia duten jarrerak beste bazterretan ere ageri dira. Elizaren jarrerak argi uzten du sarritan harentzat herri bat ez dela benetako erlijio katolikoari leku berezia egiten ez zaion bitartean. Mende askotan zehar erlijio hori nagusi eta tradizio izan den aitzakian, tratu berezi bat eskatzen jarraitzen da, garai berrietan bizi garela uka ezina bada ere.

Aski duzu ospakizun ofizial bat denean: errege familiako norbaiten ezkontza, goi mailako familietako ospakizuna edo beste hainbat kasutan han biltzen den jendearen “sinismena” baloratzea. Erdi aroan ere jende horiek batera eta bestera joaten zirenean, santuen erlikien babesarekin ibiltzen ziren. Horrela esplikatu liteke han eta hemen oraindik Golgotako gurutzearen zatiak mundu guztian barreiatuta egotea, edo santuen gorpuzki ustelgabeak negozio-gai izatea. Santeria ez da Hego Amerikako kontua soilik.

Haurtzaroan erlijioaren praktika transzendentziaren oihartzuna baino gehiago folklorea eta ohitura zen. Andaluziako “pasoak” bezalatsu.

Eta jende helduengan? Hor ez da erraza hau edo bestea esatea; izan ere, herrian 500 lagun inguru bizi ginen eta bazuentzat erlijioa barne-muinetan zeraman aberastasuna izango zen. Nire ustez, erlijioa bakoitzaren oso gauza intimoa da azken batean. Baina gehientzat elizkizunak elkarrengana biltzeko abaguneak baino askoz gehiago ez zirela esango nuke nik: igande edo jaietako mezak, bezperak... Erlijioa ohitura sozial bat zen, batez ere.

Behin agertu zen herritik emakume ez oso gaztea, betaurreko beltzak eta zakur marroi kolorekoa. Maisuaren etxean hartu zuen ostatu, eta zazpi-zortzi hilabetez han ikusten genuen bakarrik paseatzen. Ez zen elizatik agertzen, ezta igandeko mezara ere. Mesfidantza handiarekin begiratzen genion, beldur pixka batekin ere bai, sorgina ote zen ere pentsatuko genuen segur aski. Baina elizara joaten ikusi izan bagenu, beste modu batera pentsatuko genuelakoan nago.

Apaizak berak erlijioa nor bere erabakiz hartzen duen bide bat ez baino, bete beharreko agindu bat bezala erakusten zigun. Isuna ordaintzea bezala. Sermoieta bekatua, infernua, eta han edo hemendik xuxurlariren batek esanda jakin zituen pasadizoren batzuk ateratzen zituen: neskak eta mutilak ez dakit ze ordutan, badakit ze haserre... Izan ere, herrietan beti izaten zen enteratutakoa norberarentzat gordetzen ez zekiena.

Sermoa zerbait luzatzen bazen, eta ia beti hala gertatzen zen, koruko mutilen batek halakoren batean hankaz kolpetxo batzuk emango zituen denak entzuteko moduan. Orduan apaiza bere onetik ateratzen zen eta errieta bizian hasten zen, deskuidatuz gero guardia zibilari deituko ziola-eta... Neronek bizi izandakoa, eta ez behin bakarrik.

# Kabitik ihes egiteko prest

## Tolosako sakramentinoetan

Hamahiru-hamalau urterekin amaitzen zen gure eskolaldia eta bat-batean pertsona helduak bihurtzen ziren ordura arte ume izanak. Handik aurrera baserriko lanetan besteen parean jartzen zen bat eta erantzukizun osoak hartzen zituen poliki-poliki: behiak jetzi, soroan aitzur lanak egin, segaz belarra ebaki, astoan kargatu eta etxera garraiatu, artajorran edo arbi jorran egin...

Bi edo hiru urte geroago, baserria bere orduan etxeko seme-nagusiarentzat izango baitzen, 16-17 urterekin han hartzen ziren oso erabaki garrantzitsuak, geroaren oinarri bilakatuak zirenak.

Etorkizuna nola egiten hasi ez da txantxetako gauza eta nesken kasuan gauza arrunta izaten zen neskame edo jatetxeren batean zerbitzari bezala joatea.

Mutilen kasuan, hasierako urteetan behintzat, askok hartzen zuten basorako bidea: ez noski perretxikoen bila. Aizkora hartu eta zuhaitzak moztu, garraiatu, kamioietan kargatu... Lan gogorra, hartan aritu zirenek esaten dutenez; baina bazuen zenbait abantaila: lan eskaintza handia zegoen, bertako basoan baino gehiago, orduan esaten zen bezala, Frantzia aldean; titulurik ez zen eskatzen eta azterketa eguneroko jardunak egiten zuen... Eta batez ere, pezeta bat ez zuen gatzarentzat, nahiko

ongi ordaindua. Asmoa zen aurrezki batzuk egin soldadutzara joan aurretik. Errazkinen ez eze Nafarroako mendi alde osoan zen basora joateko joera hau: Basaburua, Ultzama, Larraun, Baztan bailaretan batez ere.

Nire edadeko lehengusu bat, Errazkingoa bera ere, eskola eta jolas elkarrekin ibiltzen ginenak, han joan zen 18 urterekin Tarbes aldera eta 15 egun baino lehen goitik behera zetorren enbor batek erdiz erdi harrapatu eta hilotz utzi zuen. Denbora luzez egon nintzen hura burutik kendu ezinda.

Soldadutzak jartzen zuen etena lan mota horretan. Jen-deak jaiotza bezain naturala ikusten zuen kuartelean adin horretan, bizitzako desafiari erantzuten hasteko unean, kabo txuskero baten mende urte t'erdi igaro beharra. Sekulan ez nuen entzun gauza horren aurrean kritikarik. Tokatzen zaidak eta kitto. Norbaitek esan ote zien sekula 80 urte lehenago euskal gazteak ez zirela soldadutzara joaten? Jarri ote ziren inoiz pentsatzen ze arrazoigatik joan behar zuten, eta zer defenditzera horren urrutiko lurretara? Gehienak, gainera, nekez moldatzen ziren erdaraz mintzatzeko, eta entzutea dudanez, hamaika aldiz haien lepotik barre egin zuten itxura gaiztoko militar haiek. Batzuetan gauza xelebretik ere entzun izan dut, hain zuzen ere, soldadutzari esker egin zirela gizon.

Asko ziren Afrikara joaten zirenak: Melilla, Zeuta, Ifni... Inoiz entzun dut proportzioan hemengoek gehiago izaten zutela destino hura. Bereziki zigortzen ote zituzten euskaldunak Afrikara bidaliz?

Han joan zen nire anaia zaharrena, etxean lana besterik ez eta etorkizunari aurre egiteko ordua iristen ari zen unean, Melillatik 40 kilometrorra basamortuan zegoen kuartelera. Zertara? Galdera hori soberan zegoela irudituko zitzaion segur aski. Hangoa amaitu eta itzuli zenean, haren kontakizunak oso adi entzuten genituen; gainera horrelako pasadizoak kontatzeko oso trebea izan da beti. Moroak gora eta moroak

behera, haien abilezia gaiztakeriarako, erne ibili behar izaten zela batez ere ilundu eta gero...

Hura Espainia zela eta moro terrorista batzuk ez zutela bakerik ematen. Soldaduak han gure etxea defenditzera joanak balira bezala. Pena Euskal Herritik joandako gazte haiek Joseba Sarrionaindiaren, “Moroak gara laino artean” irakurri ez izana. Liburu hori irakurritakoan askoz hobeki ikusten da hemen gertatzen dena. Nire baitan sarri pentsatu izan dut Espainiako jende askok Euskal Herrian gertatzen dena, soldadu haiek Ifnin pentsatzen zutenaren parekoa dela.

Gero tarteka elkarrekin biltzen garenean, baserri giroko jendeak badu joera garai hartako pasadizoak gogoratzeko, barre eragiten dutenak batez ere. Bazen tartean “talla” juxtu xamarra eman zuen bat eta hala galdetu zion beste lagun batek.

—Han emandako uniformea neurrira egin al zien?

—Ze ba? Han bakoitzari uniformea “a medida” ematen ziotean, a medida que pasaba...

Kontua da hala pasatzen zituztela ia bi urte etxera itzuli gabe: haiek aspertuta eta sasoi hartako gaztearen premian gurasoak! Nik izan nuen lehenengo erlojua anaiak soldadutzatik itzultzean ekarri zidan, han oso merkeak zirela eta... Baina merkeak edo ez merkeak, dirua falta denean, nahikoa sakrifizio.

Bizitzako ataka estu horretatik pasata, bidegurutze batean aurkitzen ziren: jada 22-23 urte, baserrian etorkizunik ez seme zaharrena izan ezean, eta kanpora joan behar. Asko berriro basora itzultzen ziren, lehen aipatu bezala lan eskaintza ona zegoelako. Bizimodu gogorra izan arren, batzuk urtetan jarraitzen zuten han. Beste batzuek 4-6 urte egiten zituzten, batez ere etxe bizitza bat erosten hasteko adina diru aurrezteko asmoz. Han ez zegoen baserritik laguntza jasotzeko zain egoerik. Baserrian ere nahikoa lan izaten zuten burua altxatzeko.

Horrek esplikatzeko du Nafarroatik zergatik atera diren horrenbeste aizkolari on. Orduan bai, orduan lanbidea zen

aizkora. Gaur egun erabat aldatu da, tresnak berak ezberdinak dira: motozerrak hartu zuen aizkoraren lekua eta plazako aizkolariak, beste kiroletan bezala, zaletasunak bultzatuta egingdako jardunetik sortzen dira.

Beste batzuk Gipuzkoa aldera joaten ziren ea fabriketan zerbait aurkitzen zuten Oria Araxes... ibaien bazterretan ugari ziren paper fabrikak eta monopolio gisa funtzionatzen zuten arlo horrek: batetik bestera alde gutxi lan baldintzetan eta nagusiak ados soldata murrizetan. Jabeak Francoren erregimenaren aldekoak ziren eta erregimenak babesia ematen zien. Nik Tolosan ikusi izan dut lehen aldiz 1955ean greba handi bat. Gerora jakin dut une historikoa izan zela hura erregimenaren kontrako borrokan. Inguruko herrietako baserrietatik etorritako langileak ziren gehienak, karga astunak garraiatzen ikasitakoak, baserrian bezala ordutegirik gabe ohituta. 13-14 orduko lan aldia arrunta zen han, 8 orduko lanak diru oso gutxi uzten zuten-eta. Paper fabrika ohietako batzuen nagusia, sarri ikusten genuen sakramentinoen elizan belauniko errezoak egiten.

Hortik aparte hurrengo urteetan han eta hemen tailer txiki batzuk sortzen joan ziren eta halaxe hasi zen jendea baserriko lanaren ordeztu beste ogibide bat ezagutzen.

Honetaz ari garelara, ezin aipatu gabe utzi Nafarroan industria zeinen berandu sartu zen. Ia hirurogeigarren hamarraldia arte Nafarroak ateak itxita zeuzkan industriarentzat. Nekazal kazikeak ziren bidea erakusten zutenak eta beldur ziren industria sartuz gero, indarra galduko ote zuten beste batzuen mesedetan. Eta horretan bidelagun zuten eliza; nonbait irakurri izan dut garai bateko gotzainaren eskutitza ofizial horietako batean erlijioarentzat oso arriskutsua zela lantegiak Nafarroara ekartzea, ideia okerrak eta ohitura txarrak sartzeko besterik ez zutela balio eta.

Zoritxarrez, orduan inolako prestakuntzarik gabe ateratzen ziren etxetik eta lantegian eskulan gogorra eta merkea



egiten zuten nagusiarentzat. Baina hori izan da gure herriko gehientsuenek gaztetan egin behar izan zuten bidea. Extremaduratik eta Andaluziatik zetozenak ez zuten bizimodu erraza hemen, baina baserrietik ateratzen ziren askok ere... Ez zegoen elkarren kontra aritzeko motibo handirik.

Gutxi batzuk izaten ziren, herri askotan bestalde, beste bide bat hartzen zutenak: apaiztegirakoa. Erlijioak gauza guztiak sublimatzeko ohitura du eta Jainkoaren deia ikusten zen horretan. Batek baino gehiagok poz handia sentituko zuen Jainkoak haien semea apaiz izateko aukeratu zuelako. Ez dut uste Jainkoa inbertsio horietan nahasita ibiliko zenik; bizitzako errekek bere bidea ahal duen bezala egiten du, eta gurean ere batzuk izaten ziren basoa edo fabrika oso atsegin ez eta ikastea nahiago zutenak. Eta baserrietan ez zegoen modu handirik semeari Donostian edo Iruñean ikasketak emateko.

Arratsalde batean han agertu zen eskolatik fraide karmeldar bat eta bere ibilera pausatuan maisua zegoen lekura hurbildu zen. Gero entzun nuenez, aurrez apaiz-etxetik pasatua zen eta han izen batzuk apuntatu zituen. Baremazioa egiteko bi puntu hartu zituen aintzat: ikasteko nahiko trebea izatea eta elizako gauzetarako gutxieneko joera bat.

Kontua da nik biak betetzen nituela. Egia da eskola lanak gustura egiten nituela eta elizarako joera, meza-laguntzaile nintzenez, bermatua zegoela. Aitari esan nionean, ez zuen ezezikorik esan baina ez zion graziarik egin; aste batzuetan ez zen hartaz gehiago hitz egin. Baina egun batean jakin nuen nire lehengusua Tolosako sakramentinoetara joatekoa zela. Baremoa juxtu xamar pasatutakoa izango zen, ze ikasketak ez zituen gogoko eta elizan ere erreztatu adina endredatzen zuen. Baina anaia laster apaiz sakramentinoa egitekoa zuen eta horrek ere puntuak emango zizkiola uste dut.

Orduan ohartu nintzen aitak ahaztuta zeukala nire kontua eta halaxe galdetu nion espresuki ukuilura jaitsi eta lanean ari zen une batean: “Aita, orduan zer, joango naiz ala ez?”

Eta ezetz erantzun ez zuenez, nik baiezkoa bezala hartu nuen. Badakit aitak niretzat ez zeukala ezer berezirik pentsatuta, eta apaiztegira joanda zerbait ikasiko nuela pentsatzen zuela, baina segur aski ez zuen argi ikusten nola ordaindu sakramentinoetan ordaindu behar zenapurra ere. Gure etxean ez bai zen diruaren zirkulaziorik ezagutzen, premia handiko zerbaitetarako ez bazen behintzat.

Eta 1953ko irailaren hasieran han joan ginen bazkalondoan, Atalloarra hartuta, lehengusua eta biok Tolosako sakramentinoen apaiztegira. Lehen egunak oso gogorak iruditu zitzaizkidan: lehenengo aldia zen etxetik era horretan ateratzen nintzela. Lotarakoan zenbat gogoratzen nituen etxea eta etxeokak, herria eta lagunak... Damutu nintzen aitari hara eramateko esana. Baina nola egingo nuen atzera? Zer esango zuten etxean? Horrelakoetan beti erabaki bera hartu izan dugu: segi aurrera.

Bizitzan zehar askotan egin izan dugu horrela: gutxirekin jaio eta gutxirekin bizitzen ikasitakoak, bagenekien bide gutxi geneukala aukeratzeko eta gustukoa ez bazen ere, aurrera egin behar. Agian beste batzuek aukera gehiago zuten.

Lehen aipatu dut zeinen garrantzitsuak ziren guretzat herriko usainak: belarra, sagarrak, ogia, basoa, soroak, baratza... Tolosan oso gogorra egin zitzaidan hango usainetara ohitzea. Ondoan pasatzen zen Oria ibaia, paper lantegi guztietako zikinkeriak bildu eta metro bateko bitsa gainean, nik ezagutu dudan ibairik zikinena. Handik zetorren kiratsa ez zen sinistekoa.

Edaten genuen urak ez zuen zer ikusirik ordura arte ezagutzen genuenarekin: gure herriko ura lurpetik ateratzen zen; depositu handi batean biltzen zen herriaren goiko aldean eta handik baserri guztietara hodietan eraman. Ez dut uste inolako tratamendurik ematen zitzaionik, basoko edozein errekatxo edo iturritan edaten genuen ura bezalakoa bat zen.

Tolosan, ordea, urari tratamendu bortitza ematen zitzaion eta nik orduan ez nekien zer zen, baina suposatzen dut kloro karga dezentea zeramala eta sarritan kosta egiten zitzaidan hartatik edatea; oso egarri egon behar izaten zen, han ez zegoen ur freskoaren plazerik. Oraindik ere buruan sartuta daukat zapore hura.

Jakina, Tolosan ez genuen behi esnea edaten. Amerikarrek gerrak miserian utzitako jendeari laguntzeko oso ohitura zaharra dute eta handik bidalitako hauts esnea ur horrekin egiten zenez...

Gurina ere amerikarren oparia zen, ez dakit ona edo txarra izango zen, baina elikadura ezin bestekoa izan zen garai haietan eskola umeentzat...

Apaiztegiko ontziak: platerak, edalontziak, katiluak ez dakit ze metalezkoak ziren, baina haien usaina ere guztiz ezberdina eta desatsegina egin zitzaidan hasieran. Eta seguru nago oso garbi zeudela, han garbitasuna zaintzen baitzen. Moja batzuek eramaten zuten sukalde lan osoa.

Eta gero han dena handia zen: jangela, logela, komunen guneak... Eta hori ere antzematen da sudurrean.

Etxea eta herria ezin kendu burutik baina han aurrean beste errealitate nahiko gordina geneukan. Hara iritsi eta Erriberako etorri berri batzuk martzianoei bezala begira jarri zitzaizkigun euskaraz hitz egiten genuela ohartu zirenean. Hori gutxi ez eta Gipuzkoako kaletarrek ere txisteak egiten zizkiguten baserritik gentozenoi. Eta apaizek, denak euskaldunak, gipuzkoarrak gehienak, erdaraz hitz egiten ziguten ia beti. Horrela, lehenbiziko hilabetean, Amezketako bat, nire lehengusua eta hirurok beti elkarrekin ibiltzen ginen. Eta ezkutuan bezala ibili behar izaten genuen; izan ere, zuzendariek ez zuten nahi izaten beti lagun berdinekin ibiltzerik. Arrisku-tsua omen zen. Baina huraxe zen gure babes leku bakarra, gure habia.

Amezketarra, gu bezalaxe, baserriko semea zen; gu ordu-rako hamaika barre eginda geunden etxean Pernando amezketarraren pasadizoekin. Eta amezketar hura kasta berekoa zela uste genuen nonbait. Egia esan, herriko hamaika pasadizo kontatzen zigun eta gustura egoten ginen hirurok.

Hala kontatu zigun behin, bahero –gure herrietan paierua esaten genuen orduan– horietako bat bere mando zahar handiarekin joan omen zen, baiak eta baserrietan behar izan ohi ziren beste gauza askorekin beren baserriko atarira. Ogia garai hartan baserrietan egiten zen eta irinari zalkea kentzeko bahe-tik pasatzen zen. Etxean amona bakarrik suertatu une hartan eta beheko atean deitu zutenean, ate-gaineko balkoira atera eta esan omen zion saltzaile erdaldunari: “No baias, señor, no baias”.

Eta gizona han geratu zen, emakumea noiz jaitsiko zain.

Berriro balkoira atera zenean, gizona han ikusi zuen oraindik eta berriro esan zion: “No baias, señor, no baias”.

Hirugarren aldiz atera zenean, paieruak han oraindik. Joan zen amona sukaldera, hartu zuen balde bat ur eta han atera zen balkoira: “No baias eta no baias eta oraindik hor?”.

Eta balde bete ur bota zion burutik behera. Orduan hasi nintzen ohartzen guretzat zeinen garrantzitsua zen hizkuntza eta baserriko kultura hura.

Zenbat aldiz pentsatu dudan orduan bizi izandako une haietan! Erriberako haiek ez al zekiten Nafarroan erdiak baino gehiago euskaldunak ginena? Gero guk gaztelera haiek euskara baino askoz lehenago ikasi genuen. Eta gipuzkoar kaletar haiek ere ez zeukaten adarra jotzen ibili beharrik baserrietik gentozenokin. Eurei ere oraindik nabari zitzaizen simaur usaina.

Garai hartaz gogoratzen naizenean beti datorkit burura hango diziplina. Nork ukatuko du 80/85 ikasle bizi den lekuan gutxieneko diziplina bat beharrezkoa dela, baina batzuetan iruditzen zait funtzionaltasunaren zerbitzura baino gehiago diziplina bera zela helburu: umetatik ikasi behar du

diziplinatua izaten. Nolabait ere santuen bizitzetan ageri ziren diziplina jarrerak ezarri nahi balira bezala.

Eskailerak gora eta behera, bazkal orduetan, geletatik sartu-irteeretan, lotarakoan, komunetara joaten ginenean, beti tropelean ibiltzen ginen eta beharrezkoa zen gutxieneko ordena bat. Baina han zigorra ez zen mehatxu hutsa izaten.

Gerora behin baino gehiagotan pentsatu izan dut zigorra sarritan ez zegoela justifikatuta: bi edo hiru egunez jolasera irten gabe, latinezko klasikoetatik 3-4 orri buruz ikasi.

Hango ikasketak Errazkingo eskolakoak baino antolatua-  
goak ziren eta orduan hasi ginen ikas prozesuaren diziplina gureganatzen. Ezin ukatuko dut hori, nahiz eta gerora ohartu naizen material pedagogiko asko ez zegoela eta irakasle lana egiten zutenak ere prestakuntza egokia baino borondate on gehiago zutela. Baina, adibidez, irakur liburuen aukera ona geneukan eta zaletasun handiz irakurtzen nituen gazte literaturako hainbat liburu ezagun.

Latina funtsezko ikaskuntza zen eta matematika ere garrantzitsua. Euskararentzat ez zegoen lekurik. 13-14 urte genituen orduan, ez dakit kontzientzia hura nondik sortu zen, baina astero gure taldea bildu eta irakasle batek euskarazko liburu bat irakurtzen zigun ozenki: *Noni eta Mani* zuen izenburua.

Garai hartan ikasketa akademikoak ez zeuden gaur bezala araututa. Gure ikasketek, esaterako, ez zuten balio akademikorik eta horrek arazoak sortzen zizkien, batez ere, ikaste-txea utzi eta ikasten jarraitu nahi zutenei.

Alde horretatik, 13 urte edo nituenean, nonbait sakramentinoak ere ohartu ziren arazoaz eta aurrerantzean batxiler-  
goa egiten hasi ginen. 1956 urte ingurua izango zen eta nahiz ikasketak Tolosako sakramentinoetan egin, azterketa ofizialak Donostiako Peñafiorida Institutuan egin behar izaten genituen. Horrek ikasketen plangintza asko aldatu zuen guretzat eta zuzen emandako urratsa izan zela iruditzen zait.

Musikari ere tartea ematen zitzaion eta pentagrama ikasi genuen eta nolabait hartaz baliatzen ere bai. Izan ere, garai hartan polifonia erlijiosoak garrantzia handia zuen eta koru bat osatzen genuen Benito Iparragirrenen zuzendaritzapean. Igandetan eta batez ere urteko jai handienetan koruaren jarduna oso estimatua zen. Gailurra Tolosako Parrokian, abenduko Amabirjinaren egunean izaten zen guretzat. Han Mokoroaren meza abesten zen urtero egun horretan eta bertako orkestra han izaten zen eta gizonezkoen korua ere bai; guk tipleen lekua betetzen genuen. Egun handia hura!

Ikasle asko pasatu zen handik eta oso gutxi batzuk heltzen ziren apaiz izatera eta sarri han ikasitakoa izango zen bizitzako eskola guztia.

Hala ere, bide horrek ez zuen urte askotan iraun. Halako batean, Villar Palasík, Hezkuntzako ministroak, batxilergoko ikasketak berrantolatu eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) jarri zuen abian. Hezkuntza plan horretan ezinbestekoa izan zen aurrerantzean irakasle titulu ofiziala klaseak emateko. Sakramentinoetan ez zegoen baldintza horiek zituen behar beste irakasle eta kanpoko tituludunak ekarriz gero, ez zen ekonomikoki bideragarria. Hala itxi zen ikastetxe hura 1970eko hamarraldian haur askori ekarpen eskergaitza egin ondoren.

Gerora han aurkitu du habia nahiko egokia Tolosako Lasakorain ikastolak. Dirua aipatu dugu ikastetxea ixteko arrazoia, baina ordurako bistan zegoen ezin zela 11 urteko umeak gurasoengandik banandu eta hala hezten jarraitu. Gizartean gauza asko ari ziren aldatzen eta garai berrien atarian geunden.

Baina bada puntu bat aipatzekoa. Ikasleok ordaintzen genuena ez zen dirutza handia, sarri gurasoentzat sakrifizio txikia ez izan arren. Ze diru iturrik oroitzen zuen hango kutxa? Eta galderak beste errealitate bat jartzen digu begien aurrean.

Joan den mendeko 50. hamarkadan Latino Amerikako nazioak ekonomia osasuntsua zeukaten. Izan ere, 2. Mundu

Gerrak premia handiak eragin zituen Europan eta Uruguai, Argentina, Kolonbia, Txilek... merkatu oparoa zeukaten haragia eta esnekiak saltzeko. Hango diruak asko balio zuen trukean hemen. Eta hango dirua ezin bestekoa zen hemen ikas-tetxeak mantxentzako. Dena ez zen erlijioa.

Gauza ukaezina da misiolariak Euskal Herrian ugari eta meritu handiko gizon eta emakumeak izan direla askotan. Misiolariaren irudia kristauen artean guztiz aspaldikoa da. Ebanjelioan bertan sustraitzen da: apostolu hitzak, hain zuzen ere, hori esan nahi du: bidalia. Berri ona zabaltzera bidalia. Gauza guztiak bezala, gero urtetan zehar elementu berriak sartzen dira kontzeptu bakoitzean. Adibidez, mende askotan misiolarien asmoa, Amerikaren kolonizazioan eta geroko garaietan agerian geratzen dena, “oihaneko basati” haiek bataiatzea zen. Bataiatuz gero elizaren partaide ziren eta hala agian zerura joan zitezkeen hildakoan. Bataiorik gabe, ez zen posible horrelakorik.

“Elizatik at ez dago salbamenik” oso barneratuta zegoen pentsaera izan da oraintsu arte. Errazkinen, duela 40 urte inguru, ordurako, lehen ez bezala, haurrak Iruñeko kliniketan jaiotzen ziren. Herrian bataiatu nahi eta gure koinata han etorri zen seme jaio berria hartuta etxera. Joan dira D. Joanekin ea bataioa noiz izango zen hitz egitera eta apaizak haserre bizian hartu zuen familiakoa: “Nola ausartu zarete etxera haurra bataiatu gabe ekartzen? Ez al dakizue ze arrisku hartu dituzuen, autoan istripu bat izan eta bataiatu gabeko umea zerurako sarrrera itxita...?”

Gaur egun misiolarien helburuak zeharo aldatu direla gauza jakina da, eta neurri handi batean misiolariak beraiek ohartu direlako joaten ziren lekuetan bataioa baino lehena-goko premiak bazeudela: eskolak, osasun zerbitzuak...

Sakramentinoak Amerikara misiolari joan izana aipatu dugunez, gu ez ginen orduan asko ohartzen baina galdera hau

da: Hara joaten zirenak beren borondatez joaten ziren hala bestek aginduta?

Izan ere, ez zen nolanhiko erabakia garai haietan urrats hori ematea. Inoiz galdera egin izan diet haietako batzuei eta erantzuna nahiko kezkarria iruditu izan zait: “Denetarik egon ohi zen. Baziren beren borondatez joaten zirenak, eta baziren zigortuta bezala joaten zirenak ere; eta baziren hirugarren modu batera joaten zirenak: ez zait atsegin, ez da zigorra baina han norbait behar dutenez, niri agindu didate”. Hori gauza normala bezala ikusten zen.

Dirudienez norberarekin asko kontatu gabe hartzen ziren erabakien artean zegoen hori ere eta jakinarazteko orduan ez dakit nola egingo zuten, baina segur aski gehiegiko zeremoniarik gabe. Noizbait eskutitz baten bitartez, nahiz etxe berean bizi.

Inoiz irakurri izan dut santuen bizitzan gauza asko ikusten dela miresgarria, baina gutxi imitagarria. Ez dagokigu guri XXI. gizaldiko talaiatik iraganeko gizon-emakumeen epaia ematea, baina ikusi dugunaren harira hausnarketa bat egitea ez dut uste gehiegikeria denik; aitzitik, komenigarria izan daiteke gauzak nola ez egin ikasteko.

“Obedientzia” sarritan gehiegikerien iturri izan da. Zoritarrez borondate oneko erakunde askotan “bertikalismo” gehiegi egon da. Jendeari bertikalismo hori gauza sakratua bezala aurkeztu zaio eta hezkuntzan horren handitasuna irakatsi izan da. Horrelako pentsaera nagusitzen denean, injustiziak naturaltasun osoz egiten dira jokabide zuzena bezala. Eta gizartean ezaugarri horiek dituen erregimenean biziz gero, oraindik ere indar handiagoa hartzen du su horrek.

Euskal Herritik fraide asko joan zen lur haietara: “misioetara joan da” esaten genuen ezagunen bat hara joaten zenean. Nik ez dut daturik oro har misiolari lan hori epaitzeko, baina dakidana da hango hiri ospetsuenetako elizetara joaten zen jendea eskuzabala zela eta garai hartan hona diru asko ekar-



tzen zela handik. Hemen sinistuta zegoen jendea nazio haie-  
tan dirua barra-barra zegoela kalean ere.

Tolosako apaiztegia batez ere horrelako laguntzetatik bizi  
zen. Eta beste fraideen apaiztegiak ere berdin. Pasiotarrek Eu-  
ban altxatu zuten eraikuntza oso ezaguna da, apaiztegia izateko  
eraikia eta gaur egun Lauaxeta ikastolaren egoitza. Pasiotar  
lagun batek halaxe esan zidan behin: “Amerikatik ekarritako  
dirua hor sartu genian”.

Testu liburuetan esaten zitzaigunez, Espainiak Amerikara  
fedea, hizkuntza eta zibilizazioa eraman zituen; ez zen esaten  
trukean handik zer ekarri izan den. Kolonizazioa nazio batek  
sekula egin duen “jestarik handiena”. Baina badirudi ispilu eta  
gauzatxo bitxien ordainez, hango indiarrek urre dezente eman  
zutela. Urrez kargatutako itsasontzi batzuk itsas azpian aurki-  
tu dituzte duela ez urte asko. Dirutza handiak. Ipar Ameri-  
kako hiritarrak ziren handik ateratzeko lana aurrera eraman  
zutenak, baina gero Espainiako Gobernuak epai bidea hartu  
zuen urrea berea zela argudiatuz. Ez ote litzaeke latino ameri-  
karrei itzuli behar?

Nola nahi ere, gure harira itzuli eta gure haurtzaroaren  
kontaketari amaiera emateko esan dezagun eskola berean ibili-  
takoak han barreiatzen ginela lau haizetara. Hainbeste mentura  
elkarrekin bizitakoak, sakabanatuta. Jaio eta hamabi-hamalau  
urtera arte beti talde berean bizi izandakoak, elkarrengandik  
urrun. Aberria, oinarritzko aberria txikitan bizi izan duzun giro  
hori da. Beste aberria, ikurrinak sinbolizatzen duena, jaiote-  
rriak bete ezin duena betetzeko sortzen den antolamendua da,  
hura ere aberria, baina beste era batera.

Aise egingo genuke garai haietako kritika, eta kritika gor-  
dina, baina ez nago seguru zenbateraino den hori zilegia. Ez  
ziren garai errazak, orduan ere hobeki edo okerrago egiten zi-  
ren gauzak, baina urte gogorak ziren, ezinak markatutakoak  
eta bizi beharrak agindutakoak asko. Beraz esandakoarekin ez  
nuke inor mindu nahi.

Egunerokoan aurrera atera behar hutsa nahiko lana zen orduan eta nik “suertea” izan nuela esango nuke apaiztegira joanda. Gutxienez bestela itxita izango genituen ate batzuk horrela zabaldu egin zitzaizkigun.

## Arratiako Areatzan

Esan liteke 18-20 urterekin hasi ginela begiak zabaltzen. Ikasketak egiaren ezagupenean zentratuta zeuden, zer zen derrigorrez sinistu beharra, zein zen haien zimentarria, –nahiko eskasa gerora ikusi dugunez–. Egiaren bila egindako lana baino gehiago zen “emandako egia” barneratzea. Dogma gehiegi, eta jarrera kritikoaren orde, onartu beharra zegoen mundu ikuskera. Baina une berean, beste gauza askoren ikasi nahia barruan sortu zitzaigun. Alde horretatik giro oso ona izan genuen.

Tolosaz jardutean aipatu dut irakasle haiek nahikoa merituz izan zutela zegoen bibliografia murrizta kontutuan hartuta. Lanerako diziplina bat ikasi genuen eta jakin gose ginen adinak eta, batez ere, inguruak bultzatuta.

Unibertsoaren bilakaera, lehen ezdatatik gaurko bizitza konplexuraino kasualitateen kateatzea izan da neurri batean. Bakoitzaren bizitzak ere badu dezente kasualitateak. Erabakiak ez dira beti arrazoinamenduan eta oinarri zientifikoetan altxatzen. Gaur hau aipatzea izan liteke funtsa gutxiko gauza, baina teologia ikasten ari ginela izan zen Vatikanoko II. kontzilioa. Askok lagundu zuen zenbait mantra atzean utzi eta mundua beste begiratu batekin ikusten.

Adibidez, seminariotik ateratzeko zibiletz jantzen hasi ginenean, eta sotana haiek historiara pasatu ziren. Ordura arte elizan latina bazen hizkuntza nagusia, orduan lekuko hizkuntzak sartu ziren. Horrek gu bizi ginen ingurune hartan arazo franko sortu zuen. Izan ere, ingurune nahiko karlista eta antieuskal-

dun hartan, teologiako ikasleak boluntario presentatu ginen Arratiako parroketan igandeko mezetan laguntzeko: abestiak ikasi, oharrak euskaraz egin, apaizak ere euskaraz sermoiak egitera bultzatu, ordura arte dena erdaraz zena.

Kazikeen autoritarismoak kolpe gogorra hartu zuen. Eliza batean baino gehiagotan apaizak ikaratuta zeuden errebol-tarekin, baina bestetik ez ziren ausartzen herriaren gehiengoari kontrakoa eramaten. Horrek asko esnatu gintuen. Ni Le-moako parrokiara joaten nintzen eta hango apaiza, edadekoa baina herriko jauntxoen esaneko, hurbildu eta hala esan zidan hilabete pare bat neramanean: “Mira, no me creas más que problemas –euskaraz bazekien baino beti erdaraz hitz egiten zuen–; por favor, no vengas más por aquí”.

20 urterekin izaten den lotsa gutxirekin, halaxe erantzun nion: “Datorren domekara arte”.

Seminarioan bertan zuzendariei exijitu genien dena ez ba-zen ere, mezak eta beste zenbait komunitateko gauza euskaraz izan zedila. Horrek ere tirabirak sortu zituen. Han bazeuden euskaldunen artean zortzi urtetik gora zeramaten ikasleak oraindik euskaraz hitzik ikasi gabeak.

Ez zitzaien burutik pasatu ere egiten.

Mugimendu handia nabaritzen genuen gure inguruan. Herritarrekin nahiko harremana izaten hasiak ginen: ikurri-nak jarri zituztela, atxiloketak egon zirela, dena gauza berria guretzat, orain iruzkin gai bilakatu zen. Hasieran ez genuen gehiegi ulertzen, baina ordurako asko hitz egiten genuen Area-tzan gerra garaia bizi izan zuen jendearekin eta herrian gerta-tutako pasadizo asko ezagutu genituen.

Gu ere hasikinak, bi taldetan banatzen genituen herrita-rrak: karlistak eta nazionalistak. Karlistak han sendo zebiltzan: urtero joaten ziren Iurramendira. Eta herrian bertan, Lamin-daoko auzoan ere, bazuten ospakizuna beren txapela gorriak buruan jarrita. Nazionalistak ardura gehiagoz ibili behar izat-en zuten.

1960an sonatua izan zen Euskal Herriko 339 apaizek egindako agiri luzea bezain sendoa. Garaitsu hartan Nemesio Etxaniz apaizak ere idazki bat atera zuen eta zenbait herritako apaizek zigorra jaso zuten sermoian esandakoagatik. Gertaera horien harira joan zen handiago egiten gure jakin nahia.

Ordurako filosofiako eta teologiako ikasle frantziskotarrak, pasiotarrak, laterandarrak eta sakramentinoak ere euskarazko aldizkaria ateratzen hasiak ziren. Gurea ARNAS deitzen zen. Andima Ibinagabeitiak hitza Arnas ez baino Arnasa zela jakinarazi zigun urte batzuk pasatu zirenean, baina oker egon arren, bere hartan uztea erabaki genuen.

Gure ekarpena oso xumea zen eta historian pisu handirik ez du izango, baina orduan askoz gehiago ere ez zegoen. Hori izan zen frankismoan “euskara jalgi hadi plazara” errealitate egiteko modu eskasetako bat. Herri kontzientzia agian ez zen txikiagoa izango beste gune batzuetan, baina aldizkari bat ateratzeko azpiegitura bat beharrezkoa izan ohi da eta apaiztegie-tan egotea tokatu zen.

Aldizkari horretan teologiarekin lotutako gauzak ez baino gure gizartearekin eta E.Herriarekin lotutakoak sarriago lan-tzen genituen eta horrek bultzatu gintuen handik eta hemendik liburu, aldizkari eta beste eskuratzerara. Benetan akuilatuta sentitu ginen.

Gogoan dut Bilbora etorri izana Gabriel Arestik eman zuen hitzaldi batera. Hura izan zen harekin topo egin nuen lehenengo aldia. Eta jorratu zuen gaia ez zen euskal literatura izan, Euskal Herria eta Ingalaterraren arteko burdin minerala-ren komertzioa baizik.

Areatzako herria –saso hartan Villaro deitzen zena–, karlista eta erdaltzale zen, esan bezala.. Bestela pentsatzen zutenek tentuz ibili behar izaten zuten esaten zutenarekin, bertan guardia zibilen kuartela baitzegoen. Pilareko eguna, egun handia izaten zen: meza nagusia, musika banda, guardia zibila-lak galaz jantzita eta herriko korua prest kantatzeko. Oso jai

handietan, korua indartu asmoz, teologiako ikasleak ere joaten ginen. Elizako unerik nagusienean bandak Espainiako ereserkia jotzen zuen. Bandakide zen orduan Juan Mari Atutxa jauna eta nekez espero zitekeen gero heldu izan den lekura hel zitekeenik. Izan ere, ikasteko gogo handirik ez eta igeltsero lanetan hasi zen une batean. Baina, tira... Ondoren, benemertak gonbidatuta, lunch on bat izaten genuen.

Ohitura bat zen eta ohiturak ez dira bat-batean kentzen. Lehenengo aldia halaxe pasatu zen, baina gure artean sortu zen halako errebolta bat, adinak ere eragindakoa segur aski, oraindik gure kontzientzia politikoak kimu gutxi bai zuen.

Hurrengo urtean, Pilareko egunerako entseguak eta egiteko ordua etorri zenean, musika zuzendariari gurekin ez konartzeko esango genion, ez genuela guardia zibilen mezara joan nahi. Hau ez zen dena gure meritua izan. Ordurako herriko abertzaleen artean hasita zegoen egun horretan aitzurra hartu eta baratzera lanera joateko ohitura.

Haserre dezentea sortu zen hartatik. Herriko koru-kideak hitzik ere ez ziguten zuzentzen eta guardia zibilak irainduta sentitu ziren. Handik aurrera gurekin ezin izan zuten kontatu eta hantxe hasi zen jaiaren gain behera.

Gure suspertze bidean aitatzekoa da Gorbealara egiten genituen irteerak. Udan bereziki, Arrabako zelaietan Bizkaia osotik etorritako gazteekin topo egiteko parada izaten genuen. Sarri dantza taldeetan, kultur munduan, euskararen munduan sartutako jendea, oso harreman atsegina sortzen zen gure artean eta horrela garatzen zihoan ohartu gabe kontzientzia berri bat.

## Erroman

Gauzak horrela egutegiak bere jira-biran hiru urtez Erromara eraman ninduen 23 urterekin han teologiako lizentziatu-

ra ateratzeko asmoz. Eta nire gisa, han euskaldun asko zebilen ikasketek eramanda. Frankismoaren amaiera horren hurbil ikusten genuen eta horrenbeste amets geneuzkan buruan, uste genuen ondorea guztiz ezberdina izango zela. Garai hartan, bestela ere hemengo egoera berezia izaki, behin baino gehiagotan ezarri zen Euskal Herrian “salbuespen egoera”. Haietako bat indarrean zegoen bitartean Erromako ikasle euskaldunek protesta agiri bat idatzi eta ehunka sinadura bildu genituen, ez euskaldunen artean bakarrik, baita Espainiako ikasleen artean ere. Harrituta geratu ginen haien artean ekintza hark izan zuen harreraz. Bitxia bada ere, azkeneko urteetan Deustuko Unibertsitatean biblista ezaguna izan den irakasle bati, ezker-tiarra bera, neuk eskatu nion sinadura. Umekeria bat proposatu banio legez begiratu eta ez zuen sinatu nahi izan. Hori bai, antifrankista puntakoa bezala agertzen da *El Correion* gero. Bai, antifrankista izango da baina batez ere, antieuskalduna

Salbuespen egoera zela-eta, Italian halako protesta ekitaldi batzuk sortu ziren han eta hemen eta ilusio handia egin zigun. Gu euskaldunok talde dezentea osatzen genuen eta bi-hiru aldiz bildu ginen Piazza Navona ezagunean. Euskal abesti ezagun batzuk abesten genituen, ongi abestu ere. Gero, jendeak inguratzen gintuztenean, 4-5 minutuz saiatzen ginen haien he-men zer gertatzen zen adierazten eta txalo ederrak eskaintzen zizkiguten amaieran.

Erromako egonaldia emankorra izan zen askorentzat, niretzat ere bai. Hemen ikasitako filosofia eta teologiako ikasketetan ez bezala, han beste baldintza batzuk genituen. Ez irakasleak oso aurrerazaleak zirelako, baizik guk autodidakta gisa beste iturri askotara heltzeko aukera genuelako. Lehenengo aldiz ikasi genuen, adibidez, Bibliaren ulermena ez zela berdina eliza katolikoan eta protestanteen artean. Hauen liburuak lehenengo aldiz eskura geneuzkan. Haien eraginez esango nuke gero urrats berriak eman izan direla eliza katolikoko biblisten artean: Biblia ez da Jainkoak diktatutako li-

buru bat; sortze prozesu konplexuago bat jarraitu du eta hori guztia aztertu beharra zegoen. Gerora Jose Antonio Pagolak Jesus historikoari buruz idatzitako liburuak horrenbeste zalaparta atera izanak zera adierazten du: eliza katolikoan, batez ere sektore batzuetan, fundamentalismo izugarria dagoela, tradizionalismo hutsa dela askoren jarrera. Pagolak egin duena da azkeneko urte dezentetan biblisten artean ia aho batez onartzen den hausnarketa herriko jende xumeak hobeki ulertzeko hizkeran jarri. Baina esanguratsua da liburu horrek azaleratu duen giroa: ez jakintasun handia, askatasun eskasa eta neoinkiszioa.

Hango lanak bukatu eta berriro Euskal Herrira. Baina lehenago Paristik pasatu ginen. Parisa joateko aitzaki handirik ez da behar eta guretzat nahikoa zen genekien frantses apurra hobetu eta praktikatzekoa. Ordurako ETAko errefuxiatuak baziren han, hemendik ihes egindakoak ere bai, eta gure adinean gauza horiek erakargarriak izaten dira, jakin minez bizi ginen eta.

Han pasatu genuen hilabete t'erdian izan genuen aukera Jesus Maria Leizaola lehendakariarekin, Singer kalean zuen egoitzan hitz egiteko. Jakin nahi genuena bi puntutan biltzen zen: ze bide zegoen Euskal Herria egoera hartatik ateratzeko eta nola ikusten zituen ETAREN ekintzak. Izan ere, gerora jakin ditugun gauza asko ezezagunak ziren orduan guretzat.

Gela hartan sartu ginenean- nik uste apaizak ginela jakinda eman zigula aukera hori- gizon bat aurkitu genuen burumakur: energia gutxikoa, ahots apala eta zurbila. Nik ez dakit beti hala zen ala egun horretako egoera zen. Baina ezusteko handia izan genuen hara joan ginen biok. ETARI buruz indarkeria ez dela sekula euskaldunon bidea izan esan zigun. Iritzi hori bere balio etikoetan oinarritzen zen, ez zuen esan indarkeria askatasunerako ez zela bide eraginkorra.

Arrazoi morala beraz, gaitzespenerako. Eta esanguratsua iruditu zitzaidan horren ondoren egin zuen beste iruzkina.

Frantzian errefuxiatuta bizi ziren ETAkoak beste arlo batzuetan ere etsenplu txarra ematen ari zirela. Neskak eta mutilak nahasmen osoan bizi ziren eta euskaldunon moralarekin zer ikusirik ez zuen jokabidea zeukaten nonbait. Lehen puntuari buruz, ez zuen ezer garbirik esan.

Denok dakigu 1953 amerikarrek Frankoren erregimena onetsi ondoren, Jeltzaleek kolpe gogorra jaso zutela: ordura arte une batetik bestera Aliatuek zerbait egingo zuten itxaropenak mantendu zituen haien ametsak, baina orain gauzak aldatzen ari ziren. Esan ez bazuen ere, Leizaolaren itxaropen bakarra Frankoren heriotzaren ondorean jarrita zegoen.

Handik kalera irten eta elkarri begiratu genion; gure lehenengo iruzkina hala izan zen:

“Hemen ez zegok gauzak zuzenduko diren esperantza handirik”. Izan ere, Erroman geunden bitartean, Alderdiaren orri informatibo bat jasotzen genuen hilero, OPE oker ez banago, eta hark halako animo bat ematen zigun. Baina orain...

Parisko egonaldi hartan Alberto Onaindia ezagutzeko parada ere izan nuen. Gizon hau apaiza zen eta 36ko gerra garaian itzal handia zuen Alderdi Jeltzalean. Gero beste milaka asko bezala, erbestera joan behar izan zuen eta Parisen bizi zen, moja batzuen kapilau.

Hau hona ekarri badut sinbolikoa izan daitekeelako izan da: euskaldunak zerbaiten bai geunden; baina gerora ongi ikasi dugu zain egonda denbora pasa besterik ez dela egiten. Herri guztiek bezala, gidaritzatza bat behar genuen eta gu kapitainik gabe geunden. Horregatik ez zen harritzekoa izan 70 eta 80 hamarkadetan jendearengan egon zen iraultza ideologikoa. Eta batek baino gehiagok pentsatu zuen beste biderik ez bazegoen, ETArena bidezkoa izan zitekeela. Gero ere, inork ez du ukatzen bere etxea defenditzeko indarra erabiltzeko eskubidea. Beste gauza bat da indarra erabiltzeak etxea defenditzeko balioko duen ala etsaiari guztiz suntsitzeko aitzakia



emango dion. Gerta liteke une batean eraginkorra izan dena, gero kaltegarria suertatzea. Eta hemen gaude 2013an ataka honetan.

Erroman Gregoriana Unibertsitatean asko eskertu nuen harremana mantendu nuen José María Diez Alegría irakaslearekin. Hau Espainiako Armadaren buru zen Diez Alegría jeneralaren anaia zen eta frankismo garai ilun haietan bazirudien aperturisten ikur bezala ageri zela. Aitzaki horrekin, Espainiako egoeraz solasaldi interesgarriak izan nituen harekin.

Erromatik bueltan, Euskal Herrian giro bizia aurkitu genuen. Ez zen ezustekoa izan, jakina. Bagenituen harremanak, etorri ere egiten ginen tarteka, eta hemengo gertakizunen berri hurbiletik jarraitzen genuen. 60ko hamarkadarekin ordura arte ezagutu gabeko ekintzak hasi ziren suertatzen: ikurrinak agertzen ziren dorre eta mendietan, trena bere bidetik ateratzeko saiakerak, atxiloketak, tortura salaketak, ekintza arma-tuak...

Tarteka ekintza horiek jauzi kualitatiboa ematen ote zuten iruditzen zitzaigun. Egun batean Pardines guardia zibila erori zen eta ondorioz Txabi Etxebarrieta ere hilda suertatu zen Tolosako Benta Haundi inguruan. Handik aurrera antzeko heriotzak, alde batekoak eta bestekoak, etengabeko jario izan ziren.

Ez genuen gehiegi ulertzen hura guztia baina bagenekien herrietako gazte arruntak zeudela han sartuta. Ez zirela profesionalak. Geroak ETA indar garrantzitsua dela erakutsi du, baino une hartan oso gauza gutxi genekien.

Giro horretan gizarteak bizi beharra izaten du eta egunero-koari aurre egin behar izaten zaio. Batzuk armak hartu zituzten bitartean, beste asko herrigintza lanean sartu zen: ikastolak, euskara, literatura, antzerkia... Zer lotura zegoen batzuen eta besteen artean? Giro beretik sortu zela esango nuke era bateko zein besteko jarduna. Gero bakoitzak ahal duen bezala

neurtuko ditu ekintza horiek baina, gure sustraiek behar zuten lurra hor aurkitu zuten.

Itzulera horretan eliza bera oso asaldatua ageri zen. Aipatu bezala, alde batetik Vatikanoko II.ak hautsak astindu zituen eta bestetik frankismoaren amaiera hurbil zegoela pentsatuta giro politikoa oso nahasia zen. Herri Gaztedia deitzen zen mugimendua elizaren atal bat ordura arte nahiko isila, orduan harrotzen hasi zen eta nahasmen horretatik talde politikoak ere sortu ziren. Garai hartan herrietan ezin kabitu ala ageri ziren siglak.

Halaber, lehenago ezagutzen ez zen liburu klase bat esku-ratzeko bideak zabaldu ziren eta nik gogoan, zirrara berezia sortu zidatenak Usabiagaren –ez dut gogoan orain zein ezizen erabili zuen– *El catolicismo y la Cruzada de Franco* eta Mariano Ayerra Redinen *No me avergoncé del evangelio* izan ziren.

Lehenengoan oso ongi dokumentatuta ageri zen altxamenduaren aurreko 4-5 urtetan zenbat joan-etorri egon zen isilpean 36ko gerra prestatzeko. Guri Historian irakatsi zigutena beste zerbait izan zen: azken hilabeteetako basakeria guztiak asko izanda –elizak erre, erlijioa debekatu, komunistak nagusitu...– Calvo Sotelo erabil izanak gerra beste biderik ez zuela uzten, alegia.

Aita santu, kardinal eta hainbat obispok PNVrekin izandako harremanak altxamenduaren aldekoekin lerratu zedin. Eta esan dezagun, alderdi horren barruan asko zirela hala nahi zutenak, eta azken unean ere, batzuk dudatan ibili zirela. Nahiko isilik gorde den historia da hau.

Ayerra Redin, Altsasuko apaiza, berriz, hasieran altxamendua ontzat eman eta gero, Sakanan batez ere, falangistak egiten zituzten astakeriak ezin ulertuz, jarreraz aldatu eta horrenbeste sufrimendu jasaten ari ziren jendeen laguntza bideratzen hasi zen.

Jose Antonio Agirreren liburu eta lanak ere eskuratzen genituen eta Alderdiko beste batzuenak ere bai: Manuel Iruxo,

Landaburu (Gorka Landabururen aita, oker ez banago) eta handik eta hemendik ugariago sortzen ziren idazkiak.

Apaizen artean ere jendea buru-belarri sartuta zebilen. Batzarreek eta agiriekin eta era guztietako sermoiek nahikoa zer esana ematen zuten. Horren aurrean ohizkoa egin zen parroketan sermoiarenekin ordez gotzainak idatzitako agiriren bat irakurtzeko agindua. Batzuk zintzo betetzen bazuten ere, asko ziren gehiegikeria iruditu eta onartzen ez zutenak.

GOGOR izeneko apaiz taldea ere nabarmendu zen une haietan eta azkenean Derioko seminarioan batzuk itxialdia egin zuten. Haren bukaera ez zen nolana horikoa izan: guardia zibila sartu eta, atxilotu ondoren, Zamorako espetxera eramantzen zituen. GOGOR dela-eta, hemen horren ugari diren sasi-intelektual horietako batena idatzia irakurri nuen, hain zuzen ere, apaiz batzuekin biolentzia ontzat ematen zutela eta GOGOR hitza zekarren frogara modura. Euskaraz ez zuen jakin-go seguruenik gure intelektualek, bestela jakinago zutekeen, “gogor” hitzak esanahi gehiago ere badituela eta bat “animu” dela.

Gotzainari gauza askoren artean aurpegiatzen zitzaion bat, zera zen: komisaldegietan gertatzen ari ziren torturen aurrean isilik egotea. Eta salaketa horrek eraginda edo tarteka gotzainek pastoralara deitutako agiriren bat ateratzen zuten eta halako klipse bat errepikatzen zuten ia beti: ETAREN indarkeria gogor gaitzetsi ondoren, hau eta bestearen aurka orroa egin eta gero, halaxe sartzen zuen perpausa ahotsa jaitsiz bezala: “Han llegado a nuestro conocimiento denuncias de torturas. En la medida en que tales hechos sean verdad, tenemos que decir que van contra la doctrina de la Iglesia”.

Adierazpen horiek garaiko elizaren hizkera analitzatzeko antologikoak dira.

Guardia zibilaren partetik jipoi galanta hartu eta oraindik ipurmasailak ubelduta, han presentatu zen apaiz horietako bat gotzainarekin hitz egin asmoz. Jakina, hartutako tratua berri ematera zetorren. Eta halaxe esan zion:

—Si usted no me cree, no tengo inconveniente en que vea las consecuencias con sus propios ojos—. Eta prakak jaisten hasi zen. “Por favor, ¿cómo no voy a creer a un sacerdote mío? No hace falta, no hace falta” —esanez geldiarazi zuen.

Handik gutxira atera zuen pastoralean gotzaina berriro ere lehengo estilora itzuli zen:

“En la medida en que sean verdad los malos tratos, hay que decir que infringen la doctrina de la Iglesia”.

Seguru nago komisaldegietan dar-dar jarriko zirela gozainaren ohar horrekin. Sakramentinoekin tematuta zebiltzan guardia zibilak: ETArek babesleku zela, haien perfil ideologikoa ere ez zuzena... Deustuko Unibertsitatean ikasketak egiten ari ziren 15 gazte inguru Ramón y Cajal kalean bizi ziren eta haien ardura neukan ikasketak burutzen ari nintzen bitartean. Gaueko 12ak aldera Hidalgo, Gernikako Goardia Zibilen kapitaina, han presentatu zen beste hogeita gehiago guardia zibilen laguntzarekin gure pisuak arakatu behar zituela-eta. Harekin hizketan hasi eta hala adierazi nion:

—Ya sabe que, según el Concordato con la Santa Sede, usted necesita una autorización expresa del Obispado. ¿La tiene?

—Creía que no no sería necesaria —erantzun zidan.

Afalondo on bateko aurpegia zekarren, kafea eta kopa barne. Ordurako ezaguna zen tipo hura bazterretan egiten zituen astakeriengatik. Atxilotutako gazteak komisaldegira eramane eta eta jipoitzea ez zen harentzat gauza desagokia. Mugikorrak oraindik ezezagunak ziren eta hantxe sarrerako atondoan eskegita zegoen betiko telefonoa. “¿Me permite Ud. utilizarlo? Voy a llamar ahora mismo al obispado”.

Eta halaxe egin zuen. Leon María Martínez Bikario jeneralekin hitz egin ondoren, niri luzatu zidan aparailua: “Póngase usted al teléfono para que le haga saber que disponemos del permiso reglamentario para entrar aquí”.

Leon María Martínez hori ez nuen asko ezagutzen baina noiz edo noiz ikusitakoa nuen eta batez ere, haren kontuak

ezagunak nituen. Nortasunik gabeko morroia eta poliziari ezetz esateko gauza ez zena.

—Le hago saber que la Guardia civil dispone del permiso de este obispado para registrar esos pisos —esan zidan.

—¿Le ha expuesto a Ud. el capitán Hidalgo razones serias como para permitir su entrada?

Isilik geratu zen gizona beste aldean. Orduan alperrik zen nik esan niezaiokeena eta amaitzeko hala esan nion:

—Usted está permitiendo un atropello y le hago responsable de ello.

Une hartan ETAk bahituta zeukan Huarte, nafar konstruktore aberatsa. 50 milioi eskatzen zituen libre uzteko. Kapitainak pisu haietan egon zitekeen susmoa omen zeukan, geroago jakin nuenez. Ez dakit susmoa bazuen hala ez, baina han egon zen 5/6 ordutan gure paper eta liburuak arakatzen pasa zuen denbora. Une batean 3 egun zeramatzala esan zidan lotara joan gabe eta kafeari eskerrak mantentzen zela zutik. Ez nuke ezetz esango.

—“No crea que yo no tengo estudios. Tengo hecho el bachillerato” —aitortu zidan une batean. Gaiztoa izateko kapaz zela lehendik ere bagenekien, eta une hartan ez zitzaidan oso buru argia iruditu. Pentsatu ere, pentsatu nuen: “Hau ez ote dabil eskalan igotzeko hemen merituak egiten?”

Eguna argitzen hasteko zorian, dozenerdi bat lagun La Salveko komandantziara eramango gintuela esan eta furgone-tatan sartu gintuzten. Ez dakit oraindik zergatik dozenerdi hura eta ez beste dozenerdi bat ere. Txarrena da ikasketak aurrera eramateko neuzkan liburu pila hartu eta eraman zutela. La Salven egon ginen pare bat egunez eta gero hamar bat egun preso. Orduan etxera joaten utzi ziguten, Madrilen norbaitek ate bat eta beste jo ondoren. Liburuak, ordea, ez ziren gehiago agertu. Eta egiten ari nintzen ikasketak egiteko behar nituen.

Pasadizo horiek garrantzirik gabekoak dira, batez ere une hartan pila bat euskal gaztek jasandakoaren parean. Baina bizi-

tzak aurrera jarraitzen zuen eta apaiz izateko bideari ekindako jendearentzat, aspaldiko partez, erro-errotik gaiari heltzeko ordua etorri zen. Ohituta geunden galdera gutxi eta erantzun askoko bizimodua hartara eta bat-batean galdera asko eta erantzun gutxi aurkitu genuen.

Hasteko Eliza beraren egitura eta esanahia zeuden kinkan. Garai hartan batez ere, frankismoaren zati zen eliza ofizial hura ez zen legitimoa bezala hartzen, erregimenaren atal bat baizik. Elizako kargu garrantzitsuenak betetzeko goitik beherako egitura batean eta apaiz eta baseko jendearen inolako partaidetzarik gabe aukeratzen ziren. Sekretismoa zuhurtzia baino gehiago azpijokoa egiteko bide bat zen. Apaizak batetik bestera mugitzeko orduan interesatuekin ez zen kontaktzen; eta behin baino gehiagotan zigorra bezala erabiltzen zen.

Eliza ofizialak status berezi bat zeukan gizartean; 1953ko Konkordatuaren arabera, eliz gizonen lege hausteak ia beti elizaren barruan konpontzen ziren, epaitegi zibiletatik at.

Norbaitek pentsa zezakeen guztiak katolikoak ziren nazio batean, Gurutzadatik sortutako frankismoak elizari eman zion status hura zela onena. Baina geroak ongi erakutsi zuen trukean askatasuna galdua geratu zela, Francoren menpeko geratu zela.

Desadostasun handiak zeuden eliza ofizialarekin: euskaldunen marginalizazioa, langileen egoera, adierazpen askatasuna, inposatzen zen sexu moralitatearekin: Ogino metodoa, pilularena gero, sexuari buruz zeukan ikuspegi manikeista...

Azkenerrako apaiz askok han lekuz kanpo zegoela pentsatu zuen eta beste bide bati ekin zion. Ezin zuten jendearen aurrean mantendu elizaren irakaskuntza ofiziala, erabat atzerakoia eta gainditua. Nolanahi ere, egoera horren aurrean eliza ofiziala bera izan zen oso erabaki bortitza hartu zuena: banan bana elizbarrutiko apaizak deitu eta dilemaren aurrean jarri zituen: “zeharo aldatzen da zuen intsumisioa, ala elizan duzuen egitekoea utzi”; sekularizatu esaten zen garai hartan.

Askok bide hori hartu zuten. Argi zeukaten eraso horren aurrean zer eginik ez zegoela.

Ez dut sekula esango eliza ofizialak ezin besteko erabakia hartu zuenik, baina erabaki hori hartu ezean ere, uste dut elizako ardurak utzi zituzten apaizen prozesioa luzea izango zela. Gero argi geratu da: sekularizazioa deitzen den fenomenoak amaitutzat eman du elizaren zeregina gizartean eta garai bateko bokazioak jainkoaren deia baino gehiago gizarteko egoera batek sortutako fenomenoak izan zen bezalaxe, orain gizarteak bizi duen egoera berri batek kontrako korrantea sortu du.

Soziologiaren ikuspuntutik aztertuta oso fenomeno esanguratsua izan zen horrenbeste apaiz eta erlijiosoren sekularizazioa. Mende askotan gertatu izan den fenomeno bitxienetakoa. “Betirako apaiz” hura haustea eskandalua handia izan da joan den mendearen erdia pasa arte, baina gero denok ikusi dugu egun gutxitan gauza arrunta bilakatu eta herriak arazorik gabe ulertu duela.

Oso gogorra zen eliza ofizialak euskal gatazkaren inguruan zeukan posturarekin bat egitea. Demagun ulertzekoa zela ETAREN ekintza askoren aurrean beren gaitzespena argi uztea. Baina nola onartu horrenbeste tortura, tratu txar, arrazoirik gabeko atxiloketa, bide bazterretan hildakoak ikusi eta gero isilik egote..?

Gaur egunean bertan, Parot doktrina dela, kartzelatan ematen den tratua dela, zer dio eliza horrek?

Barkamena eskatu behar omen dute kalera atera nahi badute. Frankismoko astakeriak gaitzetsi ez zituztenak, gero indarkeriaren aitzakian egin diren gehiegikeriak ere ukatzen dituzten horiek, ze indar moral daukate ezer eskatzeko? ETAK oinaze franko eragin du, berak ere aitortu du, baina epaileek jarritako zigorra hortxe bete dute. Zenbat urteko kartzela bete dute GAL sortu zuten politikoez, partaide izan ziren polizia eta militarrek?

Kartzelan dauden seme-alabei, neba-arrebei, gurasoei laguntza eskaini ahal izateko sortu diren erakundeak ere, herrian laguntza hori bideratzeko egin den lana, dena terrorismotzat jo eta zigortu dute. Alperrik da mundu zabaletik Espainian egiten dira mila basakeria gaitzeste; eurak berdin jarraituko dute.

Hainbeste urte pasatu ondoren eta atzera begira jarrita, lehen ere esan dut, oso erraza da gaitzespenetan hastea. Argi dagoena, nolana ere, zera da: herri honek oso borroka gordina ezagutu duela, lur hauetan sufrikario izugarria egon dela eta dagoela, eta gaur egun zenbait taldek bultzatu nahi duen memoria ez dela egia: indarkeria ez du alde batek bakarrik erabili, bi aldeetatik egon dira armak eta orain biktima deitzen diren horien aldetik askoz ere gehiago gainera. Alde batekoek larrutik ordaindu dute harrapatu dituztenean, eta beste aldekoek ez. GAL abian jarri zutenak politiko ezagunak ziren, politiko horien alderdia Eusko Jaurlaritzan zegoen sozio gisa eta aldiz, ezker abertzaleari ate guztiak ixten zitzaizkion ETaren ekin-tzak gaitzesten ez zituelako.

Orain batzuek egin asmo dutena gerra zibilaren ostean egin zen gauza bera da: Gernika euskaldunek erre zuten, kaleetan inolako segurantzarik ez zegoen, elizak erre egiten zituzten...



# Ikastolan irakasle

## La Sallen lehenago

Ikastolako jarduna izan da nire lanbidea. Eta esan dezadan beste ezer baino lehen, oso gustura sentitu naizela jardun horretan. Bakoitzaren patua da, familia oso oneko semea ez izaki, ogia irabazi egin behar dela. Baina hori baino gehiago eman dit niri ikastolak: ia bizitza osoan euskaldunok ezin bestekoa genuen eskolan aritu naiz, ogibidea eta euskalgintza biak batera eramanez eta uneoro nire bizitza euskaraz egin ahal izanez. Eta azkenik ikasleen mundua oso atsegina suertatu zait, batez ere guri tokatu zitzaigun garai haietan ikastoletara zetorren ikasle profilak eta gurasoek hezkuntzan zuten partaidetzak, oso giro jatorra eta herrikoia sortu zutelako.

Horrek ez du esanahi dena musika polita zenik. Edozein arlotan bezala, kezka, ezina, gatazka... han ere izaten zen eta aurrerago joango dira agertzen. Baina beste sentimenduen gaineratik niri ikastolatik geratu zaidana oso sentipen atsegina da. Beti pentsatuko dut suerte handia izan dudala alde horretatik. Jende asko ikusi dut beste lanbide batzuetan baina nik nekez ikusten nuen nire burua gustura haietan. Nolanahi ere, oso sentimendu pertsonala da.

Esperimentu txikiren bat aparte, joan den mendeko 60. hamarkadan hasi zen ikastolen ibilbidea. Gipuzkoan eta Bizkaian gehienak, baina Iruñean ere martxan zen San Fermin

ikastola eta Gasteizen Olabide. Ondoreko 20 urtetan udaberrian kimuak bezala joan ziren sortzen ikastolak bazter guztietan.

Oraindik frankismoa bizirik, hori posible egin zuen mikroklima aurkitu nahi bada, herrian sortu zen giroan aurkituko dugu. Joan den mendeko 50. hamarraldian dantza taldeak sortu ziren herri askotan eta haietara jendea hurbiltzen hasi zen. Kantagintzak ere aire berriak atera zituen eta Labegeriren abestiek, Ez dok hamairuk, Oskorrik... asko suspertu zuten gure mundutxoan, musikagatik eta letragatik. Mezu hark lotan zegoen zerbait esnatu zuen gure barruan. Gazteen artean mendirako joerak indar handia hartu zuen eta han libre sentitzen ginen gure sentimenduak ateratzeko eta halako kidesan eta elkartasun bat nabaritzen genuen. Ordura arte euskaldunok kalean bizi genuen bakardadea hausten hasita zegoen.

Ez du garrantzia handirik, baino konta dezadan anekdota bat orduko giroa nolakoa zen erakuts dezakeelakoan. Ikasketak egiten ari nintzen garaian, orduan oso arrunta izaten zen eskola ordu batzuk ere ematea. Bilbo erdian zegoen garai hartan La Salle ikastetxea, hirian ospe handikoa, mila eta gehiago ikaslerekin, denak mutikoak. Oraindik neskak eta mutikoak banatuta ibiltzen ziren eskolan, eta batez ere fraideen ikastetxeetan hori dogma bat zen. Ikastetxe hura, zuzendaritza bereziki, oso-oso fraide espainolisten eskuetan egonda ere, tartean fraide euskaldunen bat edo beste egokitzen zen eta nahiko ausardiarekin Kontzilioaren espirituak herri txikietako kultura errespetuz ikusi eta ezagutzea komeni zela aldarrikatzen zuten.

Eta horrela La Sallen Euskal Kultura deitzen zen ikasgaia sartu zuten egitarauan. Asteaz 8-10 ordu eskola ematera joaten hasi nintzen, fraide euskaltzale horietakoren batek zuzendaritzari hala proposatuta segur aski.

13-17 urte bitarteko ikasleak ziren; gai horretan, jakina, ez zegoen testu libururik, neuk prestatzen nuen eman beharrekoa. Gogoratzen dut gutxi-asko ze puntu jorratzen genituen:

Euskal Herria deitzen zela lur hau, zazpi herrialde zituela eta haien izenak, hizkera propioa bazuela, literaturako ezagunen berri, zenbat bizilagun ginen... Nahiko gauza objektiboa, hitz batean.

Nola edo hala ikasturtea amaitzera zihoan eta egun batean hango fraide euskaldun batek, jatorra eta, nire ustez, esperienziaren bultzagilea, etorri eta hala esan zidan: “Zuzendariak zurekin hitz egin nahi du”.

Eta arratsaldeko saioa hasi aurretik han joan nintzen haren bulegora, ea zer esan nahi zidan entzun asmoz: “Mire, cuando nosotros le llamamos a usted –hasi zitzaidan apal-apal–, queríamos que los alumnos tuvieran un conocimiento de la cultura del País Vasco. Pero lamento que usted se haya extralimitado, hablando de otras temas que no entraban en ese proyecto. De hecho, he recibido numerosas quejas de padres de alumnos que no están de acuerdo con los apuntes que usted les da”.

Ni, bitartean, isil-isilik hari begira. Argi neukan esan beharrekoa ongi prestatuta eraman zuela eta ez zela beharrezko ze “extralimitazio” egin nuen galdetzea. Eta, espero bezala, aurrera jarraitu zuen: “Lo más grave, de todos modos, ha sido que un día usted dijo a los alumnos (16 urtekoak) que se pusieran de pie y gritaran: Gora ETA”.

Anaia Marzelinok –Hermano Marcelino deitzen zen–, hori esan zuenean, ez nintzen gehiegi harritu, ordurako astakeria franko entzuten ohituta nengoen eta. Hala galdetu nion:

—¿Tiene algo más que decir?

—No, eso era lo que tenía que decirle –erantzun zidan.

—Mire usted –hitz egin nuen–, ni siquiera me ha preguntado si es verdad lo que le han dicho, lo cual es fundamental. Veo que acepta la denuncia de algunos padres sin más argumentos.. Si usted es capaz de creer semejante barbaridad, no tengo nada que añadir. Es asunto suyo.

Altxatu eta hitz bat gehiago esan gabe joan nintzen klasea ematera. Jakina, hurrengo urtean ez zuten nire premiarik.

Zein zen, nire ustez, azpitik zebilen haria?

Nire klase haietako batean han zegoen Sainz jaunaren seme bat. Gizon hori “Vascongadetako” polizia buru nagusia zen, aski ezaguna Gordonizko komisaldegira atxilotuta heldzen ziren gazteen artean. Suposatzen dut ustekabean harapatuko zuela Euskal Herria mugaz haraindik ere bazela, eta antzeko zenbait gauza esaten zuten apunteak semearen mahai gainean ikusita. Aitak, normala den bezala, irakaslea nor zen jakin nahiko zuen. Hark bazuen nire berri. Hilabete batzuk lehenago nirekin pisuan zeuden ikasle batzuk atxilotuta eraman zituen eta modu nahiko bitxian haren bulegora sartu eta solas nahiko gordina izan nuen berarekin. Beraz, bazuen nire berri eta semea horrelako arriskuan zegoela ikusita, suposatzen dut zer egingo zuen. Horrelako jendilajeak botere handia izaten du La Salleko zuzendaria bezalakoengan.

Pasadizo honi amaiera emateko esan dezadan, nire aurreko irakaslea La Sallen Xabier Kintana izan zela, hura ere unibertsitateko ikasketetan sartua. Eta hari ere, niri bezalaxe, kaleko bidea erakutsi zioten. Ez dakit ze motibo jarri zuten horretarako. Espero dut hari ez ziotela “Gora ETA”ren kontua leporatuko.

Garaiko hezkuntza sistema monolitikoa eta bertikala zen, bai pribatuan eta batez ere publikoan. Haurraren kreatibitateari leku gutxi ematen zitzaion, umea ikastera zetorren eta irakaslea zen jakinduriaren iturria, buruz ikastea zen helburu, desadostasuna errebeldia eta pedagogia gutxitan praktikatzen zen gauza.

Eskola Publikoetako zuzendariak Irakaskuntzako Ordezkaritzak aukeratzen zituen eta talde berezi bat osatzen zuten: “el cuerpo de directores”. Irakasleei diziplina ia militarra ezartzen zieten eta haien esanera egon behar zuten. Autoritarismoa zen nagusi. Zuzendariak mugarik gabeko boterea zuen. Adibide bat jarriko dut esan nahi dudana hobeto argitu aldera.

1967. urtean Bilboko Uribarri auzoko eskoletako zuzendariari, “alferez provisional” horietatik etorria, “cuerpo de directores”eko kidea, egun batez ikasle baten ama etorri zitzaion bulegora, erabat larrituta semeak eskolan egindako gaiztakeriaren bat medio jarritako zigorreratik.

—Quéda tranquila, yo esto te lo soluciono rápidamente—, zuzendariak abegikor.

—Muchas gracias, le estoy muy agradecida.

—Sí, pero yo quiero otro tipo de agradecimiento.

Eta prezioa mahai gainean jarri zion inolako lotsarik gabe. Eta dirutan ez baino “en especie” kobratu zion, emakume bati egun ziezaiokeen eskaririk nazkagarrienarekin.

Amak berak eskola hartara katekesia ematera joaten zen apaizari kontatua. Eta amak prezioa ordaindu egin behar izan zuela adierazi zion. Salaketa horiek egiteko lekurik ez zegoen garai hartan eta gutxiago eskola zuzendari baten kontra.

## Ikastolen ordua

Eskoletako giroa ez zen batere aproposa helburu handiak lortzeko. Irakasleen prestakuntza titulua ateratzen zen egunean amaitzen zen eta 60ko hamarkadan maisu asko “miliaristak” ziren, hau da gerra alferez bezala amaitu eta destino hori eman zitzaientzen. Izan ere, aurretik zeuden irakasle pila bat kanpora bialdu eta gerratik titulurik gabe zetozen alferezak sartu zituzten eskoletan maisu.

Testuinguru horretan sortu ziren ikastolak. 50 urte pasa dira lehen ikastola martxan jarri zutenetik eta ez dut uste historia horren zertzelada batzuk hemen aipatzea gaizki egongo denik. Argi gera bedi lerro hauetan ez dudala historialariei eskatzen zaien zorrotasuna eta zehaztasuna erabiliko. Asmoa askoz ere xumeagoa da: askok hurbiletik jarraitu duen gertakizun bat idatzita uztea.

Gerta liteke hurrengo lerro hauetan esango denarekin norbait samintzea ere; ez da hori nire asmoa. Ikastolak martxan jarri dituen orori lan on baten saria eman behar zaio: eskertronarena. Baina zerbait kontatzerakoan izaten da zuhurtziaz mintzatzeko ordua eta gauzak gordinago esateko garaia. Eta ez dut arrazoirik ikusten gauzak gordintasun pixka batekin ez esateko. Beste aro batean gaude eta ikastolen historian ere denetarik egon dela gogoratzea komeni dela uste dut, dena ez da polita izan-eta.

Zehazki datak ipintzea ez da beti erreza, baina Bizkaian martxan jarri zen lehen ikastola 1962. urtearen inguruan izan zen. Frankismoa azken txanpan zegoen eta Alderdia Jeltzalea posizioak hartzen ari zen. Eskertzekoa da nor edo nori bururatzeko etorkizunean euskal eskola bat beharrezkoa izango zela. Alderdian –ofizialki klandestinitatean zegoen alderdia– familia boteretsu batzuk nolabaiteko harreman interesgarriak zituzten erregimeneko zenbait jenderekin. Horretaz baliatuz, Julita Berrojalbiz eta familia oneko beste 3-4 emakume, euskal giro batean hazi zitezen, haurrak San Nikolas parrokiako txoko batean biltzen hasi ziren. Baina laster, goitik zetorren aginduren batek, gobernu zibiletik dudarik gabe, handik ihes eginarazi zien, ez lehenago isuna ordaindu gabe.

Handik Elkano kaleko etxe bizitza batean kokatu ziren eta tarteka ere bai. Ibilbide horren joan etorrian, Madrilera joan eta nolabaiteko baimena eskuratuta etorri ziren: “escuela bilingüe” aipatzen zen han. Baimena lortzeko ahalegin horretan Euskaltzaindiaren eta Gulpide gotzainaren sinadura eraman zituzten bidea irekitzeko asmoz. Gulpidek, ordea, norbaitek egin zion presioari men eginez –ez zen hura presioen aurrean sendo mantentzen zirenetakoa– erretiratu egin zuen azken unean berea. Berrero ere Julita Berrojalbiz harengana joan eta hala esan zion: “Usted nos ha apoyado con su firma en el intento de legalizar un centro escolar bilingüe. ¿Qué razones tiene para retirarla ahora?”.

Eta hark berriro sinatu zuen. Iralako frantziskotarren komentuan aurkitu zuten gero babes, baina han ere ezkutuan ibili behar izaten zuten, gobernari zibila zelatan zeukatelako.

Haur kopurua poliki-poliki gorantz zihoan eta adinez ere bai. Katebegi berriak erantsiz, gero eta irakasle gehiago eta gero eta leku gehiago behar zuten. Esan dugun bezala, beren harreman sozialen babesarekin, Bilbo Banketxeak Marqués del Puerto eta Gran Vía-ak izkina egiten duten lekuan zeukaten eraikuntza handian bi solairu hartzera iritsi ziren: zortzi bat irakasle eta gelako 40 haur inguru. Une hartan ikasketen plan zaharra zegoen indarrean eta batxilergoak lau maila zituen: hamar urtetik 14 urtera

1970. urte aldera Villar Palasíren plan berria jarri zen abian: 8 urteko OHO plangintza. Haurrak sei urterekin hasi eta 14.a egin arte egoten ziren Lehen Hezkuntza egiten.

Egun batean han agertu zen ikuskaria eta ikas materiala euskaraz ikusi zuenean, orroka hasi zitzaien haserre bizian: derrigorrezko gaiak gazteleraz eman behar zituztela eta besteak nahi bazuten txineraz. Julita Berrojalbiz berriro Madrilera joan zen eta, ez dakigu ze ate jo ondoren, gauzak lehengora ekartzea lortu zuen. Hori bai, dena diskrezio osoz eramateko esan ondoren. Ikuskari hura ez zen gehiago handik agertu.

Hau izan zen Bizkaiko ikastolen aitzindaria, Resurrección María de Azkue izenarekin.

Mundu guztiak zekien behin behineko egoera zela hura. Aurrera jarraitu nahi bazen, beste urrats bat eman beharke zen lehenago edo geroago.. Ordu-arteko lana, Julita eta bere lagunaren izenpean eta gidaritzapean egindakoa, batez ere euskarazko hezkuntza martxan jartzea izan zen, funtsean pedagogikoa.

Garai berriek inbertsio handiak eskatzen zituzten: etorkizuneko ikastola eraiki behar zen, ordura arteko basamortuko ibilerari amaiera emango ziona. Horretarako orube egokiak, eraikuntza ez nolana hikoia eta dirua, diru asko behar zen. Eta

Batzordea ere beste profil batekoa izango zen: nolabait ere esateko, profil teknokrata: arkitekto, etxegile, eta antzeko gizonen osatu zen Batzorde berria.

Batzorde berriak Bilbotik 15 km. ingurura, Lauroko nekazal lurretan aurkitu zuen behar zuen orubea eta asko luzatu gabe, han hasi ziren gaur zutik diraun ikastolaren eraikina egiten. Horri guztiari kooperatibaren egitura juridikoa eman zitzaion.

Geroko urteetan beste ikastola askok ere bide horixe hartu zuen. Une horretan ordura arteko ikastolaren itxura asko aldatu zen: kooperatibista titularrak gizonen- familiako buru bezala-. Egoera nahasi egin zen han barruan Berrojalbiz eta bere lagun emakumeak baztertuta geratu ziren, argi esan zitzaion haien aldia iragana zela. Arazoa sortu zuen erabakiak, baina egoskorrak kanporatuta konpondu zen. Hauek gerora Eubako pasionisten komentuan aurkitu zuten babes eta hala eman zioten hasiera Lauaxeta ikastolari. Partiduan barruko gatazka izan zen oraingoan. Han zeudenak jakingo dute funtsean zer gertatu zen.

Lauroko eraikuntza erraldoiak poliki-poliki itxura hartu eta hara bildu ziren han eta hemen barreiatutako haurrak eta irakasleak. Une hartan beste etapa bat hasten zela erabaki zuten: teknokratak amaitu zuten egitekoa eta txanda kudeatzaileei heldu zitzaion: ikastetxe pribatu handi baten kudeaketa izango zen eredu. Bilbon ikastetxe pribatu handiak bat eta bi baino gehiago ziren, baina erlijiosoen esku zeuden. Hemen kooperatiba izango zen, baina besteen eredura eramango zen kudeaketa.

Gurasoen batzordeak gerentea, zuzendari pedagogikoaren profila eta beste arduradun garrantzitsuenak erabaki zituen. Aurreko urteetan ikastola premiaz beteta zegoen bitartean, gutxi edo asko, denak hartzen zuten parte lan egiteko orduan, eta lanaren banaketa malguagoa zen. Irakasleak ere ez ziren



enplegatu soil eta ikastolaren ezaugarriak denen artean erabakitzen zituzten.

Irakasleentzat nahiko arrotz egin zen egitura pedagogiko berria: enplegatu soil ziren, zuzendari pedagogikoaren esanera, eta gelaren barruan geratzen zen haien lana. Asanbladetan ez zuten parte hartzen; izan ere, ez ziren kooperatibistak. Han agintea ongi seinalatuta zegoen eta ados ez zegoenak, bazekien libre zela handik alde egiteko.

Batez ere irakasleak izan ziren ereduarekin desadostasuna erakutsi zutenak. Nolabaiteko ezinegona edo nabaritu zutenean, Batzordekoek banan bana deitu eta beren lan proiektua eskatu zieten. Elkano eta Gran Viako etapan irakasle izandako bati, adibidez, argi utzi zioten harentzat han ez zegoela lekurik. Epaitegiko bidea geratzen zitzaion, eta hara joan ondoren, berriro hartzera behartu zuten kooperatiba.

Handik bi hilabetera, ordea, sortu zen tirabira laboral batengatik, irakasle bera berriro kalean utzi zuen Batzordeak eta oraingoan beste 15 irakasle solidarizatu ziren harekin. Berriro epaitegira. Eta oraingoan Lauroko 16 irakasle kalean geratu ziren. Gertaera hauek ere ikastolen historian ikustekoak dira.

Ikastolak hasieran ahal zen bezala hasi ziren baina gero-  
ra tira-birak sortuz joan ziren. Konplexuagoa bada ere, esan dezakegu eredu burges eta eredu herrikoi baten arteko talka izan zela. Bilbon burgesia txikiak indar handia izan du beti, baina kontzientzia herrikoia sortzen hasita zegoen.

San Fermin ikastola Iruñean eta Olabide Gasteizen filosofia berarekin sortu ziren: han ere lekuko burgesiak markatzen zuen bidea eta atzetik Alderdi Jeltzalea zegoen eragiten.

Bizkaian sortu zen bigarrena Karmeloko Ikastola izan zen; aita karmeldarrak utzitako gela batzuetan hasi zen 1964 urtean. Baina adineko fraideentzat zaratatsuegia edo suertatzen zelako, laster pasatu ziren Azaola familia aberatsak, be-

raiek beste bizi leku batera aldatu ondoren, libre geratu zen txaletera, Iturriaga zeharkalean. Lehen batzordea lau lagunek osatu zuten: hiru behintzat Alderdian pisu dezente zuten hiru gizon, haietako bat Azaola bera.

Halere Jose Luis Kerejeta, Alderdikoa ez zen bakarra, izan zen ikastolaren titularra. Ez zegoen arrazoi berezirik horretarako, kasualitate hutsa izan zen. Izan ere Madrileko ministerioan titularra izateko “certificado de penales” deitutako agiria eskatzen zuten eta Jose Luis Kerejetari eman zioten ardura hori. Gauzatxo horrek gero izan zuen nahikoa zer ikusia.

Hemen ere, urtez urte leku gehiago behar izaten zen eta 1974. urtean Azaola familiak berak Menendez y Pelayo kalean zituen txoko batzuetan jarraitu zuten. Baina behin behineko irtenbidea zen eta Azaola, etxegilea bera, eta esan bezala, gizon garrantzitsua Alderdian eta Bilbon, denak hartuko zituen erai-kina egiten hasi zen bere kabuz.

Igarotako urte horietan, lan eskerga egin zuten bai gurasoek eta bai irakasleek. Ez ikastolan bakarrik, baita ere auzoan euskal giroa sortzen eta jendea ikastolara erakartzen. Hori ere landu behar den baratza izan ohi da. Eta horrela sortutako dinamikan, gutxi edo asko, zuk nahi duzun ikastolaren irudia indarra hartzen joaten da poliki- poliki.

Esan dugun bezala, ordea, Alderdiko jendeak ere eginda zuen bere neurriko ikastolaren zirriborroa eta medioak ere ugariago zituen, ekonomikoak batez ere. Azaola familiak mesedezen truke zerbait zor zitzaiola uste izango zuen eta azkenerrako agerian geratu zen bi proiektu zeudela ikastolaren baitan.

Irakasleagoak argi zeukan orduko eskolak gazteleraz egiten zutena euskaraz egitea ez zela nahikoa. Nahitaezkoak ziren beste ezaugarri batzuk eta guraso asko pentsamendu horretakoak ziren. Horrelakoetan sarri gertatzen dena suertatu zen han ere: badakigu ez dugula denok gauza bera nahi, baina ez dakigu ongi zein den batzuen eta besteen proiektuaren aldea. Eta sinplifikatze aldera puntu bat bilakatzen da desadosta-

sunaren ikur: erlijioa Karmelon. Orduan badirudi errazagoa dela ulertzea: batzuk ikastolan erlijioa ematearen alde daude eta besteak ez. Gauzak horrela jartzen direnean, elur bolarekin bezala gertatzen da: gero eta handiagoa egiten da aldea.

Talde batek irakasleagoa jarri zuen jo puntuan eta haien aurka jaurtitako salaketak gero eta mingarriagoak egin ziren; eta hauek minduta zeuden ez buru eta ez belarriko esamesa haiekin. Ikasgeletako batzarretan ere desadostasun garratzak izaten ziren batzuetan.

Agian batzuei ez zetorkien txarto giro hori. Une nahasi horretan, Inaki Azaola etxegileak Karmelo ikastolaren egoitza berria amaitua zuen Torre Gorostizaga kalean. Mundu guztia hara noiz pasatuko zain zegoen eta ikasturte berria han hasteko ametsetan. Irakasle berri bi ere hartu beharra zegoen eta zeregin hori batzordearen egitekoa zen: une horretan 8 ziren jada batzordekideak.

Irakasle lanerako aurkeztu zirenen artean bi Laurotik hila bete batzuk lehenago kaleratutakoak zeuden. Eztabaida gordina izan zen Batzordean: batzuek uste zuten kaleratua izanak ez zuela arazo izan behar kontratua egiteko. Beste aldeak ezin zuen onartu Laurotik kaleratuak Karmelon hartzea. Hori izan zen eztrandaren detonagarria. Egoera horretan, ez dakit Alderdiaren ze bulegotan, baina seguru haien babesarekin, hartutako erabakia jakin arazi zuten: Karmelo ikastolako ikasle guztiek izango zuten eraikuntza berrira pasatzeko aukera, baina ez irakasleek. Irakasleak Laurotik bidalitakoen alde atera zirenez, haientzat ez zegoen lekurik.

Kolpea izugarria izan zen. laster ohartu ziren erabakian ez zutela atzera egingo eta irtenbide bila hasi behar izan zuten. Dozena bat urteko lan eskerbaren ondoren, hau. Gurasoen erdiek pasan, eraikin berriari muzin egin eta Karmelo Ikastolan jarraitzea erabaki zuen. Izan ere titularra Kerejeta zen eta honek han jarraitzea erabaki zuenez, Karmelo ikastola izaten jarraituko zuen. Besteak izango ziren titularitate be-

rria lortu beharko zutenak eta izen berria: Kirikiño ikastola. Baina Karmelok titularitatea bai baina Azaola familiaren geletan zeuden. Nora joan trantze hartan? Beste taldeari baldintza bat jarri zioten: ordu-arteke gelak erabiltzen jarraitzea beste egoitzaren bat aurkitu arte. Eta hala egin zen. Izan ere, hala izan ezean, arazoa asko nahas zitekeen. Bai kalean eta bai epaitegietan.

Halere kostatzen da sinistea horrelako egoera bat sortzeko gauza izan zenbait euskaltzale. Une hartan gutxitan ez bezala, egia izan zen esaera: ezina ekinez egina. Amorruari eutsi eta haserrea bi etxebizitza baten lehen bi solairuak ikastola izateko antolaketa lanetan deskargatu zuten. Gastuari aurre egiteko kooperatiba sortu behar izan zuten.

Bitxikeriak gutxien uste diren lekuan agertzen dira eta orain ere hala suertatu zen. Une horretan Karmelo ikastolari oso laguntza baliotsua Julita Berrojaslbiz eta Karmele Rotae-txek eskaini zieten, Lauroko gatazkan baztertuak izan ondoren Lauaxeta ikastolari hasiera eman ziotenak: une haietan animoak emanez, bulegoetara joan-etorrietan lagunduz. Sarri Alderdiaz hitz egiten dugu, baina tarteka sinplifikazio bat erabiliz

Karmeloko ikastolan nahaspila hori guztia gertatzen zen bitartean, Arizko ikastolan buru belarri sartuta ari ginen baina oso hurbiletik jarraitzen genuen hiru kilometrotara gertatzen ari zena. Gurean ere duda batzuk sortu ziren eta arrazoia ez genuen denok alde berean ikusten. Gauza oraindik gehiago tenkatu zen Karmelon geratu ziren guraso eta irakasleei Bizkaiko ikastoletako irakasleen izenean gure solidaritatea adieraziz Santutxuko ikastolan agiri bat irakurtzea tokatu zitzaizkidan. Badakit Basauriko ikastolako gurasoak denak ez zirela ados egon baina hori irakasleon gauza zenez, ez zen gehiagora joan.

Gauza pixka bat pertsonalagoa zera izan zen: Karmelo ikastolaren hausturaren bultzagile sutsuetariko bat Joseba Arrieta batzordekidea izan zela. Laguna ez banuen ere, aspalditik banuen harreman on bat eta sarritan egoten ginen

elkarrekin ikastolen inguruko arazoez hitz egiten. Atsegina zen, euskaldun kultua, eta tenple onekoa. Aspalditik euskalgintzan sartuta. Une hartan ze paper jokatu zuen ikusi nuenan kolpe latza eramanez, ez nuen ulertzen nola bultzatzen zezakeen haustura hura. Gero ikusi ditudan gauzak ikusita, ez naiz batere harritzen.

Urte askotan pairatu behar izan du Karmelo ikastolak erakundearen bazterketa. Oso une gogorretan, eta gerora ikastola publikoa bilakatuta ere, oso baldintza kaxkarretan egon behar izan du, sortzezko bekatu hura ezin kenduz. Ez da izan jeltzaleen kuttuna ez eta Azkuna alkatearen begikoa. Udalak eta erakunde publikoek Kirikiñori eman izan dioten babesaren simetrikoa izan da Karmelori ezarri dioten bazterkeria. Azkenean 2013 lortu du, ez nahi zuten gunean, urrunduta baizik, ikasle guztiak batera bildu dituen eraikuntza berria.

Orain arte zenbait ikastolari buruz esandakoa jakinda, ez da inor harritik jeltzaleek ikastolen plan bat egina zeukatela badiogu: ordura arte gaztelerazko hezkuntzaren ondoan euskarazkoari bidea zabaldu behar zitzaion. Eta hori beren aldeko puntua bezala kontatzen dut. Beste jende askori ez zitzaion horrelakorik burutik pasa ere.

Alderdia ohartuta zegoen Hezkuntzako sektore horren garrantziaz eta mokadu hori beretzat gorde nahi zuen. Zenbateraino zeukan zehaztuta ikastolak nolakoak izango ziren? Ez da erantzuten erraza. Agian nahikoa iruditu zitzaion gazteleraz egiten zena euskaraz eginda. Argi dagoena da haren diseinua pribatuko ikastetxeenaren gainean egin zuela. Alderdiko jende asko izan ere, ikastetxe pribatuetan hezitakoa zen eta horrek arrastoa uzten du. Haien kontrolatuko zuten ikastola, erlijio-soek euren ikastetxeek kontrolatzen zituzten bezala.

Ikastolak alderdiak hasi zituen. Alderdiaren ideia izan zen eta, inork izatekotan, alderdikoek zeuzkaten baliabide ekonomikoak, prestigio soziala eta sistemarekin harreman malguaok.

## Basaurin Arizko ikastolan

Basaurin ere Alderdiko jendea izan zen lehen urratsak eman zituen. 1968. urte aldera Arizko Parrokian euskaraz meza jartzea eskatu zuten Arratia eta beste gune euskaldun batzuetatik etorri eta bertan bizi ziren batzuek. Hortik laster bururatu zitzaion norbaiti, Bilbon hasiak ziren esperientzia haien antzeko zerbaitek han ere egin zitekeela.

Gauzak ez dira hutsetik sortzen. Kimu berriak arbolaren adarretan ateratzen hasteko zenbait baldintza konbinatu behar izaten dira. Lantegi erraldoiz inguratuta zegoen Basauri eta 50. hamarraldian herri txikietatik, Arratiako bailaratik bereziki, baserritar asko hasi zen lanera Firestone, Etxebarria, Pradera, La Basconia... fabriketara etortzen. Ospetsua zen Arratiako tranbia: Zeanuritik atera eta hasieran Bilboraino etortzen bazen ere, garai horretan Lemoan zuen amaiera. Han jendeak Donostiatik zetorren tren hartu eta iritsiko zen lanera. Jende horiek denborarekin, ezkontzeko orduan bereziki, horrenbeste joan etorri eta galdutako orduekin aspertuta, han bertan jarri ziren bizitzen. Espainiatik milaka jende etorri zen, miseriari ihesi hauek ere. Joan den mendearen hasieran 2.000 lagun zituen herria, 60 urte geroago 50.000 lagun izatera heldu zen. Ermuaren atzetik, denbora bertsuan gehien hazi zen herria izan zen Basauri. Langile horiek, euren emazte eta seme-alabak izan ziren “euskarazko katekesia” sortu zutenak.

50.000 bizilaguneko herri hartan, ordea, kalean ez zuen inolako presentziarik euskarak. Baina gauza jakina zen fabriketan euskaldun asko zirela herri txikiagoetatik etorriak. Udaltxean datuak eskatu eta 4000 euskaldun inguru bazirela ondorioztatu zen.

Ausartak izan ziren guraso haiek. Egun batean D. Fernandori bisitan joan nintzaion; urte asko jada gainean eta Begoñako apaizen erresidentzian bizi zen. Hala esan zidan: “Eginda-

koaren meritua guraso haiena izan zen. Gehien maite zutena, seme-alaben etorkizuna, jokoan zeukaten eta hori gauza serio da. Ez bai zegoen batere argi nora helduko zen abentura hura. Azken batean, nik ez nuen ezer arriskatzen”.

Han hasi ziren “katekesiko” haurrak Kristina Mardarasen ardurapean elizaren gelatxo batean euskarazko kanta eta ipuinez lagunduta euskararen baratza lantzen. Ez zegoen han ez baimenik, ez legalizaziorik. Non lortu, izan ere legalizazioa?

Baina haurren urteak arin joaten dira eta 6 urte bete-tzean, eskola ofizialera joateko garai zen: han emango zitzaien euren eskolaritatea egiaztatuko zuen “eskola liburua” Ez zen txantxetako erabakia: nola utzi seme-alabak eskolatik kanpo eta eskola libururik gabe? Halere gehienek elizaren lokaletan jarraitzea erabaki zuten. Oso gutxi izan ziren seme- alabekin “bide seguruaren alde, eskolara pasatu zirenak”. Gelditzen zirenek asko sentitzen zituzten ihes horiek; nik uste barrua ko-rapilatuta zeukatela.

Baina ezin zuten begiak itxita ibili. “Eskola liburua” derri-gorrezkoa zen eta hori eskola publikoetan eta ikastetxe pribatuetan bakarrik ematen zenez, D. Fernando berak ezagutzen zituen atak jo eta han inguruko eskola publikoko zuzendar-riak lortu zituen haur haientzat. Eskola hartako ikasle bezala pasatu ziren.

Ikasle kopurua ugaritzen hasi zenean, konpromiso handi xamarra zen eta Begoñazpi ikastolak –garai hartan Santutxuko kale batean kokatua– eman zigun babes juridikoa.

Horrela izan zen beste ikastola gehien hasiera. Nahiko gauza normala iruditzen zitzaigun eta ez ginen urrats haien garrantziaren jakitun.

Herriko gazte batzuek ere abentura hartan parte hartu zuten eta oso eragile biziak izan ziren.

Gurasoen bilerak egiten zirenean, dinamizatzaile eta antolatzaile onak ziren eta gurasoek horretarako zuten gabe-zia haiek betetzen zuten. Herrian ikastolaren aldeko giro on

bat sortzeko ere baliagarri izan ziren. Ikastolako gurasoekin batera, lan handia egin zen Basauri erdaldun hartan isilik bizi ziren euskaldunentzat giro egokiagoa sortzen.

Aipa ditzagun, labor bada ere, irakasleak. Ez zen erraza tituludunak aurkitzea baina handik eta hemendik urterik urte lortzen zen behar zen beste “andereño”. Arizko ikastolako lehen andereñoa, esan dugu, Kristina Mardaras izan zen: “Gu nahiko txori libreak ginen eta ez geneukan eskola ofizialetan zegoen kontrolik. Haurrekiko hurbiltasuna oso nabaria zen, ikasleen jarrera parte-hartzailea asko lantzen zen eta gure artean hausnarketa lan handia egiten genuen. Irakasleok genekiena transmititzea baino aberasgarriagoa iruditzen zitzaigun haurraren kreatibitatea”.

Nire ustez oso egokiro laburbilduta dago behin, garai hartaz iritzia eskatuta, eman zidan erantzun horretan.

Garai haietako pasadizo bat gogoratzeko puntuan gaude. Ikastetxe pribatuetan ohartuta zeuden ikastolak gero eta konpetentzia handiago zirela. Euren ikasle potentzialak hasita zeuden ikastoletara joaten. Orduan sortu ziren zurrurruak: ikastoletan ateismoa irakasten zela, hango ikasleak 6-7 urtera arte ez zutela irakurtzen ikasten, oso gaizki prestatuta ateratzen zirela, ez dakit nolako sexu-heziketa ematen zela... Hori ere, aipatu beharreko puntua iruditu zait. Fraile eta mojen ikastetxeetan giroa espainiarra zen oro har eta gainera ikasle potentzialak kentzera zetozela ohartu zirenean, ez zuten beti 8. mandamendua ongi bete. Gerora Luis del Olmok kopiatu zuen estilo hura, lengoaia zatarragoa, bereagoa erabiliz noski.

Nahikoa lan egin zuen jendeak orduan. Euren indarra, batez ere, saiamena izan zen; eta gurasoekin batera egin zituzten lantaldeak urte askotako elkar lanaren oinarri izan ziren.

1974ko irailaren lehenean hasi nintzen Arizko ikastolan lanean. Aurretik baneramatzan urte batzuk esperientzia horren inguruan eta ez zitzaidan arrotz egin hango sarrera. Jen-



dea ezagutzen nuen, banekien ze arazo eta helburu zegoen eta bagenekien zertara gindoazen.

Mila eta gehiago ikasle zituen Bilboko ikastetxe ospetsuetik Arizko ikastolara joatea, hala ere, aldaketa handia zen. 80 ikasle eta ikastetxe bat ez baino, han eta hemen sakabana-tutako zuloak. Batzuk Edurretako elizako geletan, eta beste taldetxo bat, “nagusienen taldea”, San Pedro elizako areto bitan. San Pedro elizako aretoan kokatu ninduten. 10/11 urteko neska mutiko batzuen ardura neukan. Haiek ziren nagusienak. Matematika, gizarte zientziak,, euskara, gorputz hezkuntza... dena eman behar eta gainera 12 ikasle horiek batzuk OHOk 4. mailakoak ziren eta besteak 5.ekoak. Beraz, gaia ere ez zen maila berekoa. Ikasketaz Filosofian lizentziaduna nintzen. Beste asmo batzuekin egindako ikasketak ziren, baina lanak erakusten du lana nola egin.

Han zegoen giroak,ordea, ez zuen La Sallekoarekin zer ikusirik. Are gehiago, nire ustez, hezkuntza perfekturik ez da inon lortuko baina sarri aitortu diot nire buruari, agian han hezkuntza hobea zela irakaskuntza fabrika erraldoietan ematen zena baino. Norbaitek hau irakurtzean pena pixka batekin ikusten badu garai hartan ikasgeletan egiten zena, nik besterik uste dudala esango diot: seguru nago askoz ere hobea zela hura ikuspuntu integral batetik begiratuta. Jakina, gaur dauden beste tresna batzuk falta zitzaizkigun. Orain hezkuntzari asko eskatzen zaio, batzuetan gehiegi...

Errazkingo eskolan baino askoz medio gehiago geneukan han bere gabezia. Matematika emateko bagenuen testu liburu bat eta erdara emateko ere bai, baina geuk prestatutako orriak ziren materialik gehiena, multikopistan aterata.

Lehen 7-8 urtetan gurasoek egiten zuten lan hori, amek, egia esateko. Zenbat ordu sartu zuten horrenbeste arratsaldetan guk prestatzen genuen materiala atera eta antolatzen! Ez dakit fotokopiagailurik bazen ordurako, baina guk ez genuen

ezagutzen, eta halere orriak bata bestearen atzetik ateratzen ziren han. Azkenerako lan handia zela eta Lurdes etorri zen idazkaritzako ardura hartzera.

Hain zuzen ere, ikastolan hartu genuen lehen idazkaria batez ere material hura guztia antolatzeko helburuarekin izan zen. Idazkariak gehienetan bulegoan egiten duen administrazio lanak tamaina txikia zuen oraindik baina multikopistak kea zerion denbora guztian.

Han beti izaten zen egiteko lanen bat: argiak konpondu, ateak behar bezala jarri, umeentzat arriskutsua izan zitekeena babestu, hormak margotu... Zorionez lan munduko jendea zen eta batek ez bazen besteak jakingo zuen arazoa nola konpondu. Ikasturtea hasteko ordua heltzen zenean bereziki, han gurasoen joan-etorria izugarria zen.

Nire lehenengo lana zeregin berrira egokitzea izan zen. Esan behar dut euskaraz nahiko ongi jantzita nengoela. Apaiztegian euskarazko aldizkari bat ateratzen genuen, ARNAS, eta urte pare batez haren arduraduna ere izan nintzen eta horrek euskara nire kabuz ikastera, alfabetatzera bultzatu ninduen. Izan ere, ikaskide asko euskal analfabetoak ziren eta nahikoa meritu zuten boligrafoa hartu eta aldizkarirako lan bat edo beste prestatzen. Haien zuzenketak, txukuntze lanak... Han ikasi nuen nik euskaraz idazten. Zorte handikoa izan nintzen alde horretatik. Autodidakta nintzen: eskura neuzkan Seber Altuberen liburua, Txilardegiren aditz batua, Patxi Goenagaren Euskal Gramatika, Aita Villasanteren lanak...

Poliki-poliki beste gai batzuetatik aldendu eta euskararen munduan itsatsita aurkitu nintzen ohartu gabe, euskararen militante eginda. 1968 aldera Arantzazuko bileran ontzat eman zen euskara batua bultzatzea, eta hori beste arrazoi bat gehiago suertatu zen bide horretan jarraitzeko. Euskaltzaindiak, gogoan hartuta ikastoletan eta lana egin behar zutenen euskara bermatu behar zela, hartarako ziurtagiri bat atera zuen:

D mailako ziurtagiria. Gogoratzen dut beste prestakuntzarik gabe Iruñean egin zen dei batera aurkeztu eta arazorik gabe gairitu nuela.

Urte pare bat edo hiru beranduago Deustuko Hizkuntz Eskolan ingelesa eta frantsesa eta... euskara ere jarri zuten. Bizkaian nolabait ere euskara batuaren aurrean nahiago izan zuten askok behintzat bizkaiera batua eta hauxe zen Deustun ematen zutena.

Ikasle gehienak gazteak ziren, unibertsitateko eta irakasle eskolako beste ikasketa batzuk egiten ari ziren aldi berean eta irakaskuntzan lan egiteko asmoak bultzatuta, alfabetatu nahi zutenak. Eta asko Bizkaikoak ez baino beste herrialdeetakoak zirenez, hala eskatu zuten: euskara batua ematea.

Nik ez neukan ezer bizkaieraren aurka; aitzitik, nahiko ondo moldatzen nintzen bizkaieraz eta atsegin nuen hemengo euskaldunekin hala egitea, eta gaur ere halaxe egiten dut. Baina bistan zegoen aurrean geneukan erronkari erantzuteko batua ezin bestekoa zela.

Egun batean Hizkuntz Eskolako ikasleek asanblada bat deitu zuten gaiaz hitz egiteko. Ni ez nintzen hango ikaslea baina garaiko ohitura zen asanbladak irekiak izatea, euskara ez bai zen arazo akademiko hutsa, haratago zihoana baizik.

Hitz egiteko aukera izan nuenean ni ere euskara batuaren alde agertu nintzen baina han atzeko aulkietan, isil isilik Alfontso Irigoien zegoen, ordurako Euskaltzaindian sartuta zebilena, eta oso hitz garbitan adierazi zuen herri honek eta une hartan euskara batua behar zuela eta Hizkuntz Eskolak erantzukizun hori bere gain hartu behar zuela.

Garai horretarako hasia zen AEK (Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea). Jende asko zetorren euskara ikastera, edo zekiena alfabetatzera. Izan ere, ohartu gabe euskaldun gehienak euskal analfabetoak ziren. Irakasle falta hor ere nahiko nabaria zen. Urte batzuetan behintzat astean 8-10

ordu helduen euskara irakasle izan nintzen. Militantziatik asko zuen gauzak baina hango giroak animo handiak ematen zituen. Gogoratzen dut lehengo urteetan AEKko ardura zeramatenak nahiko komeria izaten zutela behar ziren gelak eta gastuak ordaintzeko eta irakasleoi –niri behintzat– bidaiak ordaintze aldera, apur bat ematen zidatela. Gerora hori ere hobetzen joan zen, dirua sekulan asko izan ez bazen ere.

Urte horietan “D” mailako euskara titulua ateratzea garrantzizkoa egin zen. Horrela irakasle bat ikastolara lan eske zetorrenean, aski zen hura eskatzea. Baina haientzat ere klaseak antolatu eta irakasleak behar ziren. Udan Deustuko unibertsitatean eta neguan Newton akademiako geletan aritzea egokitu zitzaidan. Hartan erabili behar zen materiala ez zegoen oraindik araututa eta irakasleak landu behar izaten zuen; abagune hura oso ongi etorri zitzaidan euskararen barneak ezagutzeko. Segurtasun handia hartu nuen nire ama hizkuntzan.

Ikastolako Batzordea aipatu dugu arestian. Han gurasoen ordezkariak eta irakasleak egoten ginen. Elizako apaiza ere sarritan agertzen zen, baina aitor dezadan D.Fernando ez zela han komisario lanak egitera etortzen, gure premiak zeintzuk ziren bertatik ikusi eta laguntzeko zer egin zezakeen ikastera baizik. Ezin besteko pertsona izan zen Arizko Ikastola sortzeko orduan eta gero ere, hari eskerrak konpondu ziren legearen aldetik zetorren traba bat baino gehiago. Eta oraindik meritu handiagoa zuen haren lanak euskal mundutik nahiko aparte bizi zela gogoan hartzen bada. Etorकिनен uholdeak medio, eskola falta handia zen. Aurrefabrikatuak ziren lehen irtenbidea baina, gero beste zerbait behar izaten zen. Aski da datu pare bat: urte batzuk geroago hango umeak eskolatzeko 12 ikastetxe altxatu behar izan ziren hamar bat urteren buruan. Don Fernando lan horretan asko saiatu zen, eta ikastola deitzen zen eredu hura herriari zor zitzaion gauza zela pentsatuta, benetako laguntza eskaini zion. Gera bedi hor esker oneko testigantza hau.

Batzordeaz ari ginen eta han, esan bezala, guraso eta irakasleok ginen partaide. Proporzionaltasuna ez zen oraindik arazo. Ez dut gogoan erabakiak hartzeko orduan sasoi hartan sekulan bozketara jo izana. Bestalde Batzordearen egitekoa koordinazio lana izaten zen batez ere; garrantzia apur bat zuen erabakia batzar irekietan hartzen zen, asanbladan.

Orduan inork ez zuen pentsatzen zeinen garaia egingo zen ikastolen arbola baina gerora Euskal Herriko hezkuntzaren eremuan horren aldaketa handia egin bazen, ikastoletan abian jarri zen ereduak zer ikusi handia izan zuen.

Lehen Alderdi Jeltzaleak sortutako ereduaren aipua egin dugu. Zorionez, ordea, batez ere herrietan, eredu herrikoia zen. Irakasle goa, nahiko berritzailea, egituratzen zihoan poliki-poliki. Larunbat arratsaldeez baliatzen ginen ikastolaren batean bildu eta abentura hark behar zuen konkretzioa erabakitzen hasteko. Izan ere antolamendu bat beharrezkoa ikusten genuen; batez ere ildo pedagogikoan urratsak norantz bideratu. Esan dugun bezala, ordura arteko bai eskola publikoak zein ikastetxe pribatuak ez ziren eredu. Ez genituen aintzat hartu une batean ere. Biltzar horiek elkarren esperientziak trukatzeko joateko egokiak izan ziren.

Langilegoa ere tamainako multzoa egiten ari zen, baina ikastola batean eta bestean baldintzak ez ziren berdinak: soldadak, aseguruak, konbenioak, irakasle berriak hautatzeko irizpideak... Hura ere errealitate bat zen eta irakasleen artean gero eta gehiago ziren ezkondu eta seme-alabak hazten ari zirenak. Beste edozein langilek bezala, gauzak arautzen hasteko garaia zen.

Nolanahi ere, gure ikastolan oraindik kezkarik handiena egunean egunekoari erantzutean zetzan. Eta erabaki horien artean buru hausterik handiena urtez urte behar genuen kokalekua ziurtatzea izan ohi zen. Guk bagenuen etxegile bat tartean eta horrelakoek han eta hemen lonxak izan ohi di-

tuztenez, Eskribano jaunak Edurretako parrokiaren ondoko txoko batzuetan sartzen utzi zigun. Horrela utzi genituen San Pedroko gelak, urruti xamar bai zeuden beste geletatik.



*Eskola publikoak libre utzi eta ikastolako gelak izateko udalak prestatutako gelak Leon kalean*

Hurrengo urratsa ordura arte Leon kalean eskola publikoaren lonxa ziztrinak izan zirenak, guretzat eskatzea izan zen. Izan ere, han egondako ikasleak Calderon ikastetxe berrira pasatu ziren eta orain hutsik zeuden. Haiek txukundu eta berri-tze lanak egin eta hara pasatu ziren talde batzuk. Pentsatzen jarrita ere gure etxean arrotz bakarrak gu ginen, eta oraindik batzuek dudan jarriko dute hemen jasaten den kultur kolonialismoa. Gauza horiek aldatu, aldatu dira baina ez nago se-guru funtsean ez ote dugun jarraitzen berdintsu: besteek uzten digutena limosna bezala hartu eta isil-isilik segi aurrera.

Urte nahikotan ibili ginen horrela: besteek uzten zutena guk hartu, anaia zaharragoaren arropa, txiki geratu ondoren, bigarrenari ematen zaion modura.

Puntu honetara ezkerre gauza bitxi bat aipatzea dagokit. Leon kale hori ez zen Bilboko Gran Via, baina han trafikoko dezente ibili ohi zen, herri barrukoa gehiena. 11 etan umeen jo-lastordua iristen zenean, gehienentzat denbora-pasa atsegine-na futbola izaten zenez, kalearen 150 metro inguru bi aldeetatik itxi eta ordu erdi horretan gure patio bilakatzen zen. Eta harritzekoa bada ere, tarte horretan garraioak beste bide bat hartzen zuen eta sekula ez zigun inork handik joateko esan. Langile herriak baditu horrelako gauzak.

1976 aldera ikastolen barnean arazotxo bat piztu zen eta gerora hondamendi handirik sortu ez bazuen ere, tirabirak sortzeko adina izan zitekeen: euskara batuarena. Denok daki-gu aldekoak eta kontrakoak izan zituela euskara batuak eta organizatutako frontierik sortu ez bazen ere, gure mundu txiki hura estutzeko adinako egoerak sortzeko arriskua bazen.

Gurean ere gaia mahai gainean jarri zuen norbaitek. Irakasle-goa batuaren alde zegoen, baina guraso batzuek alderdiko hotsak entzunak zituen; ez zuten argi ikusten. Batzordean tratatu zen puntua eta han argi jarri genituen bizkaiera hartzeak sortzen zuen arazoa. Gogoan hartzen bada gainera, ordurako ikasle gehienak bizkaiera hitzunen familiakoak ez baino erdal-

dunen seme-alabak zirela, bizkaieraren ostean batua ere ikasi beharra zekarren. Gehienak, ez zuten kontrako jarrerarik. Harelere, eta erabakia ez genuela irakasleok hartzen argi gera zedin, Xabier Mendiguren ekarri genuen ikastolara gurasoei hitz egin ziezaien. Horrela denok lasaiago geratu ginen eta han amaitutzat eman zen arazoa. Ni neu ere Arrigorriagako batzokira deitu ninduten gaiari buruz lerro nagusiak argitzeko eskatuta eta han denak alderdikoak izan arren, ez nuen tira-birarik sumatu. Horrek nahiko lasaitu ninduen, banekien Basauri eta Arrigorriagako alderdikideek euren arteko harremana bazutela. Euskara batuarena amaitzeko, zerbait esan nahi nuke: batzuetan ez zen ongi planteatzen arazoa. Bazirudien batuaren alde egoteak, bizkaieraren kontra egotea suposatzen zuela, edo auzokoen arteko tira-bira bezala funtzionatzen zuela, Erreala eta Athletic bezala. Niri bizkaiera herrikoia aberastasun handikoa iruditzen zait, eurekin hura erabiltzea atsegin dut, baina errealitatea dena da... Batua ezin bestekoa iruditu zitzaidan orduan, eta gaur ere bai. Horrek eraginda, batek baino gehiagok galdetu izan dit ea zer dudan bizkaieraren aurka. Hobe isilik egon.

Frankismoa amaieran sartzen ari zen eta giroan nabari zen zerbait: gero eta paper gehiago egin behar izaten zen alegaltate hartatik ateratzeko. Elizaren gunetan geunden, harena zen titularitatea eta jabetuta geunden egoera hari irtenbide bat ematea premiazkoa zela.

Arizko ikastolako aita-ama eta irakasleok bagenekien etorkizuna bermatu nahi bazen “zulo” haietatik atera beharra zegoela. Baina nora joateko? Garai hartako ikastola gehienak bankuari mailegua eskatu eta egoitza eraikitzeko bidea hartu zuten. Umea ikastolara eramaten zuen familia kooperatibista egiten zen eta, poliki- poliki, maileguari beste gastuekin batera erantzun behar izaten zitzairen.

Basaurin beste bide bat hartu genuen, bai filosofia bezala eta bai arazo ekonomikoagatik.



Izan ere, Basauri herri mugatua da lurrez, eta oruberik onenak lantegiek hartuta dauzkate. Herria aldapan eginda dago eta gure asmoetarako behar genuen orubea aurkitzea oso zaila zen. Eta gainera gehienak langile jendeak ziren eta horrelako gastu handi batean sartzea ez zitzaigun oso egokia iruditzen. Nahiko sakrifizio egina zuten ordura arte ere. Gure ikasgelak elizaren propietate ziren gehienak; eliza ondoan orube bat zegoen, elizarena hura ere. Guraso batzuek huraxe jo jotzen begiz eta pentsatu zuten elizari ikastola egiteko eskaintza eginez gero, gotzaitegiak bere gain hartuko zuela horrek suposatzen zuen zama, dena ez bazen ere, zati bat.

Ulertzekoa da jarrera hori; kezka handitzen hasita zegoen etorkizunari buruz. Gero eta haur gehiago apuntatzen ziren ikastolan; 1976an 200 ikasle inguru zeuden han eta hemen barreiatuta: batzuk Extremadura kaleko lonxa batzuetan; beste batzuk ordura arte Calderon eskola publikoak eraikuntza berrira pasatu eta libre utzitakoetan eta azkenik elizaren gainean egindako bost geletan. Ezin zen ordura arteko irtenbidea eman etengabe, lekua mugatua baitzen.

Baina gotzaitegiak bere aldetik hitz egiteko prest zegoela bakarrik esan zuen. Ez zuen ezer gehiago aurreratu. Nire ustez elizako arduradunak duda batean zeuden kateatuta: mahai gainean zeukaten ikastolako batzordearen eskaria baina zenbait aurrekarik ez zuen lasaitasunerako erraztasunik ematen.

Izan ere, ikastolaren hasierako urte haietan, titularra eliza bazen ere, ez zen erlijio klaserik ematen. Gotzaitegitik ez zen kexarik heldu, baina seguru nago ez zutela begi onez ikusten. Bestela ere nahiko larri genbiltzanez, geroago batean puntu hura tratatu asmoz utziko zutela uste dut. Gotzaitegian bazekiten erlijioaren kontua ikastolan mahai gainean egona zela eta baita ere zer erabaki zen.

Izan ere, berriki, nik ez dakit berari bururatutako gauza bezala hala norbaitek esanda, batzordeko batek ikastolako klaseen artean erlijioa jartzeko kontua atera zuen. Ordurako

denok genekien puntu hori Karmeloko ikastolako korapiloan ere agertu zela eta ez genuen horrelakorik nahi. Baina zuhurtziaz ibili beharra zegoen bestetik, gure ezezkoa manipulatu eta erlijioaren kontrako jarrera bezala atera ez zedin kalera.

Une hartan ikastolara zetozen umeen familia askok, hasierakoak ez bezala, ez zuten harremanik elizarekin eta gero eta gehiago izango zirela bistakoa zen. Nola konponduko duzu haien egoera: denak katekesira joatera behartuta? Nahi dute nentzat bakarrik jarrita? Eta azken kasu honetan, zer egiten dugu beste ikasleekin?

Azkenean egin zen aldaketa bakarra hala izan zen: ordura arte elizan ematen zen katekesia ikastolako aldia bukatu eta berehala emango zen. Alde horretatik ez zen arazorik sortu. Gurasoek nahi zutena umeek katekesia euskaraz ematea zen, ez zuen garrantzirik ze ordutan eta ze lekutan.

Horrelaxe amaitu zen tirabira txiki hura. Ez dakit zergatik gatazka bilakatu behar duten erlijio kontuek ikastola batean. Baina gotzaitegian ez zeukaten ahaztuta pasadizo hori.

Gauzak nola izaten diren. Ikastola sortu zeneko 25. urteurrena ospatzeko beste ikastola batzuek liburuxka batean haren historiatxo bat argitaratzen zuten, 80/100 orrialdeko. Nik hartu nuen gurean arduraren hori. Frontoian erori eta ezkerreko besoa hautsita bajaran nengoen. Ikastolako hasierako paperak gotzaitegiko artxibategian zeuden, Begoñan, eta ondoan bizi naizenez, hara joan nintzen, ea zer atera nezakeen handik libururako: datak, baimenak, erabakiak... Esan behar dut erraztasun guztiak eman zizkidatela. Eta hara ezustekoa. Agiri batean nire izena agertzen zen eta katekesia ikastolako ordutegian sartu ez izana niri leporatzen zidaten. Anekdotak bat, baina askotan esan dugun bezala, isilpeko zenbat salaketa egiten den eta paperean idatzita gainera. Ez dakit nork bidali zuen txostena hara. Baina Elizak jakin beharko luke eskubide batzuk denonak direla. Bekatua ez dela 6. aginduaren kontra bakarrik egiten, 8. ere badela.

Hori nahikoa arrazoi ez balitz, beste puntu batek ere kezka sortzen zuen: ordura arte pluraltasun batean eraikitzen ari ginena, gotzaitegiak bere ikastetxe bihurtuta, gutxienez ere bere ideologiaren ildotik antolatu nahiko zuen. Ez da ezeren truke eman zalea.

Hori saldukeria iruditzen zitzaigun: nola esango genien basauritarrei, hainbeste neke eta ilusioz egindako ikastolatik kanpora joan beharko zutela?

Kontua da halako batean ikastola konfesionalaren bidea baztertu eta beste urrats batzuk ematen hasi ginela. Horrek gurasoen artean ere aldaketak ekarri zituen. Besteak beste, ordura arte alderdikideen presentzia nahiko sendoa izan zen batzordean eta orain beste batzuk hartu zuten indarra.

Arizko Ikastolan, arazoa sortu zen lehen urte haietan, D. Fernando han egoten zen Batzordearen batzarretan, baina ez zuen erabakietan parte hartzen ez eta iritzia emateko orduan berea erakusten. Bazekien hura gurasoen eta irakasleen artean erabakitzekoa zela. Horrek ez du esan nahi ezustekoa suertatu ez zitzaionik. Eskola guztietan ematen zen orduan dotrina eta ez zuen ulertzen nondik zetorren ikastolaren planteamendu hura, bereziki Arizko Ikastolan. Esan bezala Begoñako apaizen erresidentzian zegoen garaian, esan dut bisitaren bat egin niola eta hala esan zidan behin: erabaki zuzena izan zen hartu zenuena, oker handia izango zen Basauri bezalako herri batean ikastola konfesionala eraikitzea. Eskertu nion aitorten hori.

## **Arizko Ikastolaren hedapena La Baskonia eraikinean.**

Guk Karmelo ikastolan gertatutako zatiketa ez genuen bistatik galtzen eta zuhur jokatzeko bidea. Halere egoera berri horretan batzuek ez jarraitzea erabaki zuten. Ez hori ba-

karrik, jendea nahasten hasi ziren: Lauaxetara joateko autobusak jarriko zituztela, ea nork apuntatu nahi zuen... Baina ez zuten asko lortu. Bakarrrik geratu ziren.

Egia esan, ikastolan zeuden guraso gehienak Basaurin nahi zuten ikastola eta hori zapaldu behar ez zen marra gorria zen. Beste batzuek nonbait marra gorri guztiak zapaltzeko prest egoten dira, ez baitakite esku artean dagoenaren balioa.

Ondorioz, beste ate batzuk jotzen hasi ginen. Hasierako lehen guraso uholdeak lan eskerga egin zuen eta orain beste guraso uholde berria zetorren urterik urte: langile jendea eta langile kontzientzia zuena eta lantegietan ere zerbait lortzeko borroka egin behar zela zekiena. Giro politikoa ere berezia zen 1980aren inguruan: alderdiak lekua hartzen ari ziren, udal txekak bereganatu nahi zituzten eta jendearen botoa ere behar zuten. Batzuen gosea eta besteen jateko gogoa elkarren alboan

Une hartan “demokraziako” lehen alkate hautatu berria Bergaretxe jauna zen, Alderdi Jeltzalekoa. Hari egin zitzaion eskaria: Arizko ikastolak egoitza baten premia du ikasle guztiak zuloetatik atera eta eraikuntza bakar batean sartzeko.

Udaletan sekula ez da izaten baliabiderik herritarren behar izanetarako, eta agian une hartan egia ere izan zitekeen. Eta segur aski gure premiak handiak izanda, beste batzuk ere izan zitezkeen tamaina berekoak. Baina guk bagenekien jotake aritu ezean jai geneukala. Izan ere, ikastola bat egitea ez zen edozein gastu, dirutza handia suposatuko zuen dudarik gabe.

Gure eskaria babeste aldera, behin edo beste gaupasak ere egin genituen gure mantak eta zakuak hartuta udaletxeko aretoan. Esan behar du ez zigutela behin ere handik ateratzeko mehatxurik egin. Ikastolako aita-ama dezente partidukoak izatea ere ez zitzaigun kaltetan suertatu.

Haiek ere, dakidanez, batzokitik barrena, irtenbide bat beharrezkoa zela planteatzen zuten. Baina, erabakigarriena azkenean zera izan zen: herrian gero eta gehiago zirela seme-alabak

euskarazko eskola batera eraman nahi zituztenak eta laster arazo larri bilaka zitekeela.

Eta egun batean hala jakinarazi zitzaigun: Foru Aldundiak, –Makua jauna zen Aldun Nagusia– udalaren esku uzten zuen La Baskonia enpresaren egoitza nagusia izandako eraikina. Herriaren kanpo aldean zegoen, Ibaizabal ibaiaren ondoan eta urte batzuk itxita zeramatzan. Barrutik oraindik ere antzeman zitekeen oso garai onak izandako eraikuntza zela. Han zegoen Gondra, enpresaren nagusi izandakoaren bulego ederra: lau hormak luxuzko egurrez estalita eta, eskailerak, marmolezkoak eta zoruak ere kalitate handikoak. Udalak bere gain hartu zituen eraikuntzan ikastola izateko beharrezko ziren lanak eta han presentatu ginen gu 1982ko irailean La Baskoniako eraikuntzan. Egun handia izan zen eta etorkizuna lasaiago ikusi genuen. Han eta hemen sakabanatutako gelak iragana ziren.



*La Baskoniako eraikina. Eraikin honetan bildu ginen ikastolako ikasle eta irakasle guztiak 1982an*

Herrian ordurako ohartuta zeuden ikastola eskola ezberdina zela. Ikastolako hormetatik kanpo gauza asko egiten genuela eta gurasoen partaidetza aparta zela. Basauriko kalea erdalduna zen. Kezka horrek bultzatuta udako oporretan udalekuak antolatzen hasi zen ikastola: sei urtetik gorakoak hartu eta han joan ginen Villanañe, Arija, Palentziako San Salvador monastegia, Artaxoa, Mugairi Baztanen eta Murgiara urte ilara luzean. Ahal zen lekura. Mirari hura batez ere gurasoena izaten zen. Adibidez, amen ardura zen 6-14 urte arteko 250 haur inguruk behar zuten janaria antolatzea, gehiena bertako merkatal zentro eta dendetan prezio berezian erosita.

Haien lana zen sukaldean beharko zen tresneria eta ontziteria guztia ordenatu eta eramatea. Bere gain hartzen zuten umeen ohetan jarriko ziren maindire eta estalkien ardura. Gabon ondorean hasten ziren uztaileko egonaldia prestatzen. Zenbat joan etorri batera eta bestera jatekoak, ia guztia erdi prezioan lortu ahal izateko.

Gero, udaleku-aldia hasi baino lehen auzo lanean han joaten zen guraso andana etxea txukundu, behar zena konpondu eta guztia prest uztera. Eta udalekua hasten zenean, dozena bat guraso –amak ia denak–, etxean rodrigezak utzita, han bihurtzen ziren hainbeste umeren ama. Neronek ikusia da nolako tratu goxoa ematen zieten ama haiek, eta semea edo alaba han ibiliko bazen ere, inolako bereizkeriarik gabe.

Beste dozena bat monitore ezin bestekoak ziren, gehienak ikastolako irakasleak eta besteak euskara ikasten aurreratuak egon eta mintza praktika nahi zuten Basauriko gazteak. Gaur da eguna oraindik ikastolatik pasatakoek esperientzia hura gauzarik ederrena bezala gogoratzen dutena. 15 egun zoragarririk izaten ziren.

Badakit horrelako gauzak luzaroan mantentzea ez dela gauza erraza, baldintza batzuk ezin bestekoak dira eta basoan ere perretxikoak ez dira urte osoan izaten. Baina hezkuntzari balio erantsi paregabea ematen zion gauza hark. Gerora,

udalekuen premia beste erabatekoa izan zen: familia askotan aita-amak hasi behar izan zuten lanera joaten eta udaldian umeak arazo bilakatzen ziren: nork zaindu haiek? Eta udal eta Foru Aldundien ardurapean beste mota bateko udalekuak sortu dira. Baina udaleku batzuek eta besteek ez zuten helburu bera: orain umeak zaintzeko dira eta orduan ume euskaldunak sortzeko. Oraingo udalekuak beharrezkoak izango dira baina agian ez ginen ohartu agian besteak mantentzea ere komeni zela.

Amaitu baino lehen, halere, pasadizo bat kontatu nahi dut garaiko fruitu bezala. Ikastolako udalekuen hasierako urte haietako batean, martxo aldera, Soriara joan ginen udan joateko leku baten bila. Garai haietan Soria aldera, izan ere, euskaldun asko joaten zen, batez ere seme-alabentzat klima guttiz egokia zelako.

Iritsi gara Quintanar de la Sierra herrira eta oso paraje aproposak guk nahi genuenerako.

Baina umeentzat behar genuen eraikuntza ez zegoen baldintza egokietan: ura eta argia falta zen eta laster hornitzeko asmotan baziren ere, uda hartarako ez zirela iritsiko esan ziguten. Jende oso jatorra eta prestua han aurkitu genuena.

Orduan handik itzulita, Arratia bailarako gazte batzuekin harremana banuen eta haiek ere koadrilan urtero mendi edo parajeren batera joateko ohitura zuten. Eta Soriako paraje paregabe haien berri eman nien. Argi eta ur hornidura ez zuten horren beharrezkoa, kanpin dendatan joaten ziren eta han ondoan zeukaten errekatxoa aski zuten.

Halaxe ba, udan joan dira 20-25 lagun hamabostaldia han pasatzeko asmoz. Altxa dituzte kanpin dendak, afaldu dute, kontu kontari egon dira gauerdia arte eta noizbait lotara joan dira. Badirudi zeletan zegoela norbait: han non presentatzen diren goizeko ordu-bietan Benemeritakoak eta dena bildu eta handik joateko agindu. “Parajeak bikainak Soriakoak, baina

ez zenigun esan nolakoa zen hango fauna?” – adarra jo zidaten bueltakoan.

Hamaika aldiz kontatu zuten abentura hura. Halere hauek 16-22 urte bitarteko gazteak ziren; okerragoa gertatu zitzairen Beirera joan ziren Gipuzkoako ikastola bateko haurtxoei: gauerdian beren arropak eta maindireak ahal zen bezala hartu eta handik kanpora bidali zituzten. Sonatua izan zen kasua, baina hori egiteko gauza zen piztia, ez zen nolana hiko piztia.

Udalekuena, nik uste behintzat, ikastolen eskutik heldu zen gurera. Ordu askotako lana zen, baina Arizko ikastolan egon den jarduerarik aberatsenetarikoak izan da dudarik gabe: ikasle, irakasle, aita/amen eta beste gonbidatuen arteko elkar-lana oso mesedegarria bilakatzen zen elkar ezagutzeko eta tar-tean giro atsegina sortzeko.

Lan handia zen ama haiek egiten zutena, baina haientzat ere sekulako esperientzia izan ohi zen. Urteak geroago, Anparo Gojenolak berak, haurrak lotara bidali ondoren, kontu kontari geundela esandakoa: “Ama batek izan dezakeen esperientziarik ederrena da”.

Agian asko esatea da, baina urte askotan joan zen Anparo gurekin eta lanpetuta egonda ere, poza zerion emakumea zen.

Ikastolako udalekuen pasarteari amaiera eman aurretik argi esan nahi dut eskergaitza dela jende haiek egindakoa. Zenbat aldiz irakasle on artean atera izan den gaia eta pena bat: zeinen gutxi erakutsi zitzairen merezi zuten eskerrona. Garai-kurrak banatzerakoan gure agintariek ez dituzte gogoratzen. Eta zenbat horrelako historia daude isilpean gordeta!

Euskaldunen herriak erakutsi duen kreatibitate eta kemenak ezinak ziruditen gauza asko ditu eginak. Gehiago merezi duen herria da gurea.

Gabonetan ere giro aparta sortzen zen ikastolan. Prestaketak lana franko ematen zuen, baina umeei egiten zien ilusioak dena ordainduta uzten zuen. Eta ohiturari jarraipena ematen zaio oraindik zorionez. Txikientzat ikastolako gim-



nasioa erabiltzen zen. Talde bakoitzak prestatzen zuen bere antzerkitxoa, abestia, bertsoa edo partaide sentiarazteko ego-kia zena, eta gero hunkituta egingo zioten harrera Olentzerori: “Olentzero... pipa hortzian duela” Hango urduritasuna eta hango ilusioa Olentzeroren eskutik bakoitzak oparitxoa jasotzen zuenean!

Eta 10-14 urtekoentzat Basauriko kultur etxeko antzokia hartzen genuen. Hauek ume koskortuak ziren eta egiteko gauza zirena ere beste maila batekoa. Baina urduritasuna eta ilusioa aurreko taldekoena bezala zen. Antzerki, txiste, kontakizun, abesti... eta amaieran betiko gonbidatua: Olentzero. Talde honetan behin ere faltatu ez zena bertso saioa izan zen; batzuk irakasleren batek prestatuak eta beste batzuk norbaiten laguntzarekin beraiek atonduak. Euskal presoak gogoratu beti izaten zen bertsoen bat. Eta ez dut uste inolako terrorismoaren goraiapamena zenik, ez eta zigorra merezi zuen ezer. Aitzitik, zoritxarrez Basauri nahiko herri zigortua izan da epaitegietan eta garai batean 7 herrikide bazeuden espetxean eta horietako batzuk ikastolatik pasatako ikasleak eta gurasoak. Nola onartuko genuen haien aipamenik ez egitea? Eta bertsoa zen modurik egokiena era guztietara.

Noraino iritsi da gizarte honen basakeria gerora ikusi ditugun gauzak ikusi behar izateko! Faxismo asko dago, presoen inguruan egin den kriminalizazioa totalitarismo hutsa da. Gorrotoa darie hitz bakoitzean.

Santagedatan ere ikasle koskortuenak lau taldetan banatu ondoren, makilak hartu eta herriko bazter guztietara hedatzen ziren horren ezagunak diren abestiak eramanez. Ohitura hori Basaurin erdi galduta egotetik izugarritzko arrakasta izatera pasatu zen. Pena da beste eskoletan ohitura horretatik paso egitea, D eredukoak ere apika ez diren asko ateratzen kaleak alaitzera. Utzikeria? Kontzientzia falta?

Eta ikasturteko beste zita Inauteritakoa izaten zen. Kolo-retsuen ere bai. Irakasle eta ikasleei hura prestatzeak lan han-

dia ematen zien. Lehenbizi, talde bakoitzak egin behar izaten zuen eramango zuen jantzia. Batez ere txikienen kasuan amek parte-hartze zuten zeregin horretan, eta saiatzen ziren paper, plastiko eta kolorez errealtatea itxuraldatzen, ikasle, guraso eta irakasleak aurpegiak margotzen. ETBn balio artistiko gutxiagoko gauzak ikusi ditugu!

6/7 urtetik gorakoek adinaren arabera aurkeztu behar zuten ikuskizuna ere osatuagoa izango zen. Arizko Ikastolan dagoen gauzarik ikusgarrienetako izaten da oraindik inauterietakoa: patioan 500 eta gehiago ikasle eta 600/ 700 familiarteko begira, eta musikak eta koloreak bazterrak sorginduz. Amaitzeko txokolatea denentzat. Benetako inauteriak.

Antolatzen ziren ospakizunak ez ziren hor amaitzen: OHO amaitu eta ikastolatik irten baino lehen, ikasbidaien ohitura ere martxan jarri zen: urte osoko lana izan ohi zen hura antolatzea, batez ere behar zen dirua lortzea: gabonetako lorteria, gauzen salmenta, eta beste zenbait bide jarraituz lortzen zen dirua. Inor ez zen ikasbidairik gabe geratzen. Hemen ere gurasoek partaidetza osoa zuten. Neska-mutiko nerabeentzat beste planeta batera joatea bezala zen Mediterraneoko herri turistiko horietako batera joan eta hotel batean egotea: ordu-tegi ez ohizkoetan dantzaleku, hondartza, eta mila esperientzia berri izateko aukera. Haiekin joaten ziren irakasleak ere ezberdinak ziruditen han. Ez zeuden ohituta pub psikodeliko batean tutorearekin dantza egiten. Gehienetan aita-ama pare baten laguntza izaten zuten.

Gauza hauek guztiak agerian geratzen ziren herriko jendearentzat, eta nire iritzian asko lagundu zuten seme-alabak nora eraman erabakitzerakoan. Gurasoentzat esanguratsua da umeen munduan aberastasun hori sortzea. Badirudi jarra horretatik beste konklusio bat atera daitekeela: ospakizun horiek antolatzen horrela saiatzen badira, gela barruko zereginetan ere, dudarik gabe, saiatuak izango dira.

La Baskoniako eraikin berrian sartu eta gure etorkizuna argiago ageri zela esan dugu. Basauri oso herri gaztea zen. Joan den mendeko 70. hamarraldia amaieran, populazioaren %70 hogeita hamar urtez azpikoa zen. Ume asko eraikuntza aurre-fabrikatuetan eskolatzen zen eta epe laburrean eskola publiko asko eraiki zen herrian. Orduko Hezkuntza noren eskuetan zegoen jakiteko, aski da gogoan hartzea eskola horiei jarritako izenak: Lope de Vega, Velazquez, Cervantes, Calderon... horrela dozena bat. Irakaslegoa ere erabat erdalduna zen, asko Espainiatik etorriak eta nahiko gazteak. Horrek ez zuen erraza egingo hezkuntzako arloa euskalduntzea. Laster ohartu ziren batzuk jendeak euskararen alde egiten zuela eta ikastola sendotzen ari zela. Eta beldur ziren zer gertuko zen epe ertainera erdarazko irakaskuntzarekin.

Agian horregatik irakasle horietako batzuen artean haserrea piztu zen La Baskonia ikastolari utzi zitzaionean: eraikuntza publiko bat ikastola pribatu batentzat? Ez, ez, eta ez. Hori zen haien argudioa. Gogoan dut Udalaren Osoko Bilkuran, aretoa jendez gainezka, gaia atera zenean zeinen garratza izan zen batzuen eta besteen arteko eztabaida. Erdal eskola publikoetako irakasleak haserre zeuden: “Nola utzi eraikuntza publiko bat Ikastola pribatuari?” zioen batek.

Erantzunean halaxe esan zitzaion: Arizko ikastola pribatua da legeak publikoa izateko ateak ixten dizkiolako; eta gainera ordura arte legez kanpokoa ere bai, nahiz Euskal Herrian egon.

Norbait negarrez ere ikusi nuen.

Garrantzia handiegirik ez duen pasadizo bat gogoratu nahi dut gero ere garaiko giroaren konplexuaren adierazgarria delakoan. Guk ikastola berria han geneukan, eraikin historikoa eta ordura artekoarekin alderatuta, jauregi bat. Ez zen handiegia baina une hartako premiak betetzen zituen. Jakina, eraikinari amaiera ematen zaionean, zuhaitz adarra jartzen

da teilatuan eta inaugurazio jai bat egitea arauzkoa da. Eta guk ikasturte hasieran nahiko lan izan genuen hainbeste lekutan sakabanatutako ikasleak eta materialak eta tresneria biltzen eta gerorako utzi genuen jaia. Han zegoen beti hura, egin beharreko gauza zela, eta egunen batean egin beharko genuela. Eraikuntza berria lortzeko orduan, Makua, Ahaldun Nagusia, asko inplikatu zen eta gero egokitze lanetan udalak, alderdiaren eskuetan une hartan, diru dezente jarri zuen. Beraz alderdikoen iritzia zen inaugurazio hartara jende handiak ekarri behar zirela, eta nahi izanez gero, Lehendakaria bera ere etor zitekeela eman zuten aditzera. Guk horrelakorik ez genuen nahi. Jaia egiteko ez dugu etiketa askorik behar izaten. Baina bestetik ezezko borobila ematea ere ez zen “politikoki korrektoa”.

Lehen esan bezala inauteriak kolore eta musika eta dantzaz betetako eguna izaten zen gurean. Eta halaxe izan zuen norbaitek ideia ona: zergatik ez dugu ikastolaren inaugurazioa egiten egun horretan?

Eta halaxe egin ere: neska mutiko, irakasle, eta guraso asko inauteriz moztortuta, estetika paregabean, dantza eta musika giroan egin genuen inaugurazioa: halako batean jantzi uniformatuan, han agertu ziren kortijoa zabalduz eta bizikleta gainean dozena bat “ertzain” eta azkenean Ardantza lehendakaria gobernuko beste pertsonaia ezagunekin.

Ez dakit mundu guztiari ongi irudituko zitzaion antzerki hura, gure asmoa ez zen inori zor zaion errespetua ez mantentzea, eta Ardantza eta beste pertsonaia batzuk hartarako egingdako kareta batzuekin ordezkatu bagenituen, inauteri giroak hainbesterako baimena ematen zuela uste genuelako izan zen.

Nola nahi dela ere, ulertuko nuke norbaiten gustukoa ez izana. Hala izan bazen, gure desenkusak.

Une hartan oraindik Basauriko eskola publikoetako irakasle gehiena kanpotarra zen. Baina zer ikusirik ez zuten aipatu ditugun militaristekin. Halere, ez zen erraza haientzat

euskara eta euskal kulturaren integrazioa. Bazirudien edozein gauza ikasteko gauza zirela baina, euskara... Gainera zertarako, gaztelarekin denok ongi moldatzen bagara? Zenbat min egin duen, eta egiten jarraitzen duen, pentsamolde horrek!

Behin Gallartara joan nintzen bertako eskola publikoko gurasoei hitzalditxo bat ematera. Erdal giroko herria, ez-kerraldeko mehatzen gunean kokatua. Eskolak euskarari egin behar zion lekua zen gaia. Amaieran aita batek hala esan zidan: “Nosotros tenemos unos maestros de mucha experiencia, que están trabajando muy bien”.

Ez nion ukatu. Bakarrik esan nion, herri hartan gurasoek euren seme-alabentzat euskal kulturaren sustraitutako hezkuntza nahi bazuten, irakasle on batek euskara erabiltzeko gai izatea eta umeak euskalduntzea ezin bestekoa zela.

Ikastola La Baskonian kokatu zenean, jendeak argi utzi zuen sasi guztien gainetik seme-alabak euskaraz ikastea nahi zutela. Nabaria izan zen matrikulatzeko garaian; guraso andana pasatzen zen handik haurrak matrikulatzera. Urtero 60 haur berri hartzeko pentsatuta zegoen eraikuntza hura. Baina, urterik urte, 80-90 eskari inguru izaten zen eta horrenbesteri ezezkoa eman behar izatea, arazo desatsegina zen guretzat: gurasoen haserrea guk pairatzen genuelako eta jende hark seme-alabak euskaldunak egin nahi zituzten bitartean, “guk” atea ixten genielako.

1983ko ikasturtean erabaki garrantzitsua hartu zuen gure ikastolak: guk 60 ikasle berri hartuko genituen behin betiko, baina beste eskariak ere hartu egin genituen gurasoekin konpromiso batera iritsi ondoren: haur haiek urtebetez bakarrik egongo ziren La Baskonian eta ikasturte horretan zehar saiatuko ginen beste eskolaren batean kokapena bermatzen.

Emandako hitzak bultzatuta, hamaika elkarrizketa izan genuen udalarekin eta hezkuntzako ordezkariekin ume haiek eskola publikoren batean hartu eta D eredu lerro bat eskola publikoan zabaltzeko. Une horretan eskola publiko bat ere

ez zen prest egon D ereduko talde hura hartzeko eta irakasle askoren kontraesanak agerian geratu ziren. Uste zuten, eta arrazoiz gainera, horrek epe laburrean eskola guztia D eredu bihurtuko zuela. Bakoitzaren interesak babestea ongi dago, baina besteen eskubideak zapaldu gabe.

Era horretan hasi zen Basauriko eskola publikoetan D eredua sartzen. Calderon ikastetxea eraiki berri-berria zen eta, han zeudenen gustukoa ez bazen ere, 1984an hara joan ziren gure ikastolan behin behineko egoeran egondako haur txikiak.

Haien ardura eramateko andereño bat jarri zuten. Hurbitetik jarraitu genuen ikastolatik esperientzia berri hura, neurri batean gurasoen aurrean nolabaiteko erantzukizuna genuela uste izanda eta neuk pertsonalki sasoi hartan zuzendari nintzelako. Ez zioten harrera oso beroa egin, nahiko bakardade mikatza jasan behar izan zuen hasiera batean behintzat. Ikastolatik laguntza guztia eskaini zitzaion bere lanerako: materiala partekatu, dudak argitu, programazioak egin, animoak eman... Egunak joan eta egunak etorri, ez genuen haren berririk. Pixka bat harrিতuta geunden; izan ere, uste genuen maila horretako umeekin ikastolan lanean ari zirenekin harreman bat izatea mesedegarri izango zitzaiola. Halako batean, kasualitatez topo egin eta hala esan nion:

— Badakizu nahi duzunean lasai etor zaitezkeela ikastolara. Laguntzeko prest gaude.

— Begira, konponduko naiz nola edo hala, baina zuzendariak ikastolara ez joateko esan dit.

Izugarrizko abiadan aldatu zen Basauriko eskola mapa: 12-13 ikastetxe publiko zeuden 1984an Basaurin eta Ikastola bakarrik zen D eredua ematen zuena.

Ondoreko dozena bat urtetan zentro publiko gehienak D eredua bilakatu ziren. Zentro bat geratu zen A eredurako eta erdi hutsik zegoen. Antzeko zerbait gertatzen zen beste herri askotan. Eta kanpaina orkestratu bat hasi zuten betiko atabalerok: trabak jarri besterik ez zela egiten A ereduan matri-

kulatzeko. Baina ez ziren gauza izan trabak jasandako kasu bat bera ere ekartzeko.

Bilboko eskola publikoetan ere antzeko histori gertatu zen urte batzuk geroago. Ez zen erraztasunik eman euskarazko eredia sartzeko eta eskola publikoetan D ereduko lerroa eskatzen zenean, lehen han zeudenek hortzak erakusten zituzten. Horretaz zerbait badakite Txurdinagako Europa parke ondoan dagoen eskola publikoko lehen irakasleek. Hasierako harremanak ez ziren xamurrak izan.

“D” eredia aipatu dugunez, argitu dezagun Eusko Jaur-laritzak hiru eredu jarri zituela martxan: “A” ereduan ikasketak gaztelera ematen ziren eta euskara gai soila zen. “B” ereduan zenbait gai: gizartea, gorputz hezkuntza, plastika.. euskaraz ematen ziren, eta jakina, euskara bera. Beste guztia erdaraz. Eta azkenik “D” ereduan, gaztelera eta ingelesa ez beste guztia, euskaraz ematen zen.

Izan ere, 80.hamarkadan garai berri bat hasi zen Hezkuntza sisteman. Ikastolen urte autarkikoak iragana ziren eta Gernikako Estatua eta Euskararen Normalizaziorako Legearekin zehazki alderdi politikoen ordua zen Euskal Herrian hezkuntza sistema egoki bat sortzeko. Une historiko hartan argi zegoen jende xumeak, gutxiengo bat izan ezik, euskararentzat beste zerbait nahi zutela. Frankismoarekin hausteko modu bat zen, besteak beste.

Baina politikoez ez zuten behar bezala erantzun. Oraingo Partidu Popularra, orduan Alianza Popular, oraindik barne gatazkan nahasita zebilen, frankismoaren balio funtsezkoenak nola salbatu begira. Alderdi sozialistak garbi zeukan euskararen eremua non jartzen zuen: hizkuntza akademiko bat bezala jotzen zuen, gure eskola garaian frantsesa zen gisa edo gaur ingelesari ematen zaion tratamendua bezala: ez du kaleraino zabaldu behar. Non gelditzen da eskolan gaurko umeek ikasten duten ingelesa ikasketak amaitu orduko? Linboan. Euskararentzat ere berdin: laudorioak, gure altxor preziatuena da baina

ez dadila “plazara jalgi”. Alderdiak ere, milaka alderdikideren borondatearen aurka, “posibilismora” jo zuen. Neurri handi batean, alderdi sozialistaren erritmora makurtu zen. Urte haie-tan lan gogorra egin genuen Basaurin D ereduak zabaltzeko eta horrela arazo bat sortu genion Jeltzaleen udalari: abiadura handiegia generamala, jendearen artean arazoak sortzen geni-tuela. Beti galgarena egiten. Ikastolak auzolanak atera ditu aurrera. Beste gauza asko bezala.

Basauriko Ikastolan murgilpen ereduja jarri genuen mar-txan eta hala ere kostata lortzen genuen ikasleen euskara biga-rren ama hizkuntza izatea. Ikastolan jarduten genuen guztiok euskara bakarrik egiten genien haurrei, “Argitxu”ren kanpaina abian jarri zen, ordu pilak ematen genizkion komunikazio arruntaren hizkuntza bilaka zedin eta guztia gutxiegi zen

Eskola publikoetan, Gipuzkoan nola ez, baina Bizkaian ere D ereduak abiadura handia hartu zuen. Baina irakasleak euskaraz eman klaseak, ikasleei euskaraz mintzatu, baina gero-  
ra egoera berri bat sortzen joan zen: ikasleak erdaraz eran-tzutera ohitu. Irudi hori tipikoa bilakatu da.

Txuridinagako Europa parkea etxe ondoan daukat eta goi-zeko orduetan han sarritan ikus ditzaket ondoko Gabriel Ares-ti Institutuko ikasleak irakaslearekin Gorputz Hezkuntzako ariketak egiten: irakasleak beti euskaraz egiten die eta ikasleak erdara hutsean erantzuten diote eta euren artean zer esanik ez. Irakasleak, itxura batean, makurtu egin dira egoera horretara. Eta ez eskola publikoetan bakarrik, etxe aurrean daukat Bil-boko ikastolarik handiena: Begoñazpi ikastola. Nazioarteko ez dakit zenbat domina jaso dituen egiten duen lan pedagogikoa-gatik. Ez da ikasleen artean hitz bat euskaraz entzuten: han ere irakasleak euskaraz eta ikasleak gazteleraz erantzuna eta segi aurrera. Ezta baske-spanish dialektoa ere.

Gaur egun garrantzia handia du Pisa informeak. Nola sukaldariak Mitxelin izarren zain, hala egoten dira informe horrek zer esango urduri. Euskal Herria ez ei da oso gaizki ge-



ratzen, batez ere Espainiako beste autonomiekin konparatuta. Eta Pisak gogoan hartzen al du euskara?

Euskararen Normalizaziorako Legeak euskara Ikastetxe pribatuetara ere eraman zuen. Salbuespen oso gutxi aparte, ia denetan “A” ereduak jarri zen. Hau da, ahal zen eta gutxi-ena. Alde batetik hori ez zen ezustekoa, jakinda irakaskuntza pribatuak frankismo garaian ze paper izan zuen hemen. Badakit oso gogorra dela hala esatea, baina ikastetxe erlijiosoetako arduradunak antieuskaldunak izan dira eta sarritan euskararen jazarpena egin dute bizi ziren komunitateetan bertan. Oraindik idatzi gabe dago azken urte hauetan bertan, erlijioso euskaldun askok zenbat sufritu duten beren euskal sentsibilitatean. Norbaitek asko esatea dela uste badu, doala horren testigantzen bila eta nahikoa frogatuko du.

Horrela bakarrik esplika liteke, urteak joan eta urteak etorri, “A” ereduak ez duela haurrak euskaldun egiteko balio izan; halere ez da inolako aldaketarik egin. Norbaitek pentsa lezake Euskal Herriko haurrak 14 urtera iritsi eta gazteleraz egiteko gauza izango ez balira, ze hotsak entzungo liratekeen eguzkiaren azpian?

Hezkuntza sailak horrenbeste urtetako porrota inolako kezkarik gabe ikusi du, eta horretan kolaboratzaile izan dira hainbeste ikastetxetako arduradun eta irakasleak.

Duela urte batzuk, familia batek salaketa jarri zuen Hezkuntza sailaren kontra: bere umeak 14 urterekin euskaraz hitz egiteko gauza izango zirela agindu eta garaia iritsi zenean hutsaren pareko euskararekin gelditzea iruzur handia iruditu zitzaion. Anekdota mailatik pasatu ez zen salaketa. Oraindik arduradun batek ere ez du erantzun.

Milaka dira euskara oso jantzia dutenak. Milaka dira goi mailako ikasketak euskaraz egiteko gai izan direnak. Baina gero kalean ez dira ausartzen erabiltzera. Inor ez da arduratu kalean baldintza gutxieneko batzuk eman daitezten.

Gorago esan den bezala, ertzainari euskaraz hitz egin, erizainari “egun on” esanez eman agurra, dendariari euskaraz eskatu eta leku guztietan gaztelera hutsean erantzuten badizute, oso zaila da euskara kalean entzutea. Ni neu nahiko ausarta naizela esango nuke euskarari dagokionean, baino askotan ohartzen naiz koldartuta geratzen naizela horrelakoetan. Eta gero oraindik betiko leloa entzun behar: “Yo estoy a favor del euskara pero no lo aprenderé mientras sea una imposición”. Pais Vascoko intelektualen aitapontekoak, Savater jaunak, esana.

Gero hitz horiek sarritan entzun ditut jende xumearen ahoan ere. Behin eskulanetara joaten nintzen talde batean, zereginean sartu aurreko tertulian, euskaldun bat topatu nuen, eta ohizko gauzatxo batzuk elkarri esateko, euskaraz egin genuen. Erriberako emakume nafar batek hala esan zigun bere mutur beltzarekin: “A mi me parece bien el euskara, pero lo que no acepto es que me lo impongan”.

Aspalditik erabakita daukat zenbait irain ez dudala isilik entzungo eta hala esan nion: “Dígame una sola ocasión en que al ir al médico, al ayuntamiento, al Corte Inglés y hablar en castellano le hayan pedido hablar en euskara. Yo le digo que esa situación la vivo todos los días y varias veces cada día. Hablo en euskara y me piden que lo haga en castellano. ¿Quién es el que impone aquí una lengua?”.

Ezustean harrapatu nuen eta isilik geratu zen, baina talde hartan bat baino gehiago ziren hemen inposatzen den hizkuntza bakarria gaztelera dela ulertzen ez zutenak.

Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastetxe pribatu batzuetan izan ezik, erlijiosoen ikastetxe gehienetan B eta A ereduera jo zuten irakaskuntzan. Eta jarri zen lekuetan ere, ikastetxea ez zen D eredu hutsekoa, hiru ereduak ikastetxe berean nahasita zeuden. Eta ikastoletan ezinbesteko ikusten genuen murgilpena.

Penintsulako bazter guztietatik lupaz jarraitzen zituzten gure asmoak eta erabakiak. Eta denok dakigu zenbat nahasmen

sortzen zuten irrati eta tertulialariek horren inguruan: astakeria ei zen guraso erdaldunen seme-alabei horrelako hezkuntza ematea. Gaztelera Espainia osoko hizkuntza komuna izanda, iraingarria zen atzerriko hizkuntza bezala ematea... Asko ikasi dugu demagogo horiek esaten zuten guztia entzunda.

Euskarak erreka bezala bidea egiteko orduan ze arazo aurkitzen zuen ere aipatzea komenigarria deritzot. Irakasleona ez da ikasgelan sartu eta hurrei hau edo bestea irakastea. Ikastetxeen artean bilerak eta hitzaldiak eta hartu beharreko erabakiak zirela-eta, sarritan bildu behar izaten genuen. Eta beti bezala, asko oraindik ez ziren euskal hiztunak eta hasieran gutxienez gaztelera gailentzen zen. Baina horrek ere irtenbidea behar zuen. Guk horrelakoetan, arazoak arazo, euskara erabiltzen hasi behar genuela pentsatu genuen, bestela egoera kronifikatu egingo zela. Eta sarritan euskaraz esandakoa gero gaztelera errepikatzeko eskatzen zitzaigun. Horrek, ordea, laster utzi zuen agerian batzarrak luzeak eta errepikapen askorekin ateratzen zirela. Eta behin irakasle batek altxatuta eta hala bota zuen:

— Euskaraz hitz egin eta gero gaztelera itzuli beharrak asko luzatzen ditu bilerak. Zergatik ez dugu denok gaztelera hitz egiten?

— Arazoa ez du euskaraz hitz egiten duenak sortzen, gero itzulpena eskatzen duenak baizik —erantzun genion—; lehenago edo geroago irakasleok euskara jakin beharko dugu. Eta bide horretatik ez dugu ikasiko.

Egiari zor, esan behar du herri honetan gertatu den aldaketarik handiena eman zela urte gutxitan irakaskuntzan: ia denak euskaraz ikasi eta eskolak euskaraz emateko gauza izan ziren. Beti Eusko Jaurlearitzaren aurkako kritika izan ez dadin, aitortu beharra daukat gauza batzuetan presioari eusten jakin zuela eta irakaskuntzan aritu naiz zutenei euskara eskatzen jarraitu zuela.

Zergatik Osasun Zerbitzuan, Ertzaintzan eta Zerbitzu Publikoetan, adibidez, ez zen horrelako arrakastarik izan?

Sarri egin diot galdera hori nire buruari. Eta erantzuten hasita, hauxe esango dut: gurasoek argi zeukaten euren seme-alabak eskolaldia ezin aukera hobea zutela, erraz eta ongi haurrak euskaldun egiteko. Eta ez zuten amore eman. Ez zituzten seme-alabak 20 urterekin euskaltegietan ikusi nahi.

Osasun Zerbitzuan, ordea, baldintzak ezberdinak ziren: gaixoa medikutara doanean bakardadean aurkitzen da, sarritan beste kezka gainezka doa eta ahuldade horretaz baliatu dira Zerbitzu hauetako langileak behar ziren pausuak ez emateko. Ez dut uste irakaskuntzako langileak baino gaitasun gutxiago dutenik euskara ikasteko.

2013an Basurtuko ospitalean egon behar izan nuen 3-4 egunez ebakuntza txiki bat medio. Erizain, garbitzaile, osagile edo bestelako langileak sarritan sartzen ziren logelan honetarako eta hartarako. Nire lehengo hitza beti euskaraz izan ohi zen, eta gehienak gazteak zirenez pentsatzen nuen eskola garaian gutxieneko bi edo hiru gauza esaten ikasiko zutela. Harrigarria bada ere, bat berak ere ez zidan euskaraz hitz egin. Benetan saminduta geratu nintzen.

Eta beste horrenbeste Ertzaintzaren kasuan. Sekula ez dut haiekin mantendu beharreko harremana euskaraz mantendu ahal izan, eta ez dira temati jartzeko uneak izaten: bide bazterrean gelditzeko esaten dizutenean, gehienetan ez da sua baduzun galdetzeko.

Behin Hezkuntzako Ordezkaritzara joan beharra egokitu zitzaidan eta bulego nagusiko harrera puntuan neska gazte batek hartu ninduen. Nik euskara hitz egin nion eta berak: “Por favor, no te entiendo bien, prefiero en castellano”.

Ez nuen halakorik espero eta bat batean galdetu nion:

— Para ocupar este puesto seguramente te han valorado el euskara, no es así?

Eta nire harridurarako baietz esan zidan. Eta halaxe jardun nintzaion:

— Lan posturako euskaraz baliatu zara eta orain niri gazteleraz hitz egiteko eskatu?

Eta antzeko egoerak uste dut jende askok pairatu dituela. Niri behintzat behin eta berriz egokitzen zaizkit.

Txurdinagan hor daukagu Hiper Eroski bat, auzoko saltoki handi bakarra. 30 urte pasan ditu eta euskaraz hitz egiteko aukerarik ematen ez diguna. Hasieran enpleguatuari euskaraz hitz egin eta “Ya lo siento, yo no llegué a tiempo para aprender euskara. Mis hijos ya van a la ikastola y con eso tendré que conformarme”, izaten zen iruzkina.

Baina orain egoera aldatu egin dela esango nuke. Oraingo enpleguatuak, 30 urte geroago, gazteak dira, neskak ia denak. Eta ni euskaraz hasi eta haiek gazteleraz erantzun. Eta hala pentsatu nuen: “hauek ez dakite ni nor naizen”.

Eta saltokiko arduradunarengana jo nuen. Kasualitatez gernikarra, euskalduna eta hala esan nion:

— Begira, oso desatsegina iruditzen zait saltoki honetan bezero euskaldunari ematen zaion tratamendua. 100 metro ingurura bi ikastola daude dena euskaraz ematen dutenak, auzoan beste hiru ikastetxe publiko D eredukoak. Jende asko gara auzoan euskaldunak eta haurrentzat ezin bestekoa iruditzen zait horrelako lekuetan euskararen presentzia bermatzea. Eta enpleguatuetatik bat berak ere ez dit euskaraz erantzuten. Ez al dakite ezer? Hauek eskola garaian zerbait ikasiko zuten ba, ez?

Gizonak oso ondo ulertu zuen esan nahi niona eta seguru nago berak ere euskara atseginez ikusiko zukeela saltokian, baina hala esan zidan: “Zer egin dezakegu? Proposamenen bat?”.

Eta hala adierazi nion: gutxienez euskara pixka bat egiteko gauza ziren enpleguatuek adierazteko ikurren baten bidez euskaraz egiteko aukera.

Aste pare batean kaxako bi enpleguatu ikusi nituen euskarazko ikurrarekin eta zerbait egin nuela pentsatu nuen. Nes-

ka haiek jada ez daude saltokian eta berriro hasierako puntuan gaude. Haserretuta ez dugu ezer egiten eta ekinean jarraitu beste biderik ez dugu.

Ikastetxeetan ezarri ziren ereduak aipatu ditugu oraintsu. Hasiera hasieratik asko, batez ere euskaldungoa, plangintza horren aurka atera ginen. Hori eskoletan sartu zutenak arrazoi pedagogikoak aipatu zituzten, guraso guztiak ez zirela berdinak. Gure argudioa zen legearen arabera bermatu egin behar zela ikasleak 14 urterekin OHO amaitzean, harreman arrunt bat euskaraz eramateko gauza izango zirela eta gure iritzian “A” ereduan hori ez zen lortuko eta “B” ereduan ere oso gutxik. “D” eredu gutxienekoa iruditzen zitzaigun helburu haiek lortzeko. Ingelesa ikasi nahi dutenak, ez al dira, modurik izanez gero, Ingalaterrara joaten ingelesa sendotzera? Guk hementxe bertan egin genezakeen pareko zerbait, murgilpen sistema erabiliz.

Hizkuntz ereduen azpian, arrazoi pedagogikoak ez baino arrazoi politikoak zeudela uste dut.

Lorpenak bermatzeko izan ere, ez zen aski lan akademikoak hizkuntza honetan egin edo ez egin, beste lan handia egin behar zen gelaz kanpo ere haurrek euskaraz ari zirela ohartu gabe hitz egitera heltzeko, “murgilpen eredu” deitzen genuena. Horretan ikastolak oro har eta gurea ere eredarriak izan ziren. Gure arauetan aho batez onartuta geneukan ikastolan lan egiten zuen orok: atezaina, sukaldari, jantokikoak, begiraleak, bulegokoak, eta jakina, irakasle guztiak euskaldunak izan beharko zutela.

Horrela egin ezean oso zaila da 14 urterekin euskaldunak bermatzea. Baldintza horiek betearazteak batzuetan arazoak sortzen zituen.

Behin gaztelera ematera euskaraz ez zekien irakaslea bidali ziguten Ordezkaritzatik. Lehen unetik hitz egin zen berarekin eta adierazi zitzaion gurean euskaraz jakitea ezinbestekoa zela. Eta berehala jarri ginen harremanetan zegokion pertsonarekin.

— Ingelesa edo gaztelera eman behar duen irakasleak ez du derrigorrez euskalduna izan behar- erantzun zitzaiGUN.

Saiatu ginen adierazten gure ikastolan generaman pedagogiak murgilpena praktikatzen zuela eta irakasle ez euskaldunak sistema hori aurrera eramatea ezinezko egiten zuela. Are gehiago: irakasleok ikasgelako lanetik aparte batzarrak, jolas-torduak, ikastola barneko joan etorriak... Hori guztia euskaraz egiten badugu, berak non ezkutatu behar du? Sarritan horrelako argudio burugabeak entzun behar izan ditugu Hezkuntzako arduradunengandik. Gaztelera edo ingelesa emateko ez du euskararik behar, baina hortik kanpora beste guztiok gaztelera hitz egin behar al dugu batek euskara ez dakielako?

Zoritxarrez arrazonamendu hori gehiegitan onartu dugu gizartean eta lagunartean ere. Eta nahiz eta ulertzekoa den zenbait kasutan malgutasun pixka bat komenigarria izan daitekeela, ohitura bilakatuz gero, euskarari kalte handia egiten dio eta egin dio. Amona xahar batek kalean zerbait galdetuz gero ezin zaio “no le entiendo” erantzun, baina beste muturrera joanda gabilta aspaldian gure artean.

OHOko hezkuntzaren euskalduntze prozesuan, argi geratu den bezala, lehen bultzatzailea Arizko ikastola izan zen Basaurin, baina ez ginen aski uste eta ikastola beteta ikustearekin konformatu.

Baina ez OHOk hezkuntzan D eredia bultzatuz bakarrik. Maila hori amaitu ondoren Batxilergoa heltzen zen eta lehenengo urte batzuetan gure ikasleak ordurako Txurdinagako G.Aresti institutuan zabaldua zegoen D eredia joan behar izaten zuten. Orduan gainera goiz eta arratsaldean banatuta zegoen batxilergoko ikasketa eta nahiko sakrifizio izaten zuten autobusa hartu, eta liburuekin batera bokatak poltsan, egun osoa etxetik 7/8 kilometrotara zegoen ikastetxera joan beharra. Basaurin inor ez zen mugitu hori konpontzeko eta halaxe geu izan ginen ikastolatik Lakuara hainbeste bisita egin eta Retegi jaunarekin –orduan Hezkuntzako goi kargu bat–

lortu genuenak Urbiko Institutuan D ereduako batxilergoari hasiera ematea. Esan behar da jaun hau gurekin ongi portatu zela, atek beti zabalik zeuzkala korapiloak askatzen joateko, baina Sailak berak egin beharreko lana zen, hurrengo urteetan ere ikastolatik talde on bat joango baitzen hara.

Urbiko Institutuan gauzak ezberdin ziren. Ikastolan euskararen mikroklima bat sortuta geneukan bezala ikastetxe hartan ehunka ikasle erdaldunen artean galduta aurkitzen ziren eta irakasleak ere ia denak erdaldunak ziren; egiari zor, haiekin aritu ziren irakasle euskaldunak oso portaera ona izan zuten Arizko ikastolatik joandako ikasleekin, dena beharrezkoa baitzen.

Gogoratzen dut aterata gero ere, sarritan ikastolara itzultzzen zirela hango giroaren epelera.

Hurrengo urteetan Urbiko Institutu hartan gauzak nahasten joan ziren: herriko Lehen Hezkuntzako eskoletan D eredia hedatzen joan heinean, han ere A eredia desagertzen eta D eredia nagusitzen hasi zen.

Eta herriko hezkuntza publikoaren berrantolaketa planteatu zen. Guk Urbiko Institutua D eredurako bakarrik uztea eskatu genuen. Berriro ere istilutan sartuta aurkitu ginen: han zeuden A ereduako taldeak oso haserre plantatu ziren. Euren asmoa zen Urbin A eta D ereduak nahasian egotea. Hemen ere zegoen interesik sendoena irakasleen korporatibismoa zen: plaza han zeukaten eta handik ez zuten mugitu nahi. Horri gehitzen bazaio zenbait jendek, politika arlotik bereziki, gure hezkuntzako ereduari trabak jarri nahi zizkiola, dena erraz esplikatzen da. Azkenean D eredurako bakarrik geratu zen, baina oso asanblada istilutsuaren ondoren.

Pasadizo bat gogoan dut asanblada hartakoa: A eredia han mantendu nahi zuten irakasleen liderra auzokidea nuen. Haien A eta D ereduak elkarren ondoan nahi zituzten, D eredia ghetto bilaka ez zedin eta gainera A ereduak euskara errazago ikas zezaten.



Txurdinagan ni bizi naizen portale berekoa esan dudan bezala, eta kasualitatez, adin bereko umeak haren alaba txikia eta nire semea.

Eta halaxe erantzun nion denen aurrean: “Nahasmen horrek ez du funtzionatzen; D eredukoak Akoekin nahasiz gero, denak egingo dute gazteleraz. Nire semea eta zure alaba elkarrekin biltzen direnean, beti gazteleraz egiten dute. Eta are gehiago, zure alaba ‘Colegio francés’era joaten bada”. Izan ere, hala zen. Ikastolak ghetto ziren, baina “El Colegio francés”, ez.

Deigarria iruditu zait nola argudio batzuk goitik behera eta eskuinetik ezkerrean joan etorri bizian mugitzen hasten diren. Horietako bat izan zen D ereduan umeak ghetto batean sartuta bezala bizi zirela eta hori ez zela gauza ona. A eta D ereduak nahasian ibili behar zutela. Borondate txarrez ote zioten? Ez dakit, baina zertaz ari ziren ezer jakin gabe, seguru.

Gure helburua haurrak euskal hiztun egitea bazen, sarri ezin genuen familiaren eraginaren zain egon, erdaldunak baltziren. Beraz euskal murgilpena beste biderik ez geneukan.

“Convivencia entre modelos lingüísticos distintos”. Hori zen batzuen leloa. Baina zertarako? Ez euskara bermatzeko. Nire ustez, atzera pausoak eman ditugu gai honetan; sinistuta nago –eta sarritan izan da ikastolako lankideon artean mintzagai–, murgilpen eredu nola “kolatu” zitzairen. Gaur seguruenik ere... Benetako euskal hiztunak lortu nahi baditugu, agian ez da aski izango, baina eskoletako murgilpena gure gizartean ezin bestekoa da.

Joan etorri hauek lerro batzuetan sartu beharra izaten da baina mila anekdota eta tira-bira pertsonal konta litezke egoera haietan suertatzen zirenak.

Egunen joan etorrian gertatzen diren gauzak era guztietarikoak izan ohi dira, baina hari gidari batek funtsezkoetara ekartzen zaitu. Kontua da, ikastolek arnasa apur bat hartu zutela Euskararen Normalizazioaren Legeari eskerrak, baina Franco hil eta dozenaldi bat urte geroago, oraindik han geun-

den halako linbo juridiko batean. Lortu zen bakarra, eta ez zen gutxi, irakaslegoaren nominak Eusko Jaurlaritzaren kontura izatea eta eraikinaren garbiketa eta mantenimendua Udalaren ardura.

## EIKE eta EEPA

Guraso eta irakasleek publikoki egiten genuen aldarrikapena Ikastola Publikoa zen. Gure filosofia zen ikastolak ikastetxe publikoak izan behar zutela. Baina aldarrikapenak aldarrikapen, urratsak emateko orduan alderdi politikoek ez zuten ezer egiten. Horregatik, Euskal Eskola Publikoaren Alde –EEPA– mugimendua sortu genuen, elkarrekin hausnartu eta ildoak zabaltzen joateko modua egin asmoz. Lau ziren euskal eskolarentzat eskatzen genituen ezaugarriak: anitza, euskalduna, publikoa eta doakoa.

Anitza: ez genuen ongi ikusten eskolan erlijio ofizial batek agintzea, ez eta ideologia partidistaren menpe egotea. Jendearen pentsaera kalean anitza da, lanean ere anitza da eta umeak txikitatik ikasi behar du aniztasun hori errespetatzen.

Euskalduna: inolako dudarik ez genuen egiten murgilpena eredia ezin bestekoa zela erdal giroaren eraginari aurre egin nahi bagenion. Baina ez zen euskara bakarrik, argi geneukan gure herri erreferentziala Euskal Herria zela. Ez genuen onartzen Nafarroa, Baskongadak eta País Vasco francés hiru errealitate sakabanatu bezala ikustea.

Publikoa: puntu honetan asko azpimarratzen genuen erabat aurka geundela historikoki “publikoari” eman zaion esanahiarekin: gobernuak kudeatutako erakundea. Gobernuak erabakitzen ditu edukiak, berak ezartzen ditu agintean dagoen alderdiaren irizpideak, bere tresna da hezkuntza sistema. Publikoa esaten genuenean, Gobernuaren goi kontrola bakarrik

onartzen genuen. Gurasoen partaidetza erabakietan funtsezkoa zen guretzat; izan ere, euren seme-alabak ziren. Ikastolan esperientzia hori egin izan da eta emaitza oso onak eman ditu.

Doakoa: gizarte batek gastua bezala ez baino hezkuntza inbertsio bat dela pentsatzen badu, ezin bestekoa da gizarteak bere gain hartzea zama hori. Doakoa izanda ere, langile familiarik datorrenak arazo gehiago gairitu behako ditu ahalmen ekonomiko handia duenek baino. Hori uka ezina da: txiki-txikitatik ikusi dugu familiak duen ahalmen ekonomikoak zer ikusi handia duela haurrak bidean aurkituko dituen arazoak gairitzeko orduan, laguntza berezia izateko aukera gehiago baitu.

EEPA mugimendua aktiboa izan zen eta egindako hausnarketa zabaltzen saiatu zen mundu mailan pedagogiak bermatzen zituen proposamenak eginez, baina laster ohartu ginen Alderdi Jeltzaleak ez gintuela begi onez ikusten. Ez zen jeltzaleen eredia eta gure arteko harremanak ez ziren errazak. Ikastolen federazioekin bereziki.

Baina ezin zuten ukatu ikastolen filosofian zegoela publikoa izatea, ez zitzaigun burutik pasatzen gure etxean pribatu izan behar genuenik. Baina publikotasunaren aldarrikapen hori hutsala zen, ez zen seriozki planteatzen. Orduan zenbait ikastola, Santutxukoa adibidez, ekintzak eta manifestazioak egiten hasi zen euren publikotasuna lortze aldera. Halere, beste batzuen iritzian ikastolak publikoa egitea ezin zen bakarkako erabakia izan, adostu beharreko gauzak ere bazeuden eta kolektibitatea bezala eman behar zen urratsa.

Testuinguru horretan Gasteizko Legebiltzarrean EIKE –Euskal Ikastolen Koordinazio Erakundea– Legea onartu zen. Ez genuen oso begi onez ikusi lege hura ere. Ez zitzaigun zuzena iruditzen Euskal Eskola Publikoa bi erakunde ezberdinetan zatituta egotea. Ordurako eskola publikoan euskarazko hezkuntzak pisu handia zuen eta haiekin gure indarrak bildu

ordez, etengabeko tirabira batera eramango gintuela ikusten genuen.

Nolanahi ere, EIKEk bide oso laburra izan zuen: Konstituzio Epaitegiaren aurrean errekurtsio bat jarri ondoren, erabat baztertua geratu zen.

1993ko otsailean Eskola Publikoaren Legea onartu zen. Gure ustea da beste baldintza batzuetan egiteko lana zela. Buesa jauna ez zela une hartan Hezkuntzako Sailburua izateko proposena eta batez ere, erabaki hura beste era batera landu beharrekoa zela: lehen ez geunden ados publikorako bidea banaka egiteko, kolektibitate gisa baizik, eta orain ere hausnarketa kolektiboa beharrezkoa zen eta gero bakoitzak har zezala erabakia.

Alderdi Jeltzaleak, aitzitik, ikastolarik handienak ordurako pribatuko egituraz sendotuta eta bere ildoan sartuta zeuzkan; eskuak garbitu zituen auzian eta euskara ez ezagutu eta ez maite zuen gizon batengan jarri zuen une horretako erantzukizuna.

Basauriko ikastolan, ahulezia ekonomiko handikoa eta batere patrimoniorik gabea, ahalmenik gabe geratu ginen aukera egiteko. Esan bezala, egoitza ez zen gurea, ordurako txiki geratua gainera. Ikastola kontzertatuen kolektiboan geratzeko batzarretan gogoan hartu genuen puntu bakarra hauxe izan zen: ze ahalmen daukagu, publikatu ezean, aurrera egiteko?

Hasierako analisi batean denok ados geunden ezinezkoa zela: Basaurin ez zegoen oruberik

hartarako. Orubea egonda ere, horren zen izugarria egingdako kalkuluen arabera beharko genuen dirutza, atzera egin genuen. Une batean norbaitek proposamen berria egin zuen: eraikuntzaren gainean solairu gehiago egin. Asko pentsatu gabeko proposamena: lehen eta behin eraikuntza hartan, berezia izaki, ez zuen Foru Aldundiak inondik ere utziko eta bestetik ez da eraikuntza bakarrik, haurrek jolaserako ere lekua behar izaten dute, eta han ez zegoen; eta azkenik, ordurako

bagenekien Metroaren kotxerak eta bulegoak han jarri behar zituztela.

Hori guztia ez aski eta eraikuntza berria egiterakoan gogotan hartu beharra zegoen ez nolana hiko mailegua beharko genuela eta horren erantzule kooperatibistak direla. Aztertu genuen gure ikasleen familien egoera ekonomikoa zein zen eta datu bat agertu zen besteen gainera: ikasleen oso kopuru handi batek diru laguntza publikoak zituela ikasketarako eta jantokirako. Oso datu esanguratsua.

1993ko maiatzaren 21ean egin genuen erabakia hartuko zuen asanblada. Jendetza handia bildu zen egun horretarako espresuki utzi ziguten aretoan. Eztabaida ez zen izan ze ikastola mota nahi genuen, legeak ze bide uzten zigun baizik. Gure egoera ekonomikoak eraginda bereziki, sare publikoan sartzea erabaki zen.

Ordurako beste ikastola batzuek asanblada egin zuten eta bagenekien nolako tirabirak sortu ziren. Zenbait kasutan, eta ez oso gutxitan, ikastolak zatituta geratu ziren eta guk, nola alde batekoek zein bestekoek, inondik inora ez genuen zatiketarik nahi.

Horregatik proposamen bat egin genion asanbladari: erabakia bi zatitan hartzea: lehenengo bozketa orientatiboa izango zen. Han agerian geratuko zen gehiengoak zer nahi zuen. Eta gonbitea egiten genion jendeari bigarren bozketan lehenengoan nagusitu tako jarrerari botoa emateko.

Eta halaxe izan zen: lehen bozketan %60 ikastola publikoaren alde jarri zen. Eta ondorioz, hori jakinda, egin zen bigarrenean, baliotasun juridikoa izango zuen hartan, %77 atera zen publikoaren alde. Uste dut era horretara gehiegiko minik gabe atera ginela trantze hartatik.

Gure asmoa zen sare publikoan sartuta ere ikastolaren ezauzgarri funtsezkoak mantentzen jarraitzea: irakaslego bera izango zela bermatuta zegoen, ikastetxearen kudeaketa ordura arte bezala egingo zen, eta ordutegia ere berdin mantenduko zen.

Oso nabaria izan zen beste gauza bat. Publiko bilakatu ondoren, eta batez ere ekonomiaren arazoa konponduta zegoela ikusi zenean, Basaurin ikastolarako matrikulazioak asko sendotu ziren. Nonbait jendeak arazo ekonomikoa izan bazuen. Hori gertatu eta 20 urtera ari naiz gauza hauek idazten eta funtsean orduko irakasleak jarraitzen du eta urtez urte eskari guztiei erantzun ezinik dabilta. Ez da seinale txarra.

Zein neurritan bete diren ikastolen baitan jarritako itxaropenak? Balantzea beti izaten da nahiko subjektiboa. Alde batetik Arizko ikastolak 40 eta gehiago urtetan eman duen fruitua bistakoa da: milaka haur prestatu ditu euskaraz hitz egiteko; euskal kontzientzia zabala hedatu du, nahikoa premia bazegoen eta; ikasle horiek aita ama bilakatu direnean euren seme-alabekin euskaraz egin dute sarri eta gure ikastola izan zen herriko beste 12 eskolak D eredura bultzatu zituen. Alde horretatik ez dago duda handirik.

Zertan ez dira bete gure itxaropenak? Uste genuen ikastolan elkarrekin euskara hitz egiteko ohitura hartu zuten horiek kalean ere euskaldun izango zirela. Hor muga handiak ikusi ditugu. Ez da behar bezala aztertu zer gertatzen ari den, ez Basaurin bakarrik, Euskal Herri osoan baizik. Nahiz euskaraz jakin eta politikoki euskaltzaleak izan, gaztelerara jotzen da. Nola esplik liteke Kilometroak, Ibilaldia eta antzeko kasuetan euskal jendetzak biltzen direnean euskara dakiten askok gazteleraz hitz egitea?

Euskara gatazka sortzaile bezala ikusten du askok, markatu egingo balu bezala, eta batek baino gehiagok azpimarratu duen puntua: zenbat eta jendetza handiagoak izan, orduan eta deserosokoa da euskarari heldzea. Euskararentzat gune aproposak sortu behar dira- hor erakunde publikoek zer esana badute-; ezin dugu beti aldapa gora ibili, kaleko hizkuntzak berezko etorri bat eskatzen du... Eta horretan eskas gabilta. Hori euskararekin eta beste gauza askorekin gertatzen da. Ze bertsolari hasiko litzateke Metroan goizeko zazpietan bertsoak

botatzen txaloka hartuko dutela-eta? Edo ze operako kantari? Gauza guztientzako giro aproposa sortzea ezin bestekoa da eta euskarak giro apropos gutxi dauka.

Behin baino gehiagotan entzun dut euskaraz hitz egitea euskaldunen esku dagoela. Nabardura asko behar ditu, baiez-tapen horrek. Bien bitartean *El Correo*ko intelektualak hor ari dira sokatik tira eta tira. Savaterrek bera euskararen aldekoa dela dio, baina inposizio bat bezala jartzen zaion bitartean, berak uko egingo diola. Aurelio Artetak gaineratuko du euskarak eta gaztelerak hemen aurrez aurre lehiatu behar dutela, ez bat-tari ez besteari, erakundeetatik inolako laguntzarik eman gabe. Azeriak horixe esango luke oilategian sartuta. Beste batzuek esango dute Osasun zerbitzuetan euskarari puntuak ematea enplegatu erdaldunen diskriminazioa dela. Osakidetzak euskaldunen kopurua eta enplegatuena euskararako prestakuntza nolakoa den jakin nahi badu, Joseba Arregi andoaindar euskaldun jatorrak *El Correo*ko orrialde osoa beteko du esateko: “No quiero que mis derechos y obligaciones como paciente se vinculen al euskera o al castellano”. Argudio oso baldarra horren gizon argiak erabiltzeko.

*El Mundo* egunkariak ere, tarteka urak nahasten ditu. Oraintxe aipatu dugun Osakidetzaren erabakiaren harira, hala publikatu zuen egun batean: “Osakidetzak osagileak eta erizainak euskaraz hitz egitera bultzatu nahi ditu. Eusko Jaurlaritzak, Anaia Nagusiaren antzera, hiritar bakoitzak zer esaten duen jakin nahi du, eta euskara ezarri hizkuntza menderatzaile gisa katalandar nazionalismoak egin duen bezala, hizkuntza onen eta gaiztoen arteko muga bihurtuz”.

Eta sarri entzun behar izan dugu euskararen aldeko jarrera sendoagoa izango litzatekeela gutxiago politizatuko bagenu. Zer esan nahi da azken finean politizatu hitzarekin? Euskaraz egiten dugun askok Euskal Herria gure herrizat daukagula? Ze bekatu dago hor? Eurek ezin al dute euskaraz hitz egin gutxieneko gizatasun batek eskatzen duen moduan, eta gero

nahi badute Espainiaren barnean jarraitzearen aldekoak izan? Horren pentsalari argi eta ospetsuek gauza hauek arazorik gabe ulertu beharko lituzkete.

Eta zubiarena egiten, bi aldeen artean, Alderdia. Zenbat gustatzen zaion gure partiduari zubigintza. Alde batekoei errieta eginez eta beste aldekoekin “diskrezio” osoz.

Alderdi Jeltzalea behin baino sarriago aipatu da orri haue-tan. Argi adierazi nahi dut partidutik hurbil sentitzen ziren jende asko zegoela ikastolan eta auzolan-kide onak gainera. Arazoa, sortu zenean, partiduaren ordezkari sentitzen zirenek sortu zuten; hau da lan gutxien egin zutenek eta zerbaiten jabe sentitzen zirenek. Ezin dut hemen gogoratu gabe utzi pasadizo xelegre bat. Hasierako urteetan irakasle berriak aukeratzeari irakasle eta gurasoz osatutako lan talde baten eskuetan geratzen zen. Batez ere, euskararen trebetasuna asko azpimarratzen zen, garai haietan euskaldun berriak ere sarri etorri ohi bai ziren dei horietara. Irakasle berriak hartzeko deia egin ondoren, aurkeztu zirenekin banan-banan egon ondoren, Ikastolako Batzordean ematen genuen gure iritzia kontratua nori egin erabakitzeko. Bitxia bada ere, gurasoen aldetik taldean euskaraz ez zekien aita bat zegoen, beti apunteak hartzen egon ohi zena. Bestean iritzian aurkeztu zirenen euskara maila ona zen, baina bera ados ez eta hala bota zuen: “Yo diría que la solicitante X no tenía un dominio suficiente del euskera, daba la impresión de poca fluidez”.

Arrazoia eman ordez, guk lehen esandakoa berretsi genuen eta berak halaxe amaitu zuen: “Yo creo que aquí algunos dan poca importancia al euskara, que se fijan más en otros aspectos que no tienen relación con la enseñanza”.

Ez dakit zer esan nahi zuen baina besteok zer ulertu genion argi zegoen: joera politikoari garrantzia handiagoa ematen geniola. Gaueko hamaiketan bilera amaitu ezinik ibili eta horrelakoekin etortzea ez zen afaririk onena baina...



Horrelako jendeak izan ziren poliki- poliki ikastola ezberdinetan tentsioak sortu zituztenak, eta ikastolak partiduaren ildotik joan behar zutela uste zutenak. Nabaria zen partiduko koadroetan irakaslegoarenakako mesfidantza gero eta handiagoa zela eta halaxe sortu ziren sarri arazoak. Eta ikastola herrikoiak izan zirenak egitura pribatuzalea hartu eta izen beraren azpian beste errealitate bat sortu zutenak: Lauro, Kiri-kiño, Lauaxeta, Begoñazpi, Astileku... Bizkaiko partean: gerentea, zuzendari pedagogikoa, irakasleak enplegatu soil, eta gurasoen partaidetza hutsaren ondokoa.

Pluraltasuna denok aldarrikatzen dugu. Baina pluraltasun pasiboa; hau da, honela edo bestela pentsatzen duen jendea ez da gaitzesten, baina jende horrek ezin du berak pentsatzen duena aportatu. Isilean gorde behar izaten du bere jarrera. Ideario bat dago ikastetxe hartan eta ideario hori ez da gurasoen elkar truketik atera, baizik botere batzuk badaude hasieratik bidea markatu dutenak. Pobrezia handia.

## **Ikastola Pozokoetxera**

Horrela gauzak, Bilboko Metroaren historia hasita zegoen eta hala jakin arazi zitzaigun ofizialki: La Baskonia eraikuntza Metroak hartuko zuela eta kotxerak ere han etorriko zirela. Ordurako sare publikoan sartuta zegoen ikastola eta irtenbidea ematea Hezkuntza Sailari zegokion. Berriro, gu bila joan gabe, istiluaren erdian aurkitu ginen.

“Ezin dugu gatazkarik gabe bizi” esaten genuen gure artean sarritan. Izan ere, arazo bat gainditu orduko beste bat etortzen zitzaigun gainera, eta energia handiak gastatzen genituen hartan.

Joan etorri askoren ondoren eta aukera asko ez zegoelako, Hezkuntzaren erabakia ondoan zegoen Pozokoetxe ikastetxera

pasatzea izan zen. Historia aberatsa zuen ikastetxe honek: eskola gabezia Basaurin handia zen garaian, gurasoen ekimenaz abian jarritako eraikuntza zen. Garai batean 1.220 ikasle izatera heldu zen.



*1996an Arizko ikastola Pozokoetxera joan zen,  
lehen eskola izandako egoitzara.*

Ikastolak eta Pozokoetxe eskolak harreman ona genuen. Eurak izan ziren Basaurin gure ikastola besterik ez zegoen garaian B eredia jarri zutenak. Baina horretan geratu ziren eta beste ikastetxe publikoetan D ereduak zabaltzen hasi zirenean, haiek ikaslegoa galtzen hasi ziren. Eta ez nolana ere: Hezkuntzak gu hara joatea erabaki zuenean eskola erresiduala zen, 80 ikasle inguru besterik ez zeukan.

Zergatik tematu ziren B ereduan? Nire ustez, arrazoi korporatibistak zeuden gordeta.

Irakasleek han plaza finkoa zuten –eta hori eskola publikoan arrazoi handia da–, eta bestetik D eredura aldatzeko

irakasle asko ez zeuden prestatuta euskarari zegokionean. Eta inertzia horrek ekarri zuen gainbehera.

Hezkuntzatik hara joateko agindua etorri zitzaigunean harremanetan jarri ziren ikastola eta Pozokoetxe. Alde batetik Gurasoen Elkarte biak eta bestetik bi zuzendaritzak. Gauza asko zegoen argitzeko: ze ikastetxe eredu, gurasoen partaide-tza, irakasle goan izango zituen ondorioak...

Laster ikusi zuten gurasoek axaleko sinpatiak aparte, talde bakoitzak oso eredu ezberdina zeukala abian. Ikastola sortuz gero landutako eredian euskara zen bizkarrezurra eta murgilpen sistema bat geneukan landuta. Euskal Herria zen erreferentzia puntua; argi zegoen euskara lantzen bagenuen, gero kalean erabiltzeko zela...

Pozokoetxeok, aldiz, euskara lantzen zuten baina euren buruan ez zen sartzen kaleko komunikazio bide bilakatzea. Eta desadostasun horrek beste mila desadostasun zekartzan ondorioz.

Irakasleok, berriz, arazo bat begiztatu genuen berehala: Hezkuntzak fusio bat bezala planteatzen zuen Pozokoetxe eta Ikastolaren bateratzea. Horrek esan nahi zuen Pozokoetxeko 23 irakaslek, antzintasun luzeagoaren ondorioz, puntuazio handiagoa zutela zentro berrian sartzeko. Horrek berez zekarren ikastolaren eredu aldaketa. Ikastolako irakasle askok, bestalde, handik atera egin beharko zuen. Hor borroka dezentea sortu zen, eta guk bateratze horri uko egin genion, eta jakina, Hezkuntzaren inposaketa ezin ulertua izango zen Ikastolako 500 ikasle baino gehiagori Pozokoko 80ren eskola curriculum ezartzea eta irakasle goaren aldaketa izugarria hura aurrera eramatea.

Presioa egin aldera, Pozokoetxeok kalera atera ziren eta umeak bazterrak margotzen jarri zituzten: balea handi batek arrain txikiak jaten zituen irudia. Guk sekula ez genuen pentsatu Basaurin balea izan ginenik: bestek utzitako zuloak aprobetxatuz, ito-ez-ito larrian beti, Pozokoetxe eraikin handian

guk baino hamar aldiz ikasle gehiagorekin... Baina etsipenak horrelakoak egiten ditu. Tartean lagun bat ere galdu nuen.

Esan liteke une horretatik aurrera Basauriko ikastolak aipatzeko arazo publikorik ez zuela izan eta gure energia guztiak barneko lanera jarri genituela. Baina horrek ez du esan nahi ipuin hau amaituta dagoenik. Hemen ez du balio harako hark: “egia bazan ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila Getariako plazan”.

Ikastolak organismo biziak dira eta lurraren barneko gurek bezala, etengabeko presioa eta mugimendua jasaten dute. Gure artean behin baino gehiagotan sortu den iruzkina ez dago alferrik hemen gogoratzea: 70. urte inguruan sortu zen ikastolen mugimendu hura ze handia egingo zen jakin izan balute, utziko ote zioten jaiotzen? Nik ezetz esango nuke. Frankismoaren amaierak sortu zuen giro berezi hartan, ustekabea, jaio zen haurra da eta gero ikusi duguna ikusita, seguru nago itoko zutela.

80. hamarraldian bertan eraso bortitzak jo zituzten tarteka haiek kriminalizatu asmoz. Ez ahaztu Luis del Olmok, espagnolismoaren guru mediatikoak, ze nolakoak esaten zituen irratiz.

Gure ikastolaren kontra ere behin baino gehiagotan egin zen kriminalizatzeko ahalegina. Bi gertakari gogoratuko ditut.

La Baskonia eraikinean geundela, Batzordeko buruak guardia zibilaren telefono deia jaso zuen goizeko 5:30ak aldera: ikastolan jarritako bonba-abisua jaso zutela. Zuzendari nintzen eta hark ni deitu ninduen berehala hara joateko eskatuz. Iritsi nintzenerako han ari ziren “langile” haiek bazterrak miatzen. Haietako bakoitzarekin ikastolako norbait zegoen begirik gaintetik kendu gabe.

Ordu bat, bi... 9etan ikasleak sartzeko 30minutu ozta-ozta falta ziren eta luzetsita nengoen nire guardia zibilarekin. Izan ere, lehergailuaren bila liburu eta paperak zeuden apaletan pasatzen zuen denbora: haiek hartu, irakurri... Ez dakit zer

nahi zuen; material hura guztia euskaraz zegoen eta hark ez dakit zer ulertuko zuen. Halako batean, halaxe adierazi nion:

— Oiga, si han puesto una bomba, pienso que no estará entre esos papeles.

— A mí me parece bien que ustedes enseñen el vasco —erantzun zidan—, pero aquí no veo nada en español. No entiendo por qué no quieren ustedes ser españoles.

Urte batzuk geroago beste gertakari batean nahasi gintuzten. Prentsan sona handia izan zuen. San Migel auzoan, bertako jaietan, autobus bat erre zuten. Autobusak erretzea ez zen horren arraroa garai batean, eta sekula ez nuen ulertu ze aurrerako urratsa izan zitekeen hura. Baina tira... Kontua da lau gazte atxilotu zituztela hura leporatuta. Hiru ikastolako ikasleak izanak, gainera. *El Correok* egunetan ekarri zuen autobusaren erreketako argazkia, gidaria hil zorian zegoela... Muntaia nahi nabaria. Halako batean norbait ohartu zen San Migelekoa ez baino Donostiako autobus baten erreketarena zela. Horretaz aparte, poliziak gauzak nola egiten dituen mila bider ikusi ondoren eta gazte haiek ezagututa, gehienez ere esango nuke, han begira zegoen gazte multzoaren artean egon zitezkeela, baina ez askoz gehiago.

Hilabate batzuk pasa ondoren, behin behineko askatasunarekin atera ziren kalera eta lagunek eta familiakoek afari bat egin nahi izan zuten etxeratu ondoren haiekin biltzeko asmoz. Leku aproposik ez eta ikastolako jangela eskatu ziguten. Auzoko jubilatuen kasuan ere uzten zitzairen urteroko bazkaria han egin zezaten eta guk pentsatu genuen arrazoi bera zegoela orain uzteko ere.

Izugarrizko eskandalua sortu zuten *El Correoko* atabaleroaren deiari erantzunez. Eman zuten bertsioa egunkari horrek oso ongi erabiltzen duen estilokoa izan zen: gezur burdoa esan ordez, esaten zuena eta esan gabe uzten zuenarekin jolasten zuen, irakurleak bere imaginarioan okerreko ondorioak atera zitzaizkien. Oso gogokoa du zeharkako estiloa: “segun nos dije-

ron algunos padres y madres”, “por lo que se comenta en el pueblo”...

Hain izan zen kriminalizatzailea egunkariak behin eta berri idazten zuena, salaketa jarri zitzaion ikastolatik eta amore eman behar izan zuen, baina ez guk ordu asko eta buelta asko eman gabe.

## Erljioaren arazoa berriro

Urte dezente pasa eta gero, ikastetxeetan berriro piztu zen erlijioaren inguruko eztabaida. 2000. urte inguruan, Madrileko gobernuak erlijioa derrigorrez eskaini behar zen gaia zela eta, ezinegona sortu zen. Ordura arte ere parrokiako arduradunek katekesira apuntatu nahi zutenen zerrenda egiteko eskatzen zigutenenean, borondate onez laguntzen genien. Baina, gero ikastolako ikasleen guraso batzuk hasi zitzaizkigun erlijioa eskatzen. Atzean norbait zebilela uste genuen.

Ez ziren asko izaten eskari horrekin zetozenak eta ikastolaren barne antolamenduan haien eskariari men egiteak ze nahasmendua zekarren esplikatu ondoren, batek berak ere ez zuen eskaria mantendu.

Eskola eta ikastoletan arazo izan ez zena, ondoeza kanpotik beste batzuek sortu zuten. Erakunde batzuk hasi ziren ikastetxeen portaera hura adierazpen publikoetan inposaketa eta jazarpena bezala aurkezten. Gasteizko gotzainak gogor hitz egin zuen Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) eskola publikoetako gurasoei eskutitz bat helarazi zielako. Erljioa programazioan sartzeak eragiten zituen nahasmenak azpimarratzen zituen EHIGEk.

Gotzainak arrazoi zuen eskoletan ikasleei erlijioa eskaintzea legeak agintzen duen gauza dela adieraztean. Baina legeak legezkoa izan behar du eta guztien interesak artatu; atzean ze interes ezkutu eta ze trafiko dagoen gogoan hartzen bada, le-

gearen aurka egotea nahiko ulergarria da. Arrazoi bat baino gehiagogatik. Lehendabizi, inolako premiari gabe, gehien-goari arazo bat sortzen zitzaiolako gutxiengo baten mesedetan. Eta gero, laikotasuna balio bat dela uste dugulako; katoliko asko horretan ados datoz. Baina gutxi batzuen eskariari men egiteko gehien-goari zama bat jartzea...

Erljioaren gaia errespetagarria iruditzen zait, baina eskoletan erlijioa dela-eta sortu diren gatazka gehienetan oso argudio eskasak erabili dira aldekoen partetik: “Aberastasun bat da eskola publikoetan pluraltasun hori egotea eta eskola publikoak plurala izan behar du. Ez gara ba herri demokratiko eta plurala? Erljio klaseak programan egotea ez litzateke demokrazia eta pluraltasunaren ariketa txarra izango” zioen due-la ez asko *El Correon* erlijio irakasle batek.

Pluraltasuna aberastasun da baina ikusi egin beharko da nola antolatzen den beste arazorik sortu gabe. Eta gainera, pluraltasuna eskola publikoan aberastasuna bada, zergatik ez da aberastasuna “Kristau eskoletan?”.

Ez dut demagogiarik egin nahi gai honetan baina elizaren eskola hitzartuetan pluraltasun gutxi dago. Azken aldian, irakaslegoa asko estutu dute inposizio ideologiko zorrotza ezarriz eta sarri praktika erlijiosoak exijituz. Eliza katolikoaren hizkera ofiziala ez da koherentea gai honetan: gutxiengoa den guneetan errespetua eskatzen du pluraltasunaren izenean, baina ahal duenean bere iritziak inposatzen ditu.

Gorago aipatzen den pluraltasuna landu nahi bada, bide egokiagoa iruditzen zait Historiaren zati bezala Erljioena ere erakustea Ez erlijio batena bakarrik, herri horren baitan presentziaren bat izan dutenena, eta mundua zehar dauden erlijio handiena era bai. Euskal Herrian kristau erlijioak azken mendeetan pisu handia izan du, baina beste erlijio batzuk ere egon dira. Ez ditugu urruti izan arabiarak, juduak... Zenbait kontraesan aipagarriren berri ikasiko genuke: eliza katolikoak

eraginda, Espainiako Estatuan ze askatasun eman zaie beste erlijioei?

Amaitu baino lehen hausnarketa txiki bat egin nahi nuke. Bi jarrera gailentzen dira gaur egun jendearengan:

- a. Bada Jainko bat, gizakia eta beste gauza guztien egilea.
- b. Jainkoa gizakiaren asmakizun hutsa da.

Gizaki askok, denak ez bada ere, egunen batean galderaren bat egin izan diote bere buruari zentzumenek ikusi, ukitu, usaindu, dastatu eta entzun duten errealitatearen aurrean: zer dago honen guztiaren barne barnean? Nondik dator hori guztia? Zein da guzti horren helburu? Eta gehiago. Historikoki gizakiak emandako erantzunak hor daude.

Adibidez, kristau erlijioan Jainko hitza zentrala da bere mundu ikuskeran. Teologoek gero argudioak ekarri dituzte horri itxura bat emateko, intuizio hutsetik haratago joan nahirik. Hor daude Aquinoko Tomasen bost arrazoiak. Baina gure kulturaren arrazoi funtsezkoa Jesusen hitzak izan dira: “hark hala erakutsi zigun”. Eta zergatik sinistu behar dugu? Berak egindako mirari eta gauza harrigarriak dira bermea.

Gaur eguneko teologo askok argi daukate hori ez dela aski gizaki modernoarentzat. Desmitifikatu dituzte Ebanjelioetan datozen gauza harrigarri horiek eta beste era batera ikusten dira orain. Horrek, noski, tirandurak sortzen ditu elizaren barnean. Pagolaren liburua horren lekukorik esanguratsuena, inguruan sortu dituen zalaparta eta demonizazioak.

Kontua da gaur egunean teologiak onartzen duela Jainkoa ezin dela oinarritu arrazonamendu hutsean, azken erabakia bakoitzaren eskuetan geratzen dela. Erlijioa horrela ulertuta, niri errespetagarria iruditzen zait. Bakoitzak bere bizitza ulertzeko eskubidea du eta ahal duen bezalaxe egiten du.

Gizakiak asmatu du jainkoa. Beste batzuek galdera beraren aurrean, jainkoaren ideia hori ez dela aski oinarritua irudituko zaie, gehiago dela ezjakintasunak eta ezinak bultzatutako erantzuna eta haren inexistentzia frogatzen ez dezaketenen arren,



euren bizitzan jainkorik gabe joatea erabakitzen dute. Bestea bezain erantzun errespetagarria.

Gizakiaren bilakaeraren milaka eta milaka urtetan gizakiak ez zuen ulertzen nola euria, eguzkia, tximistak, trumoia, urteroko naturaren birsorkuntza... norik eraginda gertatzen ziren. Eta bestetik naturak bereziki sortzen zituen arriskuetatik nola defenda zitekeen. Arrunta izan da gizakiak horrelako egoeratan “Nor” supernatural baten babesaren bila joan beharra sentitzea.

Erljio hitzak berekin beste mila gauza daramatza eta dena ez da urrea, zaborra ere asko da: ohitura, arau, portaera, etika... joan dira corpus bat egiten.

Eta honetara nentorren: eliza Jainkoaren ideia-eremuan sortutako elkarte bat ez eze, gain estruktura erraldoi bat ere bada: barne antolamendua, agintaritza, betebeharrak, erabakiak... Elizaren barruan badaude beste erakunde batzuek, erlijiosoenak, apaizenak... Errealitate oso konplexua da. Historiak argi erakusten du haren barruan gauzak ez direla beti ongi egin: hor dago inkisizioaren paisaia.

Pertsona bakoitzak bere bizitzan hartu behar dituen erabakien aurrean autonomia da, non eta inoren kaltetan ez doan berak egiten duena. Baina erlijioaren aitzakian gizarte zibilak ezin du edozein gauza permititu. Jokaera batzuk dudarik gabe ez dute gizakiari zor zaion errespetua aintzat hartu izan. Adibide gisa, eta esan nahi dudana argitzeko, sarritan beste erlijio bateko jendea gure artera etorri denean, zenbait ohitura erlijioaren izenean esplikatatu izan dira. Neska ume bati ezar al diezaioke familiak edo erlijio musulmanak klitoripeko ebakuntza?

Garai batean hamar mandamenduak jainkoak emandakoak zirela esatea aski zen. Baina gizarte heldu batek, nagiki-erriak utzi eta denen artean egindako hausnarketak lagunduta, kode etikoa etengabe eguneratu beharra du. Ez dakit hamar hala lau hala hogeita lau aterako diren, baina garaia da gaurko

gizakiak gure elkar bizitzarako behar dituen oinarriak jainkoaren aitzakiarik gabe eraikitzen joateko. Horri esaten diot nik gizarte laikoa. Zergatik gaitzetsi behar du elizak kontzeptu hori?

Eliza katolikoak beraz, eskoletan bere erlijioa erakusteko eskaria egin baino lehen argi esan beharko luke ze erlijio den. Ezin du multinazional baten antzera, herri bakoitzak barne gobernamenturako ematen dituen arauen kontra jendea antolatu eta mobilizatu.

Duela hilabete batzuk Rouco kardinalak halakoxeko adierazpenak egin zituen, Espainiako eliza katolikoaren izenean izango zirela uste dut: “El matrimonio homosexual nace de leyes injustas que contribuyen mucho a agravar los problemas”.

Beste bat separatismoena: “La unidad de España es una parte del bien común y hay que mantenerlo como una responsabilidad moral”.

Torkemada kumea dirudi itxuraz eta hizkeraz.

Ez dut uste, halaber, jende xumearen ahulezia aprobetxatuz edozein gauza irakas daitekeenik. Eta hori errealitatea da oraindik. Badakit jada gaur ez duela erakusten pentsamendu txar baten zigorra betiereko infernua denik, baina beste gauza asko...

Erljioak, edozein erlijioak, duina izateko askatzailea izan behar du, ezin da onartu, mendetan ikusi dugun bezala, gizon eta emakumeengan beldurra eta zerbitzaritza erein duen erlijio hezkuntzarik.

Elementu irrazional gehiegi sartu da katolikoek irakatsietan bi mila urteotan eta hori guztia behar bezala garbitzen ez bada, gizarteak ere zerbait esan beharko du: haurrak ez dira gurasoenak mugarik gabe, haurrek ere eskubide batzuk dituzte eta gizarteak babestu egin beharko ditu. Azkeneko garaiotan hemen funtsezko arazo bat dago: Elizak behin eta berriz argudiatzen du bere eskaria Konkordatuan jasota agiri dela. Elizak

badu behar den askatasuna irakatsi eta etika propioak sinestunei helarazteko. Baina ez nago seguru zenbait printzipio etiko irakasteko eskola erabiltzea bidezkoa denik. Sexualitatearen gaineko etika, eutanasiaraz esandakoa, abortuaz duen jarrera, homosexualitatea dela-eta egindako adierazpenak... ez ote du marra gorria behin baino gehiagotan pasa?

Elizaren subkontzientean oraindik bizirik dago egiazko bidea berak erakusten duena dela eta ez du inondik inora gainerako jendearekin elkarrizketa hasi nahi, konfiantzarik ez duelako haiengan. Bera da egia zaindaria.

Erabiltzen duten argumentarioa ez zait nahikoa iruditzen erlijioa gelan sartzeko. Arrazoiak baino gehiago dirudite nahasmena sortzeko asmoz esandako gauzak.

Salaketa publikoak egiteko orduan ez dute behar bezalako errespeturik erakutsi sarritan. Trebeak dira zurru-murruak zabaltzen eta diotenez “frogak biltzea zaila bada ere, zentro batzuetan semea edo alaba erlijiora apuntatu duten gurasoei ez zaie bakerik eman, apuntatu den bakarra beren umea dela esanez, eta ea nola ausartzen diren ikastetxean tamainako arazoa sortzen”. Bizkaian asko irakurtzen den egunkari batean atera da salaketa hori.

“Mungiako institutuan klaustroak erlijioa ez ematea erabaki du”. Horrela esanda Mungiako institutuan erlijioaren jazarpena abian dela dirudi. Neronek horrelako egoerak bizi izan ditut eta argi esan behar du oinarri gabeko salaketa dela hori. Gerta litekeena da institutuan beste ikasle batzuk ere badaudela eta denak hartu behar direla kontutan.

Eskolak oinarri zientifiko bat izan behar du lehenbizi eta interes partikularren gainetik gizarte kohesionatu bat landuko duena, dogmatismorik gabe, giza balio eta balio konpartituetan heziko duena. Badakit hori esaten erraza dela eta nekezago egiten dela errealitate baina bidea hori da, eta lan horretara erlijio baten sinestunak eta sinesgabe aitortzen diren guztiak daude elkarrekin bizitzera deituta.

## Politikaren eragina ikastolan

1980.urte aldera gizartean frankismo ondoko lehia furi-furian zegoen eta alderdi politikoak urduri zebiltzan kokapen on baten bila. Ikastolen munduan, Espainiako alderdiek presentziarik ia ez zuten. Gatazka gehiago sortu zen, sortu zen lekuetan, bertako eskuina eta ezkerraren artean. Harremanetan nabari zen mesfidantza, nolabaiteko gidaritzazute-nen artean. Erabakiak hartzeko orduan adostasunak ez ziren beti txikiak eta bakoitzaren atzean siglak ikusten ziren. Halere lortu genuen Ikastolako Batzordean pluraltasuna mantentzea, jendea egiten zuen lanagatik estimatzen genuen, sigletatik haratago.

Baina, lehenago esan dugu, irakasleok gehien bat gure apunteak erabiltzen genituen ikasleekin, ez testu liburuak. Eta zenbaitek adi-adi jarraitzen zuen paper haietan esaten zena. Jakin minez, segur aski. Hori normaltzat jotzen dut. Anekdota bezala, euskarako klase batean –garai hartan neologismo asko atera zen: urrutizkina, ingurraztia, teleikustea...– eta 13-14 urteko gazteei neologismo horiek zer dela-eta sortu ziren aipamena egin nien tartetxo batean: euskara erdarakeriaz beteta zegoen garaian, batzuek hartu zuten bidea beste bat izan zela: erdarazko hitz guztiak kanpora botatzea. Eta esan nien Sabino Aranak horietako hitz asko asmatu zituela eta hizkuntzalaria ez zenez, batzuetan okerrak ere egin zituela.

Laster jaso nuen aita baten telefono deia eta nirekin hitz egin nahi zuela adierazi zidan. Inolako arazorik gabe argitu genuen pasartea, baina zer pentsatua eman zidan pasadizo hark. Berak euskaraz ez zekien eta nik esandakoa ulertu ere ez zuen egin seguruenik; semeak esango zion zer jartzen zuen. Baina Sabinok zerbait oker egin izana nonbait harrigarria iruditu zitzaion.

Ordura arte Batzorde Zuzendariko partaideak bere erantzukizunez mintzatzen ziren batzarretan. Baina laster ohartu

ginen gero eta gehiagotan gaiaren erabakia hurrengo batzarre-rako uzten zela: “hobeto pentsatu beharra dago puntu hori...” Bitarte horretan partiduko arduradunen iritzia jakin nahiko zuten seguruenik.

Siglei ez baino jendearen egokitasunari begira hautatzen genuen batzordekidea. Eta Batzordean pluraltasuna egiazkoa izan zen. Baina Alderdiak serioski planteatuta zeukan gizarteko erakundeen gidaritzza eskuratzea. Hori zen beste gauza batzuk eskuratzeko bidea nonbait.

Eta hala etorri zen jeltzaleen proposamena: aurrerantzean Batzordea aukeratzeko zerrenda itxiak presentatzea. Horrek praktikan esan nahi zuena argi zegoen: Alderdiak zerrenda bat presentatuko zuen, Euskadiko Ezkerrak beste bat eta Ezker abertzaleak beste bat. Hori oso bide arriskutsua zen; ikastolan sortu zitezkeen siglen borroka eta tira-bira gaur gizartean ezagutzen dugun bezala; etengabeko gatazka iturri bihur zitezkeen. Eta gainera ikastola instrumentalizatzeko bidea. Horren plurala zen ikastolan nola utz zitezkeen erabaki guztiak joera baten eskuetan? Ez dut uste ideia hori Basaurin sortu zenik, beste guneren batean landutakoa zirudien.

Zorionez, gehiengoari ez zitzaion inondik ere egokia iruditu, uste dut denok ulertu genuela haren atzean zer zegoen eta ez zen gehiago aipatu.

Demokraziaren ereduak horixe du arazorik larriena: botoen arabera –eta botoak badakigu nola lortzen diren eta nolako sinesgarritasuna duten; nahikoak ez badira, erosi egiten dira– erabakiko da guztia.

Oreka bat mantendu nahi bada beharrezkoa da alde guztiek beren ekarpena egitea. Gertatzen dena da erabaki politikoek atzean pisu handiko interes pribatuak daudela eta horientzat erosoagoa dela boterea partidu baten eskuetan egotea. Horrela eskuineko eskuaz lortu ezin dutena, ezkerrekoaz lortuko dute.

Nolanahi ere, egoera berri batean geunden. Udalean, adibidez, ikastolan batera ibiltzen zirenak hiru alderditan banatuta agiri ziren: PNV, Herri Batasuna eta Euskadiko Ezkerra. Zinegotziak hurbilekoak genituen. Baina interferentziak gero eta sarriago hasi ziren ikastolako erabakietan. Halere tentadurak gaintzen jakin genuen, besteak beste urtetako auzolanak harreman onak sortu zituelako eta ideia politikoetatik haratago ikastolak bat egiten gintuelako. Bagenekien Maltzagaraino behintzat batera joan gintezkeela.

Garai batean Irizar Autobusen kooperatibako buru izan zen Saratxagari irakurri nion hausnarketa interesgarri hau: enpresa batek ongi funtzionatzeko, ezin bestekoa da langile guztiak partaide sentitzea. Langileak soldatagatik bakarrik lan egiten badu, ez du bere onena emango.

Hitz egokiak iruditu zitzaizkidan. Gurasoek zenbat lan egin zuten urte haietan! Ez euren umeengatik bakarrik, baizik enpresa hura aurrera atera behar zelako. Irakasleok konbenioan ez zeuden ordu pilak sartzen genituen eta sarritan neguan gaua etorri eta oraindik han geunden. Baina zergatik? Gurasoak ere han ari zirelako. Horrek ematen zigun kemena saiatzeko. Bartzordearen bilerak, adibidez, eta hamabostero izan ohi ziren, arratsaldeko 8etan hasi eta amaitzen zirenean amaitzen ziren: hamarretan, hamaiketan eta beranduago.

Erabakiak hartzerakoan zuhurtzia handia geneukan bartzuek eta besteek ere. Bagenekien Arizko ikastolak ezin zuela aurrera egin zatiketak ematen baziren eta ikastola hura bartzuentzat eta besteentzat gauza guztien gaitetik gorde behar genuen altxorra zen.

Ikastolen historian, zoritxarrez, hasieran egon zen auzolan hura gero interes zehatzen eskuetan erori zen eta horrek ez dio mesederik egin ez hezkuntzari ez herrigintzari. Gipuzkoa eta Bizkaia ziren Ikastolen gotorleku eta koordinazio lan bat egin asmoz laster sortu ziren Bizkaiko Ikastolen Elkarte

(BIE) eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarte (GIE) eta gehiengoa buru-belarri lanean ari zen bitartean, partiduko zenbait jende bazkalordurako mahaia hartzera joan zen. Alderdiak bere konfiantzako alfilak erakunde horietan sartu zituen. Ikastolen inguruan beste botere faktiko bat sortu zen eta batez ere ikastola handienak egitura nahiko tradizionala hartuz joan ziren.

Ze pisu dauka ikastoletan eta eskola publikoetan gaur egun gurasoen partaidetzak? Zenbat aldiz eta zenbat jende biltzen da Asanblada orokorretara? Zertara etorri behar dute, han ez bada benetako eztabaidarik bermatzen? Bankuko akzio-dunen batzarretan bezala egindako kudeaketari balekoa eman eta hurrena arte.

Azkeneko urteotan modan jarri dira kalitatearen Q hori lortze aldera lan eskerga egiten da. Ez nago lan metodoak eta abar sakontzearen kontra. Nola egon bada! Baina iruditzen zait neurri handi batean prestigioa mantentzeko egiten direla eta Q horretan jaso gabe geratzen direla ikastolak eta eskolak Euskal Herrian bete behar duten lekua.

Organigrama dotoreak hor dabilta. Marrazki horietan dena aurreikusita dago: nor dagoen goran, nor beheran, nork norekin mantendu behar dituen harremanak...

Behin baino gehiagotan mahai gainean jarri da Ikastolen Historia serio eta “zientifikoa” egitea.

Badakit duela urte batzuk Joseba Intxaustiri eman zitzaizela egiteko hori. Inoiz, mantendu ere mantendu genuen batzartxoren bat horren harira, baina nik dakidala, ez da gauzatu. Uste dut oso zaila izango dela, ikuspegi oso kontrajarriak daudelako horri buruz.

Jakin da gaur jende asko dagoela han eta hemen herrigintzan ekarpen oso onak egin ditzakeena eta, nahiz Gaurko joera gizarteari dagozkion erabakiak bulego batean edo isilpeko batzarretan hartzea dela. Eraginkorragoa eta praktikoagoa dela irudituko zaio askori. Baina teknokrazian eta ustelkerian eror-

tzeko arriskua ere handiago da. Politikoez aparte, herri honetan oso ekarpen onak egiteko gauza den jende asko dago eta herrigintzan aritzeko prest daudenak. Arlo guztietan. Gure artean gauzarik handienak auzolanean egin dira.

Hankaz gora joan ziren herrietan, auzoetan, frankismoaren azken urteetan sortu ziren mugimendu sozial aberatsak. Baina ez da ahaztu behar, herriaren partaidetzarik gabe egindako kudeaketa, proportzio berean autoritarismoa bilakatzen dela: dena kontrolatu nahia, bazterrak komisario politikoz bete, dena goitik behera erabaki...

Ikastoletan zerbait ikasi baguenen hori izan zen: helburu baten atzetik denok auzolan-kide sentitzen garen heinean lortuko dira emaitza onak. Lantegietan gauza bera: langilea morroi huts den neurrian, ez du gogorik izango duena emateko. Gaurko neoliberalismoak, langilea hutsaren hurrengo bihurtu du: hartu, bota, bost turnotan orain, gero ERE batean... Horrela ez da sekulan behar den gizartea sortuko.

Matrikulazio kanpaina hasi aurretik lortu ahal izaten genuen ikasturte hartan eskolara apuntatzeko adinean zeuden umeen helbidea eta gurasoak gonbidatzen genituen eredu bakoitzaren profila, zer zekarkion haurrari... argitzeko batzarre-ra. Argi esaten zitzaaien euren seme-alabentzat zeinen erraza zen 3-4 urterekin hasita euskaraz ikastea eta zeinen baliagarri izango zuten geroan gaztelera eta euskara erabiltzeko gauza izatea. Urte haietan euskaltegiak gainezka zeuden lehenago euskara ikasi ez eta orain 20- 30 urterekin hainbeste sakrifizioz ikasten.

Hezur-muinetaraino sartuta izan ohi dugu eduki pila bat transmititu behar duela hezkuntzak. Duela 40 urte hezkuntzaren kalitatea ikasten zen gauzen kopuruak markatzen zuen: nazio ezberdinen datuak, orografiaren berri zabalak, holako eta halako datuak... Hori guztia ez da beharrezkoa buruz ikastea. Gaur egun eskura dauzkagun tresnak gogoan hartuta, interneten erabilera guztion esku dagoela jakinda, badakigu



zer egin behar dugun une batean horrelako zerbait jakin nahi badugu.

Hemen ezin dugu aipurik gabe utzi testu liburuek hezkuntza monolitikoa sortzeko orduan duten eragina. Euskara erabiltzen dugu eskolako lana egiterakoan, baina haurraren erreferentziak arrotzak dira. Neurri handi batean ildo urruti eta ideologia arrotzez egindako testu liburuek markatzen dute. Herri txikia izaki, ahalegin handia egin beharko genuke norabidea aldatzen. Zergatik ez saiatu haurraren bizipenak bakoitzaren auzo edo herritxoan finkatzen? Nola sortu zen, zertatik bizi ziren, zergatik egin ziren bideak eta zubiak...

Jendeak asko teorizatu gabe bazeukan ere, bistan zegoen lan horretan ari ginenon helburua ez zela ordura arteko erdal eskola euskaraz ematea. Gure txikitako eskola oso orbandua zegoen garaiko ideologia nazional-katolikoarekin. Espainiaren presentziak dena betetzen zuen. Tolosako ikastetxean, batxilergoko ikasketetan sartuta, gaiak bertako irakasleek ematen zizkiguten eta urte amaiera Donostiako institutuan pasa azterketa. Baina bazen salbuespena: han hasi zen gure klasera falangeko tipo bat etortzen, Barakaldokoa bera eta Goikolea abizena. Jose Antonio, Franco, España, el Caudillo eta horrelako izen batzuk ez ezagunak ordura arte, etengabe ateratzen zizkigun. Gogoan dut, anekdota bada ere, egun batean, gure falangistak nola esplikatu zigun:

— “¿Qué es España?—. “Una unidad de destino en lo universal”.

Gero klasea amaitu eta hizketarako aukera izan genuenean gai hori atera zen. Ez dut gogoratzen nondik norako hausnarketa eramango genuen 12-13 urterekin baina oso gogoan geratu zitzaidan zerbait bai: destino del tren, la unidad hace la fuerza, geografía universal entzunda geneuzkan ordurako, baina hark esan zizkigun bezala ez genuen ulertu ezer ere. Gero, jakina, oso ondo ulertu dut eta falangeko hark esandakoa Espainian oso serio sinisten den gauza dela ikusi dut.

Sarritan pentsatu dut zer dela-eta etorri zen falangeko hura gure gelara. Agian han egunero zeuden irakasleek ez zuten horrelako trantzean sartu nahi izango edo agian gai hura falangekoen espezialitatea zen eta haiek bakarrik zuten hartarako gaitasuna. “Formación del espíritu nacional” deitzen zen gaia. Orduan ikasi genuen “Cara al sol” abestia eta oso martziala zenez, guk duda askorik gabe abesten genuen.

80.hamarraldi aldera Euskal Herriko irakaskuntzan bat-batean sartu zen gazte uholdearen ametsak bultzatuta segur aski, aurreko eskola eredia betirako gaingitu nahirik, Adarra izeneko mugimendu bat sortu zen, batez ere bide berriak urratu eta eduki berriei leku egiteko asmoz. Uztaila izaten zen bereziki horretara dedikatzen genuen hilabetea. Dozenerdi bat urtez gutxienez arrakasta handiz eman ziren ikastaro haiek gure kezkak mahai gainean jarri, esperientzia berriak trukatu eta ildo berri bati bidea irekitzeko. Baina, euskaldunon artean uste dut iraganarekin eta betiko testu liburuekin bukatzeko gogoia naturalagoa zela, berez ateratzen zitzaigun, barnetik. Aitzitik, zenbait erdal irakaslerengan, asko E.Herrian lur hartu berriak, testu liburuetan ikasitako zenbait gauza ezabatu eta beste irakurketa bat egiteak, halako asaldadura bat sortzen zien.

Historia 13-14 urteko neska mutikoei ematerakoan ordu-ra arteko Espainiako testu liburuetan ohizkoa zen Amerikan 16-17. gizaldietan espainiarrek egindakoa gauza handia bezala adieraztea: basati haiei Espainiako konkistatzaileek fedea, hizkuntza eta zibilizazio eraman zieten eta horrela mundu berri batean sartu ziren. Horrelako “epopeiarik” sekulan ez zen eza-gutu.

Jakina gure ikuspuntua ordurako “kutsatuta” zegoen eta irakurketa kritiko baten premia jartzen genuen mahai gainean: epopeia horrek zibilizazio oso aberatsak desegin zituen, milioika indiarren heriotza ekarri zuen, bai indarkeriaz hilda, bai kolonizatzaileek eramandako gaixotasunen ondorioz, eta

misiolarien ere jainkoaren laguntza adina izan zuten gerlarien ezpatarena.

Saltsa dezentea sortzen zen horrelakoetan. Gogoan dut batek, nondik edo handik burua atera behar eta nola esan zigan: “No se puede comparar la conquista de los españoles con la conquista del oeste. Los ingleses hicieron desaparecer a los indios totalmente; los españoles no llegaron a tales extremos. La prueba es que actualmente en ‘Hispanoamérica’ sobrevive mucha población autóctona”.

Ez zen erraza izaten han akordioetara heltzea eta horrela pentsatzen zuenak, segur aski halatsu esango zien ikasgelara joaten zenean aurreko ikasleei. Berak gainera Espainiako testu liburuen babesa zeukan hala esateko.

Garai haietan beste gauza batzuk ere definitzen zihoa-zen baina zenbait jendek erresistentzia dezentea jartzen zuen euskararen normalizazioaren bidean. Ezin dugu ahaztu eskola publikoko irakasle asko kanpotik etorritakoak zirela eta, funtzionario ziren partetik, lanpostua propietate bat bezala izaten zutela. Euskarazko irakaskuntzak kezka larria sortu zien barnean eta udako ikastaro horietako batean han atera zen mahai gainean gatazka: “La enseñanza en euskara es un derecho, pero es más básico el derecho al trabajo”.

Alperrik zen esatea bi eskubideak ez zirela kontrajarriak; soluzioa umeei euskarazko hezkuntza ematea zela eta ez zekienak euskara ikastea aski zuela. Jakina, “euskara ikastea” hasiera haietan hitz potoloa zen, denok elkar ulertzeko gaztelera aski baitzen, zertarako ibili bazterrak nahasten?

Historia denon artean idatzi behar den gauza da, ez goikoen ordainsariarekin idazten duen historialari baten lana. Oso gaurko gaia da inondik ere: bakearen bidean eta gatazka politikoa gainditzeko orduan zenbait talde hor dabil orroka historia irabazleek idatzi behar dutela eta galtzaileek kartzelan jarraitu beste irtenbiderik ez dutela, biktimak gora eta biktimak behera.. Ez al dute ikasi iraganetik besteak ere biktimak

dira? Zer balio du eskoletara joan eta kontatzen duten historia horrek?

# Diktadura eta gero demokrazia?

*Aita-semeak tabernan daude  
ama-alabak jokoan.  
Eta lapurrek ohostu dute  
guk gendukana etxean  
eta gu gaude erdi biluzik  
beti inoren menpean.*

Mendebaldeko European bigarren mundu gerra amaitu ondoren, eta dena suntsituta zegoen unean, ideologia sozio-politiko berria sortu zen: Kristau Demokrazia. Kristau elizen eta Zentro Eskuinaren onespenearekin, Bankariek eta Enpresa erraldoiek ekonomiaren kudeaketa lasai egiteko egitura politiko egokiak behar zituzten eta gizarteko premiei erantzuteko gizarte antolamendu eraginkorra.

Demokrazian, gutxienez, bi alderdi egon behar izaten dira: bat agintean eta bestea erreleboa hartzeko prest. Horrela, hiritarrak agintean dagoenarekin aspertzen direnean, besteari ematen diote botoa eta antzerkia erakargarriagoa egiten da: jendea izan daiteke bataren edo bestearen aldekoa, kalean iraindu ditzakezu alde batekoak eta defendatu beste aldekoak, politikoak ere zerbait ongi egiten saiatu beharra sentitzen dute...

European partner hori izateko prest zeuden alderdi sozialistak. Urtetan aginterik gabe eta mila eztabaidatan nahastuta

ibili ondoren, bankariek eta enpresa multinazionalak paper hori betetzeko deitu zituzten. Jarri zitzaien baldintza bakarra: marxismoaren azken aztarnak utzi eta errealistak izateko.

Alemanian Kristau demokratik eta sozial demokratik; Frantzia Alderdi Sozialista eta Gaulismoa; Ingalaterran Laboristak eta Kontserbadoreak; Italian Kristau Demokrazia eta Alderdi sozialista. Italiako Alderdi Komunista indartsua zen, baina EE.BBen betoa zeukan gobernukide izateko.

Franco hil zen egunean errezeta bera aplikatu zuten Espainiako Estatuan. Behin behineko egoera bitxi bat sortu zen UCDren siglapean, baina burbuila bat bezala desegin zen dozenerdi bat urteren buruan. Alemaniako diruaren laguntzarekin, Felipe Gonzalez prest zegoen Internazional Sozialistaren izenean hemengo sozialismoa gidatzeko. Horretarako, lehenago gupidarik gabe kaleratu zituzten Sozialista zaharrak Surenesko batzarrean.

1975ean Franco hil eta gotzain eta kardinalen azken in-tsentsuzko ohoreen artean Valle de los Caídos-en hobiratu zutenean, garai berri bat hasi zen Espainian. Istilu dezente gainditu ondoren eta Adolfo Suarezren UCDren probisionaltasuna amaitu zenean, erregimen zaharreko kideak Partidu Popularra sortu zuten eta ordurako gerrakoan beste lubakian egondakoak alderdi sozialista osatua zuten: PSOE. Bai batzuek eta bai besteek atzerriko aholkuak eta dirua izan zuten bide hori egiteko. Hau guztia Konstituzioaren miraria bezala ikusi zuen jendeak, Espainiako bi arimen berradiskidetzea.

Trantsizioa deitutakoa abian zen, bada, Banku, Multinazional, bertako Enpresa erraldoi eta botere faktikoek seinalatutako bidean. Aktore nagusiek ikasita zeukaten beren papera.

Eta Euskal Herrian? Alderdi Jeltzalea mundu gerra ondoren garaileek Franco noiz erbesteratuko zain, Kristau Demokraziaren kide egin zen. Eta seguraski oso familiarra egin zitzaion filosofia hura. Baina zain eta zain, 1953. urtean kolpe izugarria hartu zuen: Franco erbestera bidali ez baino, aliatu

estrategikoa zela erabaki zuen Eisenhowerrek: han agertu ziren garaiko auto erraldoi batean besotik helduta bi politikoak madrildarren txalo eta algara artean. Amerikako demokrazia-  
ren ereduak ez du sekula arazorik izan dauden diktadurak zaindu eta berriak sortzeko bere interesak defendatzeko. Gero ere trebea izan da horretan. Galdetu mundu zabalean, Hego Amerikan batez ere.

Interes ekonomikoen begiradapean eta haien laguntza-  
rekin eta nazio indartsuenen aholkuekin bipartidismo horrek bideratu zituen lan harremanak, abian jarri zituen sindikatu berriak. Osasun zerbitzuak eta hezkuntza sistema ere eraiki zituen eta poliki-poliki, batez ere komunismoan baino hobeto bizi zirela erakusteko, Gizarte Segurantza ere antolatu zuten eta Europara begira zeudenez ongizate gizarte bat sortzeari ekin zitzaion.

50. hamarralditik aurrera Euskal Herriak industria sare on bat egiteko gauza zela erakutsi zuen eta multinazional boteretsuak agertu ziren hemen lantegiak eraikitzeko prest. Baina kudeatzaile on bat falta zen asmo hura guztia aurrera eramateko.

Euskal Herrian zegoen giro sozialak bertako jendeak onartuko zuen gobernu autoktono bat behar zuen. Egoera hori bideratzeko Alderdi Jeltzalea sozio ona izan zitekeela pentsatu zuten Madrilen. Inolako egitura politikorik ez zegoen, herri mugimendua zen gehien ageri zena eta indar hori kontrolatzeko eta partiduen jokoan sartzeko hautagai ona zen espainiarrentzat. Madrilek egin zuen lehen keinua Jose Luis Robles, gero Bilboko alkatea, Itsas Merkataritzako zuzendari izendatzea izan zen. Garai haietan jeltzale bat kargu horretan jartzea neurri esanguratsua izan zen. Hori gertatu zenean Robles familiarekin oso harreman estua nuen; astean bi aldiz joaten nintzen haien etxera, familia osoari, bost lagun, euskarazko klasea ematera. Gizon zintzoa zen Jose Luis, zorrotza seguraski kudeaketa lanetan. Nik asko estimatzen nuen. Kla-

sea amaitu ondoren, sarritan politikaz hitz egitera dedikatzen ginen. Haiek oso ongi zekiten nire pentsakera zein zen eta hori ez zen sekula arazo izan. Badakit Bilboko alkate izan zenean, Herri Batasunari buruz gero alderdiak izan duen jarreratik oso urruti zegoela. Egoera ekonomikoa oso larria zen urte haietan eta bere tesia zen, ezker abertzaleak Alderdiaren lana babestu behar zuela eta gero, estutasunak gaintitu ondoren, bakoitzak bere aldarrikapenak egiteko garaia etorriko zela. Nire erantzuna bazekien: herri batean arazo ekonomikoak sekula ez dira gaintitzen, krisia estrukturala da eta puntu komunak adostu behar dira, babesa emateko proiektu bat adostu behar dugu. Saiatu zen ni Alderdira hurbiltzen baina esan behar dut errespetu handiz tratatu ninduela beti; nik ere estima handiarekin bera. Gera bedi hor testigantza pertsonal hau.

Trantsizioaren lehen urratsetatik Alderdi Jeltzalea ikusi zuten finantza-interesek eta bankariek behar zituzten baldintzak hobetoen bermatzeko egokiena. Eta lurraldeari Autonomia Estatutu berezi bat eman zitzaion. Gasteiz aukeratu zen hiriburu izateko. Ez zen nolana hiko erabakia: horrela Araba aldeko burgesia erakarri zuten beren lerroetara. Ordutik azkeneko 35 urteotan, lau urtez aparte, beti agintea berak izan du Gasteizen, Aldundietan, eta udalerrri gehienetan. Ez zaio faltatu inoiz komunikabideen laguntza ia osoa hartutako erabakiak ezinbestekoak edo onenak zirela sinistarazteko. Eta herri honetan zegoen indarkeria ere aprobe txatu du, beste batzuek indarkeriaren kontrako kanpaina zaratatsua egiten zuten bitartean, berak botere osoaz sistema neoliberal bati ate guztiak zabaltzeko.

Espainian Konstituzio berriarekin zerotik hasi zen historia; hori zen, behintzat, mezua: Konstituzioak seinalatzen zituen mugen barruan Euskal Autonomia Elkartearen deitzen zen erakunde bat osatuko zuten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak. Sekula ez dut ongi ulertu nola EAJk Konstituzioaren erreferendumean abstentziora jo eta gero, han kabitzen zen



Estatutua horren sutsuki defendatu izana. Agian abstentzio horren atzean Konstituzioa egitera deituak ez izanak sortu-tako haserrea erakusteko era bat? Sarri esan ohi da Konstituzio bat dagoela guztiaren oinarri eta aldatuz gero arazoak sortuko lirakeela. Argi daukagu euskaldunok Konstituzio hori egiten parterik ez genuela izan eta erreferendumean ere, ez zuela babes handirik jaso. Hori ez lukete ahaztu behar espainiar demokratek eta haien orakuluek.

Nafarroa berriz ere, kanpoan geratu zen. Frankismoaren azken txanpan talde politiko gehienak Nafarroa Euskal Autonomian sartzeko ados zeudela zirudien arren, Nafarroa Amejoramenduari geratu zen: hau da Francoren garaian izan zituen fueroak garai berrira egokituta. Auskalo ze indar faktiko ibili zen tartean!

Eta euskal hiritarrak? Jada ez geunden inoren zain. 1960 aldera Alderdi Jeltzaleko gaztediaren zati bat matxinatuta zebilen eta azkenean, poliziak ere tratu onik ez ziola ematen eta borroka armatuari heldu zion.

Euskaldunen artean eman zen lehen ika-mika garrantza Estatutuaren inguruan eman zen 1979an: alde zeuden Alderdi Jeltzalea, Alderdi Sozialista, Euskadiko Ezkerra koalizioa eta UCD. Kontrako jarrera HASIk –gero ezker abertzalearen aglutinatzaile izango zenak– eraman zuen.

Nire asmoa puntu honetan ez da Estatutuaren gaia jorratzea. Horretaz nahikoa bada idatzia, norbaitek enteratuta egon nahi badu. Baina Alderdi Jeltzaleari nahiko erraza suertatu zitzaion aldeko botoa mugitzea: frankismotik gentozen, itxura batean ametsetan ere burura etorri ez zitzaizkien eskumenak lortuko zituzten eta abiapuntu bat zen. Gerora oraindik gehiago lortuko genuen. Euforia handiz egindako kanpaina atera zuten jeltzaleek kalera. Oraindik oso gogoan daukagu ordu-rako umeak ez ginenok. Ez litzateke hausnarketa txarra izango orduan politikoez egindako promesak gaur ETBn ikusi ahal

izatea. Zenbat bete da esandako guzti hartatik? Zertan datza orain partidu haien asmoa?

Ezker abertzalea, ordea, ez zen fidatzen. Espainiak euskaldunon kontra zeraman borroka basatia ez zen besterik gabe amaituko. Eta gero Estatutua babesten zuten alderdi espainiarrek beren esku zeukatzen Estatutuaren dosifikazioa. Ezker Abertzaleak bazekien gerora murrizketak etorriko zirela. Gogoan dut garaiko mitin batean entzuna: Estatutuan datorren letra guztia beteko dela bermatuta balego, agian pentsatzeko gauza litzateke. Baina non dugu hori hala izango dela sinisteko euskarria?

Nolabait ere Estatutua aintzat hartzeko tresna zela erakusteko edo, Suarezren Gobernuak preso guztiak atera zituen kartzelatik. Lehenbizi atzerrira bialdu zituzten, baina gero E. Herrira itzultzeko erabakia hartu zuten haiek. Historikoa izan zen Arazurin ospatu zen Askatasunaren Martxa: han aurkeztu ziren hainbat atzerriratu eta Telesforo Monzon izan zen liturgia haren zuzendaritza hartu zuena.

Goiz oso polit baten ondoren bazkal ondoan trumoitara jo zuen egunak eta ez zen erraza handik autoak hartu eta berriro etxerako bidea hartzea. Ekaitza baino okerragoa izan zen halere, han agertu zirela, koadroa osatzeko, Guardia zibilak. Beren zaldietan hurbildu ziren. Ez dakit zergatik atsegin duten jendea festa giroan lasai-lasai dagoenean hala etortzeko.

Etxera itzuli esan dut baina guk, emaztea eta biok eta beste bikote bat 3-4 egun pasatzen Aralarko txabola batean geunden eta hara itzuli behar genuen. Autoa Goardetxea baino lehentxeago errepidean utzi eta kilometro t´erdiko basobidea geneukan, tarteka aldapatsua, txabolara. Gaua egina, euria goian-behian, lokatzetan zutik egon ezinik eta azkeneko zatian galduta geundela ohartu ginen. Laino itxia zen, izan ere, eta txabola jada ez zegoela urruti jakin arren, Aralarko zelaiak arriskutsuak dira lainoetan.

Bagenekien txakurra txabolako atarian egongo zela eta hari deika hasi ginen. Bai laster haren zaunkak entzun ere. Hark eraman gintuen gau hartan txabolara.

Estatutua indarrean, oso urte gogorak itzuli ziren gure lurrera. ETA berriro borroka armatura itzuli zen diktadura-ko egoerak berdin izaten jarraitzen zuela iritzita. Estautoa ez zuten gauza ikusten gure arazoak konpontzeko.

Neurri batean, geroak, arrazoia eman zion: 1981ean Teje-rok estatu kolpea eman zuen eta atxilotuta eraman bazuten ere, denok genekien ekintza hark neurri batean helburuak lortu zituela. Ez dakigu Estatu kolpea amaitu zen unean Erregeak Calvo Sotelo, Fraga Iribarne, Felipe González eta Carrillorekin izandako batzar laburrean zer esan zien, baina ez gauza onik.

Ordutik aurrera LOAPA eta ez dakit zenbat lege gehiago etorri ziren Estatutua murriztera.

30 urte pasatu direnean eskumen oso garrantzitsuak oraindik Madrilen daude, Segurantzza Soziala, adibidez, eta ez dut erraza ikusten gauzak aldatzea. Une honetan gero eta argiago dago du gure Autonomiak Espainiako beste edozein autonomiaren antza handia duela. Edozein gai mahai gainean jartzeko orduan, ministroak sailburuak deitu eta “diktadoa” egiten dute denek batera.

Jaurlaritzaren esku geratu zen ekonomiaren kudeaketa hori zen Autonomia Estatutuari baietza emateko funtsezko arrazoia. Zergak hiru aldundiek bilduko zituzten, handik zati bat Jaurlaritzari eman, beste bat Madrilerara bidali eta gainerakoa hemen kudeatu. Guk geuk erabakiko genuen zertan gastatu. Beti bezala, gose denak lentejak ditu amets.

Eta ez da txantxa diru gose hori. Hemengo burgesia horrelako opari baten zain zegoen aspaldian eta hori zaindu alde-  
ra, Madrilen harreman onak eraikitzen saiatu zen Jaurlaritza. Txibertako bileran Xabier Arzalluzek esan omen zuena datorkit burura: guk batasunaz eta nahi dugunaz hitz egin dezakegu hemen, baina eskumenak Madriletik etorriko zaizkigu.

Esan ez zuena noraino iritsiko ginen bide horretatik: Madrilek emandakoa hartu besterik ezin badugu, ongi dosifikatuta emango zaigu. Horren korolariora argi zegoen: hemen, batez ere, Madrilek egon behar du gustura gurekin. Horri gero Ardantzak eman zion sinadura: “gure xedea Espainian gustura sentitzea da”. Eta horren alde euskaldunon asmo batzuk bazterrean utzi behar badira, zer egingo da, bada. Etorriko dira garai hobeak.

Franco ondoko unea aproposa zen elkarrekin beste bide bat hartzeko. Gaur Espainiako eskuina, Europako muturrenekoa, berriro organizatuta dago eta guri interesa zaizkigun puntuetan itun sendoak dauzkate Espainiako bi alderdi nagusiek.

Ezker abertzaleak herriaren independentziaz hitz egiten zuen lekuan Alderdiak laster erantzungo zion ea azak janda biziko al ginen. Seguru nago guk gaztetan independentziarekin amets egiten genuenean, nahiko ingenuoak ginela, baina Alderdiak ereindako ametsa zen eta ulertzen erreza ez da 100 urte pasata gero EAJk seriozki hori mahai gainean jartzeko unerik ez ikusi izana. Ez zen, beraz, horren inozoa Franco ondorengo garaian, euskaldunok denok elkartu eta behingoz gure artean ados jartzen saiatzea. Hori zen ezkerraren planteamendua.

Troiako zaldia, bada, etxean geneukan Estatutuaz margotuta. Alderdia beti harro mintzatu da hutsetik hasi eta hemengo gobernamentua eraiki izanaz. Eta mila aldiz esan du Estatutuak salbatu duela herri hau. Ez dut zalantzarik lan eskergea egingo zutela askok, zintzotasun handiz gainera, baina arazoa zen ez zegoela euskaldunen artean adostasunik nolako etxea eraiki behar zen.

Calvo Sotelok “antes una España roja que rota” esan zuen bezala, Alderdiak orain “antes una Euskadi rota que roja” esan zuen.

Oraintxe esan bezala, gauzak oraindik gehiago nahasteko, ETA lehengora itzuli zen eta Estatuak frankismoan izan ez

zuen indarkeria erabili zuen haien kontra. Haien kontra eta beste askoren aurka.

Bi estrategia posible zeuden ezker abertzaleari aurre egiteko. Bata poliziala, Espainiako eskuinak eta indar polizialek hobetsita zeukatena. Alderdiak halere, uste zuen nerabezaroko bihurrikeriak denborarekin pasa egiten diren bezala, ezker abertzalea ere hustuko zela eta urak bere onera etorriko zirela. Bi polo horien artean mugitu da hemengo arazoa gainditzeko planteamendua. Baina helburua bera zen: abertzaletasun erradikala indargabetu eta Espainiaren joko arauak errespetatu arazi.

Denak ez badira ere, hiru puntu ziren garrantzia berezia zutenak urak bere onera ekartzeko ordua: Euskara, Ordena publikoa eta Ekonomiaren kudeaketa.

## Euskara

Dudarik ez zegoen diktaduran euskarari eman zitzaion tratua Demokrazia estreinatu berrian aldatu beharra zegoela. Frankismoaren amaierak ikono berriak behar zituen eta bat hori zen: euskara aberastasun bat da, denon altxorra da, eta guztion laguntza behar du. Espainiazaleen artean ere hori zen hizkera berria. Eta horri lotu zitzaion hemengo nazionalismo moderatua eta intelektualgoa: jendea euskarara bildu behar dugu eta horretarako saiatu behar dugu gure hizkuntza atsegina izan dadin haientzat.

Baina hizkera hori edukiz bete beharra zegoen eta neurriak hartu. Lehen ikastolen aipua egin dugunean, herritarren artean euskararen aldeko uholdea sortu zela esateko parada izan dugu. Herri bultzadak sortu zuen euskararen eta ikastolen aldeko giroa. Alderdi politiko gehienek mesfidantzaz begiratzen zuten. Une historiko bakan batzuetan gertatzen den fenomeno da hori. Eta hemen hala suertatu zen.

Euskal Jaurlaritzak, lehen esan dugu, prozesu horretan herri bultzadari lagundu baino gehiago haren galgarena egin zuen. Eta hor hasi ziren tira-birak.

Euskararen legearen arabera eta hezkuntzarako hartu ziren erabakiek ziotenez, hamalau urtera heltzen zirenean, hurrek gai izan behar zuten benetan euskaraz moldatzeko. Ikasleen %50 ikastetxe pribatuetara joaten zen. Ia denak A eredia ematen zuten eta handik ia inor ez zen ateratzen 14 urterekin euskaraz hitz egiteko gauza zela. Iruzur izugarria eta nik dakidala oraindik ez da argi eta garbi mahai gainean jarri errealitate hori. Diru publiko izugarri gastatzen da hezkuntza pribatuan eta ez daukagu tresnarik beren egitekoa behar bezala bete dezaten exijitzeko!

Eskola publiko askotan ere, euskara kalera ateratzeko baino gehiago lantzen da programako gaia delako, ingelesa lantzen den bezalatsu. Ondorioz nahiko etsipenaz ikusten zen ezkerretik euskararen geroa. Egoera hori espainiar zaleek onartzeko modukoa zen eta jeltzaleek ere saiatuko ziren soka ez tenkatzen.

Gizarteko harremanetan: Osasun zerbitzuetan, administrazioan, ertzaintzan, oro har bezero legez euskaldunok aurkezten ginen edozein lekutan onartuta zegoen euskaraz nahi zuena euskaraz artatua izango zela. Luzaro gabe neurriak hartuko ziren horretarako: Arkauten euskara ikasiko zuten, irakaskuntzan ikastolek bide bat zabaldua zeukaten, eskola publikoetan urratsak eman ziren. Baina laster ikusi genuen horretarako borondatea eskasa zela eta gainera baldintzatua zegoela. Luzapenetan nahasi ondoren gure erromantizismoa baretu eta errealistak izaten ikasiko genuela pentsatzen zuten nonbait. Eta egun argi daukagu 35 urteotan jeltzaleen kezka Euskal Herri elebiduna egitea baino gehiago, euskara folklore puntu bat jartzeko bakarrik behar dela. Eta besteak ere eroso sentitzen dira horrela. Horri esaten zaio “amableak” izatea.

Euskara zen herri honetan jende askoren aldarrikapena, hitzetatik haratago joan eta benetan saiatu “plazara jalgi” zedin. Eta hor jeltzaleburuek argi erakutsi dute morrontzako jarrera daukatela, beste batzuen marra gorria ez dutela zapaldu nahi. Aldarrikapen hori iraganeko gauza zen. Gogoan dut ze ilusio piztu zuen euskaldunen artean “Bai Euskarari” kanpainak: Bost hiriburuetakoko futbol zelai nagusiak bete genituen. Baina gerora ez zen ezer egiten indar hura bideratzeko. Hurrengo kanpainarako jeltzaleek planto egin zuten eta BECen bildu ginen haien laguntzarik gabe.

Lau urtero egiten den “Korrika”n ere sarritan adierazi dute alderdikoek beren desadostasuna eta atxikimendu eskasa: gauzak ez badituzte eurek kontrolatzen, zelaia utzi egiten dute.

Urte askotan tokatu zait baseko jeltzaleekin euskararen alde lanean aritzea eta benetako euskaldunak ziren, bestean parekoak. Eta samindura sentitzen dut gero euren buruzagiek nola geldiarazi dituzten ikusita. Buruzagi asko dago euskara bost axola zaiona. Beren egitekoa: euskara bai baina ez gehiegi. Mandatu hori dute eta betetzen ari dira.

Politikaren xakean edozein interesagatik erraz sakrifikatuko gaituzten peoiak gara euskaldunak. Gaur Euskal Herriko hiriburuetan bizi garenok ozta-ozta lortuko dugu hiritar bezala goazen lekuetan %2 euskaraz artatuak izatea.

EITB da Autonomiaren beste fruitu bat. Ez dut dudarik oso premiazko tresna dela eta izan dela gure herri honetan. Euskarazko irratia bagenituen eta bere garaian hutsarte handi bat bete zuten: Herri irratia, Loiolakoa, Segurakoa, Arratekoa... Hurbiltasun bat sortu zuten euskaldunongan, baserri-tarrentzat behinik behin; beste euskal hiztunekin lotzeko balio izan zuen zilbor hestea izan ziren.

Milurtekoaren amaieran, ordea, telebista ezin bestekoa bilakatu zen. Eta ETBk hutsune handi bat bete zuen: umeentzat saio bereziak, kirol emanaldiak, albisteak, tertuliak... Euskara

aberasteko ere ekarpen handia egin du: arlo askotan falta zitzaien hizkera garatzeko oso ongi etorri da.

Baina bere potentzialitateak erdi bidean geratu ote diren ustea daukat. Eta neurri handi batean hura kontrolatzea ezinbestekoa zelako Jaurlearitzarentzat. ETBk politikoki korrektoa izatea zuen lehen araua, eta marra hori Madrilek ongi zaindu du beti. Eta oro har ETB ez da zintzoa bere politikarekin ados ez daudenekin: tertulietara eramaten duten jendeak ia beti oso euskal perfil grisa du, espainiarrak etxean sentitzen dira eta aldiz beste batzuk kanpoan utzi dituzte. Trikimailu guztiak erabili izan dira joan direnean ere askatasunaz asko balia ez zitezen. Adibidez sonatuak bertsoariekin izandako ika-mikak. Garai bateko Guardia zibilak gogoratzeko adinakoa. Bakarrik falta zitzaion ETBri aurretiaz bertsoen testua eskatzea. Marka guztiak apurto zituen Joxe Mari Oterminek bertso ekitaldia politikoki korrektoa ez zela eta, saioaren erdian amaitzeko agindua eman zuenean.

Eta gaur egun ETB 1- horixe da nik jarraitzen dudana- ahuleziak jota dabil. Kirola da erregea –agian desoreka handiegiaz gainera– eta euskaldunok beharrezko ditugun arlo batzuek ez dira aintzat hartzen. Jakina, euskaldunok hemen minoria etnikoa gara, gaztelera ere ulertzen dugu, eta dirua horretan xahutzea errentagarria ez denez, gero eta murrizketa gehiagorekin ibili behar. Ez, EITB oso urruti dago gure Herriari honelako une batean eman diezaiokeena ematetik.

Tarteka helarazten zaizkigun estatistikek gidatzen dute gaur mundua; haiek adierazten duten norabidean jarraitu behar dela pentsatzera iritsi gara. Iritzi sortzaile eraginkorrak bilakatu dira. Inozoenak ere argudio egingo du estatistiken emaitzekin: gehiengo handia AHT alde dago, halako politikori halako nota eman diote...

Euskaldunok oso portzentaia baxuan erabiltzen omen dugu egunerokoan euskara. Ondorio emanda dago: euskaldunona da errua, dakigunok hitz egiten ez dugulako. Baina



galdera beste bat da: nori dagokio euskaldunok euskaraz eroso hitz egin dezagun guneak sortzea? Non daude euskaldun arruntak mespretxu bat jaso gabe euskaraz hitz egin dezakeen bulego, udaletxe, ospitale, saltoki handi...? Euskara aurrera badoa (?), herri xehearen militantziagatik izan da batez ere, eta gero, dena esate aldera, agintariek baliabide batzuk haien eskuetan jarri dituztelako. Bi elementu horiek beharrezkoak izango ditugu aurrera jarraitzeko, baina euskaraz eroso egiteko guneak sortzea batez ere ekimen publikoari dagokio.

Berriro Singer kaleko bulegoan Leizaola Lehendakaria datorkit gogora: buru makur, zurbil eta zain. Baina noren zain, ordea? Godoten zain?

## Ordena Publikoa

Ordena Publikoari dagokionez, Ertzaintza lorpen handia bezala aurkeztu zitzaigun. Ordurarteko Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea birziklagarriak ez zirenez, Ertzaintza izango zen aurrerantzean gure kale eta bideak zainduko zituena: hurbiltasuna, euskaraz hitz egiteko aukera, giza eskubideak ordura arte baino hobeki errespetatuko ziren itxaropena...

Guardia Zibila eta Polizia Nazionalea baztertu esan dut; agian hobe izango litzateke ordezkoen aulkira pasatu zirela. Izan ere joan, ez ziren joan. Lehen polizia asko bazegoen, orain berria gehitu zitzaion. Aurrekoak denak joan izan balira izango zatekeen lorpena, baina metro karratuko hainbeste ordena zaintzailerekin...

Ertzaintzakideak izateko lehenbizi eta behin filtroa pasatu beharra zegoen. Hori, sarri behintzat, herriko batzokian egiten zuten, haren inguruko gora beherak bilduz. Batez ere, ez zedila ezker abertzalekoa izan.

Baina baserriko hizkeran esaten zen bezala, “sutan frogatzen da pertza”, eta hemen ere laster ohartu zen jendea uni-

forme ezberdina izan arren, kalean sinpatia gutxi jasotzen dutela herritarrengandik. Lana ere halaxekoa da... Eurak esan izan dute argi asko hori: gure lanean ez dago Karitateko mo-jentzat lekurik.

Poliziaren lana ez da sekula normala izango. Edozein poli-ziaarena. Ertzaintza herriaren polizia izango zen kontu horrek gutxi iraun zuen.

Udaltzaingoarekin, berdin ez bada ere, antzera gertatzen da. Hiri batean urte asko bizi ondoren, ez da falta izaten kon-tatzeko pasadizoren bat. Autoritatea diren sentimendu hori oso barneratuta egon ohi da uniformatuetan eta akats bat izan duen hiritarra ez dute beti errespetuz tratatzen. Behin, oinez etxera nentorrela, ez dut gogoan zergatik, udaltzain batek zer-baiten kargu hartu zidan. Gogoan dut lehenengo aldia zela arau haren berri nuela. Eta halaxe esan nion. Eta haren eran-tzuna: “Pues las normas hay que conocerlas”.

Ez zidan modu onean adierazi hura, eta grazia gutxi egin zidanez, halaxe irten zitzaidan: “Nadie conoce todas las nor-mas. Acaso sabe usted dónde se coloca el elemento inquirido en las frases negativas de euskara?”.

Euskaraz ez zekienez, are gutxiago nik egindako galdera-ren erantzuna. Baina mendekuak ematen duen satisfazio txiki hura sentitu nuen barrenean.

Asko hitz egiten da poliziak herritarrengandik hurbil egon behar duela. Aski genuke errespetuz tratatuko bagintuz-te. Haginlariarena nekez izango da gure gustuko lana, baina ez dadila desatsegina izan tratuan.

Jubilatuta gero, egun batez goizeko 8ak aldera, Txurdina-gako kale ertz batean nengoen autobusaren zain. Han, behar ez zen lekuan geldu, furgoneta bat zegoen eta gidaria han zebilen errepartoa egiten. Halako batean han agertu zen udaltzaina. Ez nuen entzun zer esan zion banatzaileari, baina langilearen erantzuna bai: “Ya estoy terminando, no ve cómo ando?”.

Agian ez zen erantzunik gozoena izan, baina bestaldetik ulertzekoa baldintza haietan lanean ari behar duenaren aldetik.

Autoritate munizipalari atsegin ez eta mendekua berehala ikusi nuen: libreta atera eta isuna hantxe utzi zion ongi bistan. Gizona itzuli zenean, oparia han topatu zuen eta nire solidari-tatea erakusteko edo, hala esan nion: “Los policías no saben cómo andáis los que os dedicáis a este trabajo”.

Une hartan patruilaren autoa semaforoan geratuta zegoen eta ohartu nintzen erretrobisoretik begira neukala. Norabide aldaketa egin eta minutu pare bat geroago nire aurrean geratu zen. Leihatila jaitsi eta hala galdetu zidan:

— ¿Tiene algo contra la policía municipal?

— No es la policía que peor me cae, pero tampoco tengo razones para que me sea simpática-, erantzun nion.

Ondoren halako eztabaida gordin bat sortu zen bion artean. Seguru nago han inguruan horrenbeste jende adi egon ez balitz, agian estutasunen bat sortuko zidala tipo hark. Baina halako batean, bere lagunak esanda, leihatila igo eta alde egin zuten.

Bitxiena gero etorri zen halere: handik pare bat egunera, banoa Txurdinagako Eroskira eta hara non harategian harekin topo egiten dudan. Han jada ez zen autoritatea, han bezero hutsa zen eta gainera emaztea ondoan zeukan. Hura zen nire mendekuaren ordua: aurpegira begira-begira jarri nintzaion, eta batzuetan humanoa zela erakutsiz, begiak lurrera jaitsi zituen.

Ertzaintzaz ari ginen. Lan egiteko estiloan, aldaketa txiki- ren bat egon bazen ere, ez zen harremanak goxatzeko adinakoa izan. Frogarik onena zera zen, ertzainek isilik gordetzen zutela beren lanbidea eta ahal zen heinean. Ze lanbide duten ez dute nola nahi esaten, eta asko bizitzera beren betiko lekutik aparte joaten dira.

Euskarari dagokionean, jende askok pozik hartuko genuke bide bazterrean edo beste edozein lekutan haiekiko ha-

rremanak euskara jatorrean mantendu ahal izatea. Baina, nik behintzat, ez dut horrelako zorterik izan. Aurrekoek bezain hurbil ikusi ditut alde horretatik, salbuespenak salbuespen.

Ez naiz asko luzatuko puntu honetan. Gertaera asko geratu dira argitu gabe, gertaera oso larriak eta nire ustez behintzat, gizarte mota ezberdin bat ematen ez den bitartean, polizia, hemengoa eta hangoa, berdez jantzi edo txapela gorria eraman, ez dira herriaren polizia izango, nagusiaren morroiak baizik.. Azken azkenean, erregimen batean bizi den beste erregimen bat izango da beti. Oso nekez eramango dituzte epaitegietara; eramanda ere, gutxitan aterako dira errudun; eta errudun aterata ere... izango dute eskua nork luzatua.

## Ekonomiaren kudeaketa

Ekonomiaren kudeaketa zen EAJren gutizia gehien pizten zuen gauza. Nazioarteko merkatuetan gailurra joko ez bazuten ere, hemen berrogei urtetako gosea kentzeko hainbat moku du izango zuten itxaropenaz bizi ziren. Haiek ez zeuden azak jateko, platerkada lenteja eskatuko zuten gutxienez etxearen truke.

Eta bitxia gauza: Alderdiak Jaurlaritzan sozio espainiarrak izan dituen ere, haien eskuetan Hezkuntza bezalako Saila uzteko arazorik izan ez duenean ere, beti beretzat gorde izan du Ogasun Saila. Ez da ahazteko puntua.

Atal honen hasieran esan dugu zer helbururekin jaio ziren gaurko Estatuak. Eta helburu nagusia botere ekonomikoak behar dituen egiturak eta markoa eraikitzea izan zen. Euskal Herria ez da salbuespen izan. Halere hemengo egoeraren berezitasuna gogoan, botere finantzieroarentzat Eusko Jaurlaritza sendo bat ezin bestekoa zen. Eta jeltzaleek, lau urtez izan ezik, hemen aginte osoa izan badute, horien zerbitzari izateko izan da.

Finantzari eta bankariei gutxi inporta zaie gobernuan nor dagoen, nazionalistak ala españolistak diren. Merkatuek erraztasunak eta eskuak libre behar dituzte. Ez dago dudarik azkeneko 30 urte hauetan ekonomian aldaketa handiak ikusi ditugula: birmoldaketak, teknologia berriak, sortu diren industria poligonoak, errepide sareak... Enpresak batzuk joan, beste batzuk etorri, honek atak itxi, hark lanpostu berriak sortu... Mugimendu horren erregaia dirua da eta neurri handi batean, diru publikoa, gure zergetatik ateratzen dena; dirutza horien destinoa sarri botere ekonomikoen poltsa da. Diru publikoaz milaka kontratu egin dira, norekin egiten zen aurrez ongi pentsatuta. Gizartean egon den “hobekuntza” bakoitza, batez ere haienez izan da hobekuntza.

Gastu publikoan enpresa horien makinak jota-ke, gelditu gabe, jarrai dezaten hemen eta han lan erraldoiak burutu dira: Supersur, AHT, Metroa ezagunenak; San Mames Berria, Bizkaia frontoia, Bizkaia Arena, Buesa Arena saski baloi taldeentzat. Ezagunenak horiek izanda diru publikoarekin egingdako lanen zerrenda oso luzea da.

Herri ongi prestatua da gurea, azpiegitura industrialia, maila handikoa eta etxeko eta kanpoko inbertsioetarako inbidia emateko moduko laguntzak. Azkeneko 35 urteotan errepide sarea eta autobia sarea goitik behera berritu edo zeharo berria egin da hemengo geografiak eskatzen dituen neurri gabeko tunel eta zubiekin; hiriburu inguruetan sarrera irteeretarako lan erraldoiak burutu dira; eraikuntza arloan, mundu osoan ezagunak dira hemengo ikur arkitektonikoak; Bilboko ibaiaren bazterrek ezagunak egin dira nonahi.

Gero tratu fiskal eroso baten abantaila. Horretarako bide bat baino gehiago egon daiteke: bat dedukzioen apartatuan eskuzabalak izatea, gutxiago edo batere ez ordaintzeko. Sozietateen zergen kasuan hautsak harrotu dira Gipuzkoan Aldundiko oraingo ordezkariak puntu horretan aldaketak egiten hasi direnean..

Datu ofizialak dira EAEn 2.500 milioiko iruzurra dagoela urtero eta 2012an Bizkaiko Aldun Nagusia harro mintzatu zen denon aurrean 400 milioi aurkitu zituztela esanez. Eta aurkitu eta eskuratu ez da gauza bera, gainera. Ez zuen argitu.

1970.eko hamarkadan Basauriko lurretan zegoen Etxebarria lantegi erraldoiak 600 milioitik gora zor zizkion bertako udalari, herrigintzari ekiteko batera dirurik ez eta premia besterik ez zegoenean. Lantegiaren erantzuna betikoa: une txarrak pasatzen ari zirela, haiek ordainduz gero, Basauriko langile asko langabeziara joango zirela... Barkatu egin zitzaion eta handik lau-bost urtera lantegiak plan berri bat abian jarri eta ia erdira murriztu zuen langileria.

Milioika euro barra-barra. Jokalarien irabaziei, nahiz eta oso oparoak izan, zerga baxuak. Urtean 300.000 irabazten dituen jokalar batek proportzioan langile baten zergen erdia ordaintzen du. Milioika euro joan dira futbol taldeetara hiri-buruetako udal eta Aldundietatik. Bilbon behintzat arrazoa bitxia zen: Bilboren izen ona kanpora eramatearen ordaina izan ohi zen.

Bi milioi bizi lagun garen esparruan hiri bakoitzak behar du lehen mailako futbol taldea, lehen mailako saski baloi taldea, dirutzak ematen zaizkie horiei guztiei gure izen ona hara eta hona daramatelako...

Euskal Herri birtual bat eraikitzen ari gara. Igande goiz batean Abandoibarratik buelta bat ematera atera eta argentinarr bikote bat hurbildu zitzaidan zerbait galdetzera. Eta horretan ari ginela haien iruzkina: zeinen hiri aberatsa den hau, etxebizitzak, kaleak, jauregiak, eraikuntzak...

Liluratuta ikusi nituen.

— Zenbat iruditzen zaizue irabazten duela hemen langile ertain batek? —galdetu nien.

— Nosotros tenemos entendido que aquí el sueldo medio es entre 3.000-4.000 euros.

Laster esplikatu nien. Begira, nire alabak, eta ez da okerren dagoena, 146.000 euroko pisu bat erosi du etxetik ateratzeko. Pisu merkea (?), gurasoen zaintzatik ateratzeko orduan gazteek erosten dituzten horietako. Hori eskuan eman ahal izateko 12 urteko irabaziak oso-osorik beharko lituzke. 35 urteko maileguan sartu da eta oso ongi kudeatu beharko du bere soldata.

Gazteen %50 inguru lanik gabe dago eta lana dutenak ordukako lana, edo behin behinekoa, edo iraunkorra izanda ere, 700-800 euroekin ordainduta dago. Harrituta geratu ziren. Hala esan nien: hemen diru asko dago baina oso gaizki banatua, eta gastu gehiegi egiten da alperrik luxuetan.

Baina kapitalak martxa behar du eta krisiak ez du baldintzatu behar batzuen bizi maila. EAJ ongi dago sistema hau zutik dagoen bitartean. Euskal Herriaren magalean kabi eroso bat egin du eta txori asko bizi da han. Alderdiaren kutxatik bizi dira batzuek, kargu garrantzitsuetan alderdiaren ordezkari, beste asko... eta soldatak gehiengoarenak baino askoz hobeak. Baldintza ezin egokiagoak puesto horietarako bokazio ugari izateko. Eta, lehen esan bezala, Alderdiak kudeatzen duen diru publikoaz klientelismo erraldoia bizi da.

Ez dago zalantzarik, diru publikoa barra-barra ibili da eta lan horietan sartuta daudenak urte oparoak izan dituzte. Ze gardentasun, ze lege... zenbat iruzur... 35 urte hauetan asko idatzi da guzti horretaz, salaketa asko egon da... gauza gutxi argitu. Gogoan dut behin Xabier Arzalluzek emandako erantzuna: "Frogak baldin badauzkate, doazela epaitegietara".

Xabier Arzalluzek horretan arrazoi zuen. Epaitegietara frogak hartuta joan behar da. Ez zuen esan, ordea, alderdiek trikimailu ugari eta sasi-injineru asko daukatela iruzurraren arrastoak ezabatzeko. Honetaz asko idatzi da eta ez du merezi luzatzea. Maragallek Kataluniako President aukeratu eta laster, hautsak harrotu zituen aurreko Governi lan publikoetan gastatutako diruaren %3 partiduaren kutxara joaten zela esan-

da. Sortutako iskanbilaren aurrean Maragallek atzera egin zuen. Baina ordurako Xabierrek entzuteko moduan esan zuen: “Hori partidu guztiak egiten dute”.

Euskal Jaurларitza eta goi karguetako jendea eta enpresa pribatuen artean sinbiosi handia ikusi dugu betidanik. Sailburuak ia beti enpresa pribatutik datoz eta amaitzen dutenean saria enpresa pribatuetan jasotzen dute. Nahiko paradigma-tikoa delako eta argigarri den heinean kasu bat bakarrik eka-rriko dut: Nuria Lopez de Gereñu Industria Sailburua izan zen Ibarretxe garaian. Gaur Confebasquen idazkari orokorra da eta eta PPK lan arloan hartu dituen neurriak lehenbailehen hemen ere ezarri beharrezkoak direla da gehien entzuten zaion aldarria.

Eusko Jaurларitza abian jarri zen garaian etorri zen Ikastolen Normalizazio Legea. Ordura arte boligrafoak, borragomak, lapitzak, koadernoak... eskaintzera han etorri ohi ziren ikastolara saltzaile txiki batzuk. Egun batetik bestera oso aldaketa handia sumatu genuen: saltzaile horietako bat, oker ez banago izena Bergarako baserri batena zen, katalogo apain batzuekin presentatu zitzaigun: zuzendaritzako, idazkaritzako, geletako, liburutegietako mahai, apal, armairu, aulki... premiazko genituen mila gauza katalogo hartatik hartu behar genituen. Eusko Jaurларitzak hura jarri zuen bitartekari bakarra. Gogoan dut une hartan zuzendariaren gela soto txiki batean zegoela: zuzendariarentzat mahai handi bat zetorren, baina kontua zen neurri hartako mahaia sartuz gero, zuzendaritza beteta gertzen zela. Saiatu ginen esplikatzeko mahai bat behar genuela, baina ekartzeko txikiagoa. Ez zegoen katalogoan eta alperrik... Mahairik gabe geratu ginen.

Gaztetan apaiztegia Arratiako Areatzan zegoen eta han ezagutu nuen Juan Mari Atutxa, jai handietan koru-kide zen hura ere eta rol oso berezia zuen orduan: beti prest zegoen txisteren bat kontatu edo adarra jotzeko. Adinkideak gara, eta ez zen gerora hartu duen tipokoa. Gaur bere semeak enpre-



sari inportante bilakatu dira eta bat behintzat Guggenheim Museoko segurtasun burua izan zen garai batez eta orain Itsas Portu Autonomoko buru izendatu dute. Gaztetan igeltsero ibili zen aita. Ez dira probetxu gutxiko semeak atera. Jobubi onak.

Ez da inolako sekretua jeltzale askok enpresak abian jarri dituztela eta euren bezero onenak Udal, Aldundi, Gobernu eta horrelakoak izan ohi direla. Horren guztiaren aurrean oposizioak hala esan ohi du sarritan: batzokia balitz bezala daramate herria.

Estatutuarekin batera zeregin hori hartu zuen EAJk bere gain. Eta sarritan entzun izan diogu EAJ izan dela Estatutuan oinarrituta herri hau etorkizunaren bidean jarri duena. Historiaren irakurketa malgua izan ohi da eta gertakizun bera, besteok ezberdin interpreta dezakegu. Etorkizuna ez dakit noiz arte bermatuta dagoen baina tarte honetan enpresa erraldoien munduak mauka ederrak aurkitu ditu hemen. Eta agintarien eskerrona gainera.

Ibarretxe jaunari sarri entzuten genion euskal enpresariak direla herri honetan aberastasuna sortzen dutenak. Eta alfonbra gorria jarri eta jauregirik ederrenetan egiten zien harrera.

Baina enpresari horiek ere lehenbizi irabaziak, eta irabazi handiak behar zituzten. Bediako INCOESA enpresako langileak aspalditik etsipenak jota bizi dira.

Pentsionistak Martxaneko kideok Gasteizko Legebiltzarren aurrean elkartuta geunden batean, haiekin topo egin genuen: haiek ere laguntza behar zuten. 30 urtez herriko jendeari, gehienak jeltzaleak, lana eman ondoren, nagusiak, alderdikide jatorra bera, hura itxi eta Sorian eta Extremaduran berria zabaltzeko erabaki hartu du. Eta ez galerak dituelako, han irabazi handiagoak espero dituelako baizik.

Uka ezin den gauza da nolana ere, alderdiak armiarma sare izugarria sortu duela bere inguruan, opazitate izugarriarekin gainera eta kanpora ateratzen den zertzeladaren bat

azpimarratu behar izanez gero, hauxe da: zenbat eta zenbat jende dago Euskal Jaurlaritzan, Aldundietan, udaletxe handietan, kargu publikoetan, oro har politikaren munduan familiako harremanek eramanda: senar-emazte-aita-ama- seme-alaba-osaba-iloba-lehengusu-koinatu-koinata... Euskal politikagintzaren eremuak arbola genealogikoa dirudi. Horrela esplikatzeeen da hauteskundeak datozenean emaitzak eza-gutzeko orduan, jendearen urduritasuna zeinen nabaria den. Garai batean horman sarritan ikus zitekeen: “PNV español, edo, PNV traidor”. Benetan atsekabea sentitzen nuen horrela-koetan. Nik jeltzale asko ezagutu izan dut ez bata eta ez bestea direnak; gauza askotan elkartuta ibili gara eta pentsaera antze-koa genuela ere uste izan dut. Baina Sabin Etxearen ondotik pasatzen naizenean, kirats usaia dariola iruditzen zait.

Badago puntu bat nire ustez baztertu ezin duguna. Industria munduan lanak gaixotasun asko sortzen duela ez da jada sekretua. Eta arazo horren aurrean enpresek ez dute inolako erantzukizunik hartu nahi izan. Hasieran langileek ekidin ezin zen gauza bezala barneratu zuten. Baina poliki- poliki egoera horren aurrean kontzientzia berri bat sortzen joan da. Hor daukagu amiantoak hil edo gaixo kroniko bihurtu dituenen kasua. Zenbat direla esan behar dugu? Ehun, ehun mila? Ez dakigu. Baina jakin nahi ez dugulako. Enpresek ez dute utzi gaixotasun horren eraginak ikertzen: “Biriketako gaixotasun bat daukazu” –esango du gehienez ere osagileak.

Baina Eusko Jaurlaritzak ere beste aldera begiratu du. Badakigu arazoa ez dela txantxetako, baina ezin da gaixo kro- niko batzuen bizkarrera bota eta ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitu.

Ate guztiak itxita zeuden nondik eta zerk eragindako gai- xotasuna zen ikertzeko orduan. Azken urte hauetan, eragoz- pen handiak gaudituz, gero eta argiago geratu da amiantoak hildako eta gaixotutakoak direla, milaka segur aski, baina

oraindik ere kasu bakan batzuk bakarrik onartu dira eta epai-tegietara joan ondoren.

Azpeitiko Martzial Ucim lantegian lan egiten zuen nire anaiak, labetik altzairu likidoa ateratzen den gunean. Arrisku handiko gunea, inolaz ere. Altzairu saldak 700° inguru hartzen zituen eta hango tanta batek min handia egin zezakeen. Suerte txarrez, larunbat goiz batean, likidoa ontzitik isurtzean, zipriztin batzuek harrapatu zuten eta sabelaldea, besoak, eta oinetan erredurak eragin zizkion.

Gurutzetako Ospitaleko erreduren unitatean 20 egun inguru egon ondoren, Azpeitira itzuli eta nahiko ongi jarri zen. Baina ezin zuen lehengo lekura jarraitu. Pertsonalaren arduraduna oso ezaguna zuen eta kalean ere harreman ona mantentzen zuten. Estualdietan ez da gaizki etortzen horrelakoen laguntza.

Egun batean arduradun horrek deitu zuen bulegora, indemnizazio eta etorkizunaz hitz egiteko. Ezintasun absolutua proposatu zion. Eta anaiak hartu ere bai. Amaieran hala esan zion: “Beno, orduan sina ezazu paper hau”.

Sinatu zuen eta hurrena handik agertu nintzenean, papera erakutsi zidan.

Kezkatuta geratu nintzen, baina seguru egoteko asmoz Asesoria Laboralista batekin jarri nintzen harremanetan: “Paper honetan sinatu duena zera izan da: enpresak ez duela inolako erantzukizunik istripu horretan” –argitu zidan abokatuak.

1985/86 garaia izango zen eta abokatuaren ustez 20 milioi inguruko kalte ordainari uko egiten zion papera sinatu zuen. Gero argitu zizkigun horrelako kasuetan eska daitezkeen kalte-ordainak.

Hurrena arduradunak bulegora deitu zuenean, harekin joatea pentsatu nuen. Gizona hitz gozokoa zen, manera onak eta euskaldun peto-petoa. Interesatu zen anaia zer moduz zegoen, lagun bezala tratatu zuen eta azkenean zera esan zion:

“Kontaktu batzuk izan ditut eta aseguruak daukan funtsa batetik 2 milioi pezetako diru laguntza lortu dut zuretzat. Baina komeni da, hau hemendik ez ateratzea. Izan ere, beste kasuetan La Fraternidad aseguruak ez du ematen-eta”.

Eta paper bat jarri zion diru kopuru hori nola ematen zitzaion sina zezan. Une hartan papera eskuetan hartu eta hala esan nion: “Begira, lehen ere beste paper bat sinarazi zenion eta indemnizaziorik gabe geratu da. Abokatuak esan digunez, diru kopuru handia izan zitekeen. Eta orain berriro gezurretan zabilta: nire anaiari diru hori ez baino hilero bizi den arte diru kopuru finko bat dagokio. Arazo hau epaitegieta erabakiko da”.

Eta hala egin zen. Epaitegiaren erabakiz La Fraternidad aseguruak hilero ordaintzen dionarekin bi urtetan berdinduta zeukan eskainitako kopurua. Kontuak atera, jada 28 urtez ari da jasotzen eta ze aldea zen anaiarentzat eta... La Fraternidad Aseguru-etxearentzat.

Galdera da: ze interes izan zezakeen arduradunak aseguru etxeak ordaindu behar zuena ez ordaintzeko? Ez zuen enpresak ordaintzen. Esplikazio bakarra daukat: La Fraternidad Aseguru etxeak berari eman ziezaiokeen eskupekoa. Zenbat horrelako egon ote da!

Kasua hona ekarri badut ez da anaiari suertatu zitzaio-lako, langile askori iruzur horren larriak zeinen erraz egiten zaizkion erakusteko baizik. Eta gure agintariak oso ongi dakite gauzak nola egiten diren, jar lezakete kontrol publiko bat baina, jakina, sistema honek ezin du funtzionatu marrazo eta iruzurrik gabe.

Euskal Herria zenbateraino izango litzateke ekonomikoki gai independentziaren bidea hartuta? Horra tarteka ateratzen den mintzagaia. Ekonomiaren barne muinak ezagutzen dituztenak lagundu beharko dute erantzuna emateko orduan. Ekonomia beste gauza guztien euskarria da, nola ukatu, baina erabakia hartzerakoan beste atal batzuk ere aztertu behar dira:

kultura, euskaldun bezala bizitzeko parada, ekologia, ongizatea...

Esaten ari ginen, bada, jeltzaleek hemen sistemaren zutabe bilakatu zirela. Baina jeltzale-buruek espero ez bezala, ezkerren jarrera ez zen aldatzen, ez ziren nerabezaroak jotako lau burugabe. Jende hura borrokan zailduta zegoen. Gatazka egoera kronikoa bilakatu zen, ehunka ziren espetxeetatik pasatakoak, milaka atxilotuak.

Tximua arbolan zenbat eta gorago, orduan eta ipurdia ageriago. Demokrazia estreinatu berria eta jeltzaleak agintaritzan, iragana gogoratzen zuten mila gauza zeuden eta ezker abertzaleak aurreko jarrerari eutsi zion.

Eta ondorioz, jazarpena. Herri Batasuna izan bazen hasieran, gero legez kanpo utzi eta haren ondoko siglak ere bata bestearen atzetik, denak desegiten zituzten. Egunkariak ekonomikoki itotzen saiatzen ziren: kriminalizatuz, laguntza ekonomikoak kenduz, iragarki publikoak ukatuz... Eta hala lortzen ez bazuten, ilegalizatuz.

Herri honetan 60. hamarralditik hona gauza asko aldatu dira, baina batez ere kontzientzia berri baten kimuz bete da arbola: nork hartuko du indar horiek behar bezala bideratzeko ardura? Hala “moroak lainopear” bezala ibiliko gara beti? Ez da inoren zain egoteko garaia: gure etorkizuna oparitu ez baino geure ahaleginetik sortuko da. Hori denok dakigu.

Ardantzaren garaian urrats bat nabaria eman zen euskaldunen tira-biran: ETAREN bideak ez ezik, helburuak ere gaitzestera heldu zen Lehendakaria. Jakina, hark ez zuen ametsik egiten, hemen enpresari, banku eta finantza taldeak lasaitasuna behar zuten lana egiteko.

“Bakea behar dugu” eskegi zuten udaletxe askotako hormetan. Apartheid hura inork baino gehiago jasaten zutenek egiten zuten batez ere bakearekin amets. Baina ze bakea behar zela esan nahi zen? Beti bezala deia talde armatuari eta ezker abertzaleari zuzenduta zegoen. “Gesto por la Paz”ek egiten

zituen agerraldietan bezala; bakearen alde egiten ziren manifestazio erraldoietan bezala. Uriarte gotzainaren itzalaz eta Intxaurrendoko guardia zibilen parte-hartzeaz eta Gal antolatu zutenen presentziaz, Jaurlaritzak deitu zuen hartan bezala. Galindo eta Intxaurrendoko guardia zibilak bakarrik falta ziren. Baina haiek ere joateko asmoa izan bazuten: azken unean konbentzitu zituzten hobe zela kuartelean geratzea. Polita izango zen, bada, haiek han ikustea!

Ezker abertzalekoak ez ginen joaten. Bakearen alde baino gehiago gure zigorra izan nahi zuen-eta.

Estatutua bai, Estatutua ez: hori zen garai bateko ika-mika. Horrenbeste denbora pasa ondoren garaia da balantze bat egiteko. Alde egon zen jende askok, une honetan Estatutuaren dezepzioa bizi du; sindikatuen gehiengoak kalean eskatu du Estatututik haratago joateko ordua dela; Alderdiak ere ozenki esan du agortuta dagoela.

Euskaldunok apustulariak izan gara. Txikitan entzun izan dut aizkolari, korrikalari... apustueta baserria galdu zutenak ere bazirela. ADNan daramagu nonbait eta hasieran zazpikia zen Estatutuari gero tejerazoak, LOAPAk, eta mila murrizketek ahulduta utzita ondoren, Urkullu eta buruzagi talde berriaren ustez, itogin batzuk konponduta, oraindik nahikoa izango litzateke.

Nahikoa zertarako? Lehen apustuan baserria galtzen zen eta orain herria... Gaur, urteak pasatu direnean, argi dago Estatutua iruzur bat izan dela eta gero eta eduki gutxiago daukala. Ikurrinak balkoira ateratzeko bakarrik balio du, eta han ere Espainiako bandera baino pixka bat beherago.

Franco ondoko urte hauetan EAJk Madrileko Gobernuari sostengu garrantzitsua eman dio eta ordainez espainiar alderdien laguntza izan du Ajuriaenean jarraitzeko. Hori aski da pentsatzeko ze indar izan lezakeen nazionalismo historikoaren helburuen alde borroka egiteko. Alderdiak ezin du pauso bat

eman bere sozioen baimenik gabe, eta sozioak badakite ze musika jo behar duten.

Gaur gaurkoz jeltzaleek –berriro gogoratu nahi dut ez ditudala talde horretan sartzen Alderdiari botoa ematen dioten milaka eta milaka gizon eta emakume guztiak– botere ekonomikoa beren eskuetan hartu dute eta Euskal Herriaren barruan partitokrazia zorrotza eraiki. Lehen ere horren aipua egina geratu da eta ez goaz gehiago esatera. Horretaz jakin nahi duenak material ugari eskuratu dezake.

Bilboko Udalari duela urte batzuk “Gardentasunaren” saria eman zioten. Hain zuzen ere, gardentasuna da Alderdi Jeltzaleak herri honen kudeaketan falta izan duena. Nahiago izan du horren sarri aipatzen duen “diskrezioa”. Alderdi Jeltzaleak diru publikoaren kudeaketan, legeak interes pribatu batzuen mesedetan eta mila zirrikituren bidez aberatsen zergak mehetze aldera sortu duen ingeniarietza kalitate handikoa da. Kalean zurrumurruak sarritan sortzen dira, baina denbora pasako zurrumurrueatik haratago joan gabe; jendeak ez du jakiten zergen kontuan zer gertatzen den. Badirudi zergen inguruko araudia hamar mandamenduetan datorrela, baina hori guztia gure ondoan egiten da; egiten dutenek, beren interesak dituzte, eta agintari eta jabe dira sarritan.

Bilduk Gipuzkoan Aldundiaren gidaritzat hartu duenean hasi dira hautsak harrotzen. Beste arau batzuk abian jartzeko asmoa, zergetan beste neurri batzuk hartu nahi... eta iskanbila handia sortu da. Batez ere Sozietateen zergak direla eta ez direla, enpresa handiek lehen aitzaki-maitzaki ia zergarik ordaindu gabe libratzen zirenak... Bitxia da, gai honen inguruan nolako mugimenduak sortu diren EAJ, PSE eta PP alderdien artean. Eta komunikabideak arazorik ez daukate jendea konbentzitzeko. Noren esku daude, bada, komunikabideak? Gehiegikeriarik esan gabe, Paradisu fiskalak dira gure lurraldeak. Azkenean nomina xume bat kobratzen dutenak dira diru publikoaren kutxa betetzen dutenak.





## Eta eliza?

Aurreko lerroetan EAJri buruz aritu garen bezala, uste dut hausnarketa honetan ez litzatekeela gutxietsi behar Elizaren pisua Euskal Herriaren azkeneko hamarraldietan. EAJ eta Elizaren artean sinbiosi handia egon da iraganean eta oraindik zilbor hesteaz lotuta daudela esango nuke. Bakoitzaren kideak sarri berdinak dira eta historian zehar elkarrekin ibili dira beti. Esan genezake EAJ kristauak politikan aritzeko sortutako alderdi bat dela. Jeltzaleen hasierako J hori Jainkoa da eta “euskaldun fededun” ez da apaingarri hutsa izan gure artean. Oinarri ideologiko antzekoak izan dituzte; halere ezin dugu oharkabe utzi azkeneko urteotan Mutila, Izeta, Gartzia... goztain berrien bultzadaz eta baseko zenbait jenderen suspertzeaz, nabaria dela espainiar asimilazio-kerian elizak eman duen urratsa, Alderdi Popularraren norabidean eman ere.

Baina Elizari buruz aritzeko orduan korapilo askorekin topo egiten du batek. Ze Elizaz ari gara? Erromakoaz? Espainiakoaz? Euskal Herrikoaz? Ez da galdera erretorikoa. Badakigu eliza oso erakunde hierarkiakoa dela eta han karguak ez direla ohorezkoak; erabakiak hartzerakoan kargu horien ahalmena nabaria dela.

Baina bada beste galdera bat lehenbailehen egitekoa: elizari buruz ari garenean zertaz ari gara: ofizialki argitaratzen dituen agiriez hala kristauak deitzen diren horiek, euren agintariak barne, duten jokabideaz? Bestela nahasmendu handietan

sartu ondoren, ezer argitu gabe geratuko ginateke eta gaur egun elizaz hitz egiten denean –beste gauza askotaz bezalaxe– sinplekeriatan galduko genuke denbora.

Nik hemen eliza aipatzen dudanean Hego Euskal Herriko egoera konplexu honen aurrean zerbait esatea tokatzen zaion eliza horretara mugatuko naiz. Beraz juridikoki Espainiako legean mende gaudenez suposatzen dut Espainiako eliza aintzat hartu beharko dudala eta Euskal Herrian hurbilagoko erakunde bezala eliz barrutiak ere aipatu beharko ditugula

Laburpena egite aldera, Espainiako elizak euskaldunokin izan duen jarrera duarik gabe zapaltzailea izan da une garrantzitsuetan. Sonatua izan zen, Goma kardinala buru, Frankoren altxamendua Gurutzada zela erabaki ondoren, gaitzetsi egin zuela, kristautasunaren kontrako bezala, Francoren aurka azaldu ziren euskaldunen jarrera. Nazionalista ez izan arren, adierazpen horren aurka atera zen, Mateo Mujika gotzaina. Ez zioten barkatu: erbestera bidali zuten Espainiako Elizaren onespeneekin. Esan dezadan, Mateo Mujika nire amandearren lehengusu propioa zela.

Elizak parta-hartze zuzena izan zuen garai haietan erregimenak eraman zuen errepresioan, gutxienez ere isilik egon zelako eta batez ere bere onespeneekin kalte handia egin zuelako hemen eta atzerrian jende askoren iritzi politikoa gure kontra jartzeko orduan.

Baina norbaitek uste badu, hori guztia iragana dela, gaur egun Rouco jauna eta Espainiako elizaren bozeramaile diren oso pertsona ezagunen tesia, berriro ere Goma kardinalak defendatu zuen bera da. Ez da oraindik oso adierazpen zaharra: “Espainiaren batasuna defendatu beharrezko ondasun moralada”. Jakina, horrek esan nahi duena argi geratzen da: Euskal Herriko eta Kataluniako kristauak ez dute eskualde horietako autodeterminazio mugimendurik babestu behar.

Espainiako eliza honek, bestalde, hurbiltasun berezia erakusten du bertako alderdi eskuindarrekin eta euren jarrera

politikoeekin. Estatuko zenbait prentsa, halaber, asko saiatzen da euskaldungoa kriminalizatzen eta gorrotozko hizkera eta jarrerak ereiten. Hori guztiaren aurrean Espainiako Elizak ez du ezer esan. Eta are gehiago, aspaldiko hilabeteetan, indarke-riaren biktimei babesera erakutsi aldera, mendeku hutsa eska-zen duten ahots publiko asko hedatzen da han eta hemen: bizitza osoko kartzela, barkamena eskatzen ez duten arteko espetxea, legez kanpoko neurriak espetxeratutakoen aurka, garaile eta galtzaileen arteko marra argia... Gizateriaren aur- kako mezu hutsak alderdi politiko nagusien babesarekin. Eta eliza isilik. Terrorismoaren goraipamena da eta kartzela zigorra merezi du presoak pertsonak direla eta eskubide batzuen jabe direla esate hutsa...

Baina agian interesgarriago izan daiteke Hego E.Herriko elizaren jarrera gogoratzea. Batez ere, hurbiltasunagatik eta norbaitek zerbait esan edo egitekotan, hemengo dugulako eskura.

Hemengo elizaz zerbait esaten hasita, Añoverosek Bilbon eta Bereziartuak Donostian idatzitakoek

astindutako hautsak izaten dira lehenbizi gogoratzen dire- nak. Urteak joan dira, baina Estatuaren eta Elizaren artean tirandurak orduantxe jo zuen goia. Nazioartean ere gatazka hark oihartzun handia izan zuen eta suposatzen dut Erroman ere bat baino gehiago mugitu izango zela konponbide baten bila.

Kontua da, maila horretako tira-birak ez direla asko izan. Itxura batean, kalera irten baino lehen konpondu izan dira egon zitezkeen ezberdintasunak. Oro har, Hego Euskal Herri- ko gotzainek oso hitz kalkulatuak erabili izan dituzte hemen gertatzen zen guztiaren aurrean adierazpenak egiteko. Oso egoera larriak suertatu dira, eta sarri, gure artean: ETAk hilda- koak eta bahituak; Estatuak hildakoak, atxiloketak, torturak, bermerik gabeko espetxeratzeak... ETAREN ekintzak oso argi eta garbi gaitzesten ziren. Aitzitik, Estatuaren edo indar poli-

zialen ekintzen aurrean ahalegin berezi bat ikusten zen adierazpenetan: “indarkeria, edozeinek egiten duela ere, gaitzetsi behar den zerbait da”. Nekez joaten ziren haratago, ez dut gogoan Lasa eta Zabalaren eta antzeko kasu batzuen harira adierazpenik egin izana.

Eta jokabide hori oraindik indarrean dago. Mundu guztiak aitortu izan du frankismoan elizak oso aulki berezia zeukala beretzat gordeta, baina trukean askatasunik gabe geratu zela. Gauzak aldatu badira ere, oraindik elizak gauza asko dauzka babesteko eta ezin ditu arriskuan jarri.

Pasadizo bat datorkit hemen burura. Txurdinagan jendearen arteko harremana ez da horren handia, “lotarako auzoa” deitzen den horietakoa baita. Zer ikusirik ez ondoko Santutxun dagoen giroarekin. Seme-alabak txikiak zirenean eskaut mugimendura apuntatu genituen, batez ere etxetik kanpora ateratzeko aitzaki bat izan zezaten. Parrokiako lokaletan zuten gunea, besterik ez baita.

Udaberrian jai bat antolatzen zen ikasturteari amaiera emateko eta han jende askok parte hartzen genuen: guraso, haur, gazte, arduradun...

Euskal dantza taldearen saioa hastera zihoanean, non ikusten dugun parrokiatik argazki handi batzuk atera eta soporte batzuetan jartzen dituztela; ETAk egindako ekintzak agiri ziren: odola, gorputzak lurlean sakabanatuta, txikizioa...

Berehala presentatu ginen batzuk han eta halaxe esan genien: “Noren erabakia izan da hori hona ekartzea? Eta argazki horiek jarri behar badira, ez al dira beste batzuk falta”.

Eta berriro eraman behar izan zituzten ekarritako lekura.

“Lazo urdina”ren garaiak ziren. Parrokian oso sartuta zeuden jendeak. Oraindik ezin dut ulertu jai giro hartan, horrenbeste ume zegoen unean, horretaraino ausartzea.

Baina argi geneukan ze jenderekin genbiltzan. Bitxia izan zen batzokiko arduradun baten jarrera: dantza taldeak ez zuela han bere saioa burutuko adierazi zuen, eta hura haserre bizioan

jarri zitzaien. Jaiaren antolamenduan ez zuen inolako parterrik, baina une batzuetan agintea erakustera etorri ohi dira. Komisario politikoak...

Lazo urdinak eta “Gesto por la paz” eta zenbait beste mugimendu espresuki elizarenak izan zirela esatea zehatza ez bada ere, eliza aise sentitzen zen han. Eta neurri batean ulertzekoa da. Ez dut salaketa bezala esango. Baina, mila aldiz errepikatu den gauza da, eta ados nator: alde bakarreko indarkeriaren aurrean bakarrik asaldatzen zen jendea biltzen zen horrelakoetara. “Gesto por la Paz”ekoek, sarritan erantzun izan dute hori ez dela egia, bestelako indarkeria ere salatu izan dutela baina hori ez dator bat ikusi dugunarekin: noiz bai “besteen indarkeria” ere salatu izan duten arren, desoreka handia egon da bi salaketen aurrean. Salaketen %98 betiko “biolentoen” kontrakoa izan da. Eta euren inpartzialtasuna argi geratze aldera, salaketen %2, Estatu biolentziaren aurka. Horrekin betiko tesia sendotzen zen: Estatu indarkeria, bestea ez bezala, salbuespen bat zela eta zigortu egiten zela gainera.

Eliza eta Euskal Herriko indarkeriaz ari garela arreta berezia merezi du ia 22 urtez, eta garairik gogorrenetan, Donostiako gotzain izan zen José María Setien jaunak. Haren inguruan ohizkoak ez diren tirabirak sortu ziren behin eta berriz eta “españolismoaren” jo puntuan egon zen etengabe, eta esango nuke, hari gorroto izatea Espainia defendatzeko era bat bilakatu zela askorentzat.

Añooveros eta Bereziartua kasuak aipatu ditugu lehenago. Baina haiek oso gauza puntualak izan ziren. Setien jaunak, ordea, luzaroan eta bereziki sumindu du espainolgoa.

Ez dago dudarik, gotzainen artean oso gutxik erakutsi dutela gizartean gertatzen zena analizatzeko hark duen ahalmena. Oso zorrotz analizatzen ditu gizarteko eskubideak. Bere ekarpen teorikoek sendotasun nabaria dute, batez ere Unibertsitateko irakasle bezala sinatzen duten Savater, Joseba Arregi, Aurelio Arteta... bezalako erremindu batzuen idazkien parean.

Hauen idazkietan batez ere iseka eta iraina izaten den bitartean, Setienek beste hizkera bat darabil.

Orri hauetan argi esan nahi dut egindakoaren aitorpena merezi duela. Eta jasan duen guztiaren aurrean elkartasuna ere bai. Seguru nago Euskal Herrian ezagutu dugun egoeraren gaineko hausnarketan ordu asko eman dituela eta informazioa ere, oso gutxik bezalako izango zuela. Anekdotak gisa esateko, Morlans auzoan poliziak hainbeste ordutan etxebizitza inguratura izan ondoren 3 lagun hilda bukatu zeneko gertaera hura, oso hurbiletik ezagutu zuen. Horregatik ere, oso arreta handiz irakurri izan ditut Setiienen idazkiak, denak ez badira ere –asko idatzi baitu– dezente behintzat.

Baina argi geratu dira gauzak adierazteko orduan, Gipuzkoako elizan zuen erantzukizunak muga nabaria ezarri diola hausnarketa gizarteratzeko orduan. Libreago sentitu da gizar-teko zati baten kritika egiteko, beste batzuen gehiegikeriak salatze baina.

Esan dezadan, sarrera gisa, eta Elizaz ari garenez, ez na-goela seguru Setienek esandakoak elizak esandakoak bezala hartzekoak diren. Jakina, Donostiako gotzaina izan da, eta eliz barrutiaren izenean esan ditu gauza asko, baina beti iruditu izan zait eliztar batzuen artean zurri-murruak eragiten zituela, eta batez ere, Espainiako elizarentzat ez direla sarri erosoak izan haren adierazpenak

Setienek Elizaren Irakatsi Sozialak hartu izan ditu bere ekarpenak egiteko iturri bezala. Horrekin esan nahi da, Euskal Herrian eman diren egoera batzuk analizatzeko orduan ontzat eman dituen printzipioak ez direla derrigorrez beste batzuen presupuesto filosofikoekin bat etorriko. Baina edozelan ere, berak idatzi dituen orriak beti izango dira aitzaki on bat norberaren analisiak egiteko, nahiz eta ez ados egon. Ez da gutxi besteen hausnarketa eragiteko trebezia izate hutsa.

Aitor dezadan nire hausnarketa sarri eragin dutela Setienek esandakoek. Eta gehienetan nire ñabardurak ere jarri be-

har izan ditudala haren testuen ondoan. Ondoko lerroetan *Un obispo vasco ante ETA*, por José María Setién, 2007 liburutik aukeratutako zati batzuk ageri dira nire ñabardurak erantsiz.

1. “En contraposición a esta apertura personalista a la trascendencia (...) que tiene la visión cristiana de la existencia (...) la base teórico-práctica en la que se pretende construir el proyecto-político-cultural de ETA se sitúa en un colectivo definido como pueblo. Un colectivo de valor superior al de la persona, al que ésta habría de sacrificarse”.

Ohar hau ETAtik haratago doala iruditzen zait. Ezkerrari oro har, eta ezker abertzaleari gauza bera leporatzen zaio-eta. Norbanako konkretua sakrifikatzen duela kolektiboaren alde. Puntu honetan zama subjektiboa handia izan daiteke, eta ñabardura asko beharko luke esaten dugunak.

“Herria” diogunean gauza imaginario hutsa da, hala hezur eta haragizko norbanako adierazteko era bat? Ikurrina defendatzen dugu hala ikurrinak sinbolizatzen duen giza banakoen eskubidea?

Arrisku hori egon daitekeela uka ezina da. Baina ez da ezkerak bakarrik duen arriskua, elizak ere bai eta beste mila erakundek. Zenbat eta zenbat pertsona sakrifikatu ditu historian zehar elizak berak? Inkisizioak sutara eramaten zituen haien transzendentzia non zegoen? Nork ez du sarri irakurri kuartel batean aurrean pasatu denean “Todo por la Patria?” Ze gauza tristeago Ipar Euskal Herrira joan eta beren borondatearen kontra Argeliara hiltzera eraman zituzten euskaldun haien omenez han eta hemen ikusten diren monumentuak? Baina beti “Morts pour la Patrie”.

Ez dut uste norbanakoak jaten dituen Moloch kolekti-  
boak gure artean auzoko herrietan baino indar handiagoa duenik. Arrisku hori denon gainean dago, eta egungo gizartea da horren lekukorik onena: gutxiengo baten mesedetan ez al dira gerran milaka pertsona heriotzara eramaten? Gaurko gizartean

gutxiengo baten onurak ez al du gizadiaren gehiengoa gosera, oinazera eta miseriara kondenatzen?

Espainiar sentitzen diren unibertsitateko irakasle sasi-intelektual batzuek burugabekeria asko esan dute “imaginario vasco”, “cuestión identitaria”, “entelequia” eta gisako hitzak erabiliz. Zenbat aldiz entzun diegu “el euskara no tiene derechos, porque los derechos son de las personas?”.

Irakur dezatela Joxe Azurmendiren “Espainiaren arima” eta gutxienez jakingo dute gure hitza beti neurtua izan ez bada ere, haiena ez dela neurtuagoa izan. Sabino Aranak esandako gauza asko kritikatu dituztenean, ez dute esan Sabinok, Espainiari buruz espainiar pentsalariak esaten zutena Euskal Herriaz errepikatu besterik ez zuela egin.

Eta gainera, aipatzen den transzendentzia hori gutxienez ere eztabaidagai izango litzateke kontzeptu bezala. Ez dugu arrazoi berezirik kristauen transzendentzia horrekin bat etortzeko. Horrek zer esan nahi du, nihilistak garela? Gure etika oinarrizko zimentarririk gabe geratzen garela? Gure jarrera gutxienez etorkizuneko belaunaldi guztien aurrean erantzukizun bat onartzea bada, epe laburreko premiei dena sakrifikatu ordeztu haientzat ere mundu bizigarri bat uztea, kontzientzia ekologiko bat lantzea, ez al da transzendentzia izena mereziko lukeen kontzeptua?

2. “De ahí la conclusión, sostenida por ETA, de que quienes no estuviesen con ellos en la acción revolucionaria, deberían ser considerados como enemigos de la anunciada y prometida liberación que pretendían alcanzar” (114 or).

Setien jaunaren hitz hauek analisi zehatzak baino gehiago, bere konklusio bat direla iruditzen zait. Baina hala diren neurrian, besteok balekotzat ematera behartuta ez gaudenak. Bixiak erabiltzen dituen hitzak: “...la anunciada y prometida liberación...”. Nire iritzian halako ironia gordin bat ageri da hitz horietan. Baina ez luke ahaztu behar hitz horien jatorria eliza-



ren lengoiaian dagoela eta haren mezuaren muina ere bilakatu direla... Herritar zapaldu asko dago, egon ere, zapaltzailearen alde daudenak, hura defenditzen dutenak eta iraultzari beldur diotenak. Horrelakoxea izan da gizakiaren bidaia luzea. Baina nire ustez, ETAREN analisi politikoetan zapaltzailearen analisia ageri da, ez dut uste zapaldutakoa etsai bezala tratatu duela esateko behar beste argudio dagoenik. ETAK, eta ados egon edo ez egon, argi adierazten zuen nortzuk zeuden bere mehatxuak jota: sistemaren barruan egoera hura mantentzeko egiteko berezia zutenak. Horrekin ez dut ontzat ematen ETAREN mehatxua; bakarrik adierazi, ez natorrela bat iraultzaren alde ez zegoen guztia, etsaitzat hartzen zuela esatean.

3. “El intento de ETA de hacer suyo ese problema —el problema político— apropiándose, en exclusiva, del modo de entenderlo y de interpretarlo, con la pretensión también de tener la clave de las auténticas vías de solución, le llevaría a sacar una inaceptable conclusión. Solamente ella estaría autorizada para ondear la bandera de la liberación del Pueblo Vasco” (116 or).

ETAREN historiak argi uzten du haren oinarri teorikoetatik hasi eta haren borroka armaturaino, jeltzaleen gaztedian hasten den prozesu bat dela. Joan den mendearen erdian, batez ere Francoren erregimena nazioartean onartua zela ikusi ondoren, hausnarketa bat egiten hasi ziren EGIN eta bide berriei ekitea erabaki zuen talde batek.

ETAK inoren mandaturik gabe bere gain hartu zuela herri honen gidaritza...? Ordura arte Alderdi jeltzaleak zuen egitekoa bere gain hartu besterik ez zuen egin.

Hasieran propaganda hutsa ziren ekintzetara mugatu zen erakundea. Beraz, ezin da esan Setienek esaten duen hori ñabardurarik gabe, hala denik. Egia da diktadura garai haietan nahiko sona izan zutela, erregimenak dena kontrolatzen zuela ematen zuen eta.

1961eko uztailaren 18an guardia zibilez beteta Donostia-  
ra zetorren tren bat atera nahi izan zuten bidetik eztanda egin-  
da. Inork ezin du pentsatu garai haietan gero ezagutu ditugun  
ekintza armatuen parekoa izateko asmoz egindakoa izan zenik.  
Ni oso gaztea nintzen, eta gerora irakurri ahal izan dudanez,  
trena bidetik atera baino gehiago ezin zuen egin ekintza hark.  
Gero ere, tren hori, garai haietan eta geroago ere, sarritan atera  
izan da bidetik eta gehiegiko kalterik gabe.

Baina gerora egia izan al da ETAk inoren mandaturik  
gabe Euskal Herria ordezkatu nahi izan duela? Mundu guz-  
tiak daki 1970. hamarraldian harreman handiak egon zirela  
Jeltzale, ETA eta beste erakunde politiko askoren artean. Hel-  
burua zen nola adostu herri honen etorkizun duin batera era-  
man lezakeen bidea. Zoritxarrez ez zen asko lortu, baina inork  
adina interes jarri zen gutxieneko batzuk adosteko.

Txibertatik altxatu zirenean, itxaropen gutxi geratzen zen.  
Jeltzaleek argi zeukaten eskumenak Madrilek banatuko zituela.  
Irakurri dudanez, ETAk eskaintza argia egin zuen: abertzaleen  
elkar lanaren truke, prest zegoen borroka armatua uzteko

Lehen urteetan pistolak autodefentsarako erabili omen zi-  
ren. Baina bi aldeetan pistolak baldin badaude, ezin da jakin  
zer gerta litekeen. Film batean egonez gero eta ez errealitate  
gordinean, oso sinbolikoa izango litzatekeen unea datorkit  
burura. Gipuzkoako errepide batean, Pardines guardia zibilak  
Txabi Etxebarrietari “alto!” eman dio, agian nori egiten dion  
jakin gabe. Bi gizon daude aurrez aurre, biak armatuta, biak  
trantzte gogorrean: zu hala ni. Eta guardia zibila hilik suerta-  
tzen da.

Handik 5 kilometrora Tolosako Benta Haundi ondoan  
tiroz josi zuen guardia zibilak Txabi Etxebarrieta. Hortik  
aurrera dinamika berri batean sartu zen, bai ETAREN borroka  
eta bai Estatuaren errepresioa ere. Eta denetarik egon da. Baina  
bideko urrats guztiak ez dira aurretik pentsatuta egoten. Oso  
gutxitan aipatzen den puntu batekin amaituko dut apartatu

hau: ETAn jende asko sartu da, baina ez lehen hautua bezala. Borroka armatuarekin zer ikusirik ez zuen herrigintzan sartu eta Estatuaren errepresioak edo jazarpenak bultzatuta, iheska joan behar izan zuen jendea sarritan.

4. “(La Iglesia) de hecho, quería condenar el uso de la violencia venga de donde venga, con una clara alusión a la injusta violencia del Estado (...) Pero tampoco esta expresión satisfacía a todos. A unos porque parecía manifestar la falta de voluntad de la Iglesia de enfrentarse directamente con el Estado y denunciar expresamente la violencia de las torturas, los malos tratos, y las extorsiones morales, de las comisarías de la Guardia civil y la policía. Sin olvidar la gravísima violencia de los grupos paramilitares tales como los GAL, cuya existencia fue denunciada explícitamente por la Iglesia y luego también reconocida por la justicia (112 or).

Bai alde bateko bai besteko indarkerien aurrean, Elizak izan duen jarrera ezberdinari buruz egindako kritikak puntu honetan biltzen dira. Setienek behin baino gehiagotan aipatu izan du bere idazkietan frankismoak elizari eman zizkion erraztasun eta tratatu berezi guztien ondorioa oso nabaria izan zela: hitzaren askatasuna galdu zuen. Ezin zuen Estatuaren terrorismoa aipatu, gehienez ere, Setienek berak esaten duen bezala “alusión”, zeharkako hizkera, erabiliz. Eta haratago joan gintezke: milaka lagun izan dira gure artean, ETAREN ekintzak ez salatzeagatik terroristatzat hartuak, partiduak legez kanpo utziak... Logika hori erabiliz gero, ez dakit Estatuan alderdi politiko bat ere libre egongo litzatekeen. Izan ere, non daude GALen salaketak, torturenak, atxilotuek jasan dituzten berme gabezienak...?

Ez diot eskatuko Donostiako kotxari emerituari korapilo hori berak bakarrik askatzeko, baina talde baten ekintza terroristatzat jotzeko arazorik ez badu, gutxienez hizkera deskonpentsatua dela gehitu dezakegu besteok. Asko gara herri hone-

tan ETaren ekintza baten berri jakinda, oso deseroso sentitzen ginenak, baina gero kondenen orkestran parte hartzen ez genuenak. Ez genuen hartu nahi. Azken garai hauetan, ETak, zorionez, armak uztea erabaki duenean, egindako kaltearen aitormena, damua eta zigorra betetzearen inguruan tinta asko isurtzen ari da. Baina, komunikabideetan alde handiz ETak egindako kaltean zentratzen dena gailentzen da. Ez dut uste bide horrek inora eramango gaituenik. Herri honetan jende asko da alde batetik eta bestetik erabilitako indarkeriak eta egindako kalteak irudi simetriko bat dutela uste duena.

Baina, sarritan bezala, Munila gotzainak, nora jakin gabe, jauzi egin eta hala esan du: “Ez da etikoa presoen eskubideen aldarrikapena egitea, haien gaitzespena egin ezean... Ez da aski egin duten kaltearen aitormena, baina damurik gabe”.

Munila jaunak, hitz hauek esaterakoan garai batean elizan egiten ziren aitortzak dauzka gogoan; aitortu, damutu eta penitentzia bete. Aitorlekuetako damua besterik eskatzen ez badu...

Erroman egon denak badaki zenbat ohorezko monumentu dauden han alemanen okupazioan haien kontrako atentatuak egin zituztenak gogoratzeko. Garbi dago indarkeriaren fenomenoak egoera korapilatsuak sortu dizkiola elizari. Baina doala erromatarrei “bersaglieri” haiek terroristak zirela esatera!

Frantzian, halaber, gauza bera gertatzen da: herri guztietan ageri dira mundu gerra garaian erresistentzian sartu eta alemanen aurkako atentatuak egin zituztenak. Haien artean zeuden euskaldunok estima handian ditugun Aita Laffitte eta Pierre Lartzabal.

Espanian maiatzaren 2a egun historikoa da eta Madrilen jai handia oraindik: Mostolesko alkateak bultzatuta, frantses okupatzaile pila bat labankadaz josi zituzten eta Independentziaren gerra abian jarri. Terroristak ote? Oilategian azeria sartzen den unetik, nekez deituko zaie terroristak oiloei. Nire ustez, ETaren indarkeria ezin da testuingurutik atera. Lehen

ere esan dugu: prozesu bat eman da haren ibilian eta emandako urratsak sarritan beste indarkeria batek baldintzatuta egon dira. Gure gizartean bada indarkeria estrukturala, bada Estatuaren indarkeria, legedia, epaitegia, indar armatu... Bada- kit ñabardura batzuk egiteko gaia dela, baina gor-har gure gizarteko indarkeria ezin zaio ETari bakarrik bota. Eta gutxiago indarra erabiltzea Estatuaren eskumena dela esanez, sarritan egiten den bezala. Hau gogoan hartu ezean, eta komunika- bideek ere beren lana egiten dutelako, azkenerako indarkeria praktikatzen duen bakarra ETA dela sinisten du jendeak. Eta hori ezin da esan gure begien aurreko errealitatea ezagututa.

Lerro horietan GALen aipamena egiten da “talde para- militar” bezala kalifikatuz. Onartzen da talde hori hor ibili zela hildakoak eraginez. Elizak kondenatu zuela eta gero epai- tegietan ere zigorra jaso zutela gezurra ez bada, ez da egia ere. GAL oraindik ez da ez ikertu eta ez zigortu. Kasu puntual bat edo epaitegietara iritsi eta espetxe zigorren bat jaso bada, gehiena ezkutuan geratu da. Non daude ikertuta, epaituta eta zigortuta talde paramilitar haiek bultzatu eta ordaindu zituz- ten politikoak? GAL zer zen eta non eta ze asmorekin sortu zuten oso ongi jakin beharko zuten une hartan Eusko Jaur- laritzan sozio ziren PSEko kontseilariak. Madrileko gobernu- aren Ordezkaria zen Gasteizen Jauregi jauna. Gogoan dut *El Correon* argitaratu zuela idazki bat GAL gaitzetsiz eta justiziari bere lana egiten utzi behar zitzaiola adieraziz. Baina hori ez al da gutxitxo Gobernuaren Ordezkari batentzat? Jakinik nor eta nor zebiltzan GALen atzean, ez al zuen zerbait gehiago egin behar? Eta puntu honetan ez luzatzeko, GALkideei emandako zigorrak, edo barkatu edo beste aitzakiaren batekin bete gabe geratu ziren ia denak.

Setienek sarritan ataka estutik pasatu behar izan duela gogoan hartuta ere, nire ustez nabaria da ETaren indarkeria salatzeke orduan hizkera sendoagoa erabili izan duela: “La existencia de ETA es perjudicial para el País Vasco. De ella hay

que decir que es un mal que debe desaparecer”. Edota horrenbeste aldiz aipatu dugun liburu horretan behin eta berriro Estatuaren gehiegikeriak “injustizia” diren bitartean, ETaren ekintzak “violencia terrorista” edo “amenaza terrorista” dira. Gutxienez ere, “terrorismo” hitz hori arretaz erabili beharko litzateke. Gaur egun presoen eskubideak aldarrikatzea “exaltación del terrorismo” da gure artean-eta.

Funtsean korapilo handia da ETak eta Estatuak garatu duten indarkeria bata bestetik bereiztea, eta lan zaila askatzea. Nekez etorriko gara, bien bitartean, objetibotasun gutxienera bat duen adostasunera. Historian bada une bat nahiko proposa izan litekeena bi indarkeria hauek kalifikatzeko: HIPER-COREko atentatua. Saltoki handi bat, jende arruntez beteta eta halako batean ETak bonba abisua. Hiru ordu lehenago egindakoa, teorian nahiko denbora saltokiko jendea handik ateratzeko. Baina poliziak ez du inolako neurririk hartzen txikizioa ekiditeko edo jendea salbu jartzeko. Dirudienez agindua oso goitik dator. Minutuak bata bestearen atzetik pasatuz doaz, minutu luzeak; eztandagailuaren erlojuak ere aurrera darrai eta soluzioa eskuetan daukatenez ezer ez egitea erabaki dute. Txikizioa ondo datorkio norbaiti. Halako batean sekulakoa gertatu da: infernu hartan batere errurik ez duen jende multzoak galtzen du bizia. Eta bizirik aterako direnak betirako markatuak geratuko dira.

ETak sekula egin behar ez zuen ekintza. Seguruenik ondorio haiek nahi ez zituen. Poliziaren jarrera oker kalkulatu zuena. Baina hura gerta ez zedin hartu beharreko neurriak hartu ez izana, nola kalifikatuko dugu? Ze adjektibo erabiliko dugu jende hura handik atera ez baina helburu politikoek bultzatuta heriotzara kondenatu zutenak kalifikatzeko?

Amaitzeko gauza bat argitzea komeniko litzateke. Setien jaunak arreta handiz erabiltzen ditu kontzeptuak eta batzuetan argi adierazi izan du egoten diren nahasmenduek ez dutela laguntzen korapiloak askatzen.

“Terrorismo” hitza horietako bat da, dudarik gabe. Nazioartean ez dira ados jartzen esan nahia zehazteko. Asmo politiko erabiltzen den hitza da, etsaiaren ekintzak gaitzesteko. Ez da faltako Euskal Herrian polizia indarren ekintza batzuk terroristatzat joko dituenik. Ez dakit ze arma arriskutsu dituela eta Iranera infernua eraman zuen EE.BB. etako presidentek erabakitzen du zeintzuk diren terroristak. Palestinarren ekintzak terroristak dira eta, aldiz, Israelek egiten dituen sarraskiak ekintza militarrik. Gutxi balio du gaur hitz hori erabiltzeak.

Badirudi Frantzisko izena daraman oraingo Aita Santuak estilo berezi bat duela. Baina, hasieran dago eta geroak hobeki erakutsiko digu zer aldatzen den. Orain arteko arrastoetan gehien azpimarratuko nukeena kapitalismoari buruz berriki esandakoa: “kapitalismoak hil egiten du”. Ez da horren adierazpen bortizik entzun gaur arte Aita Santuengandik. Gehieenez ere, kapitalismo mota baten gehiegikeriez mintzatzen ziren. Hori benetan ildo berri baten hasiera izango balitz, aldaketa zantzu bat bilakatuko litzateke. Ez dezagun ahaztu kapitalismoa historian zehar kristautasunarekin batera joan den ideologia bat izan dela.

ETB2n izan nintzen duela hilabete pare bat pentsioen inguruan “Ni más ni menos” programan parte hartzeko. Bertan, ekonomiaz bere iritzia emateko, Manfred Nolte, Deustuko ohorezko irakaslea, zegoen. Aspalditik irakurtzen ditut *El Correo*n idazten dituen lanak eta Bilborako bidaiari autoan elkarrekin itzuli ginen. Eta ekonomiaz horren aditua den pertsona batekin hitz egin ahal izatea suerte bat da. Une batean, hala galdetu nion: “Ekonomia zientzia bat izaki, nola uler daiteke horren teoria kontrajarriak egotea? Adibidez, irakurri berria dut *Hay otras alternativas* liburua, Viçens Navarro irakaslea eta beste bik idatzia. Ze iritzi duzu zuk liburu horretaz?”. “Bueno, a mí el profesor Navarro –erantzun zidan– me parece una persona generosa y digna de estima. Pero son unas teorías extremas, muy de izquierdas. Como profesor de la Univer-

sidad de Deusto no puedo aceptar esos planteamientos, rechazamos el marxismo”.

Kontu txiki hau hona ekartzeko arrazoia hau da: duela gutxi Bergoglio Aita Santuak kapitalismoaren kontra egindako oso salaketa bortitzaren harira, El Correon Manfred Nolten idazki bat zetorren. Eta Aita Santuari laudorio batzuk bota ondoren, halaxe zioen:

“Pocos niegan que, en los últimos doscientos años, la mano invisible de Adam Smith ha promovido la competencia, la división del trabajo, la innovación y con ellas el progreso y cotas más altas de bienestar para la humanidad (...) Para bien o para mal, los mercados –hau da, kapitalismoa– siguen siendo el mejor método de asignación de recursos conocido hasta la fecha”.

Gauza bat da merkatu librearen aldera lerratzea, baina gizadiaren ongizatea mailarik gorenera eramán duela beste ñabardurarik gabe esatea, gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Kapital metaketa bat beharrezkoa zen industri iraultza aurrera eramango bazen, eta gizarteko nukleo batek hartu zuen prozesuaren gidaritza. Baina nukleo horrek laster ezarri zuen langileen esplotazio sistema ere gogoan hartu beharko luke gure irakasleak. Oso dokumentatuta dago egun prozesu horretan botere ekonomikoaren bortizkeria norainokoa izan zen eta den. Merkatu librearen sistemak ongizatea ekarri baino gauza gehiago egin du: herri osoak zapaldu, milioika haur meatzetan lanera eramán, sekula ezagutu ez zen gaixotasun pila hedatu, milioika elbarri eragin, esklabotza modernoa ezarri 14 orduko lanorduekin, barrakoieta animalien pare bizi zen jendea... Kapitalismoak bere bilakaeran eta gero eta ekoizpen handiagoaren bila eta gastuen murrizte aldera, gizakia neurririk gabe zanpatu du sortu zen egunetik gaur arte. Noltek dioena gezurra dela esan gabe, horren egia da merkatuek ekarri dutela azkeneko berrehun urteotan munduan ezagutu den miseria-



rik handiena, ustiakuntzarik basatiena eta kontsumismorik kaltegarriena. Kapitalismoaren eskutik etorri den mundua ez da onura bakarrik izan. Seguru nago gure irakaslearen bulegoa liburuz beteta dagoela eta haien orri bakoitza aztertu duela. Baina seguru nago, halaber, sekula ez dela lantegi batera langileekin hitz egitera joan, haren hitzaldietara enpresariak eta gisakoak joango zirela.

Sistema horren interesak defenditze arren eman dira historian bi mundu gerra eta beste ehunka, tartean Espainiako Gurutzada eta 40 urteko diktadura. Milioika pertsona hil dira horietan zergatik hiltzen ziren jakin gabe. Eta irakasleak aipatzen duen ongizate hori oso gutxiengo txikiari heldu zaio, eta gehiengoa baztertuta geratuta da. Gizadiaren zatirik handiena mahai horretatik aparte geratu da.

Baina hona benetan harritu nauena: egun pairatzen dugun egoera ekonomikoa bere gordinenean dagoenean adierazpen hori egitea. Merkatu librearen sistema gaur egun izugarri sofistikatu da eta oso gutxiren interesa guztien eskubideen gainetik eta kontra ezarri da. Neoliberalismo hitzarekin eza gutzen dugun horrek ez du gaur egun inolako justifikaziorik, indar hutsez ezartzen zaigu eta miseria ekarri dio munduari. Indarraren legea ezartzen du, langabezia milioika lagun uzten ditu, lanerako eskubidea paperean bakarrik existitzen da, han ere gero eta gutxiago. Aspaldian aritu behar genuen beste sistema gizatiarrago bat abian jartzen, baina botere ekonomikoa prest dago "status"aren defentsan edozer egiteko.

Churchillen esaldi bat zekarren Noltek; gizon honi oso esaldi gogoangarriak zor zaizkio, eta oraingoa ere halakoxea da: "Kapitalismoak badirau, sistema ekonomikorik txarrenea delako da... gainerakoak salbu".

Sistema hau kristau kulturaren eskutik ibili dela beti esan dugu goraxeago. Elizak ez ditu langileen borrokak babestu; sistemak sortzen duen miseria arintze aldera zerbait egin badu, karitatezko ekintzak antolatzea izan da.

Bada herritarren artean Elizari egiten zaion salaketa: ha-  
ren aberastasunena. Aspalditik datorren gauza da eta gauzak  
kaleko solasera jaisten direnean, sarri egia eta ez egia naha-  
sita geratzen dira. Une honetan, ordea, ekonomia krisiak jota  
dirurik ez dagoela argudiatuz, amaierarik gabeko murrizketak  
jasaten ari garenean, hor egon daitekeen egiaren zatia oso min-  
garria gerta liteke jende askorentzat.

Datu ofizialak aintzat hartuta, EAEn bakarrik 2.500 mi-  
lioiren zerga iruzurra dago urtero. Gasteizko Gobernuaren  
urteko aurrekontuak 10.000 milioi ingurukoak direla gogoan  
hartuz gero, tamaina handiko iruzurra da.

Nik ez dut frogarik elizak iruzur fiskala egiten duela esa-  
teko, baina denok dakigu zerga sistema berezia duela, bai fran-  
kismoan eta bai gaur egun ere. 1979an Eskainiko Estatuak  
eta Vatikanokoak egindako hitzarmen ekonomikoan agiri dira  
elizari ematen zaion tratu berezi horren zehaztasunak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an adierazitako datu  
batzuen arabera, Elizak duen zerga sistema bereziak eragin hau  
izan azken urteotan herrialde hartako zerga bilketan:

*1. Onura eta exentzio fiskala:*

**2009:** 4.668.269 euro **2010:** 3.101.320 euro

**2011:** 3.803.440 euro

*2. Errenta aitorpenean Elizari 0 '7ren bidez esleitutakoa:*

**2007:** 4.595.372 euro **2008:** 5.316.177 euro

**2009:** 5.413.419 euro **2010:** 5.380.646 euro

Beraz, bi apartatu hauetan bakarrik Gipuzkoako elizari  
urtero 10 milioi euro inguru “barkatzen” zaizkio. Baina beste  
atal asko daude. Eta esamesak gaitzen aldera, agintariak egin  
ezean, elizak berak eman behar lituzke argitasunak.

Eskertzekoa da gauza hauek jakinaraztea. Bizkaia eta Ara-  
bako Aldundien eta Nafarroako Gobernuaren datuak ez dira

lortzen errazak. Bizkaira transposizio bat eginez gero, suposa liteke Gipuzkoako datuen bikoitzak izan litezkeela.

Ez nator beste handi maundi batzuek egiten duten iruzurrarekin konparatzera, ezta gutxiagorik ere. Baina gaur eguneko premiak ikusita, uste dut testigutza eskasa ematen duela puntu honetan.

Lehenbizi eta behin, gardentasun falta handia dago gaiari dagokionean. Inork ez daki, sarri apaiz eta erlijiosoek beraiek ere ez, nola dagoen arazoa. Eta gardentasun falta desordena-tik edo ezkutatu nahitik dator ia beti. Biak ere gauza txarrak diruaz ari garenean.

Egoera hau aspaldikoa da eta frankismoaren nazional-katolizismoak bere egitura propioa bazuen ere, orduko ohitura asko geratzen da oraindik. 50-60. hamarraldietan auzo asko sortu zen Bilbo eta inguruan eta Viviendas de Bizkaiak eraikitzen zituen etxaldeetako zenbait baxera Elizari propietatean ematen zitzaizkion bertako premiei erantzuteko: eliza, eskola, katekesia... Gerora premiak beste era batera bete zirenean, gune haiek sarritan elizaren eskuetan geratu ziren. Non dago hori guztia?

Egoera horren ikur nagusia Derioko garai bateko seminarioa da. 1950. hamarraldian dohaintzan emana, pare bat hamarralditan ehunka apaizgai egon zen bertan. Gero, ordea, apaizgaien aldia igaro zenean, urte batzuetan erdi hutsik egon ondoren, elizaren esku darrai: hotelak, jatetxeak, era ezberdinetako enpresak... Ez da txantxetako propietatea: 52.000 karratu ditu, beste era batera esanda, 80 metro karratuko 650 etxebizitza dira. Une hauetan gizarteak dituen premiak aintzat hartuta, ez ote lirateke ondasun hauek beste era batera kudeatu behar?

Batek baino gehiagok esango du arazoa ez dela Eusko Jaurlaritzarena, Estatuak eta Vatikanok egindako hitzarmena dagoela hori, baina herritarrontzat hori argudio petrala da. Eta isilik gordetzea, iruzur bat. Elizari ematen zaion tratu berezi

hau justifikatze aldera sarritan gogoratzen da elizak gizarteari egiten dion ekarpena, karitatezko ekintza baliotsuak, erakunde horrek “sin ánimo de lucro” egiten dituen hainbat zerbitzu...

Hori ukatu gabe, arrazoi oso itxurosoak baina mami gutxikoak dira. 800-900 euroren truke lan egiten duten gizon-emakumeek, ze “ánimo de lucro” daukate? Eta halere zergak isil-isilik ordaindu behar izaten dituzte.

Gizarte zerbitzu eskasak, langabezia, diru sarrerarik gabeko familiak, jubilatuen %7rentzat 700 euroz azpiko diru sarre-rak, milaka alargun 600 eurotara iritsi ezinik.. Ez dut ikusten gauza zuzena denik elizari ematen zaion tratu hori. Bakoitzak irabazien arabera parte bat jar dezala gizarte gastuetarako.

Gerta liteke punturen batean nik esandakoa oso zehatza ez izatea: baina hori dioenari halaxe erantzungo nioke: gauza hauen inguruan dagoen lausotasunaren ondorio da hori.

Duela gutxi Bizkaiko Batzar Nagusietan hala eskatu zitzaion Aldundiari: egin zezala elizak gure lurraldean dituen ondasun inbiliarrien inbentario bat. Ez zen aurrera atera eskaria. Ez al da, ordea, hautetsi horien egitekoa herriari gauza horiek adieraztea?

Karitatea mirestekoa da, baina herritarrei zerga bidez eskatzen zaien ekarpena lehenagokoa da. Hortik aurrera hasiko litzateke karitatea. Elizak zenbait mandamendutan oso letra finez idazten duen bitartean, beste batzuetan zirriborroak egiten dituela uste du herritar askok.

## Eta intelektualak?

Alderdi jeltzalea eta elizaren eragina aipatu dugu hemen-  
go jendearen egitura ideologikoa markatzeko orduan. Urte  
askotan aski izan dira biak helburua lortzeko. Baina garaiak al-  
datu egin dira, jendeak iturri gehiagotatik edaten du eta elizak  
ere zenbait giza sektoretan indarra galdu duenez, osagarri bat  
asmatu behar izan da: intelektualak.

Izen hori merezi izateko *El Correoko* iritzi artikuluetan  
idatzi behar da, asteburuetan bereziki. Hor zerrenda luzea  
dator: teologo, filosofo, filologo, ekonomista, soziologo, le-  
gelari... Ia denak unibertsitateko irakasle eta katedradunak,  
UPV edo Deustukoak gehienak. Bada tartean irakasle ez baino  
ETAkide ohiren bat ere. Euskal Herrian azkeneko hamarral-  
dian gertatu den guztiaren aurrean abagune aparta izan dute  
ekarpen sakonak egin eta gizartearen hausnarketa serioa bul-  
tatzeko. Etika eta giza eskubideak dira, zuzenean ez bada ze-  
har lerroetan, gehien aipatzen den zioa. Bitxia, edozelan ere,  
intelektual horiek garatzen duten diskurtsoa zenbateraino  
bilakatzen den sarritan elkarren errepikapena. Intelektualak,  
nire ustez, bere hausnarketa propioaren fruitua eman behar  
lioke gizarteari. Hauek, ordea, sarritan esaldi berberak erabil-  
tzen dituzte, norbaiten diktaketa balitz bezala.

Euren silogismoaren oinarria hauxe da: Diktadura amaitu  
zenez, gizarte honek Konstituzio bat eman zion bere buruari  
eta Konstituzioa da gure eskubideen eta betebeharren iturria.

Lehenengo eta behin iruzur bat atzematen dut jarrera horretan. Konstituzioa baino askoz lehenago hor daude gure eskubideak: herri bat gara, haiek nahi ala ez nahi. Gure hizkuntza mantendu nahi dugu, gure erabakiak hemen hartu, beste herriek dituzten ahalmen berdinekin. Hori da espainiarren lehenengo okerra. Ikasteko aukerak izan dituzte beren historian: joan eta menderatu dituzten herriak Espainia zirela erabakitzen zuten. Handik bidaltzen zituzten arte. Hala gertatu zitzaizen Kuban, Uruguain, Argentinan, Venezuelan..

Herri baten sustraiak ez dira lege batekin edo inposaketa-rekin ezartzen. Guretzat Espainiako Konstituzioa ez da ezeren iturri, inposaketaren irudi baino. Hori gutxi ez eta ahaztu egin zaie hemen Konstituzio horren erreferenduma egin zenean, porrot hutsa izan zela. Gutxiengo batek eman zuen baiezkoa.

Azken 15-20 urteotan haiek guztien artean *El Correon* idatzitako lanak liburu batean bilduko balira, hauek izango lirateke joera nabarienak:

– ETA erakunde terrorista bat da eta ahal duen guztian kaltea egin beste helbururik ez du izan. Hori izan ez balitz, bake ederrean biziko ginatkeen denok.

– “Reconocer el daño causado significa confesar que al apretar el gatillo no estaban llevando a cabo una acción heroica en pro de la liberación del pueblo vasco sino asesinando a un inocente” (Reyes Mate, *El Correo*).

– Orain poliziak garaitu duen unean, ETArri geratzen zaion egiteko bakarra errenditu, armak herriko plazan entregatu, barkamena eskatu eta zigorra betetzea da.

– Euskaldunon mundu ikuskera arazo imaginario hutsa da, jatorrizko gaixotasun identitarioa, benetako errealitatetik oso urrun. Horrek bultzatuta, gupidarik gabeko garbiketa etnikoa jarri dute abian euskaldunek.

– Gure asmoak faxistak eta totalitarioak dira; guk bezala pentsatzen ez duena erasotu egiten dugu eta eztabaidaren or-

dez inposaketa erabiltzen dugu. Ondorioz, terrorepean bizi da hemengo jendea.

– Gaur eguneko mundua oso konplexua da eta ezin bestekoa da erabakiak azkar eta zuhurtziaz hartzea. Ondorioz, herritarrok prest egon behar dugu “goikoek” gurekin kontatu gabe eta are gehiago, gure iritziaren kontra, erabakiak har ditzaten. (Ruiz Soroa)

Eta amaiera gabe jarrai genezake intelektualen ekarpenak gogoratzen.

Azken denbora hauetan mundu guztiak hitz egiten du morala eta etikaz, denok gaude prest une bakoitzean etikak zer eskatzen duen aldarrikatzeko. Baina sarritan ahaztu egiten zaigu etika ez dela formula kimiko bat.

Intelektualak dira etikaren haritik tiraz amaigabeko ondorioak atera eta atera ari direnak: memoria historikoak hala-koa izan behar duela, barkamena eskatzea beharrezkoa dela, biktimen duintasunak hau eta hura eskatzen duela... Etika hitza erabiltzen da “ad usum et abusum” intelektualen artean. Baina lan hori egiteko liburuz betetako bunkerretan bizi dira, herritarren bizimodua, oinazea, garrasia... sentitzea ez da beharrezkoa. Jakin behar lukete, ordea, etika ez dela iruzurra egiteko erabili behar. Besteren etxean sartzeko indarra erabiltzea etikoa ez den bitartean, etxearen defentsan erabiltzea zilegi izan litekeela

Eta orain esandakoa norbaiti gehiegi iruditzen bazaio, gutxienez onartu beharko luke, ezin dela alde batekoek egin dituzten gehiegikeriengatik damua erakutsi eta barkamena eskatzea derrigorrezkoa dela esaten duten bitartean, beste aldekoen gehiegikeriak isilik gordetzea.

Gustuko izan edo ez izan, aurrean dauden frogak ikusita, zalantzatarik gabe aitortu beharko da kulparik gabeko jende askok sufritu eta bizia galdu ere galdu duela gatazka honetan. Eta era berean bi aldeetan egon dela armak eskuan hartu eta

“etsaia” hiltzera ausartu direnak. Eta lehenengo tiroa ze aldeta-  
tik atera zen ere badakigu.

Mundua bezain zaharra da norbera errugabea dela uste eta erantzukizun osoa bestearen gainera botatzea. Egun gutxi dira Ariel Saharon hil dela. Juduek laudorioz bete eta negarra dariela hura ehorzten zuten une berean, palestinarrek poz handiz ospatu zuten halako “munstro” baten heriotza. Zer dio etikak egoera honen aurrean? Nik dakidala inork ez du etikaren printzipiorik ekarri une honetan batzuen eta besteen jarraera ezberdinak epaitzeko. Bizitzak halakoxe trantzeak ekarri ohi dizkigu. Nola gaitzetsiko dugu palestinarren poza Shatila eta Sabrako kanpaleketan halako txikizioak egin zituen gizonaren heriotza ospatzeko? Baina halere europarrek terrorismotzat jotzen dituzte haien ekintzak eta israeldarrenak, aldiz, ekintza militarrik dira.

Guzti horrek gurea ulertzen lagundu beharko liguke. Bixia horrenbeste dakien jendeak ez jakitea ETAtik haratago zer gertatzen den. Ez jakitea nola egiten diren hemen legeak, nola epaitzen diren jendeak, nola indultatzen diren tortura eta hilketagatik kartzelara joan diren bakanak... nola alde bateko biktimak bakarrik ageri diren...

Intelektualak hemen eta mundu guztian zerbait zorrotz epaitu eta salatu behar badu, boteretsuen portaera da. Izan ere, indarra duenak arrisku handiagoa du bidegabekeria egiteko. Bera baita inork ez bezala txikizioak egiteko ahalmena eta hartarako “arrazoiak” dituena.

Intelektualak izen hori merezi izateko askea izan behar du eta hauek espainiarkeriaren “buque insignia” den *El Correoren* mertzenario dira, honetaz eta hartaz dihardutela ere, beti “status quo”ren zerbitzura.

Langileak grebara atera direnean ere mespretxuz hartu dute erabakia, zaharkitua den neurria dela argudiatuz (Pello Salaburu dixit). Baina eurek ezin dute bide berriak asmatzen lagundu, ez baitaukate langile kontzientziarik, eurak beste



“klase” batekoak baitira. Une honetan Hego Euskal Herriko 7 sindikatu eta 60 eragile sozialek Langileen Eskubide Sozialen Karta baten hausnarketan dihardute, Giza Eskubideen Karta baten antzera kontzientzien suspertzaile izan dadin. Seguru nago bizi diren planeta hartan autosufizientzia eta mespretxuaren irribarrea dariela intelektualei.

Urtero Gabon inguruan “presoen aldeko manifestazioa” egiteko bezperan, nork eta Kepa Aulestiak idatzi zuen *El Correo*: “Es cierto que hay miles de vascos que han jaleado a ETA, abrazado la causa de los presos y proclamado su inocencia sin arriesgarse nunca a ser detenidos y encarcelados. Encarnan la mala conciencia que el próximo sábado volverá a revestirse de solidaridad”.

Nola kalifika daiteke hori idatzi duena ETAkide izateagatik bi urte preso egon ondoren, 1977ko amnistiari eskerrak atera zela jakinda? Ala bera ETAkide izan zen bitartean gauza zilegia zen, baina beste erabaki bat hartu duen unetik, besteak terroristak dira?

*El Correo* eskuzabaltasunez uzten dizkien guneko testuak oso eskasak dira mamiz; horren une nahasi eta korapilatsuetan jendeak zer pentsatu ez dakienean, batez ere intelektualen zeregina izan behar luke argi pixka bat egin eta hausnarketa kolektibo bat bultzatzea. Baina hauek nahiago izan dute politika kriminalizatzaile bati bidea eman eta mertzenario huts izatea.

ETArri eskerrak 20 urte gaztetu eta oso ongi pasatu duela esan duenik ere bada. Savater jaunak Unibertsitateko irakasle soil izan ordez, gatazka horretan bere “egoa” bizirik mantendu, eta “erresistentziaren” kapitain bilakatu da. Baina aspaldiko urteetan txalotu diren bere lanetan ez da ageri filosofo batengandik espero litekeen ekarpenik. Ospe errazagoa lortu du bufoiarena eginez eta besteak irainduz.



# Pentsiodunen ajeak

## Gure aurrekoen erretiroa

Jakin, jakin ohi dugu zorte pixka batekin egunen batean erretiroa hartzeko ordua iritsiko zaigula. Baina, nik behintzat, sekula ez nuen pentsatu egun horretan. Eta orain ohartzen naiz bizitzaren legea dela.

Historian zehar adinekoen zaintza, lan egiteko sasoian zegoen jendearen ardura zen. Lan egiten zutenen fruitua, guztien artean banatzen zen. Txikia nintzen oraindik eta han ikusten nituen attuna eta amandrea, 70 urtetik gorakoak, egiten zutena hobby bezala eginez. Baserriko lana antolatzean, haiek libre geratzen ziren, gogoak eta indarrak ematen zuen neurrian besteen artean ibiliko ziren, beranduxeago jaiki, goizxeago oheratu, eta beteko ziren lehenengo premiak ume txikienak eta haienak.

Erretiroa zen. Orain egin dut errealitate haren irakurketa. Lehenago gazteak izanak ziren eta orain nire aitak eta amak haiekin egiten zutena, haiek beste batzuekin egina zuten. Hau da, lan egiteko gai denak, zahartzaroak harrapatuta dagoenaren zaintza hartuz ordainduko du hurrengo belaunaldiak berari eman behar dion zaintza.

Nik betidanik ezagutu nuen gure etxean izeba Maria. Elbarria zen eta ezin zuen zutik jarri. Han egoten zen jaiki ondoreko orduetan aulkian eserita. Halere ez geldi. Etxeko

guztien jantziak har konponduko zituen. Ez konpondu bakarrik, ehuna erosi eta berriak egin ere bai. Bestek utzitakoak berregokitu ere bai hamaika aldiz. Etxekoei eta auzoko beste mutiko askori ilea mozten ere aritzen zen. Eta horretatik aparte herriko norbaitek zauriren bat egiten bazuen –han sarritan gertatzen zena– gure etxera etorriko ziren eta izeba Mariak egingo zituen egin beharreko guztiak: zauria garbitu, desinfektatu, orain esparatrapua esaten zaio, baina “tapetana” jarri. Ikusita nago behiak ostiko eman eta aurpegian ebaki galanta egingdako mutilari puntuak ematen. Haren gelak erizaindegia ematen zuen batzuetan.

Gero koskortzen joan nintzenez jakin nuen: 16 urte zituen garaian Tolosara joan zen haur bikiak izan zituen etxe batera neskame, eta egun batez haur biak beso banatan hartuta, eskailerak jaisten ari zela, erori eta min hartu zuen. Baina medikutara orduan oso egoera larrietan bakarrik joaten ziren, batez ere neskameak; hala utzi eta gerora ibiltzeko arazoak izaten hasi zen: sorbaldan, gerrian... Eta urte batzuk pasata, gero eta mugatuagoa, egun batean bere burua zutik egoteko gauza ez zela ikusi zuen arte: dirudienez orno bat zeukan hautsita.

Gogorra da gazterik zure burua hala ikusi eta bizitza gutxitirako besteren laguntzaren premian aurkitzea. Ez zuen sekula indemnaziorik jaso, ez zuen erretirorik kobratu... Eskerrak beste dohain batzuk bazituela eta haren premia bazela gure etxean... Baina zenbat lagun bizi izan dira baserrietan adinagatik edo beste ezinen batengatik besteren laguntzaren beharreen! Orain badakit legeetan aldaketak egon direla, baina gure gurasoen testamentuan ageri da senideren bat bakarrik aurkitzen bada, eta hala nahiz gero, hura baserrian jasotzeko agindua.

Gu dagoeneko kaletarrak gara. Baina azpian filosofia bera dago. Gizartean asko dira pentsiodunak zama bat direla uste dutenak. Ez dira ohartzen zama badira ere, euren lanari eskerak bizi izan zirela aurreko belaunaldiko jubilatua.

Etxean ezagutu nuen nik zaharren zaintza: aittunak eta amandreak irabazirik izan ez arren besteok bezalaxeko esku-bideaz eta inolako lotsarik gabe, jan eta edaten eta behar zutena hartzen zuten. Zaharrak zaintzea odola edo erlijioaren eskaria baino gehiago da gizartean sortu den kultura: premiei erantzuna eman beharra.

## Gure pentsio sistema

Orain gauzak asko aldatu dira. Baserriko ekoizpen sistema iragana da eta zaharren premiak betetzeko beste eredu bat dugu. Baina eredu horrek ez du aurrera egiten, zirrikitu asko uzten ditu. Duela urte batzuk, Txurdinagan, ni bizi naizen auzoan, arazo bat sortu zen telefoniako antenekin: gero eta gehiago zabaldu da tresneria hori inolako kontrolik gabe hedatzen ari dela, zientifiko batzuek arreta eskatzen dutela, Europako erakundeek ere zuhurtzia eskatu dutela... Giro horretan Artxandan dagoen telefoniako tresneria erraldoi baten argazkiak kaleratu ziren: 10-15 metrora ume txikientzat antolatutako jolastoki bat eta zaharrek ariketa fisikoak egiteko egurrezko tramankulu batzuk agiri ziren. Udalak ez zuen eskandalurik nahi eta egun batetik bestera umeentzako jolastokia belardi bihurtu zen, baina... zaharren guneak berdin jarraitzen du oraindik. Irakurketa subliminala egin nahi bada, zaharren osasuna Udalari gutxi axola. Metafora bat izan liteke.

Joan den mendeko 60.hamarkadan Bilbora heldu nintzeanean ezagutu nuen lehen aldiz zaharren kataklismoa: etxean zaharrek jasotzen zuten zaintzaren katea hautsi egin zen. Leon, Salamanca, Extremadura, Andaluziatik milaka etorkin bildu ziren hona lan bila: haien herrietan ez zegoen bizibiderik eta itxaropen batek ekarri zituen. Baina, hasieran guraso zaharrak han utzita etortzen ziren. Gero hemen lan bat eta Zurbaran, Santutxu, Errekalde, Otxarkoagan... 70 metro karratuko etxe-

bizitza bat erosteko gai zirenean ekartzen zituzten herriko barkadadean utzitako guraso zaharrak. Oraindik buruan ongi gordeta dauzkat irudi haiek: gona luze eta buruko painelu beltzez jantzitako amonatxoak; txamarra beltz eta panazko praka gastatuz eta buruan txapela txiki bat zuten aitonatxoak... Zurbarango kale ertz haietan eguna nola pasatu ez zekitela. Izan ere, orduan ez zen aiton-amonen premiarik bilobak zaintzeko. Ama etxeoandrea baitzen. Zenbat aldiz esaten ote zioten euren buruari gehiegiko zama zirela beren seme-alabentzat!

Pisu txiki haietan ezin kabituz egoten ziren eta, sarritan, hala uste dut nik, kalera atera beharko zuten han enbarazu egiten ez egoteko. Behin baino gehiagotan galdetzen zuten ondoan pasaz gero: “Me dice la hora, por favor?”. Nire baitan pentsatzen nuen: “Ze ordu luzeak goizean goiz kalera jaitsi eta bazkalordura arte”.

Baina ez urrutiko lurraldeetatik zetozenak bakarrik. Egoera hori hurbiletik ezagutu dute Bizkaiko baserritar askok ere: seme-alabak Bilbo aldeko lantegietara etorri eta Basaurin, Galdakaon, Sestaon... pisutxo xume bat erosi eta gurasoak eurekin ekarri behar. Alabak Bilboko jatetxe batean neskame lana aurkitu eta Zurbaranbarrira bizitzera etorri zenean, bizitza osoa Gorbeian artzain izan ondoren han etorri zen aita igogailurik gabeko bosgarren solairu batera. Ze ordu eta egun luzeak Juanatxoren aitarenak. 75 urte pasan zituen, ibiltzeko abildadea ez garai batekoa. Bizi izan zen arte hantxe egon zen kalera jaitsi ezinda.

Belaunaldi batek zaintzen zuela aurrekoa esan dugu; gaur egun kultura hori “pentsioa” deitzen dugun sistema bilakatu da. Historian atzera eginda, orain 200 urte inguru, Europako apaiz bat izan zen errealitate horri gaur pentsioen sistemak duen itxura ematen hasi zena. Apaizek eliza zaintzeko gauza ziren bitartean, diru sarrera bat bazuten, baina hura amaitzean edo gaixoak jota ezinean geratzen zirenean, ondoan sarritan

ez zeukaten zainduko zuen inor. Eta halaxe hasi ziren elizako zereginetara dedikatzen zirenak irabaziaren zati txiki bat jar-tzen, apaiz zaharren premiak konpondu ahal izateko. Aktibo zeudenek beren soldataren %4-5 emanaz gero aski izango zela kalkulatu zuten. Izan ere, garai hartako zahartzaroa batez beste 6 urte ingurukoa izaten zen. Eta poliki-poliki egitura sendo bat sortu zen. Gaur Mendebaldeko herrialdeetan dagoen pen-sio sistemaren oinarriak hor daude.

Beraz, argi gera bedi gaur erretiroan gaudenak ez gara-la zama bat; aurrekoen zaintza gure gain hartuz, gaurko zaintza ordainduta daukan belaunaldia baizik. Eta gaur gure zaintza ordaintzen ari diren langileek, eskubide osoz exijituko dute egun batean haien premiei duintasunez erantzuteko behar dutena. Horrela da sinplea planteamendua. Ez dago intelek-tual ospetsua izan beharrik.

Goraxeago esan dut erretirora iritsi arte hartan pentsatu gabekoa naizela. Baina sindikatuta pasatu dut bizitza osoa. Ikastolak 70.hamarraldian indarra hartzen hasi zirenean, age-rian geratu zen hezkuntzako langileok bageneuzkala langile ginen aldetik, konpondu behar batzuk: konbenioak, kontra-tuak, egutegiak, oporrak, eskubide laboralak... Eta hala sortu zen une hartan STEE-EILAS. Gaur oraindik hor darraiena. Ez zen eskubide laboralak defendatzeko bakarrik izan. Balia-garria suertatu zen ze ikastola mota nahi genuen definitzeko orduan ere.

Nahasmentxo batzuk egon ziren hasieratik. Eskola publi-koetako langileek ere gauza askotan gure egoera bizi zuten: oraindik sindikatu bertikala deitzen zena bakarrik zen legez-koa eta azkeneko urte haietan CC.OO. ELA, UGTk lantegi handietan nolabaiteko eragina bazuten ere, irakaskuntza ba-samortua zen.

Bi joera nabari ziren han biltzen ginenen artean: batzuk abertzale bezala Euskal Herriko esparrura mugatuko zen tres-na bat nahi genuen. Beste batzuek, ordea, Espainian sortzen

ari zen kideko sindikatuarekin bat eginez gero, indartsuagoak izango ginela pentsatzen zuten. Hortik sortu zen lehen aipatu dugun izen luze bezain arraro hori: “Sindikato de los Trabajadores de Enseñanza de Euskadi- Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatu”.

Urte gutxiren buruan, ordea, ohartu ginen alde nabariak zeudela gure artean eta gehienak ordurako legeztatuta zeuden sindikatuetera bildu ginen. Nire kasuan LABera. Gerozkoan hortxe ibili izan naiz. Eta LABkide bezala batez ere, ikastoletan eskola herrikoi eta euskaldunaren erroak landu eta zaintzea zen denbora gehien eramaten zuena.

Urrats batek hurrengo nondik eman erakusten du. 62 urterekin erretiroa hartu eta nire denbora zertan eman pentsatzen nabilela, LABera egindako buelta batean ikusi nuen han dagoeneko aurre-jubilatu batzuk bazebiltzala. Izan ere, azken hamarraldietan konta ezin ala eman diren krisi horietako baikoitzean Firestonek, Telefonikak, Altos Hornos de Vizcayak (AHV)... pila bat langile kaleratu zituzten 52-53 urterekin aurrejubilatuta. Aurretik sinatutako baldintzak sarri bete gabe geratzen zirela ikusten zuten langile haiek eta antolatu egin ziren.

LABen, beraz, buru hauste horietan nahasita zebiltzan batzuk. Eta dagoeneko tarteka-marteka dirudienez burutik pasatu ere, pasatu zitzairen eskuartean zeukaten arazotik haratago gero eta beharrezkoagoa zela pentsiodunen taldea sortzea. Eta une hartan han fortunatu nintzen.

Urrats berria zen LABek emandakoa. Ordura arte erretiroa hartzean, jubilatutako sindikatuan baja ematen zuen. Baina bistan zegoen errealitate berri bat garatzen ari zela: jubilatutako batez beste 6 urte ez baino, 15 urte bizi gara; beraz asko dira erretiroa hartu ondoren 20 urtetik gora bizi izaten direnak.

Alemanian 19. mendearen bukaeran antolatu zen Europako lehen pentsio sistema modernoa eta laster hedatu zen beste herrialdeetara. Espainiar estatuan, berriz, 1919an anto-



latu zen lehen pentsio sistema, baina ez langile guztientzat, industria handietan lan egiten zutenentzat baizik. Nekazari, lantegi txiki, arrantzale, etxegintza eta beste lan askotako langileek mutualidade gisako aseguru bat zeukaten.

Gure etxean, aittuna 82 urterekin hil zen 1955ean, eta ez zuen inolako erretirorik kobratu. Handik urte batzuetara Nafarroako Diputazioak emanda, amandreak 400 pezetako diru laguntza bat jasotzen zuen, baina benefizentzia modura.

Gero Nekazal Asegurua antolatu zen eta 65 urte aspaldi eginak zituenean hasi zen aita zerbait jasotzen.

Mediku zerbitzuetarako, ebakuntzetarako... Unión Previsora geneukan eta hartaz baliatzen ginen. Baina botikak oso osorik ordaindu behar izaten ziren.

1977an hasi zen orain ezagutzen dugun pentsio sistema: nekazari, arrantzale, erlijioso eta beste jende askoren mutualitateak Gizarte Segurantzari integratu ziren.

Ez gara zehaztasunetan sartuko, baina Aseguru-etxe eta Bankuak ez ziren pozik gelditu Gizarte Segurantzari Publikoarenekin. Aseguru pribatuak diru sarrera handiak ziren, izan ere, haienentzat. Diru asko mugitzen zen alor horretan eta haiek ere parte bat nahi zuten.

Tortillari buelta eman asmoz, 1984 inguruan BBVk ikerketa bat atera zuen plazara, beldurra eragin asmoz, danbor hotsa handiarekin: gure pentsio sistemak ezin zuen luzaro iraun. Gero eta haur gutxiago jaiotzen zen une hartan eta etorkizunean langile gutxiegi egongo zen Gizarte Segurantzari mantentzeko.

2007an, berriz, Aurrezki Kutxek egindako informe batek kezka bete zuen jendea. Baina beste argudio bat erabiliz: bizi itxaropena gorantz zihoan heinean, gero eta jubilatutako gehiago izango zen mantendu beharrekoa, pentsiodun bakoitzeko gero eta langile ratio baxuagoa zegoen lanean eta urte gutxirekin buroian krack egongo zuen sistemak. Zein zen irtenbidea?

- murriztu beharra dago pentsio publikoetan gastatzen den diru kopurua
- luzatu jubilatzeako adina
- baldintza gogorragoak jarri pentsioa kobratu ahal izateko
- pentsio publikoaren osagarri pribatuak egiten hasi.

Azken krisi ekonomikoa dela uste du jende askok guztia-  
ren errudun. Hori sartu digute buruan irrati, telebista eta pa-  
peretan errepikatu eta errepikatu. Krisia baino lehen zeuden  
tematuta pentsio pribatuen sistema sendo batekin banku eta  
aseguru-etxeak. Eurenak dira gizartea honela edo hala pentsa-  
tzera bultzatzen duten komunikabideak. Pentsioen pribatuak  
mugarik gabeko negozioa dira bankari eta finantzarientzat.

Eraso horien aurrean gure agintariak zerbeit egin beharko  
zuketean; egia da gizartea aldatzen ari dela, orain urte gehiago  
bizi garea. Sekula ezagutu ez den bizi itxaropenak erronka  
berri bat jarri digu aurrean. Egoera aztertu eta pentsio pu-  
blikoak nola egokitu eta bermatu gogoan hartzeko gauza da.  
Gobernuen zeregina da, baina gizarteak ere badu zeresana ez-  
tabaida horretan.

Badut lagun usurbildarra. Aita bere bizitza osoa Donostia-  
Bilbo lotzen dituen Norteko Ferrokarrilean mantenu lanetan  
aritua. Lanean 25 urte zeramatzala eta beste taldexka bati  
bezala, enpresak bazkari on batera eraman zituen inguruko  
herriko jatetxera eta amaieran omenduei erloju bana oparitu  
zitzaien. Joan zen ilunabarrean etxera eta bihotzean esker ona  
ezin kabituz, han erakutsi zien guztiei erlojua. Semeak hala es-  
an zion: “Hobe zenukeen erlojuaren orde 25 urteotan soldata  
hobea eman izan balizute”.

Aitaren atsekabea! Demagun semeak ez zuela unerik ego-  
kiena hautatu esan zuena esateko, baina arrazoia zuzena zen,  
dudarik gabe. Sarritan ikusi izan ditugu agintariak arrantza-  
leei, hauei, besteei omenalditxoak egiten. Ni sekula ez naiz  
eroso sentitu horrelakoetan. Ia beti omendu horiek taldea

osatzen dute, bizitzan oso lan gogorra egin dute eta erretiroa eskasarekin geratu dira. Agintarien omenaldiak gauza gutxi dira hainbeste gabezia estaltzeko.

Gaurko pentsiodunek, gure lan-bizitzak batez beste iraun dituen 37 urtetan orduko pentsioak posible egiteko irabaziarren parte bat hilero hantxe ordaindu dugu eta orain, lana utzi ondoren batez beste biziko garen 15 urteetan gure premiak betetzeko behar dugun pentsioaren eskubidea dugu. Guk ordainduta daukagu orain sartzen zaigun erretiro dirua.

2011 arte gure pentsioen sistemak superabita izaten zuen urterik urte eta funtsa kutxan 70.000 euro zeuden. Ez dakigu diru horren kudeaketa nola egin den, pentsiodunoi ez zaigu utzi dirutza horien gorabeherak hurbiletik jarraitzen. Eta gaur partidu politikoen ustelkeria ze tamainatakoa den argitara atera den neurrian, ez dut ongi pentsatzeko arrazoirik ikusten.

Eta guzti hori nahiko ez eta, azken urteotako krisi ekonomikoan aurkitu dute putreek behar zuten ekosistema negozario behin betiko bultzada emateko: Aseguru etxeek, bankuek... oso ongi jarraitzen dute diruaren bidaia eta bazekiten pentsio publikoetan milaka milioi asko dabilela dantzan. Eta hor agertu dira, ehiztariak urrian uso-pasarako bezala, zer harapatuko zain. Horrek esplikatu luke ezerk baino hobeki, gaur pentsioak direla eta ez direla sortu den nahaste borratea

Eta aipatu dugun bezala, norako bidea hartu dute gure alderdi politikoez? Interes finantzarien bidetik pentsio pribatuak bultzatzen eta egungo pentsioak murrizten. Eusko Jaurlaritzak bere EPSVak jarri zituen martxan eta onura fiskalen iruzurrarekin herritarrak sarekada batean sartu ditu. Lantegi handietan ere antzeko bidea ireki da: soldataren zati bat eta nagusien ekarpena gehituz, etorkizuneko pentsioen eskastasuna konpontzeko pentsio pribatua sortu dute. Berriro ere Eusko Jaurlaritza enpresa pribatua bultzatzen klienteen mesederako.

Duela pare bat urte hasi ginen Bizkaian Pentsionistak Martxan plataforma antolatzen, dagoen eta datorren egoera

eskasari aurre egin nahirik. Ateak zabalik daude eta lanerako tresna bat da. Kide dira Nafarroako pentsionistak Martxan, Gipuzkoako Duintasuna eta Arabako Pentsionistak Lanean. Helburu nagusia, iruzur erraldoi bati aurre egitea.

Izan ere, 2011n Zapatero izan zen lehenengo kolpea eman zuena. Aurrerantz:

- 15 urte ez baino, 25 urteko kotizazioa beharko da pentsio eskubidea izateko.

- azken 15 urteak ez baino, azken 25 urteak hartuko dira pentsioen kalkulua egiteko.

- pentsio osoa jasotzeko 35 urte ez baino, 37'5 kotizatu beharko dira.

- 67 urte betetzean hartuko da erretiroa.

Zapatero amultsuak, halere, dena ez zela bat-batean egin ez baino neurriak poliki-poliki ezarriko zirela esan zuen, 2027an prozesua amaitutzat eman arte. Neurri horiek jada abian daude 2013ko urtarrilaren lehenetik.

Orain Raxoi dago Madrilen agintari. PPkoak beti izan dira erasokorragoak eta zirt-zart hartzen dituzte erabakiak. Ez dugu ahaztu behar nortzuen seme-alabak diren. Horregatik 2027a baino askoz lehenago burutu nahi dituzte Zapateroren neurriak. Eta gainera beste batzuk gehitu:

- Lehen langabezian geratzen zenak bi urteko paroa jaso ondoren, 52 urterekin subsidio bat kobratzeko eskubidea bazuen, orain 55 urte arte itxaron beharko du diru laguntza horrek.

- Lehen pentsioak urtero altxatzen ziren KPIren proportzioan. Orduan ere, beti galtzen zen zerbait baina demagun teorian balekoa zela. Orain KPI harmonizatua deitzen dena –ze abildadea duten erabaki txarrei izen polita jartzeko!– erabiliko da. Ondorioz, eurek erabakiko dute zenbat igo urtero pentsioak. Gauza bat bermatzen digute: ez dituztela jaitsiko, gutxienez 0,25 euro igoko dituztela. Guk erosi behar duguna %2 edo %3 igotzen bada, azkeneko urte hauetan behin eta berriro ikusi dugun bezala, urteko %2 inguru gal dezakegu. Kontuak

ateratzen hasita, pentsiodun batek erretiroa hartzen duen unetik %30 inguruko galera izan dezake bere pentsio sarian. Egia esan, PP eta PSOEek helburu hori jarri dute neurriak hartzeko orduan. Eta EAJ eroso sentitzen da panorama horrekin. Hiru alderdien politika ekonomikoa eta soziala ehun berekoak dira. Ikusi besterik ez dago behar den unean nola ematen dioten elkarri babesa.

Eta erabakia ideologikoa edo politikoa ez dela argi gera dadin, "Adituen Txostena"ren azpian babestu dira. Hauek hartu dute gure gizarte aurreratueta hitza: errealitatea inolako kristalik gabe ikusten dute, adituek ez dute ez usain, ez kolore, ez zapora. Beste planeta batean bizi dira, lehen jainkoa bere zeruan bezala. Horien hitza sinistekoa da.

Azkeneko lerro hauetan ezkututzen dena oso etorkizun gordina da langilegoa, iraganean bezala, borrokari lotzen ez bazaio. Erretiroa hartzen duen egunean langile batek pentsio osoa nahi badu, 29 urterekin hasi beharko du lanean eta bitzitza osoa etengabe mantendu lana. Oraintxe bertan Hego E.Herrian adin horretako gazteen erdiak langabezian edo lanean hasi gabe daude. Lan bat eskaintzen bazaio ere, kontrako laburrak izango dira, eta ez beti egun osoak. Hori da langabezia tasa jaisteko erabiliko duten bidea.

Konfebasqueko buru eta idazkariak askatasun osoa nahi dute horrelako baldintzak eta oraindik malguagoak ere ezartzeko.

Eta urte kopuru polit batean lana egiteko suertea izanda ere, zenbat lanetan posible izango 67 urtera arte ekinean jarraitzea? Oraintxe bertan asko dira, lanean jarraitzeko kementik ez eta 62-63 urterekin aurrejubilazio bat hartzen dutenak. Ez du ez buru eta ez belarri: 29 urteko gazteak langabe utzi eta 67 urte bete arte behartzea. Jende hauekin beti pentsatu behar du trikimailuren bat egongo dela gordeta: nire ustez, 67urteko marra hori jarri badute, lehenago milaka asko aurrejubilazioa hartu premian egongo direla pentsatuta egin dute.

Horrela erretiroa aurreratzen den urte bakoitzeko %8 inguru jaitsiko dute pentsioa.

Duela 3-4 urte Ipar Hegoa fundazioak ikerketa soziologiko sakona egin zuen Euskal Herrirako. Orduetik Pentsionistak Martxaneko kideontzat lan tresna ona suertatu zaigu. Lehen erretiroa ez zen oso aldi luzea izaten, baina gaur egun emakumezkoen batez besteko bizi itxaropena E.Herrian 84 urtekoa da eta gizona 80koa. Hego E.Herrian 650.000 pentsiodun gara. Haietarik 209.000 pobrezian bizi dira, 715 euroren azpitiko diru sarrerekin. Beste 95.000k pobrezia larria jasaten dute, hilean 431 eurotik gora pasa gabe.

Hor gordeta beste datu bat dago: emakumeak, batez beste, azkeneko lau urteetan alargun izango dira eta gehienak, gainera, ordura arte senarrak zuen pentsioaren erdiarekin. Hori pentsio sistemarentzat aurrezki ona da baina alargunarentzat miseria galanta. Pentsiodun guztien batez besteko diru sarrera 876 eurotan dago. Kontuak atera alargun askori zer geratzen zaion. Eta ez dira miserian biziko diren bakarrak. Etxez etxe garbiketari ibili direnak ez daude askoz hobeki.

Honi guztiari gaurko murrizketek dakarten galera gehitu behar zaio. Erosi behar dugunaren prezioa beti goraka eta gure erretiroa 0,25 bakarrik.

Are gehiago: lehen doan genuen botika eta osasun zerbitzuen zati bat ordaintzea dagokigu. Hori dela eta Lege Biltzarrean 43.000 sinadura uztera joan ginenean Kontsumo eta Osasun Batzordearekin bilera izan genuen. Hau guztia adierazi zitzaie eta gure eskari xumea: berrordainketari muzin egin ziezaiola Eusko Jaurlaritzak.

Parlamentariak euren ekarpena egiteko txandan, PSEko ordezkariak hala esan zuen: "Legea betetzeko dago. Eta Lege Biltzar honek ezin du eskari hori aintzat hartu".

Amaitu ondoren, pasilloan une batean elkartuta egon ginenean, hala esan nion:

– Ni ere ados nago legeak betetzeko daudela. Baina horretarako indar moral bat behar dute. Legearen indarra ez datza lege izatean, hiritarren mesedetan emana izatean baizik. Eta, zoritzarrez, gaur egun lege asko interes pribatuek bultzatuta egiten direla ez dago dudarik.

Horren duda jende gutxik egiten du. Gobernuek merkatuen interesak babestu behar dituzte, bai legea egiterakoan eta bai hura betearaztekoan. Europako Batasunean ere halaxe gertatzen da: erakunde erraldoi hori merkatuen premiei erantzuteko sortu da eta ez ongizate gizarte bat Europa osora hedatzeko.

Egungo egoera, eta batez ere etorkizuneko horren iluna bada, ez da izurrite batek uztarik gabe utzi gaituelako. Aitzitik, aseguru eta bankariek euren irabaziak gizendu nahi dituztelako gertatzen da hau gutzia. Mundua borobila zela sinistea jendeari mendeak kosta izan zitzaizkion. Baziren sinismen zaharretan erosoago zeudenak. Orain berdin gertatzen da: jendeak ez du sinistu nahi nahiko ondasun badagoela gaurko pentsioak eta beste ongizateak bermatzeko. Baina nahiago dute krisiaren ondorio dela sinistu, eta krisia gaingitu bezalaxe, murrizketa hauek ere amaituko direla.

Duela gutxi Pentsionistak Martxanekoek sinadura bilketa bat egin genuen medikamenduen berrordainketaren kontra. Hainbat lekutan eta hainbat egunez jarri genituen mahaiak jendeari aukera hori emateko. Egun batez, han geunden Txurdinagako anbulatorioaren ondoan eta nire portale berean bizi den bat ikusi nuen. Sinadura eskatu nion. Hala esan zidan: “Todo lo contrario. Ahora lo que hay que hacer es salvar el sistema de atención sanitaria y todos tenemos que hacer un pequeño sacrificio”.

Bera Institutuko irakaslea izan da, orain jubilatua, eta emazteak anbulatorio hartan bertan lan egiten du. Pena hala lotsa?

Ez dezagun ahaztu: Zapaterok hasi zuen aspalditik putreek eskatzen zituzten neurrien zerrenda, UGT eta CCOOen laguntzarekin. Gero Raxoik jarraitu du eta EAJ, CIU eta PSOEek babesa eman diote. Prisaka dabilta, krisia amaitu baino lehen lan zikina amaituta utzi nahi dute.

“Adituek” eta Gobernuak gauza batean dute arrazoi: egun jendearen bizi itxaropena asko luzatu dela eta pentsioen gastua, ondorioz, handia dela. Baina hortik aurrera okerreko bidea hartu dute. Pentsioak murriztea ez da bidea, izan ere oraintxe bertan ez dira batere oparoak. Gorago eman ditugu datuak hor daude adierazgarri. Une honetan 6 milioi langabe daude eta horiek pentsioen kutxarako egin behar zituzten ekarpenak hutsean geratu dira. Hori gutxi ez eta gaur eguneko langile askoren soldatak oso apalak dira, aitzaki-maitzaki hiru eta lau urtez diraute soldata berarekin edo baxuagoekin. Zentzat langile geratu da paga estrarik gabe urteotan? Berriki abian jarri duten Lan Erreformak ere asko kamustu ditu langileen diruak: duela urte batzuk lan hitzarmena sinatzen zenean, ohizkoena urterik urte KPIa berdindu edo hobetzen bazen, orain ia beti azpitik geratzen da. Horrek guztiak asko hustu du Pentsioen Berme Funtsa.

Halere 2011 arte pentsioetarako diru sarreretan ez da defizitarik egon. 70.000 milioiko kopurua zegoen, gainera, Pentsioen Berme Funtsean. Azkeneko urteotan izan du beherakada bat eta prentsaren monopolioak ongi aprobetxatu du abagunea, mezua bidaltzeko: “Ez al genizuen esaten? Horra pentsioak krak egiteko zorian”.

Uzta ez duela ekaitzak hondatu, esan dugu. Dirua egon badagoela. Eta zahartzaro luzeagoak gauzak beste era batera egitera bultzatu behar gaituela. Segur aski orain arteko ereduak ez du balio. Lanean dagoen jendearen ekarpena agian ez da aski horrenbeste jubilatutako mantentzeko.

Barne Produktu Gordinari begiratu behar diogu. Europako txikienetakoa da Espainiako Estatuan pentsioetarako



jartzen den diru zatia. Alemanian, %13,5 jartzen da eta Italian, adibidez, %16. Bien bitartean, Espainian %10. Araututa daukate herrialde gehienetan langileen ekarpen arruntek betetzen ez dutena, Estatuko Aurrekontu Orokorren bitartez osatzea.

Bide bat da. Azken batean nire aitona eta amonaren zaintza familia osoaren zeregina zen bezala. Lehen aipatu dugu nolako erraztasunarekin ihes egiten duten diru sarrera handiagoak dituztenak dagokiena ordaindu gabe. Urtero 2.500 milioik ihes egiten dute Hego E. Herrian datu ofizialen arabera.

Krisiak beste gauza askoren artean agerian utzi du Euskal Herriko alderdi nagusia zenbateraino dagoen zango trabatuta beste negozio batzuetan. Urtez urte jende pobrea ugaritu eta pobretasuna larriagoa egin den garaian, garaipen bat bezala saldu digu aurrekontuak egiten diren unean plazaratu izan duen mezua: mantendu egin dugu gai sozialetarako diru kopurua. Baina nola mantendu? Ez al da ohartzen premiak biderkatu egin direla?

Liburu honen beste orri batean esan dugu EAJk Madriletik hartu zuen egitekoa kapitalari bideak erraztea izan zela. Baina euskaldunon aurrean ere erantzun beharko du. Idatzita geratuko da honen une larrietan, pentsiodunen bizitza duinaren kaltetan, aseguru eta bankuen negozioa hobetsi izana.

Duela 35 urte Gernikan sinatutako Estatutua betetzetik oso urruti dago eta, bera izan zen herri honen aurrean bide hartara eraman gintuena. Nola ez du planto egiten, adibidez, oraindik Madrilek Gizarte Segurantzaren eskumena pasatzen ez diola ikusita?

Pentsionistak Martxan Plataformakoek eta beste kideek plazaratu nahi dugun eskaria horixe da: gure zergak hemen ordaindu, gure pentsioak hemen jaso. Duela gutxi hala galdetu zioten PSEko buruzagietako bati:

—Cree usted que el PNV exigirá la transferencia de la Seguridad Social?

—Yo pienso que esa transferencia no entra entre las 39 principales preocupaciones del PNV.

Ez du ezer erantzun Alderdiak. Ez da seinale ona. Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen eskumena hemen egonda, nekez hartuko ziratekeen azken aldian Madrilén erabaki diren murrizketak.

Lagin bezala Bilboko egoera hartuko dugu: Euskal Herriko hiri nagusia, adineko eta baliabide murrizteko jende gehiena duena, gaurko gizartearen mugak ikusteko aproposena, nire ustez.

Bilbok 350.000 bizilagun ditu. Europako populaziorik zaharrena: laurdena inguru 65 urtetik gorakoa da. Ikasketa akademiakoari begira hiru laurden daude lehen ikasketak edo gutxiago dutenak. Beraz, garai bateko belaunaldia: gazterik lanean hasiak.

Gaurko familia eredia gogoan hartuta, bakardadean bizi dira asko: alargunak, ezkongabeak, bananduak. Familiarik izanda ere, harremanak ez dira estuak.

Orain arte botika eta osasun laguntzak doakoak izan eta gero, gastu berri bat sortu zaie hor, eta gutxienez ere kezka iturri bilakatzen zaie sarri. Defentsa ekonomiko gutxirekin ikusten dute euren burua edozein ustekaberen aurrean.

Etixerako sarbideak ez dira sarritan euren egoerara egokituak: eskailera gehiegi, igogailurik gabe. Adinak dakarren ezin nari hein handi batean ezin diogu erantzun osoa eman, baina gizarteak datorrenari begiratu eta ahal den duintasuneko bizimodua bermatzeko neurriak hartu behar ditu.

Joan den mendeko azken laurdenean aldaketa handiak eman ziren gure produkzio ehunean. Ordura arte ekonomia- ren oinarri izan zen burdin industria zaharkituta aurkitzen zen. Are gehiago, mundu mailan altzairuaren gain produkzioa nabaria zen.

Diru kopuru handiak mugitu ziren industriaren birmoldaketa prozesu horretan- ez ote litzateke egokiago esango in-

dustriaren txikizioa?-. Dirutza handia eta gardentasun gutxi elkarrekin lotzen direnean gauzak ez dira ongi egiten. Sekulan AHVan langile izan gabe, hango pentsionisten zerrendan kolatu zirenek esamesa nahikoa sortu zuten, baina UGT beza-lako sindikatuek ongi aprobetxatu zuten abagunea goikargu eta familiartekoei mesedeak egiteko.

Asko hitz egiten da gaurko erretiro murrizten inguruan, baina aurretik gauza asko gertatu da hura esplikatzeko baliagarri dena. Pentsioen funtsa gardentasun gutxirekin eta interesatuen partaidetzarik gabe kudeatu da betidanik, orain bezalaxe. Gaur pentsioen kutxan diru gehiago ez badago kudeaketa txar baten ondorio ere bada. Pentsiodunen erretiroa ordaintzeko pentsatu zen sistema, gero beste egoera berri asko konpontzeko erabili da baina diru iturri berriak sortu gabe. Hor dago, neurri handi batean gaurko estatusunen iturburua.

Duela urte pare bat Iñaki Azkunak, Bilboko alkateak, hala zioen “En estos años hemos podido dar vuelta al caos económico que se nos echó encima, con la pérdida de 125.000 puestos de trabajo. Hemos creado 87.000 nuevos”.

Bai Europatik etorri zen agindua. Siderurgia bazterrean utzi eta 3.sektorea indartu behar zen gure artean. Eta hala hasi ziren itsas adarraren inguruko borroka luzeak, Euskalduna ontzigintza buru zela eta atzetik AHV, Babcock Wilcox, Westinghouse General Electrica... 52 urtetik gorakoak aurre-jubilatu eta etxera bialdu zituzten. Haien erretiroari aurre egiteko Europako dirutzak, langileei zor zitzaizkien kalte-ordainak, eta Jubilatuen Kutxatik atera zituzten milaka milioiak hartuta funtsa bat egin zen.

Baina aurrejubilazio hori 30.000 langilerentzat bakarrik izan zen, esandako lantegietakoei.

Azpikontratan haientzat ari ziren beste 95.000 kale gorrian geratu ziren. Ahal zuenak beste lan baten bila eta zaharragoak zirenak 65 urte noiz beteko zain.

Ez dio gezurrik Bilboko alkateak baina ez du gogoan hartu zenbat egun txar, etsipen eta amorru jasan zuen jendeak. Galdu ziren lanpostuak eta gero sortu direnak oso ezberdinak dira. Hemengo aberastasuna industriak sortu zuen eta betirako joan da. Haren ordez, zerbitzuen hiria sortu dugu. Eremitan lan postuak sarritan izen hori ere ez dute merezi: ordukakoak, aldi batekoak, soldata kaxkarrekoak...

Horretarako diru inbertsio izugarriak egin dira: Guggenheim, Iberdrola dorrea, Abandoibarra, laster Zorrozaurreko irila... AHT, Supersur autobidea, eta beste lan erraldoiak. Metafora polita da gaur Bilbon ikus daitekeena: hemengo aberastasuna sortu zuen ibai bazterrak, lehen lantegiz eta milaka langilez beteak, gaur desagertu egin dira eta bitxia bada ere, izugarrizko distira ematen diote hiriari. Baina lanbide haren lekuan sortu diren lan postuak, buzo gutxi eta uniforme asko, eta 700 euro nekez irabazteko bidea, iraunkortasun laburrekoak eta oinarri eskasa haien gainean bizi proiektu bat eraikitzeko. Hori da gaurko Bilbo. Ze pentsio izango dute enplegatu horiek?

Hau da, gehiegizko xehetasunetan sartu gabe, gure ongizatearen gizartea. Ageri diren datuak ez dira nireak, paper ofizialestatik jasoak baizik. Eztabaidan jarri ezin den gauza da egoera horri aurre egiteko gidaritza gure erakunde publikoek bere gain hartu behar dutela. Hala eginda ere, nahikoa lan geratuko zaie senideei eguneroko joan etorrietan etxeko ezin-duei babes pertsonala ematen.

## **Beren burua zaintzeko gauza ez**

Baina pentsiodunen buruaren gainean dagoen arazoa ez da pentsioena bakarrik. Bizi itxaropena luzatzen doan heinean, arazo berriak sortzen zaizkigu. Bizitzaren lege hutsagatik, gure

indarrak xahutuz joan ohi dira, han eta hemen ezinak sortu: aldakak, besoak, gerria... Urteak pilatu heinean larriagotzen joango dira gainera. 84 urteko bizi itxaropena da gure artean emakumeentzat., 80 gizezkoentzat eta lehen ez bezala, egoera hori sortzen denean familiaren falta garai batean baino nabariagoa da orain. Adin horretan eguneroko joan etorrietarako mugatuta geratzen direnak asko dira: medikutara joan, erosketak egin... Besteren mende geratzen dira: mendekotasuna deitzen diogu.

Gure artean, batez ere emakumea oraindik kanpoko lan mundura joaten ez zenean, egoera hori etxekoen artean konpontzen zen. Zenbat lan isil eta sakrifikatu adineko hainbeste belaunaldi artatzen!

Orain egoera aldatu egin da. Emakumea etxetik kanpora ateratzen da eguneroko ogia irabaztera. Nork zaindu beren burua zaintzeko gauza ez direnak? Europan hemen baino urte askoz lehenago aurre egin behar izan zioten arazoari eta gure artean Europako gomendio baten harira, Madrileko Gobernuak 2006an lege bat onartu zuen: "Pertsona bakoitzaren autonomiaren sustapenerako eta mendekotasun egoeran daudenak artatzeko legea".

Legearen garapena hemen Aldundien esku geratu zen eta urrats batzuk eman ere, eman ziren. Garai hartan asko aipatzen zen Ongizatearen Gizartea, eta Mendekotasun legea izango zen Ongizate Gizartearen 4. oina, Hezkuntza sistema, Osasungintza eta Pentsioen sistemaren ondotik.

Zaintza hori, nekazal kulturaren nola edo hala konpontzeko egiturak bazituzten; gaur ordea, ezinezkoa bilakatu da milaka kasutan. Familia ereduak sarri ez dira gai etxekoek behar duten babes hori emateko: bakarrik daudelako, besteak ere ahuleziak jota daudelako, haien sostengua egin lezaketena lanera joan eta seme-alabekin nahiko lan dutelako... Mila arazo.

Gizarteari egoera horren aurrean laguntza publikoa antolatzea dagokio. Diru publikoa, izan ere, hiritargoaren premiak

konpontzeko dago. Baina gure egoera ekonomikoak jasan duen kolpearen ondorioz Hezkuntzak, Osasun Zerbitzuek, Pentsioek murrizketa handiak jasan badituzte, Mendekotasunari aurre egiteko prestatzen ari zen egitura neurri handi batean biderdian geratu da. Eta hori onartzea agintari politikoan gustukoa ez denez, hor dabilta dena ukatuz: ez dago murrizketarik, jendea artatuta dago... baina arlo horretan ari diren profesionalekin hitz egitea aski da gauzak bestela direla ikusteko.

Alde batetik, murrizketa deitu gabe baina benetako murrizketa, sistemak berak jartzen du. Pertsona bakoitzaren mendekotasuna norbaitek neurtu eta barematu behar du. Lan hori Osasun Zerbitzu Publikoak hartu beharko lukeela esan liteke. Baina ez, Bizkaiko Aldundiak egiteko hori “Médicos de Bizkaia” deitzen den enpresa pribatu baten esku utzi du, eta tartean idatzitako agindurik ez badago ere, barematzeko orduan eskuzabal ez izateko aholkua eman die lan hori egin behar dutenei.

Bestetik, Mendekotasun Legeak ezindutako jendeari behar zuen zerbitzu ematea aurreikusten zuen, baina gaur egun, horren orde, etxekoek artatua izateko diru kopuru bat ematen da, 180- 300 euroren artekoa. Eta gainera ez da gero inolako kontrolik jarri ezindu horiei ematen zaien artapena egokia den edo... ematen den edo egokia den jakiteko.

Zaharrentzako Egoitzak hor daude. Duela hamar urte inguru Egoitza Publikoak eta kudeaketa publikodunak han eta hemen zabaltzen hasi ziren. Gaur egun asko aldatu dira gauzak. Sare nahasi bat sortu da hor, ez dakigu ze irizpiderekin eramaten dena: Egoitza pribatuak, Egoitza Pribatu kontzertatuak, Egoitza Publikoak baina kudeaketa pribatua... Premia sozialak badaude baina itxaron zerrendak Publikoetan luzeak dira, Pribatuetan garestiegiak...

Duela hilabete batzuk sonatua izan zen Bilbon San Franzisko kaleko bere etxean bi hilabete hilik zeramatzan ema-

kumearen kasua. Nola gerta liteke horrelako gauza bat? Gizarte Zerbitzuek bazuten emakumearen berri, diru laguntza zuen, medikuak ere zerbait jakin beharko lukeela dirudi: errezetak, analisiak...

Oraingoan sistemak huts egin zuen. Eta berriro ere huts egingo du, gaur eguneko adineko jendea artatzeko benetako azpiegitura bat falta da-eta.

Estatistiken arabera une honetan batez beste pertsona helduen azkeneko hamar urteak nolako edo halako mendekotasunean bizi ditugu. Gaurko gizarteak garatu dituen egiturak ez dute balio inondik ere horri aurre egiteko.

Une honetan administrazioaren planteamendua honela da: Aldundiak aurrekontuetan halako diru kopuru zehatz bat jarriko du horretarako eta ahal ditugun kasuak artatuko ditugu. Dirua bukatzen denean...

Planteamendua beste era batera egin behar litzateke: mendekotasunak sortzen dituen arazoak barematu behar dira eta artatzeko behar den dirua nondik edo handik atera egin behar da. Bestela egoera horretan dauden gizon eta emakumeak duintasunik gabeko bizimodua eraman beharko dute.

Dirua behar da horretarako, esan dugu. Gizartearen arduraren dutenek konpondu gabe daukaten arazoa da hain zuzen: agintariak beraiek aitortzen duten gauza da gure artean iruzur fiskala izugarria dela eta iruzur hori bereziki ahalmen ekonomiko handiko jendeak egindakoa dela: legearen zirrikituak aprobeztatuz, kontabilitate bikoitzak eramanez, paradisu fiskalak erabiliz...

Ez dakit iruzur fiskal hori oso-osorik ekidin ote daitekeen, baina diru publikoa kudeatzen dutenek gehiago egin dezaketela gauza jakina da: klientelismoa, nepotismoa, mesede itzulketak...

## Kubatik itzulia

2012an LABeko pentsiodunek Kubara joateko parada izan genuen. Igor Urrutikoetxea, 38 urte zituela duela gutxi Brasilen istripuz hil berria zen orduan sindikatuan nazioarteko arduraduna eta lan eskerga egin zuen bidaia hartan Confederación de los Trabajadores de Kuba (CTC) sindikatoko arduradunekin eta beste zenbait jenderekin harremanak izan gintzan. Alderdiko zenbait kargurekin egoteko aukera ere izan genuen. Hemendik hara joandako eta ihes egindako jendearekin bazkari eta afari atsegin batean biltzeko parada ere ez zen falta izan. Herrimina nabaria haiengan ere.

Apirilaren 28an joan ginen eta Maiatzaren Lehenean urterro egin ohi duten manifestaldi erraldoian Raul Castroren lekutik hamar metrora egotea egokitu zitzaigun. Datua besterik ez da, ez dezala inork harrotasun punturik ikusi hor.

Eta Maiatzaren 2an urtero Kubako herriari nazioarteko elkartasuna adierazteko ekitaldia handi bat egiten da *Palacio de las Convenciones* deitutako areto erraldoian. Mundu osoko delegazioak zeuden han. Ez dakit dena ongi egiten duten, baina handik eta hemendik horrenbeste eraso jasotzen dituen herriak merezi du elkartasuna ere jasotzea. Eta hamar minutuko elkartasun hitzak han esateko dozena bat delegaziok izaten badute, LABkideei eman zitzaigun eta haien izenean egitea niri egokitu zitzaidan. Segur aski gogoan gordeko dudan une bat da, beste garrantzirik eman gabe.

Gure artean Kubako kontua aipatuz gero, inork ez daki eztabaida noraino helduko den. Denok jarrera tinkoa dauka, ez dago guretik mugituko gaituenik, eta besteak dira dogmatikoak.

Bi argudio mota garatzen dira mantra modura bide paraleloak jarraituz eta elkarren arrazoiei muzin eginda.

Batzuentzat han Fidel Castrok komunismoaren diktadura inposatu da “manu militari” eta miseria eta askatasun faltak



itotzen ditu bizilagunak. Badute arrazoirik hori esateko: hemengo komunikabideen mezua hori da eta mundu guztia ados badator horretan, zerbaitengatik izango da. Argudio eskasa, baina askorentzat nahikoa. Are gehiago, norbaiti entzun izan diot han Fidelek sozializatu duen gauza bakarra pobrezia dela.

Besteentzat Fidelek Kuba askatu egin zuen eta sozialismorako urratsak ematen ari da. 50 urte hauetan emaitza hobeak eman ez baditu, kanpotik, –Kuban esaten den bezala, Inperiotik– ezarri zaien isolamenduagatik izan da, batez ere.

Kuban 10 egun pasata itzuli den zenbait jendek hango errealitatearen barne guztiak ikasi balitu bezala hitz egiteko ohiturarekin itzuli izan da. Ez nuke bekatu horretan erori nahi. Aurretik nahikoa irakurria nuen Kubari buruz, hara joan eta ikusten duzuna guretzat ez ohizkoa da, eta ez naiz gauza sentitzen hango errealitateaz inori lezioak emateko.

Esan dudan bezala, hango azpiegiturak, hirietako kale eta urbanizazioak, saltokietan dagoen eskaintza, jatetxeetan aurki dezakezuna, garraioa... Gu bestela ohituta gaude, Euskal Herrian, gabezia-gabezia, beste erosotasun batean bizi da jende gehiena. Eta gauzak horrela, oso erraza da besteren iraultzaren aldarrikapena egitea, ondorioak zuk jasan gabe. Argi daukat: egingo duten bidea, euren erabakia izan behar da eta urratsak emateko kuraia baldin badago, atseginez ikusiko nuke Kubak kapitalismoa ez den gizarte berri bat erdituko balu.

Izan ere, Kubaren salaketara dedikatzen direnak ere ez naute konbentzitzen. Han sortu nahi duten sozialismoa prozesu bat da; esklabotzaren parekoa zen hango bizimodua duela 50 urte, ipar-amerikarrak ziren hango ekoizpenaren jabe eta orduan ere miseria handian bizi ziren gehienak. Beraz esan dezagun, orduan baino okerrago ez daudela orain. Hori gutxi dela? Agian bai.

Baina sozialismoaren errua al da? Ongi letorkiguke hausnarketa zintzo bat egitea.

Izan ere, sistema kapitalista duten inguruko herrialde askotan azpiegiturak, hirietako kale eta urbanizazioak... ez dira Kuban baino hobeak.

Eta zenbait gauzatan beste herrialde horietan eman ez diren urratsak eman dira Kuban: hezkuntzan, osasun zerbitzuetan... Benetan uste dut Kubaren etorkizuna ez dela oparoa izango berriro kapitalismora itzuli eta amerikarren putetxe bihurtuta. Hori bakar batzuentzako soluzioa izango litzateke eta ez kubatarrentzat.

Fidelek pobrezia sozializatu duela? Asko gara hemen ere pobrezia sozializatu eta aberastasunak pribatizatzen direla uste dugunak. Hobe al da hori? Zergatik ez gara kritikoagoak kapitalismoak, bere-berea duen aberastasunaren banaketari esker, mundu guztian zabaldu duen eta zabaltzen jarraituko duen miseriarekin? Merkatuen sistema honetan ekoizpena eta ondasun banaketaren ziklo osoa aztertu behar dugu eta gero hitz egin Kubako esperientziaz edo- ba kapitalismoaren onurez.

Kapitalismoa jada ez da gauza sortzen dituen arazoei irtenbide bat emateko. Kapitalismoak bizirik dirauen egun ba-koitzeko gero eta gutxiago dira bizitzeko adina dutenak eta gero eta gutxiagoren eskuetan biltzen da aberastasun osoa. Munduak ez du etorkizunik gaurko ekonomia eredu horrekin.

Diktadura ei da Kubakoa. Hori da beste argudio bat. Han hauteskundeak egiten dira, badute horretarako protokolo bat: lantegietan, auzoetan... Hemen egiten direnak ezberdinak dira. Baina, ez nago oso konbentziturik hemengoa demokrazia izena merezi ahal izateko adinakoa den. Joan sistema aztertuz: legegintza, justizia, komunikabideak, lanaren banaketa, ekoizpen ereduak... Oso dudan jartzen dut merkatuen sisteman sortu diren demokrazien kalitatea. Beste orrialde batean aipatu dut Xabier Arzalluzen iritzia, demokrazia dela akatsik gutxien duen sistema. Baina akats horiekin alderdi politiko batzuk eroso bizi dira, ez dute hobetu nahi. Injinerutza politiko galanta garatu da demokrazia horren gainera gutxiengo

baten agintea ezartzeko: kapitala, enpresak, indar militarrek, indar faktikoak, hitz batez esateko.

## Antolatu beharra dago

Gu ez gaude sozialismorako bidean. European garaiotan oso zaila da bide hori egitea. Eta bien bitartean kapitalismoak sortzen dizkigun arazoei erantzuten jardun beharra dago. Lehen jubilatutakoan, sindikatutako langileek baja ematen zuten eta sindikatuak ez zeukaten ardurarik pentsiodunekin zer gertatuko. Baina gorago aipatu dugun egoeraren larriak kezka sortu du jubilatuen artean. Eta ez motiborik gabe.

Duela 4-5 urte LABen ibilitako batzuk hutsune hori antzeman eta urrats batzuk ematen hastea erabaki zuten. Ordua zen jubilatutako zentroetako mar-mar eta kexetatik haratago joateko: antolatu beharra zegoen.

Ez da lan erraza. Jubilatutako mesfidantza handiko jendeak gara eta ez arrazoirik gabe. Kosta egiten zaigu arazoei heldu eta beharrezko diren urratsak ematen hastea. Botere publikoarengan jartzen dugu konfiantza osoa. Eta botere publikoak ere ahaleginak egiten ditu konfiantza hori erretira ez diezaioten: pentsiodunen zentroen mantenimendua bermatzen du, han kafe-kopatxoaren prezioa berezia da, arduradunak ere kontrolatzen ditu... Ohartu gabe bahituta dauzka sarri.

Baina egoerari buelta eman nahi badiogu ezin dugu orain bezala jarraitu. Gure buruari eta, batez ere, seme-alaben eta geroko belaunaldien etorkizunari zor diogu. Ezin dugu geure buruari iruzur eginez jarraitu. Mahai gainean daude kartak: begira ditzagun nolakoak diren gureak eta ea markatuta dauden besteenak. Egungo egoera krisiak ekarri duela pentsatzea izan daiteke lasaigarria. Horrela krisia doanean ekarri duen miseria guztia berriro eramango egingo luke. Baina hori

gezurra da. Krisiak aitzaki ona eman die batzuei hartu dituzten neurriak hartzeko, baina askoz lehenago diseinua eginda zeukaten, eta krisia joan dela esango diguten egunean –hasiak dira kimuak ikusten– zaborra hor geratuko da. Uholdea amaitzen denean bezala.

Une honetan gu Hego Euskal Herrian pentsiodunen plataformak antolatzen saiatzen ari gara. Egoera hau, lehen esan bezala, ez da krisialdi puntual batek ekarri duen fruitua, aspalditik zegoen zirriborroa eginda eta gure artean geratzeko etorri da. Beraz, guk ere luzaro iraungo duen borroka antolatu behar dugu.

Aurreko urtarrilean pentsiodunek Gizarte Segurantzako titularraren eskutitza jaso dugu eta nirean, behintzat, honelaxe zion hitzez hitz: “...jakin ezazu indarrean dagoela pentsioak errebalorizatzeko formula berria... pentsioak urtero igo egingo direla eta ez direla sekula izoztuko bermatzen duena”.

Ez dauka bere buruaren estima handirik horrelako petralkeria esateko edo, bestela, pentsiodunak ergelak garelako uste du. %0,25 igota guk nekez erosi ahal izango dugu aurtengo pentsioarekin aurreko urtean erosi genuena, eta halaxe gabil-tza azken urte hauetan: urtea pasa eta pentsio berriarekin ezin diogu aurreko urteko mailari eutsi. Hori matematika hutsa aplikatuz, pentsioak jaistera da.

Pentsiodunen plataforma berri hauetako oinarrizko eskaria honela laburbilduko genuke:

1. Pentsioak urtero KPIren arabera eguneratzea.
2. Pentsioa gutxienez pobrezia deitzen dugun marraren gainetik egotea.
3. Pentsioak eta Gizarte Zerbitzuak Eusko Gobernuaren eskuetara pasatzea.

Hirugarren puntu hori Gernikako Estatutuan bertan jasotzen da eta 30 urte aspaldi pasa eta gero, oraindik ez da lortu. Madrilek bere interesak izango ditu baina Jeltzaleen ja-

rrera harritzekoa da. Ez zaigu iruditzen eskumen hori lortzeko ahalegin handia egin duenik, ezpada behintzat “diskrezio” handiz. Eskumen hori hemen balego, pentsiodunok hurbi-lagotik jarraituko genuke haien kudeaketa eta nekez egingo lirateke azken urte hauetan egin diren murrizketak. Hurbiletik beste presio bat egiten da.



## Bukaera bezala

Ez naiz idazlea, baina letraz inguratuta bizi izan naiz beti. Oso gaztetatik hasi nintzen nire inguruko gertakizunetan idatziz parte hartzen. Are gutxiago naiz historialaria, baina, zorionez, oso une eta gune interesgarrietan egoteko parada izan dudanez, zenbait gauzaren testigu izan naiz. Gizakiaren bizitzak gehienez 70 urte irauten duela dio Liburuak, eta osasuntsuak izanez gero, 80. Tarte horretara heldua naizenez gero, eta beste asko “euren egia” esatera ausartu direnez, nik ere “nire egiatxo” hona ekarri nahi izan dut. Ea denon “egia zatiak” bilduz, bidean aurrera egiten dugun. Hitza damaiot irakurleari idatzi dudana zintzotasunez idazten saiatu naizela eta alde horretatik, agian, laguntza gerta dakioke nik esandakoa. Orri hauetan esandakoa sinisteko baino gehiago, hura ere “bere egia” borobiltzen joan dadin.

Hausnarketa franko jarri dut, bizi izandakoaren aitzakia-tan. Zenbateraino den fundamentuzko hausnarketa? Hori besterik da. Irakurlea liburu hau eskuetan daukala dagoen unean, agian ordurako hausnarketa batzuk ez zaizkit egokiak irudituko niri neuri. Gizakia ez dudala gauza estatikoa bezala ikusten nioen hitzaurrean. Horregatik sarritan egun berria hasterakoan bezperan esan edo pentsatzen nuena zuzendu beharrean aurkitu izan naiz sarri. Horrela gaude eginda.

Orri hauetan idatzita jarri dudana ez da nire fruitua: joan etorri askotan, inguruko jendearen ekarpenetan, eta beste hainbeste harremanetan mamitu den pentsamendu bat

baizik. Sarritan ahaztu egiten da hori, baina bakoitzak bere pentsamendua bezala jotzen duena, ingurukoek pentsatzen, esaten eta egiten dutenaren fruitua da batez ere. Hizkiak nik lotu ditu baina lerro artekoa jende askorena da. Airean dagoen hezetasuna goizean, freskotasunari eskerrak, belar hostoetan ihintza bilakatzen den erara.



## **OROITZAPENAK**

### **BILDUMA**

1. Anton Jauregizuria: *Tiempos de insurgencia*, 2006.
2. Joseba Felix Tobar: *Amerindiar erreserbetako ondoezak Annie Maeren izpirituan (I)*, 2008.
3. Joseba Felix Tobar: *Amerindiar erreserbetako ondoezak Annie Maeren izpirituan (II)*, 2008.
4. Karmelo Ayesta: *Goza daiteke gehiago. Euskaldun baten hizkuntza-bidaia*, 2014.
5. Mikel Arginarena: *Neronek bizi izandakoa*, 2014.